

NIKOMAKORENTZAKO ETIKA

HITZAURREA

Itzulpen elebidun hau grekoz eta euskaraz argitaratzea pozgarri zaigu denoi, orokorrean kultura eta bereziki filosofia maite dugunoi batez ere. Pozgarri, euskal pentsamendu eta kulturaren ikuspegitik harturik, filosofiako lanik handienak euskarara itzultzea ekarpen ederra baita guretzat. Pozgarri ere bazaigu, era berean, Aristotelesekiko zaletasuna tradizio handi eta zabalekoa baita gure artean, eta argitalpen hau tradizio hori aberastera eta sendotzera dator.

Corpus aristotelicumen badira etikari buruzko hiru lan, Etika Handia, Eudemorentzako Etika eta Nikomakorentzako Etika deritzenak. Estilo eta hizkuntza kontuengatik, bereziki, bada susmoa Etika Handia ez dela Aristotelesek idatzia. Beste biei dagokienez, aldiz, ez dago egileari buruzko duda izpirik ere. Are gehiago, badira zantzuak baieztatzeko Nikomakorentzako Etika geroago idatzi zuela Eudemorentzako Etika baino.

Nikomakorentzako Etikan Aristotelesen pentsamendu helduaren gogoeta etikoak ditugu. Osaketari eta pentsamendu-batasunari dagokionez, lan honek ez ditu bere baitan Metafisikak sorrarazten dituen arazoak (horretaz mintzatu ginen sail honetan grekoz eta euskaraz argitaratutako argitarapen elebidunaren “Hitzaurrean”). Nikomakorentzako Etika osatzen duten liburuen elkarloturak ez du arazorik (zailtasun berezirik) sortzen edukien interpretaziorako. Bestalde, ez da doktrinaren beraren hutsaltasun nabarmenik sumatzen. Nikomakorentzako Etika, bere osotasunean, funtsean, edukietan koherentea den lana da.

Nikomakorentzako Etika hamar liburuz osaturik dago. Bertan aztertzen diren gaiak eta agertzen diren galderen ordena honela adieraz daitezke laburki:

- (1) I. liburuan zorientasuna erabateko ondasuntzat eta giza biziaren azken helburutzat hartzen da.
- (2) II. liburua bertuteari dagokio. Lehengotik bigarrenerako pausua orokorrean zuzenetsita dago, berezko giza ekintzetan egintza bat bezala, non zorientasunaren berezko sorkuntza bikain, akatsgabekoa dela pentsatzen baita. Bada, edozein ekintzaren ontasun edo akatsgabeketasunak egiteko joera bat eskatzen du, eta hauxe da, hain zuzen ere, bertutea. Zehatzago esateko, bertute desberdinen azterketa (intelektuala eta etikoa, izaerarena) I. liburuaren azken atalean sartzen da, giza arimaren arrazoi eta arrazoi gabeko aldean bereizketatik aurrera.
- (3) III. eta IV. liburuetan bertute etiko desberdinak aztertzen dira.
- (4) V. liburu osoa bertute bati buruz ari da: justizia.
- (5) VI. liburua bertute intelektualei dagokie.
- (6) VII. liburua meneratze ezari eta plazerari dagokio.
- (7) VIII. et IX. liburuek adiskidetasunari buruzko ikerketa handi bat jasotzen dute. Aristotelesek dioenez, bertutea da, eta bertuterik gabe ez dago.
- (8) X. liburuan, azkenik, alde aurretik ikertutako bi gai berrikusten dira: plazerak jarduerari lotuta (1-5 atalak) eta begiespen jarduera, bizitza erabat zoriontsua (6-9); liburuaren amaieran (10) beranduago aztertuko diren arazo politikoak aipatzen dira.

Ondoren, obra honetan Aristotelesek eginiko hausnarketa etikoaren oinarritzko lerroak eta funtsezko edukiak adieraziko ditut.

(I)

Jatorriz seguru asko platoniar den sailkapen bati jarraituz, Aristotelesek hiru eremu bereizten ditu errealitatean, hurrenez hurren hiru zientzia edo jakintza-mota sortzeko bidea ematen dutenak; badira errealitateak, zeintzuen izatea, ezaugarriak eta prozesuak edonolako giza partehartzetik kanpo dauden: gizakiak, hain zuzen ere, ezin du ezer egin astroen bidea edo irudi geometrikoen ezaugarriak aldarazteko. Errealitate horien aurrean egin dezakegun gauza bakarra errealitate horiek ezagutzea da. Horiei buruzko gure ezagutza ez zaio inolako jarduerari zuzentzen, begiespen-ezagutza besterik ez baita. Eremu horri jakintza edo zientzia teorikoak dagozkio.

Hala ere, badaude bestelako eremuak zeinetan gizakiak, prozesuak hasiz eta zuzenduz, hau da, errealitatean aldaketak sartuz, parte har dezakeen. Giza jarduerari irekita dauden eremuok bi dira: (poiesis) ekoizpenaren objektu denaren eremua eta (praxis) ekintzaren objektu denaren eremua. Lehenengoari jakintza eta zientzia ekoizleak dagozkio (arkitektura, medikuntza e.a.), hau da, Aristotelesek generikoki téchne hitzaz (arteak, lanak, teknikak) izendatzen dituenak. Ekintzaren eremuari, bestalde, jakintza eta zientzia praktikoak dagozkio. Etika –eta, orokorrean, politika– zientzia praktiko nagusia da.

Etika giza bizitzaz arduratzen da. Politikan Aristotelesek argi eta enfatikoki baieztatzen du: Bizitza ekintza da, ez ekoizpena (I, 4, 1254a 7); bizitza ekintzaren eremuari dagokion zeregina da, eta ez ekoizpenaren eremuari. Adierazi berria dugunez, ekoizpena eta ekintza edo praxisa oso jarduera desberdinak dira. Ekoizpena, hain zuzen ere, hura bera ez den zerbait ekoizten duen jarduera da (eraikitze-jarduerak etxe bat ekoizten du); horrela, bada, ekoizle-jardueraren helburua eta jarduera bera desberdinak dira. Aitzitik, ekintzak edo praxisak ez du inolako ezer sortzen, hura bera izan ezik; beraz, helburua jarduera bera besterik ez da. Orduan, bizitza praxisa dela baieztatzea bizitzaren helburua bizitza bera besterik ez dela baieztatzea da, hau da, bizitzaren helburua bizi izatea besterik ez dela, eta ahalik eta osoen eta ahalik eta ondoen bizi izatea. Hori lortzeko bidea da, hain zuzen ere, etikak –filosofia praktikoak– argitu behar duen gai nagusia.

Irakurleak ikus dezakeenez, Nikomakorentzako Etika (NE) baieztapen orokor batez hasten da: Badirudi arte orok eta ikerketa orok –eta, era berean, ekintza orok eta hautapen orok– ongi jakin baterako joera dutela (I, 1, 1094a 1-3). Ez da pentsatu behar adierazpen sartzaile hori hutsala eta goratua denik; aitzitik, zehatz-mehatz adierazten du zein eremutan kokatuko den Aristotelesen ikerketa etikoa. Giza jarduera guztiek, bai ekoizleak bai praktikoak (ekintza oro eta hautapen oro irakurtzen dugu testuan), ongi jakin bat bilatzen dute, helburu jakin baterako joera dute. Giza bizitzari buruzko ikerketa, beraz, helburuen eremu horretan gauzatuko da, giza ekintzaren nahikotasuna kontuan hartuz.

Ikerketa-eremu hori ezartzerakoan, Aristotelesek badaki zein zailtasuni aurre egin beharko dien. Izan ere, hark berak jarraian adierazten duenez, bilatzen diren ongiak asko eta oso desberdinak dira –kontuan hartuta gizakiek aurrera eramaten dituzten ekintzak hainbeste direla–, eta ona, justua eta ederra denaren inguruko iritziak hain dira desberdinak, non ongi haiek badirudi hitzarmenezkoak direla bakarrik eta ez naturalak (I, 2, 1094b 16). Zentzuzko egiaztapen horrek bultzaturik, Aristotelesek, segituan, aipamen bat egingo du ikerketa etikoaren ezaugarriei eta metodoari buruz. Lehenik eta behin -- esango digu--, zentzugabea litzateke etikari buruzko ikerketan zientzia matematikoetan exijitzen dugun irmotasun eta zehaztasun maila eskatzea; bere objektuaren izaera ikusita, poztuko gara gai etikoak trakets eta zirriki-marraka (Ib. 1094 b 20) argitzen baditugu. Bestalde, kasu bakoitzean eta sistematikoki, indarrean dauden iritzi desberdinak hartu beharko dira kontuan, eztabaidatuz, kontrastatuz eta, ahal den neurrian, elkarri egokituz, azkenean justifikaturik gera daitezen, ez badira denak, bai, behintzat, sendoen eta zentzuzkoenak.

Iritzietan etengabe jarritako interes horrek izaera erabat dialektikoa ematen dio etikaren metodoari, ondo ulertuta ere iritzi guztiek atentzio berbera merezi ez dutela. Gai garrantzitsuei dagokienez –eta gure bizitza nola bideratu oso gai garrantzitsua da-- balio handia du gizakirik serioen iritziak kontuan hartzeak. Gizaki horiek gure kreditu eta atentzia merezi dituztenak dira.

Horrela, bada, beren bizitzan gizakiek bilatzen dituzten ongiak eta helburuak asko eta oso desberdinak dira: plazera, boterea, dirua eta giza ohorea, besteak beste. Aniztasun horren aurrean, Aristotelesek, lehenengo pauso bat ematean, ongi gorenaren bat zehaztea litekeena ote den galdetuko du, hau da, azken helburu bat, norantz haren menpe, bai eremu pribatuan bai eremu politikoan, bilaturiko ongi eta helburu guztiak bideratuko liratekeen.

Errealitatean unibertsal den iritzi bati jarraituz, azken helburu bat badagoela adieraziko du Aristotelesek, eta hori, hain zuzen, zoriontasuna dela: Izenari dagokionez, ia jende guztia dator bat. Izan ere, bai herri xeheak bai dohaintsuek zoriontasuna deitzen diote (I, 4, 1095a 17-19).

Denak datoz bat, bada, izenari dagokionez, eta denek erabiltzen dute zoriontasun hitza azken ongia aipatzeko. Baina izenari dagokionez bat etortzea ez da aipaturikoari dagokionez ere bat etortzea. Izan ere, zoriontasuna modu anitz eta oso desberdinetan uler daiteke. Beraz, izen berberaren azpitik iritzi-aniztasun eta desadostasuna sortzen dira berriro.

Desadostasun iraunkor horren aurrean edozeinek har lezake etsia, edozeinek bazter lezake ikerketa, etsi-etsian onartuz norberari bere iritziaren arabera dagokiola bizimodua, eta hor konpon nor bere iritziekin eta bere bizitzarekin. Hala ere, Aristoteles jarrera ez da hori izango; erlatibismo etsi horretatik urrun kokaturik, Aristoteles saiatuko da zehazten eta argitzen giza zoriontasuna zertan den. Momentu honetatik aurrera, ondorengo azalpenak ez dira azalpen sartzaileak izango; aitzitik, gaiaren funtsa joko dute.

(II)

Aristotelesek zoriontasunaren gaia nola aztertzen duen zuzen ulertzeko NEren irakurleak ondorengo bi oharra hartu beharko ditu kontuan: lehenik eta behin jakin behar da Aristotelesek zer esan nahi duen “zoriontasuna”-z hitz egiten duenean. Gaur egungo irakurlearentzat “zoriontasun” hitzak (eudaimonia hitz grekoa itzultzeko erabili ohi dugunak) eta “zoriontsu” izenondoak badute eragozpen bat: ospetsuegia zein hutsalegia izatea. Izan ere, gaur egungo hitz horien hutsalkeria agerian ikus dezakegu pertsona askori, edozein huskeriagatik (opari edo sari txiki batengatik, alegia) “zoriontsua” dela entzuten diogunean. Aristotelesek zoriontasunaz hitz egiten duenean ez du aipatzen uneko edozein poz, zoriontasuna bizialdi osorako kontua baita, bizialdi osoari dagokio, beraz, eta izan, bizi, aukeratu eta jokatzeko modu iraunkor jakin bat dakar berarekin. Bestalde, helburua ez da edozein poz hutsal, gure bizitza ahalik eta hobekien bizitzeko aukera baizik. Azken finean, zehaztu behar da bizitza betea, atsegina eta bizigarria zer den. Aristotelesen ustez hori da zoriontasuna.

Irakurleak kontuan hartu behar duen bigarren oharra ondoko hau da: “azken helburu” gisa harturiko zoriontasunaren inguruko ikerketan Aristoteles ez da geldituko iritzi desberdinen arteko eztabaida hutsean. Izan ere, oinarritzko gai honi buruzko iritziak baloratzeko, iritzi haietatik atera behar da lehendabizi, eta ondoren, gai horri dagokionez, irizpide sendo bat edukita, ikerketara bueltatu. Ikusten genuenez, ongiak eta helburuak zehazterakoan sortzen den iritzi-aniztasunaren aurrean, Aristotelesek esango du badirudi hitzarmenezkoak direla bakarrik, eta ez naturazkoak (I, 7, 1094b16). Hala ere, hori ez da Aristotelesen ustea. Azken helburuari buruzko galdera erantzun daiteke eta erantzun behar da argituz gizakiaren eginkizuna zein den (I, 7,1097b 22). Bestela esanda, gizakiaren izaeraz galdetu behar da.

Aristotelesek gizakiaren berezko jarduerari buruzko gogoeta honako urratsen arabera garatzen du: (a) gainerako bizidun, landare eta landugabekoen aurrean, gizakia bere arrazionaltasunagatik nabarmentzen da. Beraz, bere eginkizun edo jarduera arrazionalki bizitzea izango da. (b) Gizakiak badu arrazoia, baina bere izateak badu arrazionala ez den osagairik. Horren baitan badira bi atal desberdin. Batak ez du inolaz ere arrazoian parte hartzen: atal begetatiboa da hori, alegia, bizi funtzioen multzoa, landareena bezalakoa (elikadura, ugaltzea...). Funtzio horiei dagokienez, ez du zentzurik arrazoiz bizitzeaz hitz egitea, ez baitute arrazoian parte hartzen. Besteek, aldiz, arrazionalak ez izanik ere, arrazoian nola edo hala hartzen dute parte, arrazoimenarekiko entzule eta esanekoak diren neurrian (I, 13, 1102b 29). Arimaren gogo-aldea izena du horrek, eta grina, emozio, atsegin, min, gogo eta desirak biltzen ditu. Atal hori obeditu edota arrazoiaren menean egon daitekeenez, horretaz, bai, esan dezakegu arrazoiz bizi. (c) Bereizketa hori eginda, arrazoiz bizitzeak gizakiarengan bi adiera dituela esan dezakegu: lehena, arrazoiaren egintza burutzea, ezaguera, hain zuzen ere. Bigarrena, grina, emozio, desira, atsegin eta minei dagokienez,

arrazoiaren menara aritzea. Aristotelesek gizaki beraren jarduna arrazoizko jardura edo ez arrazoirik gabekoa (I, 7, 1098a 7-8) dela dioenean, arrazionalki bizitze horren alde bikoitzaz ari da. (d) . Baina norberak bere jarduna burutzea ez da nahikoa. Ondo, perfektuki, kaskarkeriarik eta aldigaiztorik gabe burutu beharra dago. Aristotelesek hori argitzeko zitara-jotzailearen adibidea jarri du: horren jardura zitara jotzea da. Zitara-jotzaile onarena, ordea, ondo jotzea da. Modu berean onartu behar da gizakiaren egintza arrazionalki bizitzea bada, gizaki onarena, perfektuarena, aldiz, arrazionalki, era bikainean, perfektuan, eskaskeriarik eta kaskarkeriarik gabe bizitzea izango dela. (e) Bikaintasuna, perfektutasuna, grekoz areté hitzaz adierazten da. Eskuarki bertute hitzarekin itzuli izan da. Areté edo bertutea ez da egiteko gaitasun hutsa, egiten dena ongi egiteko gaitasuna baizik. Zitara-jotzaile onak, bikainak, berari dagokion bertute edo arete-a du: zitara jotzeko gai izan ez ezik, ondo jotzeko ere bada gai. Aristotelesek dioenez, orokorrean eginkizun oro berez dagokion bertutearen medio betetzen da (ib. 1098a15-6). (f) Azterketa zehatz hori egin ondoren, Aristotelesen ondorioa hau da: giza ongia bertutearen arabera arimaren jardura da. Eta bertuteak batzuk baldin badira, onenaren eta beteenaren arabera izango dira (ib. 1098a 16-18). Horrela, bada, gizakiaren berezko jardueren gauzatze bikaina da, dagozkien bertuteetan oinarrituta. Zentzuzkoa da Aristoteles bertute anitzez mintzatzea, giza egintzak anitzak baitira. Dena den, giza ongia bertuterik perfektuenean gordetzen dela argi adierazten du, eta hori, era berean, giza egintzarik perfektuenean.

(III)

Aristotelesek –gai honi dagokionez Platonen dizipuluak-- ez du dudarik edukiko gizakiari berez dagozkion jardueretan perfektuena zein den esateko. Egia esan, hori ezarrita geratu zen giza ariman alde batetik arrazoiak eta beste aldetik alde irrazionala bereiztu zituenean. Gizakiaren alderik perfektuena arrazoiak da, eta jarduerarik perfektuena arrazoiaren jardura: ezagutza, begiespen-jardura, jardura teorikoa. Eta gizakiak jardura honetan lor dezake zoriontasuna zentzu gorenean. Tesi horren adierazpenik gogotsuen eta sutsuena X, 7. atalean irakur daiteke:

Zoriontasuna bertutearen arabera jardura bada, zentzuzkoa da bertute gorenaren arabera izatea, eta jardura hau gizakiaren alde onenarena izango da. Hortaz, alde hori adimena nahiz beste edozer izanik, berez agintzen, gidatzen eta gauza ederrei eta jainkozkoei buruzko ezaguera izaten omen duena, nahiz hori bera ere berez jainkozkoa edo gure baitan dagoen alderik jainkozkoena izan, alde horren jardura berez dagokion bertutearen arabera izango da zoriontasun betea... (X,7,1177a12-17)

...baina, horrelako bizitza gizakiari dagokiona baino hobea izango litzateke, ez baita horrela bizi izango gizakia den aldetik, bere baitan jainkozkoa den zerbait dagoen aldetik baizik; eta hori eta giza konposatua desberdinak diren neurrian, bere jardura eta beste bertute baten arabera ere desberdinak izango dira. Hortaz, adimena, jainkozkoa baldin bada, gizakiari dagokiolarik, adimenaren arabera bizitza ere jainkozkoa izango da giza bizitzari dagokiolarik. Baina gizakiak izan arren ez ditugu giza pentsamenduak bakarrik eduki behar –batzuek aholkatzen duten bezala–, ezta hilkorak izanik pentsamendu hilkorak bakarrik eduki ere; aitzitik, ahal den neurrian

hilezkortu eta gure baitan dagoen alderik gorenaren arabera bizi izateko gauza guztiak egin, bolumenari dagokionez txikia bada ere, gauza guztien artean nabarmentzen baita bere ahalmenean eta bere duintasunean. Iruditu liteke, halaber, gizaki bakoitza alde hori dela, alde hori norberaren alde nagusia eta onena bada, behintzat. Beraz, zentzugabea izango litzateke baten batek bere bizitza aukeratuko ez balu, beste batena baizik. Eta lehen esandakoa orain ere bada egokia, gizaki bakoitzarentzat izatez dagokiona onena eta atseginena baita bakoitzarentzat; hortaz, gizakiarentzat ere izango da adimenaren araberako bizitza, gizakia, gehienbat, hori bada, behintzat. Bizitza hau izango da, orduan, zoriontsuena ere (1077b27-78a8)

Irakurleak, seguru asko, Platonen melodia bereziaren oihartzunak sumatuko ditu. Izan ere, gizakiarentzako zeregin moral gisa Platonek espresuki proposatua zuen ahal den neurrian jainkotasunera berdintzea (Teeteto, 176B; ikus. Timeo, 90C-D ere). Hala ere, Aristotelesen ustez zeregin hori jarduera intelektual izango da nahitaez, substantzia lehen eta jainkozko hori jarduera pentsatzea duen izaki zoriontsua baita: Aristotelesen ustez, Jainkoa pentsamendu hutsa da, pentsamenduaren pentsamendua (Met. XII, 9, 1074b 33-35).

Proteptikon (oinarriz platoniarra den idazkian) gogotsu defendatua zuen gizakiaren berezko helburua jarduera intelektual dela (Rossen 11. pas.). Tesi hori birjasotzen duenean, Aristoteles ez da, hala ere, Platonen jarraitzaile leiala. Eta hortik testu honetan ikusten den tentsioa, bai doktrinan, baita Aristoteles baliatzen den adierazpenetan ere. Izan ere, azken batean, jokoan dagoena gizakia nola ulertu eta definitu behar den da. Auzia agerian azalarazten da Alcibiades I-ean, mami platoniarreko elkarrizketa zalantzagabe (zenbaitek jatorria zalantzan jartzen badio ere): zer da, bada, orduan gizakia? (129E). Elkarrizketan bertan ematen zaizkio galderari hiru erantzun aukerakoak: gizakia edo arima da, edo gorputz, edo bien arteko konposatua (130A). Platonentzat (eta Proteptikoko Aristotelesentzat) gizakia arima da, arrazoia da. Aristoteles helduarentzat, berriz, gizakia konposatua da, eta horren naturari dagokio ez bakarrik arrazoia, baizik eta, baita ere, aurretik ikusi dugun moduan, gure baitan gordetzen den irrazionalaren mundua osatzen duen hura guztia. Hortaz, Nikomakoentzako Etikaren testuan arnasten den tentsioa, baita bertako formulazioen anbiguotasuna ere (eta ahuldade literalak bera). Izan ere, baieztatuko da batetik bertan, nola arrazoia eta horri eskainitako bizitza zentzu hertsiko gizatasunaren berezko mugen beste aldean dauden: horrelako bizitza gizakiari dagokiona baino hobea izango litzateke (ib. 1177b 27). Bestalde, ordea, esan liteke nola lerro batzuk aurrerago baieztatzen duen, hain zuzen, arrazoia dela gizakiaren berezko eta beregizkoena; beraz, zentzugabea izango litzateke baten batek bere bizitza aukeratuko ez balu, beste batena baizik (ib. 1178a 2-5).

(IV)

Aristotelesek ez dio uko egingo zoriontasun betea eta begiespen-bizitza berdintzat jotzen dituen tesiari, baina, bestalde, ez du ahaztuko gizakia adimen edo arrazoi soilik ez dela. Gizakiak, gizakia den aldetik, ekintza anitz gauzatzen du eta ekintza anitz gauzatzerak dago behartuta: horien artean, ekintza intelektualak, baina gorputz-beharrek eta bizikidetzak ezarritako ekintzak ere bai. Hala ere, ikusten genuenez, ekintza horiek guztiak modu onenean burutu behar dira; eta modu onenean burutzeko ikusten genuen bertuteak beharrezkoak direla, ekintzak ezin hobeki burutzen baitira

berez dagokien bertutearen arabera (I, 7, 1098a 15-16). Bertuteak funtsezko ikergaia dugu Aristotelesen etikan. NEren lehenengo liburuan bertan, giza arimaren arrazionala eta alde irrazionala bereiztu ondoren, Aristotelesek bi bertute moten arteko bereizketa paraleloa egingo du: gure ezagutza intelektualak hobetzen duten bertuteak --bertute dianoetikoak--, eta gure izaera hobetzen dutenak --bertute etikoak-- (I, 13, 1103a 3-10). Batzuk eta besteak ikertzeari ekingo dio Aristotelesek obra honen alderik handienera zehar. NEren VI. Liburu osoak bertute “dianoetiko” edo intelektualen ikertzeari ekiten dio. Aristotelesek bertuteak zenbatu eta aztertzen ditu, kontuan hartuz oso ezaguna dugun sailkapena, ezagutza teorikoak, ezagutza ekoizleak eta ezagutza praktikoak bereizten dituen sailkapena, alegia. Ezagutza teorikoari (edo, bestela esanda, begiespen-ezagutzari) dagokionez hiru bertute edo arima-egoera bereizten ditu, ulermena egia lorrarazten duten bertuteak, hain zuzen ere:

- 1- zientzia (episteme), frogapenaren bidezko beharrezkoa denaren ezagutza;
- 2- adimena (nous), printzipioak ezagutzeko ahalmena;
- 3- jakinduria (sophia), aurreko biotan parte hartu eta helburua berez bikainena dena (VI, 6, 1141b 2-3) duena.

Ezagutza horiei gehitu behar zaizkie:

- 4- ezagutza ekoizleari dagokiona, hau da, artea edo teknika (téchnē); eta
- 5- ezagutza praktikoari dagokiona, hau da, zuzentzea (phrónesis).

Etikarako eta, orokorrean, politikarako bertute horietan garrantzitsuenak zuzentzea da, inolako dudarik gabe. Aristotelesen esanetan zuzentzea da egiazko eta arrazoizko aztura praktikoa gizakiarentzako ongiari eta gaizkiari buruz (VI, 5, 1140b 4-5).

Zuzentzearen zeregin propioa kasu bakoitzean egokiena buruzko hausnarketa da. Zuzentzeak hausnarketa zuzena bermatzen du; baina hori ez da nahikoa gure ekintzak bertutetsuak izan daitezen. Beharrezkoa da, betalde, hausnarketa zuzenak gomendatzen dituen ekintzak hautatzea. Eta hautapena ez dagokio ezagutzari, desioari baizik. III. Liburuaren 2. eta 3. atalean Aristotelesek hausnarketaren eta hautapenaren arteko harremanak aztertuko ditu. Hautapena gizakiaren berezko gurariaren gauzatzea da, eta Aristotelesek horregatik definituko du gurari hausnartua gisa (III, 3, 1113a 10). Aurrerago, VI. Liburuaren 2. atalean definizio hori errepikatuko du ondoko hau gehituz: hautapena desiratzen duen adimena da, edo desira adimentsua (1139b 4-5). Moralari dagokionez, bada, hautapen zuzena guraria arrazoiari egokitzea da: hautapen zuzena gertatzen da arrazoibidea egiazkoa eta guraria zuzena izaten direnean (ib. 1139a 24-26).

Guztiz prest egon behar da, beraz, hausnarketa zuzenak gomendatzen dituen ekintzak hautatzeko. Adiurre irmo hori bada bertute etikoa, izaeraren bertutea, alegia. II. Liburu osoan zehar Aristotelesek bertute etikoaren inguruko ikerketa orokorra garatuko du, azkenean horrela definituz: nahita hautaturiko aztura bat da, guri dagokigun erdikotasunean datzana, kontuan hartuta erdikotasuna gizaki zuzenak zehatz lezakeelarik (II, 6, 1106b 3-6) definituz. Definizio arrakastatsu hori osatzen duten hitz bakoitzak Aristotelesen etika ikertu nahi duenaren atentzioa merezi du. Bertute etikoa --esaten digu Aristotelesek-- aztura bat da. Aztura modu jakin batean jokatzeak joera bat da, nolabaiteko ekintza burutzeko joera. Baina badaude berezko ditugun joerak --gure hornitze naturalari dagokionak, alegia-- eta joera jasoak --ikasitakoak--. Bertute

etikoak joera jasoak dira. Jasoak izan diren aztura bezala, bertute etikoak ere dagozkien ekintzak errepikatuz jasotzen dira (zuhurra izaten zuhurtasunez jokatzaz ikasten da, ausarta izaten ekintza ausartak eginez, eta horrela gainerako bertuteak). Aristotelesen aldetik zirkunstantzia horrek ondorio garrantzitsuak dakartza, eta horien artean ondoko bi hauek: lehendabizi, bizitza etikorako Aristotelesek hezkuntzaren garrantzia azpimarratuko du: gaztetatik horrelako edo halako ohiturak lortzea ez da huskeria; aitzitik, garrantzi handia du, edo, hobeto esanda, erabatekoa (II, 1, 1103b 23-25). Bigarrenik, Aristotelesek onartzen du azturaren eta ekintzen artean nolabaiteko zirkularitatea gertatzen dela, ekintzek azturak sortzen baitituzte eta horiek, aldi berean, dagozkien ekintzen burutzea errazten dute. Aristoteles eragozpen hori askatzen saiatuko da bertuteari egokitzen zaizkion ekintzak eta berez bertutetsuak diren ekintzak bereiztuz. Errepikatzearen bidez bertutea dakarten ekintzak bertuteari egokitzen zaizkio (bestela haietatik ez litzateke sortuko bertutea), baina zentzu hertsian ez dira bertutetsuak; bertutetik datozen ekintzak, berriz, bertuteari egokitu ez ezik, bertutetsuak ere badira. Eta bertutetsuak izango dira nolabaiteko baldintzak betetzen baditu: lehendabizi, ezagueraz egin; bigarrenik, hautatu, eta haiengatik beraiegiatik hautatu; hirugarrenik, tinko eta iraunkor jardun (II, 4, 1105a 31-33).

Bertute etikoa, beraz, aztura da, eta aztura jaso. Bere berezitasuna da modu jakin batean hautatzera bultzatzen gaituen izaera izatea, gure hautapena erdikotasunera gidatzen digun aztura izatea, alegia. Baina erdikotasunera bakar-bakarrik joan daiteke berez gehiegia eta gutxiegi onartzen dituzten bizi-ekintza horiei dagokienez. Eta hori, esan dugunez, pasioen eta ekintzen eremua da, plazerarena eta sufrimenduarena. Aristotelesek esango du bertute etikoaz ari naiz, hori pasioei eta ekintzei buruzkoa baita, eta haietan daude gehiegikeria, gabezia eta erdiko terminoa (III, 6, 1106b 16-17). Eta lehenagotik esana zuen, bertuteak ekintzei eta grinei buruzkoak baldin badira, eta ekintza orori eta grina orori plazera eta atsekabea jarraitzen badiete, horregatik ere izango da bertutea plazerei eta atsekabeei buruzkoa (III, 3, 1104b 13-16).

Baina bertuteak helburua duen erdikotasuna ez da ulertu behar bi muturren arteko erdibide zehatza gisa, gurekiko erdikotasuna gisa baizik. Izan ere, ekintza zuzena den erdikotasuna desberdina izan daiteke gizaki desberdinentzat, eta gizaki berarentzat ere aldatu daiteke kasuz kasu eta baldintzen arabera. Erdikotasunaren “erlatibotasun” hori jan-neurri egokiaren bidez adieraziko du Aristotelesek; izan ere, atleta berriaren eta pisu txikikoaren jan-neurria eskasa izan daiteke esfortzu handia egin behar edo beso-luzera handia duen beste atleta batentzat.

Beraz, bertuteak hautarazten gaituen erdikotasuna erlatiboa da. Baina erlatibotasuna inolaz ere ez da arbitrariotasuna. Erdikotasunaren zehazpena --komentatzen ari garen bertutearen definizioak berak egiten duenez-- arau jakin baten arabera egin behar da. Baina araua ere ez dago aurrez aurretik unibertsalki finkatuta kasu bakoitzean mekanikoki aplikatzeko. Araua ezagutzen duenaren jakituriak, esperientziak eta zuhurtziak zehazten dute. Atleten jan-neurri egokiari dagokionez araua duena entrenatzailea da. Bertute etikoari dagokionez, gizaki zuhurra. Aristotelesen definizioak berak dioenez, arau baten arabera erdikotasuna hautatu behar da, gizaki zuhurrak ezarriko lukeen arau horren arabera, alegia. Hemen berriro ikus daiteke zuhurtziaren garrantzia bizitza moralean.

III. liburutik aurrera, NE osatzen duten liburu gehienek zenbait bertute etiko aztertzen dute (hauen zerrenda eta deskribapenaren eskema II. Liburuaren 7. atalean agertzen da). Testu horien

irakurketaren bidez irakurleak konturatu ahal izango du Aristotelesen proposamen etikoan nola bildu eta adierazten diren garai hartako Greziako gizarte eta kulturaren berezko baloreak. Era berean, ikusi ahal izango du iritziei buruzko Aristotelesen etengabeko eztabaida. NEren aurkezpen honen hurrengo atalean justiziaren eta adiskidetasunaren inguruko zenbait ohar besterik ez dugu egingo.

(V)

NEren V. liburu osoa justiziari buruzkoa da. Abiapuntu gisa, dikaion hitzean (justu edo zuzen euskaraz) Aristotelesek bi adiera bereizten ditu. Justu esaten diogu legeari egokitzen zaion horri, ezarrita dagoen legediari egokitzen zaizkion ekintzei. Zentzu horretan, gauza bera da ekintza bat justua da eta ekintza bat legezkoa da esatea. Baina beste zenbait testuingurutan berdin edo baliokide zentzuan ere erabiltzen dugu. Adiera bikoitz horren arabera bi justizia mota bereizten dira, orokorra bata eta partikularra bestea.

Justizia orokorra edo osoa --legeak ezartzen duenaren arabera jokatzear datzana-- ez da bertute berezi bat --ez da bertute bat besteen artean-- ez baitagokio bakarrik ekintza edo jarduera jakin bati. Izan ere, legeak ez dute agintzen jokabide bakar bat; aitzitik, herritar bakoitzaren eta gainerakoen arteko bizikidetzari eta harremanei dagozkien jokabide guztiei buruzko aginteak ezartzen dituzte. Horregatik, Aristotelesen ustez zuzentasun hau ez da bertutearen zati bat, bertute osoa baizik (V, 1, 1130a 9-10).

Beste justizia mota --Aristotelesek alde batekoa edo partikularra izendatzen duena-- tratu berdina edo baliokidea agintzen duen gizakien arteko harremanei buruzkoa da, doakionak dagokiona jaso dezan. Baina berdintasuna ere bi modukoak izan daiteke, berdintasun hertsia edo aritmetikoa eta proportzionala edo geometrikoa. Berezitasun horrekin batera Aristotelesek, aldi berean, bi modu bereizten ditu justizia partikularrean.

Berdintasun aritmetikoaren arabera doakion bakoitzak gauza bera jasan behar du eta zuzentzaile deituriko justizian aplikatzen da; bere funtzioa hiritarren artean eginiko kalteak zuzentzea da, haien artean eginiko tratu eta transakzioen ondorioak konponduz edo “zuzenduz”, borondatezkoenak --salerosketa edo mailegua, e.a.-- zein nahigabekoenak --hilketa, lapurreta edo eraso, e.a.-- (V, 2, 1130b 31-a9). Irakurleak erraz ikusiko duenez, bereizketa hori gaur egungo bereizketa bati egokitzen zaio: alde batetik kontratu haustura, eta beste aldetik delitu eta bidegabekeriak. (Egia esan, Aristotelesek “nahigabeko” izendatzen dituen transakzio gehienak krimenak dira. Aristotelesek, bere garaiko zuzenbidearen praktikarekin bat etorruta, ez ditu bereiztuko hiri-prozesuak eta kriminal-prozesuak. Gehien interesatzen zaiona zuzenketa, konponketa edo ordainaren ideia nagusia). Azkenik, epaileari dagokio zuzentze-zeregina berdintasuna berrezarritik. Aristotelesek epaileari aplikatuko dizkion hitzak oso adierazgarriak dira: epailarengana jotzea zuzentasunera jotzea da, epaileak zuzentasunaren hezur-mamitzeta izan nahi baitu (V, 4, 1132a 20-22).

Berdintasun geometrikoaren arabera doakion bakoitzak dagokion proportzioa jasotzen du eta “banatzaile” deituriko justiziari dagokio. Justizia mota honen zeregina da ongien, karguen eta ohoreen banaketa herritarren artean, horietako bakoitzaren merituen arabera. Justizia mota horri dagokionez, komenigarria izango da irakurleak kontuan har ditzala ondoko bi oharra: lehendabizi, “ohoreak” eta “ongiak” banatzearen ideia arraroa egiten zaigu, herritarrak estatuko zergadunak baino akziodunak balira bezala. Horregatik, justizia mota horren ondorengo definizioan karguez, ohorez eta onurez gain zamak ere zehaztuko dira. Bigarrenik, banatze-araua edo irizpidea, Aristotelesen ustez, estatu-erakuntzaren printzipio edo balore gorena da eta, horren ondorioz, desberdina izango da sistema politikoaren arabera: askatasuna demokrazietan, aberastasuna eta noblezia oligarkietan eta bertute edo gorentasuna aristokrazietan (V, 3, 1130b 25-29).

Justiziaren ondoan, merezi du azpimarratzea, azkenik, bere etikan Aristotelesek adiskidetasunari (philia-ri) ematen dion garrantzia, adiskidetasunari beste edozein gairi eta beste edozein bertuteri baino espazio handiagoa eskaintzen baitio: NEren bi liburu, VIII. eta IX., hain zuzen ere. Adiskidetasunaren inguruko Aristotelesen zenbait gogoeta, dudarik gabe, bitxiak izango ditu gaur egungo irakurleak. Harridura hau irakurleak kontuan hartu beharko dituen bi zirkunstantziatik dator. Lehendabizi, Aristotelesengandik kultura-distantzia handia dugu: lehentxeago aipatu dugu Aristotelesek, bertuteak hautatu eta ikertzerakoan, bere garaiko kultur eta gizarte grekoaren berezko ezaugarriak bildu eta adierazten dituela. Bestalde, eta bigarrenik, badago nolabaiteko desdoidzea jatorrizko hitzaren eta gure itzulpenaren artean, philia hitz grekoak adiskidetasun euskal hitzak baina esanahi zabalagoa baitu eta eremu zabalagoan aplikatu daiteke. Izan ere, Aristotelesek philia hitzak, zentzu orokorrean, komunitate bat osatzen duten eta elkarri lotuta dauden gizakien arteko elkarrekiko maitasuna adierazten du. Zentzu zabal horretan, philiak adiskidetasuntzat hartzen ez ditugun maitasunak ere jasotzen ditu, maitaleen arteko pasioa edo gurasoen eta seme-alaben arteko maitasuna bezala.

Salbuespen horiek eginda, irakurleak interesgarri eta baliagarriak aurkituko ditu Aristotelesen gogoetak, gehienbat adiskidetasuntzat hartzen dugun philia mota horren ingurukoak. Adiskidetasuna izan dadin, adierazten du Aristotelesek, beharrezkoa da elkarrekiko maitasuna eta maitasun hau bi parteek ezagutzea. Bestalde, elkarrekiko maitasunak oinarri ezberdinak izan ditzake eta filosofoak horregatik bereiztuko ditu hiru adiskidetasun mota: bertutean edo gorentasunean oinarrituta dagoena, plazerean oinarriturikoa, eta erabilgarritasunean edo elkarrengandik lorturiko onuran oinarriturikoa. Jende askoren iritziz hiru kasuetan dago adiskidetasuna. Beste batzuen iritziz, berriz, aipatuetako lehenengoa bakarrik hartu behar da adiskidetasuntzat, hau da, adiskideen bertutean edo gorentasunean oinarritzen dena. Lehenago adierazi dugunez, Aristotelesek garrantzi handia ematen die iritziei eta, beste bertute batzuetan bezala, saiatzen da haiek harmonizatzen ahal den neurrian. Horregatik ondorioztatuko du Aristotelesek hiru kasuetan adiskidetasunaz hitz egin badaiteke ere, adiskidetasun perfektua, zentzu lehen eta propioan, ondasunean eta gorentasunean oinarritzen den hori bakarrik dela, gizaki onen eta bertuteari dagokionez antzekoak diren gizakiena (VIII, 3, 1156b 7-8). Adiskidetasun forma hau bakarrik da egonkor eta iraunkorra, eta hartan bakarrik aurkitzen da benetako borondate ona, hau da, adiskideak bestearen ongia nahi du adiskideagatik beragatik eta ez plazer edo lo dezakeen onuragatik.

Aristotelesek benetako goraipamena eskaintzen dio adiskidetasunari. Adiskidetasuna zerbait noblea da, eta beharrezkoa ere bai, bizitzarako beharrezkoena: adiskiderik gabe inork ez luke bizi nahi izango, gainerako ondasun guztiak edukita ere (VIII, 1,1155 a 4-6). Egia esan, adiskidetasuna giza soziabilitatearen gailurra da. Adiskideen arteko bizikidetza bizikidetza perfektua da, bizikidetza neurri gorenean. Horregatik, Aristotelesen ustez adiskidetasuna zoriontasunaren funtsezko aspektua da, bizitza bete eta atsegin baten alde garrantzitsua. Adiskidetasuna bizikidetza mota guztietara zabaltzen denez, Aristotelesek hiri-bizikidetzarekiko adiskidetasunaz ere hitz egingo du, komunitate politikoaren partaideen arteko bizikidetzarekiko adiskidetasunaz, alegia. Kasu honetan hiri-adiskidetasuna edo adiskidetasun politikoa dugu. Aristotelesen ustez adiskidetasun horren ezaugarria gogaidetasuna da, eta gertatzen da hiritarrek komeni zaien inguruan iritzi berbera dutenean eta gauza bera hautatu eta elkarrekin harturiko erabakiak betetzen dituztenean (IX, 6, 1167a 27-28). Beraz, gogaidetasunak badu zerikusia doakion guztientzat akordio on bat lor daitekeen kontu praktiko garrantzitsuekin. Eta horrek, aldi berean, helburuen eta desioen arteko harmonia eskatzen du, baita hiritarren elkarrekiko borondatea ere.

Tomás Calvo Martínez
Filosofia Grekoko katedraduna
Universidad Complutense

BIBLIOGRAFIA

1. Edizioak eta itzulpenak

Aristote, *Étique à Nichomaque*, itzul. J.Tricot. Paris, 1983

Aristotle, *Ethica Nichomachea*, arg.. I. Bywater. Oxford, 1894 (bir.1962)

Aristóteles, *Ética a Nicómaco*, arg. elebiduna, aurk. eta oharra, M.Araújo y J.María. Madril, 1970

Aristóteles, *Ética a Nicómaco*, aurk., itzul. eta oharrak, J. L. Calvo Martínez. Madril, 2001

2. Iruzkin modernoak

Aristoteles, *Nikomachische Ethik*, itzul. eta iruz., F. Dirlmeier. Berlin, 1969

Aristote, *L'Étique à Nichomaque II*, 1-2, biltzaileak, R. A. Gauthier eta J. Y. Jolif. Louvain-Paris, 1970

Stewart, J.A., *Notes on the Nichomachean Ethics of Aristotle I-II*. Bristol, Thoemes Press, 1999 (bir.)

3. Monografiak

Annas, J., *The Morality of Happiness*. Oxford, 1993

Aubenque, P., *La prudence chez Aristote*. Paris, 1963 (bir. 1993)

Bravo, F., *Ética y razón*. Caracas, 1989

Cooper, J. M., *Reason and Human Good in Aristotle*. Indianapolis, 1986

Guariglia, O., *La ética en Aristóteles*. Buenos Aires, 1997

Hardie, W. F. R., *Aristotle's Ethical Theorie*. Oxford, 1968

Kenny, A., *The Aristotelian Ethics*. Oxford, 1978

Kraut, R., *Aristotle on the human Good*. Princeton, 1991

MacIntyre, A., *After Virtue*. Notre Dame, 1982

Nussbaum, M. C., *The Fragility of Goodness*. Cambridge, 1986

Rowe, C. J., *The Eudemian and Nichomachean Ethics: a Study in the Development of Aristotle's Thought*. Cambridge, 1971

Sparshott, F. E., *Taking Life seriously. A study of the Argument of the Nichomachean Ethics*. Toronto, 1996

LEHENENGO LIBURUA

I

(1094a) Badirudi arte orok eta ikerketa orok –eta, era berean, ekintza orok eta hautapen orok– ongi jakin baterako joera dutela; horregatik esan da ederki ongia gauza guztiek joera duten hori dela. Badirudi, oster, helburuen artean desberdintasunen bat badagoela, batzuk jarduerak baitira, eta besteak, horiek alde batera utzita, emaitza jakin batzuk. (5) Bestalde, ekintzez gain helburu jakin batzuk dauden kasuetan, emaitzak jarduerak baino hobeak dira berez. Baina ekintzak, arteak eta zientziak asko direnez gero, helburuak ere asko izango dira; medikuntzaren helburua, hain zuzen ere, osasuna da; ontzigintzarena, itsasontzia; estrategiarena, garaipena; eta ekonomiarena, aberastasuna. (10) Hala ere, ahalmen bakar baten menpe dauden horietan guztietan (brida-arte eta zaldi-edergintza hipikaren menpe dauden bezala, eta hori eta gerra-ekintza oro strategiaren menpe eta, era berean, besteak besteen menpe), horietan guztietan arau-emaila diren helburuak, berauen menpe dauden guztienak (15) baino nahigarriagoak dira, horiek haiei begira bilatzen baitira. Bestalde, ez du axola ekintzen helburuak jarduerak beraiek diren edo, horiek alde batera utzita, beste zerbait den, aipatutako zientzietan bezala.

II

Beraz, gure ekintzetan harengatik berarengatik nahi izaten dugun helbururen bat baldin badago eta gainerako helburu guztiak helburu harengatik bilatzen baditugu, (20) eta gauza guztiak beste gauza batengatik aukeratzen ez baditugu (horrela amaigabe jarrai bailiteke eta, ondorioz, gogo, hutsa eta alferrikakoa izan), agerikoa da helburu hori ongia eta onena izango dela. Horrela, bada, ez ote du beraren ezagutzak eragin handia izango gure bizitzan? Eta itu bat duten arkulariek bezala, ez ote dugu gure helburua errazago erdietsiko? Horrela baldin bada, (25) azaletik behintzat ahalegindu behar dugu ulertzen bera zein den eta zein zientziari

edo potentziari dagokion. Antza denez, nagusia eta neurri handi batean arau-emailea denari legokioke, eta agerian dago halako zientzia politika dela, horrek agintzen baitu hirietan premiazko zientziak (1094b) zein diren eta bakoitzak zein ikasi behar eta noraino. Gainera, ikusten dugu ahalmenik preziatuenak beraren menpe daudela, estrategia, ekonomia eta erretorika, alegia; eta politika gainerako zientzia praktikoez baliatzen denez (5) eta, gainera, legez zer egin eta zer baztertu behar den erabakitzen duenez, bere helburuak gainerako zientzienak izango ditu; beraz, helburu hori gizakien ongia izango da, pertsona batentzat eta hiriarentzat ongia gauza bera bada ere, agerian dago, jakina, hiriarena lortzea eta babestea handiagoa eta beteagoa dela; izan ere, pertsona bakar batentzat estimagarria da, (10) baina askoz ederragoa eta jainkozkoagoa izango da herriarentzat eta hirientzat. Beraz, ikerketak, nolabaiteko ikerketa politikoa izanik, gai horiek azaltzeko asmoa du.

III

Gai hau bere azpian dagoen materiaren arabera azaldu ahal izango bagenu, gure ikerketaren gaia behar bezala erran ahal izan genezake, zehaztasuna ez baita modu berean bilatu behar arrazoiketa orotan, ezta artisau egindako lanetan ere. Politikak aztertzen dituen zintzotasunak eta zuzentasunak (15) desberdintasun eta ezbai handiak dituzte; beraz, badirudi hitzarmenezkoak direla bakarrik, eta ez naturazkoak. Ongiek ere badute horrelako ezbaia, haiek askori eragin baitizkiote oinazeak; izan ere, batzuk aberastasunaren ondorioz hil ziren, eta beste batzuk, ausardiaren ondorioz. Beraz, horrelako printzipioetatik abiatuta eta halako gaiez aritzean, (20) ontzat hartu beharko dugu egia trakets eta zirriki-marraka adieraztea; bestalde, gauza orokorreaz aritu eta printzipio orokor hauetatik abiatuz gero, horrelako ondorioak aterako dira. Era berean, hain zuzen ere, onartu egin behar da hemen esango den guztia, (25) pertsona jantziari baitagokio ezagutza-mota bakoitzean zehaztasunik handiena bilatzea, gaiaren izaerak onartzen duen neurrian. Izan ere, agerian dago limurtzeaz baliatzen den matematikoa ontzat hartzea eta erretoriko bati frogapenak eskatzea antzekoak izan litezkeela.

Gizaki bakoitzak ezagutzen duen gaia bereizten du ederki, eta gai horretan da epaile ona: (1095a) gai jakin batean, gai jakin horretan ikasia dena; eta erabateko moduan, gai guztietan ikasia dena. Hori dela eta, gaztea ez da politikarako dizipulu egokia, ez baitu bizitzaren ekintzetan esperientzarik, eta politikagintza ekintza horietan oinarritzen da, eta horiei buruzkoa da; gainera, bere grinen esanekoa izanik, (5) alferrik eta probetxurik gabe ikasiko du, helburua ez baita ezagutza, ekintza baizik. Bestalde, ez du axola gaztetasuna adinezkoa edo izaerazkoa den, urritasuna ez baitatza denboran, bizimoduan eta gauza bakoitzaren desioa grinen arabera izatean baizik; izan ere, gizaki horrentzat ezagutza alferrikakoa da, meneraezinentzat bezala; (10) baina beren gogoak eta ekintzak arrazoiaren arabera bideratzen dituztenentzat, berriz, gauza hauei buruzko ezagutza oso onuragarria izango da.

Dizipuluari buruz esandakoa –nola jaso ikasketak eta zer helburu dugun, alegia–, aurkezpen bezala, nahikotzat hartuko dugu.

IV

Ezagutza orok eta hautapen orok ongi jakin baterako joera dutenez, (15) gaia berrarturik esan dezagun zein ongi den politikak joera duen hori eta ongien artean gauzatu daitekeen gorena zein den. Izenari dagokionez, ia jende guztia dator bat. Izan ere, bai herri xeheak bai dohainduak zoriontasuna deitzen diote, susmatzen baitute ongi bizi eta jokatzeari eta zoriontsua izatea gauza bera dela. (20) Baina zoriontasuna zer den zalantza dute, eta herri xeheak eta jakintsuek ez dute berdin azaltzen; izan ere, batzuek plazera gauza nabari eta agerikoren bat dela esaten dute, aberastasuna edo ohorea, alegia, eta besteek, beste zerbait; askotan, pertsona berak ere uste desberdinak ditu: gaixorik badago, osasuna dela, eta behartsua bada, aberastasuna. (25) Beren ezjakiteaz konturatzen direnek, eurek uler ezin dezaketen zerbait handiari buruz hitz egiten dutenei mira egiten diote. Batzuek, berriz, uste dute aipaturiko ongi horietaz gain badagoela berezko ongi bat, aipatutako haiek ongiak izatearen kausa dena. Uste horiek guztiek aztertzea agian izango da alferrikakoa; beraz, nahikoa izango dugu nagusiak (30) edo zentzurik omen dutenak aztertzea.

Baina har dezagun kontuan printzipioetatik abiatzen diren arrazoinamenduak eta printzipioetara zuzentzen direnak desberdinak direla. Platonek ere topo egin zuen aporia horrekin, eta ongi ikertzen aritu zen ea bidea printzipioetatik abiatuta ala printzipioetara zuzenduta doan, (1095b) estadioan bezala: lehiaketaren epaileengandik helmugarantz edo alderantziz. Zalantzarik gabe, ezagungarrien diren gauza horietatik hasi behar da; hala ere, horiek bi zentzutan izaten dira: batzuk, ezagutzen errazak guretzat; besteak, erabat errazak. Horrela, bada, agian hasi beharko dugu ezagutzen errazak ditugunetatik. Horregatik izaten da beharrezkoa gauza on eta zuzenei buruz (5) eta, hitz batean, politikari buruz era egokian ikasi nahi duena usadioek ederki gidatua izatea, abiapuntua zeri-a baita, eta hori nahikoa argi gelditu bada, zergatia ez da beharrezkoa izango. Halako gizaki batek baditu printzipioak edo erraz bereganatuko ditu. Baina bi aukerotako ez bata ez bestea izaten ez duenak entzun ditzala Hesiodoren hitzok: (10)

Gizakirik onena da inoren laguntzarik gabe gauza oro ulertzen duena;
ongi aholkatzen duenaren esana egiten duena ere bada zintzoa;
baina bere kabuz ulertzen ez duena eta beste bati entzundakoa aditu
ezin duena, gizaki hori, ordea, ezgai da¹.

v

Baina jarrai dezagun besteratu ginen lekutik. (15) Izan ere, ez dirudi zentzugabea herri xeheak eta gogaikarriek uste izateak ongia eta zoriontasuna, bizimoduaren araberakoak izanik, plazera dela, eta horregatik atsegin zaie bizimodu lizuna; bizimodu nagusiak, hain zuzen ere, hiru baitira: oraindik orain esandakoa, politikoa eta, hirugarrenik, begiespenezkoa. Gizaki gehienak erabat esklabo azaltzen dira abereen bizimodua hautatzean, (20) baina horrela hitz egiteko eskubidea badute ardura-kargu bat betetzen duten askok, Sardanapaloren grina berberak dituztelako; dohainduen eta praktikoen ustez, berriz, ongia ohoreak dira, bizitza

¹Hesiodo, *Opera et dies* 293, 295-297.

politikoaren helburua ia-ia hori baita. Hala ere, badirudi ohorea hutsalagoa dela bilatzen ari garen hori baino, ohorea ohoratzen dutenengan ohoratua denarengan baino neurri handiagoan omen dago-eta, (25) eta ongia, kentzen zaila den berezko zerbait dela susmatzen dugu. Gainera, gizakiak ohoreen bila dabiltza, dirudienez, euren buruei sinestarazteko zintzoak direla; behintzat, haiek zentzudunek eta ezagunek ohoratuak izatea bilatzen dute, eta bertutearen kausaz; beraz, agerikoa da gizaki hauen iritziz ere bertutea ongi askoz hobea dela. (30) Agian suposa liteke bizitza politikoaren helburua, batez ere, hori dela; baina agerian dago hau ere nahikoa ez dela, litekeena baita bertutea duena lotan egotea, edo bizialdi osoan ezer ez egitea eta, bestalde, oinaze eta ezbeharrik handienak jasatea; (1096a) baina horrelako bizitza daramana zoriotsua denik ez luke inork esango, tesiari eusteko ez balitz. Baina gauza horiei buruz aski dugu, eguneroko gure eztabaidetan ere nahikoa hitz egin baita gauza horiei buruz. Hirugarren bizimodua begiespenezkoa da, aurrerago aztertuko duguna. (5) Negozio-bizimodua eskerga da, nolabait, eta agerikoa da aberastasuna ez dela bilatzen ari garen ongia, hori beste zerbait lortzeko baita baliagarria. Horregatik har litezke hobeto helburutzat lehen esandakoak, horiek berez nahi izaten baitira; baina agerikoa da haiek ere ez direla, (10) haiei buruz arrazoi asko zabaldu badira ere. Utz ditzagun, orduan.

VI

Agian, hobe izango da ongiaren nozio unibertsala miatzea eta beraren esanahiaz galdetzea, nahiz eta horrelako ikerketa bat zaila izan, formen teoria aldarrikatu dutenak gure lagunak izategatik. Hala ere, badirudi, egia babesteko behintzat, gure berezko iritziak ere alboratzea hobe eta beharrezkoa dela, (15) filosofo garen aldetik, batik bat: bata eta bestea maitatuak izanik, egia hobestea ukiezina baita. Teoria hau garatu zutenek, hain zuzen ere, ez zuten ideiarik jarri aurrekoa eta ondorengoa deitzen ziren gauzetan; horrexegatik ez zuten ezarri zenbaki-ideiarik. Baina ongia, substantzian eta kualitatean eta erlazioan esaten da; (20) hala ere, berezkoa dena, hots, substantzia, erlazioa baino lehenagokoa da berez (horrek

izatearen adarkadura eta akzidentea baitirudi); beraz, batari zein besteari ez lekieke baterako ideia bat ezar.

Bestalde, ongia izana bezainbat zentzutan esaten denez, (substantzian esaten baita, jainkoa eta adimena bezala; (25) eta kualitatean, bertuteak; eta kantitatean, neurria; eta erlazioan, baliagarria dena, eta denboran, aukera egokia; eta lekuan, bizilekua, eta berdin, beste halako zenbaitetan) agerian dago, aidanez, ez dela izango baterako nozio unibertsal eta bakarra, ez bailiteke esan kategoria guztietan, kategoria bakar batean baizik. Baina, bestalde, ideia bakar baten arabeko gauzei zientzia bakar bat ere dagokienez, (30) ongi guztiei ere zientzia bakar bat legokieke; hala ere, kategoria bakar baten menpeko ongien zientziak ere asko dira; adibidez, gerran, aukera egokiena estrategia da, eta gaixotasunean, medikuntza; eta elikaduran, medikuntza da neurriarena; eta ariketetan, gimnastika.

Plazaratu liteke gauza bakoitza bere baitan esamoldeak zer esan nahi duen, (35) bere baitako gizakiaren definizioa eta gizakiarena bat eta bera benetan ote den, hots, gizakiarena; (1096b) izanez ere, gizakiaren aldetik, ez dira ezertan desberdinak izango; eta horrela bada, ongiaren aldetik ere ez. Baina, hala ere, ongia ez da ongia neurri handiagoan izango hilezkorra izateagatik, luzaro dirauena egun bat dirauena baino zuriagoa ez bada.

(5) Horri buruz, badirudi pitagorikoek esaten dutena sinesgarriagoa dela, ongien zutabeen Bata jartzen dutelarik, eta badirudi, hain zuzen ere, Espeusipok ere jarraitzen diela. Baina utz dezagun gai hori beste eztabaida baterako.

Esandakoa dela eta, desadostasun bat azal liteke, aurreko arrazoiak ongi orori buruz esan ez direlako; (10) aitzitik, berez bilatzen eta lortu nahi direnak espezie bakar baten arabera esaten dira, baina azken horiek sortu, nolabait babestu edo haien kontrakoei aurre egiteko neurriak hartzen dituztenak, oster, halako haiei begira eta beste modu batez esaten dira. Beraz, agerian dago ongiak bi eratan esan daitezkeela: batzuk, berez; besteak, beste horiei begira. Horrela, bada, (15) ongi baliagarrietan berezko ongiak bereizi ondoren, azter dezagun ea azken horiek ideia bakar baten arabera esaten diren. Baina, zein ongi sailkatu daitezke berezko ongien artean? Banan-banan ere bilatzen ditugun horiek –pentsatzea eta ikustea eta

plazer batzuk, eta ohoreak, alegia– ongiak ote dira? Horiek guztiak, hain zuzen ere, beste zerbaiti begira bilatzen baditugu ere, berezko ongien artean sailkatu litezke. Edo, ez ote da ideia berezko ongi bakarra izango? (20) Horrela baldin bada, espeziea funtsik gabe izango da. Baina haiek ere berezko ongien artekoak baldin badira, haietan guztietan ongiaren nozio berbera agertuko da betebeharez, zurtasunarena elurretan eta berun-karbonatoan bezala. Baina ohore, zuhurtasun eta plazeraren nozioak bestelakoak eta desberdinak dira, ongien aldetik, hain zuzen ere. (25) Beraz, ongia ez da ideia bakar baten araberrako ezer.

Baina, nola esaten dira, bada? Halabeharrezko homonimoen antzik, behintzat, ez dute eta. Ongi bakar batetik etortzeagatik edo denak helburu bakar baterako joera izateagatik esango ote dira, ala, neurri handiagoan, analogiaz? Esate baterako, ikusmena gorputzean, adimena ariman, eta, berdin, beste bat, beste halako batean, eta abar. (30) Hala ere, agian utzi beharko dugu gai hori oraingoz, gauza horiek zehatz-mehatz aztertzea filosofiaren beste adar bati bailegokioke; baita berdin ideiar buruz ere: ongi guztiez baterako predikatzen dena nolabaiteko batasuna edo berezko eta bereiziriko zerbait balitz, argi dago, aidanez, gizakiak ez lukeela burutuko ezta erdietsiko ere; baina orain horrelako zerbait bilatzen ari gara.

(35) Baina, agian, pentsa liteke hobe dela ongi hori ezagutzea ongi erdiesgarriak eta burutugarriak lortu ahal izateko, hots, (1097a) eredu hori edukita gure ongiak ere hobeto ezagutuko baititugu, eta horiek ezagutuz gero, lortu egingo ditugu. Arrazoinamenduak nolabaiteko egiantza izango du, baina ez omen zaie zientziei egokitzen, (5) zientzia guztiek ongi jakin baterako joera baitute, eta, beren hutsunea bilatzen dutenean, berezko ongien ezaguera alde batera uzten dute. Egia esan, ez da zentzuzkoa artisau guztiek hain garrantzitsu den laguntza jakin eta bilatu ez izatea. Eta ez da erraz ulertzen ehuleak edo zurginak euren arteari begira zein onura lortuko duten berezko ongi hori ezagutzetik, (10) edo berezko ideia behatu duena nola izango den sendagile hobe edo jeneral hobe. Izan ere, sendagileak ez du horrela osasuna aztertzen, gizakiaren osasuna baizik, edo, hobeto esanda, agian honako gizaki honena, gizabanakoak sendatzen baititu. Gauza horiei buruz honaino esandakoa nahikotzat hartuko dugu.

VII

(15) Baina har dezagun berriz bilatzen dugun ongia zer ote den, agerian baitago ekintza eta arte bakoitzean gauza berezi bat dela: medikuntzan, hain zuzen ere, gauza bat da, estrategian beste bat, eta beste horrenbeste gainerakoetan. Beraz, zein da bakoitzaren ongia? Ez ote da hori zeinari begira gainerakoak egiten diren? Medikuntzan osasuna, estrategian garaipena, (20) etxegintzan etxea, ekintza bakoitzean gauza jakin bat, eta ekintza eta aukera orotan, helburua, denek horri begira egiten baitituzte gainerakoak. Beraz, ekintza guztien helbururen bat baldin badago, hura izango da ongi burutugarria, eta helburu bat baino gehiago baldin badago, haiek izango dira. Horrela, bada, pixkanaka aurreratuz, arrazoinamendua leku berberara iritsi da. (25) Hala ere, saiatu behar dugu hori gehiago argitzen. Helburuak ugari direla eta horietako batzuk beste batzuetatik aukeratzen ditugula dirudienez –aberastasuna, txirulak eta, oro har, baliabideak, alegia–, argi dago, aidanez, denak ez direla beteak; baina onenak beteak den zerbait dirudi; beraz, ongi bete bakarra baldin bada, hori izango da bilatzen duguna, (30) eta ugari baldin badira, haietatik beteena. Baina berez lortu nahi izaten dena, inoiz beste zerbaitengatik lortu nahi izaten dena baino beteagotzat hartzen dugu, eta beste gauza batengatik inoiz aukeratzen ez dena, beste zerbaitengatik aukeratzen direnak baino; beraz, hitz batean, beti berez eta beste zerbaitengatik inoiz aukeratzen ez dena betetzat hartzen dugu. Badirudi zoriontasuna horrelako hori dela batez ere, (1097b) hori berez aukeratzen baitugu beti eta inoiz ez beste zerbaitengatik, eta ohorea, plazera, adimena eta bertute oro, hain zuzen ere, berez aukeratzen ditugu (haietatik atarramendu onik ez atera arren, haietako bakoitza aukeratuko baikenuke), baina zorionari begira ere aukeratzen ditugu, (5) haiei esker zoriontsuak izango garelakoan. Bestalde, haiei begira inork ez du zoriontasuna aukeratzen, ezta, oro har, beste edozeri begira ere.

Badirudi autarkiaren ikuspuntutik begiratuta ere gauza bera gertatzen dela, ongi beteak autarkikoa baitirudi. Baina autarkiko ez diogu esaten berekiko soilik bizitza bakartia bizi izateari, gurasoekin, (10) seme-alabekin, emaztearekin eta, oro har, lagunekin eta hirikideekin

bizi izateari baizik, gizakia berez baita izaki politikoa. Dena dela, harreman horietan nolabaiteko muga jarri behar da, guraso, ondorengo eta adiskideen adiskideengana luzatuz, infiniturantz aurreratuko baita. Baina gai hau aurrerago hausnartu behar dugu. Bizitza nahigarria egiten duen eta ezeren falta ez dagoen hori (15) hartzen dugu autarkikotzat; horrelakoa zoriontasuna dela uste dugu, eta, gainera, gauza guztietan nahigarriena dela, gaineratua bada ere; baina argi dago ongirik txikiena gaineratuta nahigarriagoa izango dela, erantsia ongi-joritasun bihurtzen baita, eta ongietan nahigarriagoa dena handiagoa da beti. (20) Beraz, badirudi zoriontasuna zerbait bete eta autarkikoa dela, eginen helburua baita.

Hala ere, badirudi, agian, zoriontasuna onena dena dela esatea denek onarturiko zerbait dela, baina, bestalde, zoriontasuna zer den argiago azaltzea beharrezkoa da. Hori, hain zuzen ere, agian lor liteke gizakiaren eginkizuna zein den ulertuko balitz. (25) Izan ere, txirulariaren eta eskultorearen, edozein artisaren eta, oro har, eginkizun eta zereginen bat dutenen kasuetan ona eta ongia eginkizunean dauden bezala, gizakiari dagokionez ere horrela izango omen da, gizakiak berezko eginkizunen bat benetan badu. Beraz, izango al dute zurginek eta zapatariek berezko eginkizunik eta ekintzarik, baina gizakiak ez, (30) hori, oster, berez geldia izanik? Eta begiaren eta eskuaren eta oinaren, eta, oro har, gorputz-atal bakoitzaren berezko eginkizun bat omen dagoen bezala, berdin onar ote liteke horietaz guztiez gain gizakiaren eginkizunen bat? Beraz, zein eginkizun, hain zuzen ere, izan liteke hori? Badirudi bizi izatea baterako dutela gizakiek eta landareek, iruditu ere, baina berezkoa ari gara bilatzen. (1098a) Beraz, elikaduraren eta hazkuntzaren inguruko bizitza alde batera utzi behar da. Jarraian zentzumenezko zerbait legoke, baina badirudi hori ere zaldiak, idiak eta animalia orok dutela baterako. Hortaz, azkenik, arrazoimena duenaren praktikoa den zerbait geratzen da; eta horrek, alde batetik, arraziomenari egiten dio esana, eta beste aldetik, arrazoa du beregan eta adimenean dihardu. (5) Eta hori bi eratan esaten denez, jardueran hartu behar da, zentzu horretan nagusiki esaten baita, dirudienez. Orduan, gizakiaren berezko eginkizuna arimaren jardura baldin bada –arrazoizko jardura edo ez arrazoirik gabe, alegia– eta, bestalde, eginkizun hau berez gizakiari eta gizaki bikainari dagokiola esaten badugu (zitara-

jotzaileari eta zitara-jotzaile bikainari bezala), (10) eta, berdin, edozein kasutan, eginkizunari bertutearen bikaintasuna gehituz (zitara-jotzaileari zitara jotzea baitagokio, zitara-jotzaile bikainari, berriz, bikain jotzea); hori horrela bada, gizakiaren eginkizuna nolabaiteko bizitza dela baieztatzen dugu, bizitza hau arimaren jarduera eta arrazoizko ekintzak delarik, eta gizaki bikainaren eginkizuna gauza horiek ongi eta ederki betetzea; (15) eta eginkizuna oro berez dagokion bertutearen medio betetzen da; eta horrela bada, giza ongia bertutearen arabera arimaren jarduera da. Eta bertuteak batzuk baldin badira, onenaren eta beteenaren arabera izango dira. Eta, gainera, bizialdi oso batean, enara batek ez du udaberririk egiten, ezta egun bakar bat ere; eta, horrela, egun bakarrek ere ez du gizakia dohatsu eta zoriontsu egiten, (20) ezta denbora laburrak ere.

Beraz, gera bedi ongia horrela deskribaturik. Lehendabizi, agian, deskribapenaren zirriborroa egin behar da, eta, ondoren, xehetasunez osatu. Badirudi ondo zirriborraturiko gaia edozeinek aurrera eraman eta osa lezakeela, eta honelako gauzetan denbora aurkitzaile edo laguntzaile ona dela. Hori dela eta, arteen aurrerapenak ere sortu dira, (25) falta dena gaineratzea edozeinen esku baitago. Baina aurrez esandakoa ere gogoratu behar da, eta gauza guztietan ez bilatu zehaztasuna modu berdinez, gauza bakoitzean azpiko materiaren arabera eta ikerketarako ahalik eta egokien baizik. Izan ere, zurginak eta geometrialariak era desberdinetan bilatzen dute angelu zuzena: (30) hark bere lanerako baliagarria den neurrian; honek, berriz, zer edo nolakoa den bilatzen du, egiaren aztertzailea baita. Berdin egin behar da gainerako gauzetan, hain zuzen ere, osagarriak lanak baino garrantzitsuagoak izan ez daitezen. Eta gauza guztietan kausa ere ez da berdin eskatu behar; (1098b) aitzitik, kasu batzuetan gertakaria ongi adieraztea nahikoa izango da, printzipioez aritzen denean, alegia; gainera, gertakaria lehena eta printzipioa da. Eta printzipioen artean, batzuk indukzioaren bidez behatzen dira, beste batzuk, zentzumenaren bidez, beste batzuk, nolabaiteko ohituraren bidez, eta beste batzuk, bestelako modu batez. (5) Beraz, bakoitzaren natura kontuan hartuz saiatu behar da printzipioetara zuzentzen, eta zorrotz ahalegindu printzipioak ongi zehatz daitezen,

ondorengoari begira eragin handia baitute. Badirudi, hain zuzen ere, printzipioa osotasunaren erdia baino gehiago dela, eta haren medioz bilatzen diren gauza asko argitu egiten direla.

VIII

Orduan, printzipioa gure premisetatik eta gure ondoriotik ez ezik, (10) hari buruz esandakotik abiatuta ere aztertu behar da, horiek guztiak egiarekin bat etortzen baitira, eta egia, berriz, ez da berehala gezurrarekin bat etortzen. Hortaz, ongiak hiru motatan sailkatuta – kanpokoak deituak, arimarenak eta gorputzarenak, alegia–, ongi garrantzitsuenak eta onenak arimarenak direla esaten dugu; (15) eta gogo-ekintzak eta jarduerak arimari dagozkio gure ustez. Beraz, gure iritzia, bederen, edertzat har liteke, kontuan hartuta iritzi hau antzinakoa eta filosofiari ekin diotenek onartua dela. Bestetik, zuzena da helburua ekintza eta jarduera jakin batzuk direla baieztatzen delako, eta, horrela, hain zuzen ere, arimaren ongiekin gertatzen da eta ez kanpokoekin. (20) Eta zoriontsua ongi bizi eta ongi jokatzeari delako iritzia ere badator bat gure arrazoinamendurekin, bizitza onari, gutxi gorabehera, jokaera ona ere deitzen baitzaio. Halaber, agerikoa da bilaturiko zoriontasunaren inguruko baldintza guztiak ere esandakoan agertzen direla. Izan ere, batzuek uste dute zoriontasuna bertutea dela; beste batzuek, zuzenbidea; beste batzuek, jakituria jakin bat; (25) beste batzuek, gauza horiek edo horietako zenbait, plazerari lotuta edo ez plazerik gabe; beste batzuek, kanpoko ongizatea ere gehitzen dute. Irizirik horietako batzuei antzinako askok eusten diete, beste batzuei, gizon ospetsu gutxi batzuek; eta zentzuzkoa da pentsatzea talde bata zein bestea erabat oker ez daudela, haien iritziak, gai bati, gutxienez, edo gai gehieneri dagokienez zuzen daudela baizik.

(30) Beraz, gure arrazoinamendua bat dator zoriontasuna bertutea edo bertute jakin bat dela esaten dutenekin, zoriontasunari bertutearen arabera jarduera baitagokio. Hala ere, behar bada izango da diferentzia handia ongi gorena eduki batean, edo erabilera batean, aztura batean edo jarduera batean datzala uste izatean; (1099a) gerta baitaiteke izandako aztura batek ongirik ez gauzatzea –lo dagoenarengan edo beste edonola ezinduta dagoenarengan, esate baterako–; baina jarduerari dagokionez, hori ezinezkoa da, norberak

nahitaez jardun eta ongi jardungo baitu. Eta Olinpiadetan gertatzen den legez, hots, koroa ez dutela lortzen ez ederrenak ez indartsuenak, (5) lehiatzen dutenek baizik (horietako batzuek irabazten baitute), berdin bizitzaren gauza onak eta ederrak ere zuzen jokatzen dutenek eskuratzen dituzte; eta horien bizitza berez da atsegina. Izan ere, atsegina hartzea arimari dagokio, eta bakoitzak atsegina du gogokoa duen hori; esate baterako, zaldia zaldizalearentzat, ikuskizuna ikuskizunzalearentzat, eta, berdin, gauza zuzenak zuzentasuna maite duenarentzat, eta, oro har, bertutearen arabeko gauzak bertutea maite duenarentzat. (10) Herri xehearentzat atseginak diren gauzak, beraz, elkarren artean lehiatzen dira berez ez direlako atseginak; ederra dena maite dutentzat, oster, atseginak dira berez atseginak diren gauzak; eta horrelakoak bertutearen arabeko ekintzak dira. Horrela, bada, ekintza horiek berez dira atseginak baita zaleentzat ere. (15) Beraz, gizaki horien bizitzak ez du plazera zinginarri gisa behar; aitzitik, plazera bere baitan du. Izan ere, esandakoaz gain, ez da ona ekintza ederrez poztan ez dena, eta inork ez lioke zuzena deituko zuzen jokatzeaz poztan ez denari, ezta eskuzabala ekintza eskuzabalez poztan ez denari ere; (20) eta, berdin, gainerakoetan. Hori horrela bada, bertutearen arabeko ekintzak berez izango dira atseginak. Halaber, onak eta ederrak ere izango dira –onak eta ederrak zentzu gorenean, hain zuzen ere–, gizaki bertutetsuak gauza horiei buruz ederki epaitzen baldin badu; eta esan dugun legez epaitzen du. Beraz, gauzarik onena, ederrena eta atseginena zoriontasuna da, jakina, (25) eta hiru gauzok ez daude banandurik Delosko inskripzioan ageri den moduan:

ederrena, zuzenena dena; onena, osasuna izatea;

baina berez atseginena, maite den hori lortzea²,

gauza horiek guztiak batera aurkitzen baitira jarduera onenetan; (30) eta esaten dugu haiek edo haietako bat –onena dena, alegia–, zoriontasuna dela. Hala ere, esan genuenez, agerikoa da zoriontasunak kanpoko ongien premia ere baduela, ezinezkoa baita –edo ez

² Delfosko Letoren tenpluan zegoen inskripzioa.

erraza, behintzat– ongia egitea baliabide–premia izanda; gauza asko, hain zuzen ere, tresnen bidez eginak bailiran, (1099b) lagunen eta aberastasunaren eta botere politikoaren bidez egiten dira; eta zenbait gauzaren gabeziak –jaiotzez noblezia, seme-alaba onak eta edertasuna, alegia– dohatasuna orbantzen du, ez bailitzateke erabat zoriontsua izango itxura higuingarria duena, jaiotzez ziztrina dena, edo bakar-bakarrik dagoena eta seme-alabarik ez duena; (5) eta gutxiago ere, agian, norberaren seme-alabak edo adiskideak erabat gaiztoak balira edo, zintzoak izanik, hilda baleude. Beraz, esan dugunez, badirudi ongizateak halako onuraren premia ere baduela; hori dela eta, batzuek sorte ona hartzen dute zoriontasuntzat; baina beste batzuek, berriz, bertutea.

IX

Hori dela eta, zalantzan dago zoriontasuna zerbait ikasgarria den, ala usadioz edo beste edozein jardutez, eskuragarria, (10) ala jainkozko paturen batez edo halabeharrez agertzen den. Beraz, gizakientzat jainkoen beste dohainen bat ere baldin badago, zentzuzkoa da zoriontasuna jainkoak emanikoa izatea, batez ere gizakien dohainik onena den neurrian. Baina gai hori agian beste ikerketa bati legokioke neurri handiagoan. Hala ere, jainko batek bidalia ez izan arren, (15) ikaste jakin batez edo jardutez agertua baizik, badirudi bertutea dohainik jainkozkoenetan dagoela, agerikoa baita bertutearen saria eta helburua bikainak direla eta, nolabait, jainkozkoak eta dohatsuak. Hori, halaber, askok dute baterako, bertuterako ezinduak ez diren guztiek ikaste jakin batez eta arduraz erdiets baitezakete. (20) Baina zoriontsua horrela izatea halabeharrez izatea baino hobea baldin bada, zentzuzkoa da horrela izatea, gauza naturalek izan litekeen edertasuna nagusia baitute berez, eta, berdin, artez edo edozein kausaz –eta bereziki kausa onenaz– sortzen direnek. Bestetik, gauzarik handiena eta ederrena patuaren esku uztea oso ezegokia litzateke. (25) Gainera, definiziotik abiatuta ere, agerikoa da bilatzen duguna, esan baitugu zoriontasuna bertutearen araberako arimaren jardura jakin bat dela. Eta gainerako ongietan, batzuk beharrezkoak dira, eta besteak, tresna gisa, lagungarriak eta baliagarriak dira berez.

Bestetik, hori guztia hasieran esandakoarekin ere dator bat, politikaren helburua onena dela ezarri baikenuen; (30) gainera, politika hiritarrei izaera jakin batez hornitzeaz eta ekintza ederrak egiteko gai izan daitezen hiritar zintzoak hezitzeaz arduratzen da oso. Beraz, zentzuzkoa da idia, zaldia edo beste edozein abere zoriontsua ez dela esatea, horietako inor ez baita gai halako jarduera nobleetan parte hartzeko. (1100a) Eta kausa berarengatik umea ere ez da zoriontsua, adinarengatik oraindik ez baita gai halako gauzak egiteko; baina dohatsuak esaten zaie, dohatsuak izango direlakoan. Izan ere, zoriontasunak, esan dugunez, bertute betea eta bizitza betea behar ditu, (5) bizialdian zehar aldaketa asko eta edonolako halabeharrak gertatzen baitira, eta gehien loratzen denari zahartzaroan malura handiak gerta dakizkioke, poema troiarretan Priamori buruz kontatzen den bezalaxe; horrelako halabeharrak pairatu dituen eta errukarri hil dena ez du inork zorionsutzat hartzen.

X

(10) Orduan, bizirik dagoen bitartean, ez ote dugu gizaki bat ere zorionsutzat hartu beharko, bizitzaren amaiera ikusita baizik, Solonek zioen legez?³ Hortaz, tesi hori ezarri behar bada, hil arte ez ote da inor zoriontsua izango? Edo hori, behintzat, ez da akaso erabat lekuz kanpokoa, batez ere zoriontasuna jardueren bat dela baieztatzen dugunontzat? Baina hilik dagoena zoriontsua denik esaten ez badugu (15) –eta Solonek ez du hori esan nahi, baizik eta une horretan, ziurtasunez, gizaki bat zorionsutzat har litekeela, ordurako gaitzik eta zorigaitzik gabe izateagatik–, hori ere, nolabait, bada eztabaidagarria. Izan ere, hildakoarentzat ere gaitz bat eta ongi bat omen daude, bizirik dagoenarentzat bezala; (20) honek ohoreak eta desohoreak eta seme-alaben eta, oro har, ondorengoen arrakastak eta zorigaitzak antzematen ez baditu ere. Baina arrazoinamendu horrek ere badakar zalantza bat, zahartzarora arte dohatsu bizi izan eta antzeko moduan hil denari, bere ondorengoei dagokienez, aldaketa asko gerta baitakizkioke: esate baterako, haietako batzuk, zintzoak izan (25) eta merezi duten bizitza erdiestea, eta beste batzuk, kontrakoa; bestetik, nabaria da

³ik. Herodoto, I 30-33.

gurasoengandik urrundu direnei ere edozer gerta dakiekeela. Hortaz, lekuz kanpokoa litzateke ondorengoekin batera hildakoaren zoria ere aldatuko balitz, oraintxe zoriontsua, oraintxe zorigaitzekoa; baina gurasoek, une batez ere, (30) seme-alaben baldintzez arduratzen ez direla pentsatzea ere bai. Baina aurreneko zalantzara itzuli behar da, hortik abiatuta orain bilatzen ari garen hori ere agian ulertu egingo baita. Esate baterako, helburua ikusi behar baldin bada eta orduantxe banako bakoitza dohatsutzat hartu –dohatsua ez une jakin horretan izateagatik, iraganean izan zelako baizik–, nola ez da lekuz kanpokoa izango norbait zoriontsua izaten denean (35) norbait horren zoriontasunari buruz egia ez esatea, (1100b) bizirik daudenak zorionsutzat hartu nahi ez izateagatik –bizitza oso aldakorra dela eta zoriontasuna, berriz, erraz inolaz ere aldatzen ez den zerbait egonkorra dela uste izateagatik–, halabeharrak gizakien inguruan etengabe jira-biran ari diren bitartean? Agerikoa baita, halabeharraren gorabeherei jarraitzen badiugu, (5) pertsona berberari zoriontsu baita zorigaitz ere deituko diogula sarritan, gizaki zoriontsua oinarri ustelekoa eta kamaleoi bat bezalakoa azalduz; edo, inolaz ere ez da zuzena halabeharraren gorabeherei jarraitzea? Izan ere, ongia eta gaizkia haietan ez dautza, giza bizitzak haien premia badu ere, esan genuen bezala. (10) Bertutearen araberako jarduerak, berriz, zoriontasunaren jarduera nagusiak dira, eta aurkakoak, aurkakoenak; eta oraintxe eztabaidatu duguna ere gure arrazoinamenduaren testigantza da. Izan ere, inolako giza obratan ez da ematen bertutearen araberako jardueretan ematen den irmotasuna, horiek zientziak ere baino egonkorragoak izaten omen baitira; (15) eta horietan preziatuenak egonkorragoak izaten dira, gizaki dohatsuak –nagusiki eta etengabe dohatsuak direnak, hain zuzen ere– horietan bizi direlako; eta hori da, hain zuzen ere, horiek ahatz ez daitezen eragilea. Beraz, bilatzen ari garen hori zoriontsu denaren baitan egongo da, eta zoriontsua bizialdi osoan izango da, bertutearen araberakoa dena beti edo gehienetan egingo eta behatuko baitu; (20) eta egiatan zintzoa eta akatsgabeko laukia⁴ den horrek, behintzat, halabeharraren gorabeherak arras ederki eta erabat egokiro jasango ditu edozein egoeratan. Baina gertakari asko halabeharrez gertatzen direnez eta euren handitasunari eta

⁴Simonides, frag. 4 (Diehl); ik. Platon, *Protagoras* 339a-347a.

txikitasunari dagokienez ezberdinak direnez, nabaria da zoriaren onura txikiek eta, berdin, aurkakoez ere ez dutela eragin handirik bizitzan; (25) baina handiek eta askotan gertatzen direnek, berriz, bizitza askoz dohatsuagoa egingo dute (horiek bizitza edertzen baitute berez, eta haien erabilera, ederra eta bertutetsua da); aitzitik, gertaturiko zorigaitzek dohatasuna nahigabetu eta narriatzen dute, atsekabeak ezarri eta jarduera asko galarazten baitituzte. (30) Baina, hala ere, edertasunak egoera horietan ere egiten du dirdira norbaitek sarritan zorigaitz handiak bare jasaten dituenean, ez bihotz-gogortasunaren ondorioz, noblea eta kementsua izateagatik baizik. Eta, esan dugunez, jarduerak bizitzaren jabeak badira, gizaki dohatsua ez da zorigaiztokoa izango, (35) ez baitu inoiz gauza gorrotagarri eta makurrik egingo. (1101a) Izan ere, gure ustez, egiatan zintzoa eta zuhurra denak zoriaren gorabehera guztiak duintasunez jasaten ditu eta bere ahalbideetatik abiatuta beti ahalik eta hoberen jokatzen du, jeneral ona ere gudarako eskura duen armadaz ahalik eta ongien baliatzen den bezalaxe, eta zapatariak eman zaion larruaz oinetakorik ederrenak egiten dituen bezalaxe, (5) eta berdin teknikari guztiak ere. Baina, horrela bada, gizaki zoriontsua ez da inoiz zorigaiztokoa izango; hala ere, ez da dohatsua izango, behintzat, Priamoren zoritxarretan erortzen bada. Baina, ezbairik gabe, ez da aldakorra eta aldagaia izango, ez baita zoriontasunetik erraz urrunduko, (10) halabeharrez gertaturiko zorigaitzek jota ere, horiek handiak eta ugari ez badira, behintzat; bestalde, horrelako zorigaitzen ondoren ez da berriro zoriontsua izango denbora laburrean, denbora luzea pasa ondoren baizik, eta denboraldi horretan gauza handiez eta ederrez jabetzen bada. Beraz, zerk eragozten digu zoriontsua deitzea bertute betearen arabera jokatzen duenari eta kanpoko ongiez behar bezala hornituta dagoenari, (15) ez denboraldi jakin batean, bizialdi osoan baizik? Gehitu behar ote da horrela igaro behar duela bizialdi osoa eta modu berean hil? Guretzat etorkizuna ezkutaturik dagoenez, zoriontasuna helburua eta gauza guztiz betea dela baieztatzen dugu kasu guztietan. Horrela bada, (20) bizidunen artean esandakoa izaten eta izango dutenei dohatsuak deituko diegu, dohatsuak gizakiak diren aldetik. Eta eman ditzagun nahikotzat honaino emandako azalpenak.

XI

Ondokoen eta adiskide guztien halabeharren gorabeherek hildakoen zoriontasunean inolako eraginik ez dutela esateak badirudi aski gupidagabea eta ohiko iritzien aurkakoa dela. Baina gertaerak ugari eta askotarikoak direnez, (25) eta batzuk gehiago eta beste batzuk gutxiago egokitzen zaizkigunez, badirudi banan-banan bereiztea luzea eta amaigabea izango dela, eta agian izango da nahikoa orokorrean eta zirriborro batez aztertzea. Izan ere, norberaren bizitzarako zorigaitz batzuek zama eta eragina badute, beste batzuek arinagoak diruditen bezala, (30) adiskide guztiekin ere horrelaxe gertatzen da. Baina zorigaitz guztioi dagokienez, bizidunei gertatzetik hildakoei gertatzera alde handia dago, lege-hauste eta zorigaitz ikaragarrioi dagokienez tragedietan antzetzetik aurrean benetan gertatzera dagoena baino alde handiagoa, hain zuzen ere; beraz, ondorioztatu behar da desberdintasun hori badela, edo, hobeto esanda, (35) eztabaidagarria dela hildakoek ongiren batean edo kontrakoetan parte hartzen duten. (1101b) Hortaz, esandakoaren arabera, badirudi zerbait antzematen badute, ongia zein aurkakoa, ahula eta hutsala dela, erabat nahiz haiei dagokienez; eta horrela ez bada, tamaina eta izaera hain dira eskasak, ezen zoriontsuak ez direnak zoriontsuak egin ezin baititu, ezta zoriontsuak direnei dohatasuna kendu ere. (5) Beraz, badirudi hildakoei ere iristen zaiela adiskideen zoriona nolabait, eta berdin zorigaitzak ere; baina haien izaera eta garrantzia hain dira eskasak, ezen ez zoriontsu ez zorigaitzo egin ezin baitituzte, ezta honelako beste edozer ere.

XII

(10) Zehaztasun horiek eginda, azter dezagun zoriontasuna gauza laudagarrien artean dagoen edo, neurri handiagoan, ohoragarrien artean; izan ere, ohoragarrien artean agerikoa da, behintzat, ahalmena ez dela. Badirudi, hain zuzen ere, laudagarri den guztia nolabaitekoa izateagatik eta beste zerbaitekin nolabaiteko lotura edukitzeagatik laudatzen dela. Izan ere, zuzena eta adoretua, eta, oro har, (15) zintzoa eta bertutetsua laudatzen ditugu beren ekintza eta lanengatik, eta indartsua eta lasterkaria eta gainerakoak, nolabaiteko izaera berez

izateagatik, eta on eta bikain den zerbaitekin nolabaiteko lotura edukitzeagatik. Eta hori jainkoei buruzko laudorioetan ere bada nabaria, laudariook irrigarri baitirudite guri zuzentzen zaizkigunean; eta, esan dugun bezala, (20) hori gertatzen da laudorioak erreferentzia bati begira egiten direlako. Eta laudorioa horrelakoa bada, agerian dago gauza bikainek laudoriorik ez dutela, beste zerbait handiagoa eta hobe baizik; agerikoa denez, jainkoak, hain zuzen ere, dohatsu eta zoriontsutzat hartzen ditugu, eta gizakirik jainkotiarrenak ere dohatsutzat; (25) eta berdin ere ongiei dagokienez, zoriontasuna ez baitu inork zuzena dena bezala laudatzen; aitzitik, zerbait jainkotiarra eta hobe den neurrian goraipatzen du. Eta badirudi Eudoxok ere trebeki defendatu zuela plazera ongi nagusietan; beraren ustez, hain zuzen ere, plazera laudatua ez izateak, ongia izanda ere, erakusten du hura gauza laudagarriak baino hobe dela, (30) jainkoa eta ongia bezala, gainerako gauza guztiak bi horiei begira esaten baitira. Beraz, laudorioa bertuteari dagokio, horri esker gizakiak ekintza ederrak egiteko gai baitira. Era berean, goraipamenak obrei dagozkie, bai gorputzarenei bai gogoarenei. Hala ere, gauza horiek zehatz-mehatz aztertzea agian izango da goraipamenak lantzen dituztenen zeregina; (35) baina, esandakoaren arabera, agerikoa dugu (1102a) zoriontasuna gauza ohoragarri eta bete dela. Eta badirudi horrelakoa dela baita prinzipioa izateagatik ere, denok gainerako gauza guztiak horri esker egiten baititugu, eta ongien prinzipioak eta kausak zerbait ohoragarri eta jainkotiartzat hartzen ditugu.

XIII

(5) Zoriontasuna bertute betearen arabera arimaren jardura jakin bat denez, bertuteari buruz ikertu beharko dugu, horrela zoriontasunari dagokiona ere agian hobeto argituko baitugu. Eta badirudi benetako politikariak ere bertutea lantzen duela bereziki, hiritarrak onak eta legeen esanekoak egin nahi baititu (10) (horien erdua legegile kretarrak eta lazedemoniarrak ditugu, eta, izan baldin badira, antzeko beste guztiak). Baina ikerketa hori politikari badagokio, agerikoa da araketa-hasiera gure hautapenaren arabera izango dela. Eta bertutea dela eta, agerian dago gizakiena ikertu behar dugula, gizakien ongia (15) eta

zoriontasuna ere bilatzen baikenituen. Baina giza bertutea ez diogu esaten gorputzarenari, arimarenari baizik; eta zoriontasuna arimaren jardura bat dela esaten dugu. Hau horrela bada, agerian dago politikariak nola edo hala arimari dagokiona ezagutu behar duela, begiak sendatzen dituenak (20) gorputz osoa ere ezagutu behar duen bezala, eta batez ere politika medikuntza baino estimagarriagoa eta hobea den neurrian; eta sendagileetan gailenak gorputzari buruzko ezagutzaz gogoz arduratzen dira. Beraz, politikariak ere aztertu behar du arima, baina gauza haiei begira eta bilatzen ari garenerako egokiro den neurrian, (25) arima zehatzago aztertzea aurretik hartu dugun helburua baino neketsuagoa izango baita agian.

Arimaren inguruan tratatu exoterikoetan ere zehaztu dira nahikoa gai jakin batzuk, eta haietaz baliatu behar dugu; adibidez, arimaren alde bat irrazionala dela, eta bestea arrazoiduna (bi alde horiek gorputz-atalak edo edozein gauza zatigarri moduan bereizten ote diren, (30) edo, arrazoimenarako bi alde badira ere, berez bereiztezinak ote diren –zirkunferentziaren alde ganbila eta alde ahurra bezala– jakiteak ez du axola batere oraingo ikerketarako). Batetik, arimaren alde irrazionalak baterakoa eta begetatiboa dirudi, elikatzearen eta haztearen kausa, hain zuzen ere; arimaren halako ahalmena elikatzen diren izaki guztietan onar daiteke, (1102b) enbrioietan eta ahalmen berbera duten izaki osatuetan ere, beste edozein onartzea baino zentzuzkoagoa baita. Beraz, agerian dago ahalmen horren bertutea guztiona dela, eta ez gizatiarra; badirudi, hain zuzen ere, ametsetan alde horrek eta ahalmen horrek jarduten dutela bereziki, (5) eta ametsetan gizaki ona eta gaiztoa inolaz ere bereizten ez direla (hori dela eta esaten da bizialdiaren erdian zoriontsuak eta zorigaiztokoak ezertan bereizten ez direla). Eta hori gertatzea litekeena da, bikaina eta ziztrina esaten den aldetik loaldia arimaren jarduerarik eza baita, salbuespen batez: arimara apurka mugimendu gutxi iristen baldin badira eta, (10) horren ondorioz, gizaki bikainen ametsak arruntenak baino hobeak direnean. Baina horri guztiari buruzkoa aski da; eta arimaren alde elikagarria ere baztertu behar dugu, berez giza bertuterik gabekoa delako.

Bestetik, badirudi arimaren beste izaera bat dagoela, irrazionala izanik, arrazoimenean, nolabait, parte hartzen duena, meneratuen eta meneraezinen arrazoimena (15) –hots, horien

arimaren alde arrazoiduna— laudatzen baitugu (zuzenki gauza onenetara ere bultzatzen duelako); baina horien baitan berez arrazoimenaren aurkakoa den zerbait ere agerian azaltzen da, arrazoimenari borroka eta aurre egiten diona. Izan ere, gorputz-atal paralizatuak eskuinera mugitu nahi baditugu ere, (20) kontrako aldera, ezkerretara, besteratzen diren bezalaxe, ariman ere berdin gertatzen da, meneraezinen grinak aurkako muturrerantz besteratzen baitira. Hala ere, gorputzetan besteratzen dena ikusi egiten dugu, baina ariman ez dugu ikusten; hala eta guztiz ere, agian uste izan behar da ariman ere arrazoimenaren aurkako zerbait dagoela, hari aurre eta gogor egiten diona (25) (desberdina zertan den, ez du batere axola). Baina badirudi arrazoimenan alde honek ere parte hartzen duela, esan dugun bezalaxe: meneratuenak, behintzat, arrazoimenari egiten dio esana, eta gainera, neurrizko eta adoretuarena agian izango da esanekoagoa, bere baitan dena baitator bat arrazoimenarekin. Beraz, badirudi alde irrazionala ere bikoitza dela: batetik, alde begetatiboak ez baitu inolaz ere arrazoimenean parte hartzen, (30) baina, bestetik, desira-aldeak eta, oro har, gogo-aldeak nola edo hala hartzen dute parte, arrazoimenarekiko entzule eta esanekoak diren neurrian (horrela, baita aitak eta adiskideek ere arrazoi dutela diogu, baina ez matematiketan bezala). Eta alde arrazoidunak alde irrazionala nola edo hala limurturik duela adierazten dute jakinarazpenek, gaitzespen orok eta aholkuek. (1103a) Eta horrek ere arrazoia baduela esan behar baldin bada, arrazoiduna ere bikoitza izango da: bata, nagusiki eta bere baitan; bestea, entzuten duen bat, aitaren esanetara bezala. Baita bertutea ere bereizten da desberdintasun horren arabera, haien artean batzuei adimenezkoak eta besteei etikoak esaten baitiegu: (5) jakituria, adimena eta zuhurtasuna adimenezkoak dira; eskuzabaltasuna eta neurritasuna, etikoak. Izan ere, norbaiten aiurriari buruz hitz egiten dugunean ez dugu esaten jakintsua edo azkarra dela, otzana eta neurrizkoa baizik; baina jakintsua bere azturagatik ere laudatzen dugu, eta aztura laudagarriei bertute (10) deitzen diegu.

BIGARREN LIBURUA

I

Bertutea bi motatakoa da, adimenezkoa eta etikoa; adimenezkoak irakaskuntzan ditu nagusiki sorrera eta handitzea, (15) eta horregatik, hain zuzen ere, behar ditu esperientzia eta denbora; etikoak, berriz, ohituratik dator, eta hortik izena ere ohitura hitzetik osatua izatea, aldaketa txiki bat eginez. Horrek agerian jartzen du izatez inolako bertute etikorik ez dela sortzen gure baitan, naturako izakien artean ezer ez baita ohituraz aldatzen; (20) esate baterako, harria, izatez goitik behera mugitzen dena, ezin liteke behetik gora mugitzera ohitu, eta ez luke inork ohituaraziko, ezta hamaika aldiz gorantz botata ere; eta sua goitik behera mugitzera ere ez; eta izaera jakin batekoa dena ez litzateke beste izaera batera ohituko. Beraz, bertuteak ez dira sortzen ez izatez ez naturaren aurka; (25) aitzitik, gure izaerari esker, gure baitan jaso eta ohituraren bidez hobetu ditzakegu. Gainera, gure baitan izatez sortzen diren horietan guztietan lehenik ahalmenak barneratzen ditugu, eta gero jarduera gauzatzen dugu. (Hori ere agerikoa da zentzumenetan: zentzumenak, hain zuzen ere, ez ditugu askotan ikusteagatik edo askotan entzuteagatik eskuratzen; (30) aitzitik, haiek edukita hasi ginen haietaz baliatzen, eta ez genituen eskuratu haietaz baliatuta) Bertuteetan, oster, lehendabizi jardun eta ondoren eskuratu egiten ditugu, gainerako arteetan bezalaxe, egin behar dena ikasi ondoren hori eginez ikasten baitugu; esate baterako, etxeak eraikiz izango gara etxegile, eta zitara joz, zitara-jotzaile. Eta, berdin ere, gauza zuzenak eginez izango gara zuzenak, (1103b) neurrizko gauzak eginez neurrizkoak, eta adore-ekintzak eginez, adoretzuak. Horren testigantza dugu hirietan gertaturikoa, legegileek ohituren bidez egiten baitituzte onak hiritarrak, eta hori da legegile ororen asmoa, (5) baina ongi egiten ez duten guztiek huts egiten dute, eta konstituzio politiko ona eta txarra esandako horien arabera bereizten dira. Gainera, kausa berberak eta bitarteko berberak sortu eta suntsitzen dute bertute oro, arteekin ere gertatzen den bezala, zitara jotzetik sortzen baitira zitara-jotzaileak, bai onak bai txarrak, eta

antzeko moduan, (10) etxegileak eta gainerako teknikari guztiak: etxeak ondo eraikiz, etxegile onak izango dira, eta gaizki eraikiz, txarrak. Horrela ez balitz, ez legoke maisuaren premiarik eta denak jaiotzez lirateke onak edo txarrak. Eta gauza bera gertatzen da, hain zuzen ere, bertuteei dagokienez, gizakiekiko harremanetan dugun jokaeraren arabera (15) batzuko zuzen eta besteok bidegabe bilakatzen baikara; eta egoera latzetan dugun jokaeraren arabera eta beldur izatera ala aurre egitera ohituta egotearen arabera, batzuk adoretu eta besteak koldar bilakatzen gara. Eta berdin desireri eta sumindurari dagokienez: batzuk neurrizkoak eta atseginak bilakatzen dira, eta beste batzuk, berriz, lasakak eta suminkorrak, (20) haiek egoera horietan halaxe jokatzegatik, eta besteak, berriz, horrelaxe. Horrenbestez, hitz batean, azturak jardueretan beraietan sortzen dira. Horregatik burutu behar dira nolabaiteko jarduerak, horien arteko desberdintasunen arabera ondorioztatzen baitira azturak. Beraz, gaztetatik horrelako edo halako ohiturak lortzea ez da huskeria; aitzitik, (25) garrantzi handia du, edo, hobeto esanda, erabatekoa.

II

Beraz, oraingo tratatuak –gainerakoek ez bezala– xede teorikorik ez duenez (ez baitugu ikertzen bertutea zer den jakiteko, onak izateko baizik, bestela hark ezertarako balio izango ez lukeelako), ekintzei dagokien guztia aztertu behar da, horiek nola egin behar diren: (30) ekintzak baitira, hain zuzen ere, azturen nolakotasuna nagusitzen dutenak, esan dugun bezala.

Beraz, arrazoi zuzenaren arabera jokatu behar dugula denok onartu eta aintzakotzat emango dugun printzipioa da (horri buruz gero mintzatuko da, hots, arrazoi zuzena zer den eta gainerako bertuteekin zer-nolako erlazioa duen). (1104a) Hala ere, aldezturik demagun ekintzei buruzko tratatua labur eta gehiegi zehaztu gabe prestatu behar dela; hasieran esan genuen bezala, tratatuak materiaren arabekoak izan daitezela eskatu behar da. Ekintzei eta onurei dagokienez, ez dago ezer finkaturik, osasunari dagokionez ere ez dagoen bezala. (5) Eta tratatu orokorra horrelakoa bada, banako ekintzei buruzko tratatuak zehaztasun gutxiago ere izango du: horiek, hain zuzen ere, ez dira kokatzen ez arte-eremu baten menpe, ezta

agindu baten menpe ere; aitzitik, egileek beraiek hausnartu behar dute beti egokiena, medikuntzan eta nabigazio-artean bezala. (10) Baina oraingo tratatua horrelakoa bada ere, gure ekarpena egiten ahalegindu behar dugu.

Beraz, lehenik eta behin, hauxe behatu behar dugu: horrelako gauzak, naturalak direlako, gabeziaz edo gehiegikeriaz suntsitzen direla, sendotasunari eta osasunari dagokienez ikusten dugun bezala (hain zuzen ere, iluna dena argitzeko adibide adierazgarriez baliatu behar dugu): (15) gimnastika gehiegi eta gimnastika gutxiegi egiteak sendotasuna suntsitzen dute, eta, berdin, edariak eta janariak ere suntsitzen dute osasuna, gehiegizkoak edo urriak badira; neurri egokian, berriz, sortu, handitu eta babestu egiten dute; eta, berdin ere, neurritasunari, adoreari eta gainerako bertuteei dagokienez. (20) Izan ere, beldurturik edozein egoeratik ihes egin eta ezeri aurre egiten ez diona koldar bihurtzen da; eta ezeri inolako beldurrik ez diona eta edozertara jotzen duena, berriz, ausartegia; berdin ere, edozein plazerez atsegin hartu eta inolako plazeri uko egiten ez diona, lasaka bilakatzen da; eta, abarkadunek bezala, plazer guztiak sailhesten dituena, soraio. (25) Beraz, gehiegikeriak eta gabeziak neurritasuna eta adorea suntsitzen dituzte; erdiko terminoak, berriz, babestu egiten ditu.

Baina sorrerak, handitzeak eta suntsipenak jatorri eta kausa berberetatik sortzeaz gain, jarduerak ere gauza berberetan suertatuko dira. Horrela da, hain zuzen ere, (30) gainerako gauza argiagoetan, indarrean bezala: honek janari asko hartzean eta oinaze handiak pairatzean baitu jatorria, eta azken hauek ongien egin ditzakeena indartsua da. Eta bertuteei dagokienez ere bada horrela, plazerei uko eginez neurrizko bilakatzen baikara, (35) eta horrelakoak izanda gero askoz hobeto egin diezaiekegu uko; eta berdin adoreari dagokionez ere, (1104b) beldurrak gutxiestera eta haiek eustera ohituz bilakatzen gara adoretzu, eta horrelakoak izanda gero beldurrak askoz hobeto jasan ahal izango ditugu.

III

Eginei jarraituriko plazera eta atsekabea azturen adierazletzat hartu behar dira, (5) gorputzaren plazerei uko egin eta egoera horretan bertan atsegin hartzen duena neurrizkoa

baita; eta atsekabetu egiten dena, lasaka; eta arrisku ikaragarriari aurre egin eta atsegin hartu edo, behintzat, sumindu egiten ez dena, adoretsua; eta atsekabetu egiten dena, koldarra. Bertute etikoa, hain zuzen ere, (10) plazer eta atsekabeei buruzkoa da, plazerarengatik ziztrinkeriak egiten baititugu, eta atsekabearengatik ongiei uko egiten diegu. Hortik gaztetatik nolabait hezia izanaren beharra, Platonek dioenez⁵, behar bezala atsegin hartzeko eta atsekabetzeko; heziketa zuzena horixe baita. Gainera, bertuteak ekintzei eta grinei buruzkoak baldin badira, eta ekintza orori eta grina orori plazera eta atsekabea jarraitzen badiete, (15) arrazoi horregatik ere izango da bertutea ekintzei eta grinei buruzkoa. Bestetik, haien bidez ezartzen diren zigorrek ere hori adierazten dute, zigorrak nolabaiteko sendagaiak baitira, eta sendagaien izaera kontrakoen bidez sendatzean datza. Gainera, lehen ere esan dugunez, arimaren aztura orok berez okerrera edo hobera bilakatzen diren gauza horietarako joera (20) eta gauza horiekin lotzeko natura du; eta gizakiak plazerengatik eta atsekabeengatik bilakatzen dira ziztrinak, lortu nahi izateagatik eta saihesteagatik behar ez direnak, edo behar ez direnean, edo behar ez den moduan, arrazoiak gai horretan nola edo hala bereiz ditzakeen beste edozein modutan. Horregatik bertuteak nolabaiteko ikaragaiztasun eta lasaitasun diren aldetik ere definitzen dira; (25) baina hori ez da zuzena, zentzu absolutuan esaten dutelako, behar bezala, eta behar ez bezala, eta noiz, eta beste gainerako zehazteak gehitu gabe. Horrenbestez, ezarrita dago horrelako bertutea plazerei eta atsekabeei dagokienez onena denaren praktika dela; eta gaiztakeria, kontrakoa.

Ondorengo azalpenok ere argitu diezazkigukete gai horien inguruko zalantzak. (30) Izan ere, gauza nahigarriak hiru direnez eta beste hiru higuingarriak –ederra, egokia eta atsegina, batetik; eta horien kontrakoak, bestetik, lotsagarria, kaltegarria eta atsekabegarria, alegia–, horri guztiari dagokionez gizaki zintzoa zuzen dago eta gaiztoa oker, plazerari dagokionez bereziki, azken hau animaliek ere baitute, (35) eta nahigarria den orori jarraitzen dio, (1105a) ederra eta egokia direnek ere atseginak dirudite eta. Gainera, guztiok hazi gara plazerarekin umetatik, eta horregatik da zaila gure bizitza blaitu duen gogo-aldarte hori erauztea. Bestetik,

⁵Platon, *Leges* II 653a.

gure ekintzak ere arautu egiten ditugu, batzuk gehiago, beste batzuk, berriz, gutxiago, plazeraren eta atsekabearen bidez; (5) eta arrazoi horregatik izan behar da hauei buruzkoa gure ardura osoa, gure ekintzetarako ez baita hutsala ongi edo gaizki poztea eta atsekabetzea. Eta gainera, plazeraren aurka borrokatzea suminaren aurka borrokatzea baino askoz nekezagoa da, Heraklitok esan bezala⁶, artea eta bertutea erronka zailenetan sortzen dira beti, (10) horietan ona dena ere hobea baita. Horrenbestez eta horregatik ere, bai bertutearen bai politikaren ardura osoa plazerei eta atsekabeei buruzkoa da, haietaz ongi baliatzen dena ona izango baita, eta gaizki baliatzen dena, gaiztoa. Eman dezagun ontzat, beraz, bertutea plazerei eta atsekabeei buruzkoa dela; eta sortarazten duten gauzek beraiek handitu (15) eta suntsitu egiten dutela bertutea, modu berean jarduten ez dutelarik; eta sortarazi zuen horretan bertan jarduten duela, gera bedi esana.

IV

Ondorengo zalantza planteatzen liteke: zein zentzutan esaten dugun gizakiak ekintza zuzenak burutuz egin behar direla zuzenak, eta ekintza-neurriak eginez neurrizkoak, ekintza zuzen eta neurritsuak egiten badituzte, (20) zuzenak eta neurrizkoak baitira dagoeneko, gramatikariak eta musikariak izango liratekeen bezala gramatikan eta musikan jardungo balute. Edo ez ote da horrela izango ezta arteetan ere? Izan ere, gramatikaren inguruko zerbait halabeharrez nahiz beste batek iradokita egin daiteke. Beraz, baten bat izango da gramatikaria, bakarrik gramatikaren inguruko zerbait eta hori gramatikalki egiten badu, hots, (25) bere baitan duen gramatikaren arabera. Gainera, arteetan eta bertuteetan ez da egoera bera suertatzen: arteek sortzen dituzten gauzek, hain zuzen ere, beren baitan dute ongia; beraz, nahikoa da nolabaiteko ezaugarriak izaten badituzte; baina bertuteen arabera sorturiko ekintzak zuzen eta neurritz eginak (30) izango dira horiek nolabaitekoak izan ez ezik egiten dituenak ere nolabaiteko baldintzak betetzen baditu: lehendabizi, ezagueraz egiten baditu; bigarrenik, hautatu, eta haiengatik beraiegatik hautatu baditu; hirugarrenik, tinko eta iraunkor jarduten

⁶Heraklito, frag. 85 (Diels-Krantz).

badu. Baldintza hauek gainerako arteak lortzeari begira ez dute garrantzirik, (1105b) salbuespen batez: ezagutza bera. Bertuteak lortzeari begira, berriz, ezagutzak garrantzi txikia du edo inolako garrantzirik ez du. Gainerako baldintzek, berriz, ez dute garrantzi txikia, erabatekoa baizik; izan ere, sarritan ekintza zuzen eta neurritsuak egitearen ondorioz sortzen direnak izaten dira, hain zuzen ere. (5) Beraz, ekintzak zuzenak eta neurritsuak direla esaten da gizaki zuzenak edo neurrizkoak egin litzakeen modukoak direnean; baina zuzena eta neurrizkoa ez da haiek egiten dituen, zuzenek eta neurrizkoek egiten dituzten moduan egiten dituen baizik. Beraz, ongi esanda dago ekintza zuzenak eginez gizakia zuzena bilakazen dela (10), eta ekintza neurritsuak burutuz, neurrizkoa; baina horiek egin ezean, ez da inor inolaz ere ona izatera helduko. Hala ere, gehienek ez dituzte haiek egiten, eta teoria hutsean babesturik filosofatzen dutela uste dute, eta horrela bertutetsuak izango direla; horrela, eriek bezala egiten dute, hots, (15) sendagileei arretaz entzuten diete, baina agindu bat bera ere ez dute betetzen. Beraz, horiek horrela jokatzaz gorputza inolaz ere sendatuko ez duten moduan, haiek filosofatuz ere ez dute arima sendatuko.

v

Horren ondoren, jarraian aztertu behar dugu bertutea zer den. (20) Ariman gertatzen diren gauzak hiru direnez –pasioak, ahalmenak eta azturak, alegia–, bertutea horietako bat izango da. Desira, sumindura, beldurra, adorea, bekaizkeria, poza, amodioa, gorrotoa, nahia, jelsia, errukia eta, oro har, plazeraz eta atsekabeaz lagunduriko afekzio horiek hartzen ditut pasiotzat. Baina ahalmentzat hartzen ditugu grinak sentitzeko gai egiten omen gaituztenak –adibidez, (25) sumintzeko, atsekabetzeko eta errukitzeko gai egiten gaituzten horiek–, eta azturatzat, grinei dagokienez ongi ala gaizki jokatzeko gai egiten gaituztenak –adibidez, sumindurari dagokionez, bortizki edo ahulki azalduz gero gaizki jokatu dugu, eta neurriz azalduz gero, ongi–; eta, berdin, gainerako pasioei dagokienez ere.

Beraz, pasioak ez dira ez bertuteak ez bizioak, ez digutelako bertutetsuak (30) edo makurrak pasioen arabera deitzen, bertuteen eta bizioen arabera baizik; eta pasioen arabera

laudatzen eta gaitzesten ez gaituztelako (ez baitira laudatzen beldur dena eta sumintzen dena, ezta erraz haserretzen dena gaitzetsi ere, nola edo hala egiten duena baizik); (1106a) aitzitik, bertuteen eta bizioen arabera gara laudatuak edo gaitzetsiak. Gainera, aurretiko hautapenik gabe sumintzen eta beldurtzen gara; bertuteak, oster, hautapen jakin batzuk dira, edo ez hautapenik gabeak, behintzat. Horretaz gain, esaten dugu grinak mugitzen garela, (5) eta bertuteen eta bizioen arabera ez garela mugitzen, nolabaiteko arima-egoera batean aurkitzen garela baizik. Arrazoi berberetatik bertuteak eta bizioak ez dira ahalmenak ere, ez baikara ez onak ez gaiztoak deituak grinak sentitzeko gai izateetatik soilik, ezta laudatuak eta gaitzetsiak ere. Gainera, ahalmenak izatez baditugu ere, ez gara izatez onak edo gaiztoak jaiotzen (10) –horretaz dagoeneko mintzatu gara lehen–. Beraz, bertuteak ez baldin badira ez pasioak ez ahalmenak, azturak direla geratuko zaigu. Esana dago, bada, bere generoari dagokionez bertutea zer den.

VI

Baina bertutea aztura bat dela esan ez ezik, nolakoa den ere esan behar da. (15) Beraz, xedatu behar da bertute orok bertuteari dagokion horren izaera ona burutzen duela eta bere eginkizuna ongi gauzarazten diola; adibidez, begiaren bertuteak bikainak egiten ditu bai begia bai honen eginkizuna (begiaren bertuteari esker ongi ikusten baitugu); era berean, zaldiaren bertuteak (20) bikain egiten du zaldia eta gai korrika ongi egiteko, zalduna eramateko eta arerioei aurre egiteko. Beraz, horrela baldin bada kasu orotan, gizakiaren bertutea ere izango da gizakia ona bihurtu eta haren eginkizuna ongi gauzarazten dion aztura. Hori nola izango den jadanik esan dugu, (25) eta askoz argiago ere gertatuko da bere natura nolakoa den behatzen badugu. Beraz, jarraia eta zatigarria den guztian zati handiago, txikiago edo berdina har daiteke, eta zati hori har daiteke bai gauzaren beraren arabera bai guri dagokigunez. Eta berdintasuna gehiegikeriaren eta gabeziaren arteko zerbait da. Gauzaren erdiko terminoa (30) bi muturretatik luzera berdiner, dagoenari esaten diot, eta hori, hain zuzen ere, bat eta bera da guztientzat, eta guri dagokigunez gehiegizkoa edo gutxiegi ez denari, eta hori ez da ez bat

ez bera guztientzat. Adibidez, hamar asko badira eta bi gutxi, orduan gauzaren arabera erdiko terminotzat sei hartzen da, gaintitzen duen kantitatea eta gaintitua den kantitatea kantitate berbera baita, (35) eta hori erdiko terminoa da proportzio aritmetikoaren arabera. Baina, guri dagokigunez erdiko terminoa ez da horrela ulertu behar: (1106b) gizaki batentzat hamar libra jatea asko bada eta bi jatea gutxi, prestatzaile fisikoak ez du sei libra aginduko, hartu behar duenarentzat kantitate hau ere, ziur aski, asko edo gutxi izango baita; gutxi Milon-entzat, hain zuzen ere; asko, oster, ariketa fisikoak praktikatzen hasten denarentzat; eta gauza bera lasterketaren eta borroka atletikoaren kasuetan. (5) Horrela ere, beraz, aditu orok gehiegikeria eta gabezia ekiditen ditu, eta erdiko terminoa bilatzen eta hautatzen du; hala ere, erdiko termino hau ez da gauzarena, guri dagokiguna baizik. Beraz, zientzia orok bere eginkizuna horrela burutzen badu ongi, hots, erdiko terminoari begiratzuz eta bere lanak erdiko terminorantz bideratuz (hori dela eta, (10) baieztatu ohi da ongi eginiko lanei ezin dakiekeela ezer kendu ezta erantsi ere, kontuan hartuta gehiegikeriak eta gabeziak ongia suntsitzen dutela; erdiko terminoak, oster, babestu egiten du, eta, esan bezala, teknikari onek horri begira egiten dute lan). Bestalde, bertuteak, naturak ere bezala, arte oro baino zehatzagoa (15) eta hobeia bada, erdiko terminorantz joko du. Bertute etikoaz ari naiz, hori pasioei eta ekintzei buruzkoa baita, eta haietan daude gehiegikeria, gabezia eta erdiko terminoa. Adibidez, beldur izatean, ausartzean, desira izatean, sumintzean, errukitzean eta, oro har, atsegin hartzean eta atsekabetzean (20) gehiago eta gutxiago eman daiteke, eta ez dira zuzenak ez bata ez bestea; baina behar diren uneetan ematen baldin badira, egoera egokietan eta pertsona egokiekiko, asmo egokiaz eta behar bezala, orduan erdiko terminoa dugu, termino bikaina, eta hori da, hain zuzen ere, bertutearen berezkoa. Era berean, ekintzei dagokienez ere badira gehiegikeria, gabezia eta erdiko terminoa. Horrela, bada, bertutea pasioei eta ekintzei buruzkoa da; (25) horietan gehiegikeria eta gabezia akatsak dira, eta erdiko terminoa, aldiz, laudatua eta arrakastatsua, eta bi ezaugarriok bertutearen berezkoak dira. Beraz, bertutea nolabaiteko erdia da, edo erdiko terminorantz jotzen du, behintzat. Gainera, huts egitea era askotan gertatzen da (gaizkia azkengabearena baita, (30)

pitagorikoek susmatu zuten bezala, eta ongia, mugatuarena), baina arrakasta lortzea era bakar batean (horregatik da erraza bata eta nekeza bestea, erraza ituan huts egitea eta nekeza betebetean jotzea). Beraz, arrazoi horiengatik ere, gehiegikeria eta gabezia gaizkiarenak dira, eta erdikotasuna, bertutearena:

(35) Onak era bakar batean dira onak, gaiztoak era askotan⁷.

Beraz, bertutea nahita hautaturiko aztura bat da, (1107a) guri dagokigun erdikotasunean datzana, eta hori gizaki zuhurrak zehatz lezake. Erdikotasuna bi bizioren artekoa da, bata gehiegikeriaren araberakoa, bestea gabeziaren araberakoa; bestalde, bizioek pasioetan eta ekintzetan beharrezkoa dena gainditzten dute, eta batzuetan ez dira iristen; bertuteak, ostera, erdikoa bilatzen eta hautatzen du. (5) Horregatik, bertutea, substantziaren eta esentzia adierazten duen definizioaren arabera, erdiko termino bat da; baina bikaina eta ongia direnen arabera, mutur bat.

Hala eta guztiz ere, ekintza orok ez du erdikotasuna onartzen, ezta pasio orok ere, batzuen izenek eurekin batera nolabaiteko gaitzusteak ekartzen baitute argiro; (10) adibidez, gaiztakeria, gaitzusteak eta bekaizkeria, eta ekintzen artean adulterioa, lapurreta eta hilketa. Izan ere, gauza horiek guztiak eta horrelakoak berez ziztrinak izateagatik gaitzesten dira, eta ez haien gehiegikeriak ezta gabeziak ere. Beraz, haiei dagokienez, ezin daiteke inoiz itua jo, (15) beti huts egin baizik. Horrelako bizioei dagokienez, ongia edo gaizkia ez daude, adibidez, adulterioa emakume egokiarekin, behar den unean eta behar bezala egitean; aitzitik, horietako edozein egitea erabateko huts egitea da. Beraz, gauza bera da erdikotasuna, gehiegikeria eta gabezia daudela uste izatea zuzengabekeriak egitean eta koldarra eta lasaka izatean; izan ere (20) horrela uste bada, gehiegikeriaren eta gabeziaren erdikotasuna, gehiegikeriaren gehiegikeria bat eta gabeziaren gabezia bat izango dira. Baina neurritasunean eta adorean gehiegikeria eta gabezia ez diren legez –erdikotasuna, nolabait, mutur bat

⁷ Egile ezezaguneko esana.

izateagatik–, halaber, bizio horietan ez dago erdiko terminorik, ezta gehiegikeriarik eta gabeziarik ere, edonola eginda ere huts egiten baita. (25) Izan ere, gehiegikerian eta gabezian, oro har, ez dago erdikotasunik, ezta erdikotasunean gehiegikeriarik eta gabeziarik ere.

VII

Baina hori orokorrean esan ez ezik, banako kasuetan ere erabili behar da. Izan ere, ekintzei dagozkien arrazoinamenduetan (30), unibertsalak direnak arruntagoak dira, banakoak direnak, berriz, egiazkoagoak dira, ekintzak banako kasuei buruzkoak baitira, eta baieztaturikoa horiei egokitu behar zaie. Beraz, kontuan hartu behar dira gure sailkapenaren ondoko banakook. Beldurrari eta ausardiari dagokienez, hain zuzen ere, erdikotasuna adorea da; (1107b) erdikotasuna gainditzen dutenen artean, beldurrik gabe egiten duenak ez du izenik (askok ez dute izenik); ausarta agertzean erdikotasuna gainditzen duena ausartegia da; eta beldur izatean erdikotasuna gainditu eta ausarta agertzean ausardiarik ez duena, koldarra. Plazerei eta atsekabeei dagokienez (5) –ez guztiei, eta neurri txikiagoan ere atsekabeei dagokienez–, erdikotasuna neurritasuna da, eta gehiegikeria, neurrigabekeria. Plazerei dagokienez, gabezia egiten dutenak ez dira asko; eta horregatik, hain zuzen, honelakoek izenik ere ez dute jaso; dei iezaiegu soraioak, orduan. Dirua emateari eta hartzeari dagokienez, erdikotasuna eskuzabaltasuna da, eta gehiegikeria (10) eta gabezia, zarrastelkeria eta zikoizkeria; azken horietan gehiegikeria eta gabezia kontrakoak dira: zarrastelak, hain zuzen ere, dirua ematean erdikotasuna gainditzen du, eta jasotzean, haren azpian gelditzen da; zikoitzak, aldiz, dirua jasotzean erdikotasuna gainditzen du, eta ematean, haren azpian gelditzen da. Oraingo, beraz, murrizki eta laburbilduz hitz egiten ari gara, (15) eta horrekin berarekin aski dugu; geroago definituko ditugu zehatzago gai horiek. Diruari dagokionez, beste zenbait gogo-izaera ere badaude: erdiko termino bat, oparotasuna (oparoa eta eskuzabala desberdinak baitira: batari dirutza handiena dagokio, besteari diru kopuru txikia); gehiegikeria bat, arrunkeria eta nabarmenkeria; eta gabezia bat, (20) doilorkeria.

Horiek eta eskuzabaltasunari buruzkoak desberdinak dira; zertan bereizten diren, aurrerago esango da.

Ohoreari eta desohoreari dagokienez, erdikotasuna arimanditasuna da; gehiegikeria, handikeria deituriko hori, eta gabezia, txepelkeria. Eta oparotasuna eta eskuzabaltasuna bereizten diren moduan (25) –azken hori diru kopuru txikia dela baikenioen–, horrela ere bereizten dira beste gogo-izaera eta arimanditasuna, hau ohore handienari dagokiona delako, eta hura, berriz, txikienari. Izan ere, ohorerako gogo behar bezalakoa, behar baino handiagoa eta behar baino txikiagoa izan daiteke; gogo handiegia duena handinahikoa da, gogo txikiegia duena, handinahigabea, eta erdiko terminoak ez du izenik; (30) haien arima-egoerek ere ez dute izenik, handinahikoarena izan ezik: handinahia. Hori dela eta, muturrek ahaleginak egiten dituzte erdigunea lortzeko, eta guk, zenbaitetan, erdiko terminoan dagoenari handinahikoa deitzen diogu, eta beste zenbaitetan, handinahigabea; eta zenbaitetan handinahikoa goraiatzan dugu, (1108a) eta beste zenbaitetan, handinahigabea. Hau zergatik egiten dugun jarraian esango da; orain mintza gaitezen gainerako izaerei buruz erabakitako moduan.

Sumindurari dagokionez ere, badira gehiegikeria, gabezia eta erdiko terminoa. (5) Izaera horiek ia izenik ez dutenez, erdikotasunari otzana esaten badiogu, erdiko izaerari deituko diogu otzantasuna; muturretan, erdiko terminoa gainditzen duena suminkorra, eta honen bizioa, suminkortasuna; erdiko terminoaren azpitik dagoena, suminezina, eta haren gabezia, sumindurarik eza. Bestalde, badira beste hiru erdiko izaera, (10) euren artean nolabaiteko antzekotasuna izanda ere desberdinak direnak; hirurak, hain zuzen ere, hitzezko eta ekintzezko harremanei buruzkoak dira, baina bereizten dira bat hitzen eta ekintzen egiazkotasunari buruzkoa delako, eta beste biak, berriz, haien atsegintasunari buruzkoak, bai olgetan bai bizitzaren gauza guztietan. Beraz, haietaz ere mintzatu behar dugu, (15) askoz hobeto ikus dezagun erdikotasuna laudagarria dela edozein gauzatan, baina muturrak ez direla ez zuzenak ez laudagarriak, gaitzesgarriak baizik. Horietako izaera gehienak ere izengabeak

dira, baina gainerako kasuetan bezala, horiek izendatzen saiatu behar dugu, argitasunagatik eta gure arrazoinamenduari erraz jarrai dakion.

Beraz, egiari dagokionez, (20) dei iezaioгу egiazkoa erdiko terminoari, eta erdikotasunari, egiazkotasuna; eta itxurakeria dagokionez, gehiegizko itxurakeriari, harropuzkeria, eta hori duenari, harroputza; eta gutxieigizkoari, gainzurikeria, eta hori duenari, gainzuritzaille. Olgetari buruzko atsegintasunari dagokionez, erdiko terminoa gatzduna da, eta izaera, grazia; gehiegikeria, zantarkeria, (25) eta hori duena, zantarra; erdiko terminoaren azpian dagoena, zarpaila, eta aztura, zarpailkeria. Bizitzaren gainerako gauza atseginei dagokienez, behar bezalako atsegina dena adeitsua da, eta erdikotasuna, adeitasuna; eta gainditzen duena, onurako ez bada, gizabidetsua, eta bere onerako bada, lausengaria; eta erdiko terminoaren azpian dagoena eta erabat ezatsegina dena, (30) erretxina eta umore txarrekoa.

Pasioetan eta pasioei dagozkien gauzetan ere badaude erdiko terminoak; izan ere, lotsa ez da bertutea, baina lotsatia ere goraiatzten da; eta kasu horretan, hain zuzen ere, bati erdiko terminoa esaten zaio, beste bati, gehiegizkoa –denetaz lotsatzen denari, alegia–, (35) eta beste bati, gutxieigizkoa edo ezertaz ere lotsatzen ez dena; eta erdiko terminoa, lotsatia da.

(1108b) Haserredura bekaizkeriaren eta gaitzustearen arteko erdikotasuna da, eta denak dira hurkoei gertatzen zaienak eraginiko plazeraren eta atsekabearen inguruko izaerak: haserrekorriari, hain zuzen ere, min egiten dio merezi ez dutenen onurak, eta bekaiztiari, aurrekoa gaindituz, guztienak; (5) gaitzustekoa, ostera, hain du atsekabetzeko ahalmen txikia, ezen poztu egiten baita. Hala ere, gai horietaz eztabaidatzeko beste nonbait izango dugu aukera egokia. Ondoren, zuzentasunari buruz arituko gara, eta zuzentasuna zentzu absolutuan esaten ez denez, bi motak bereizita esango dugu batean eta bestean nola diren erdiko terminoak; eta, berdin, (10) arituko gara arrazoimenezko bertuteei buruz ere.

Beraz, disposizioak hiru direnez –bi bizio, bata gehiegikeriaz eta bestea gabeziar, eta bertute bakar bat, erdiko terminoarena–, denak, nolabait, elkarren aurka daude, muturrekoak erdikoaren eta elkarren aurkakoak baitira, eta erdikoa, muturrekoen aurkakoa; (15) izan ere, berdina dena txikiagoa denari dagokionez handiagoa, eta, handiago denari dagokionez, txikiagoa den bezala, erdiko azturak, gabeziei dagokienez, gehiegizkoak dira, eta gehiegikeriei dagokienez, gutxiagizkoak, bai pasioetan bai ekintzetan. Adibidez, adoretuak koldarrari dagokionez ausartegia dirudi, (20) eta ausartegiari dagokionez, koldarra; eta, berdin, neurritzkoa ere: soraioari dagokionez lasaka, eta lasakari dagokionez, soraioa; eta eskuzabala: zikoitzari dagokionez, zarrastela, eta zarrastelari dagokionez, zikoitza. Horregatik arbuiau egiten dute muturrek erdikoa, mutur bakoitzak beste muturrerantz, eta koldarrak ausartari ausartegia deitzen dio, (25) eta koldarra ausartegiak, eta antzeko moduan gainerako kasuetan.

Hiru izaerok elkarren aurka horrela ezarritz gero, aurkakotasuna handiagoa da muturren artean muturren eta erdiko terminoaren artean baino, haiek urrunago baitaude elkarrengandik erdiko terminotik baino, txikia eta handia elkarrengandik bata eta bestea berdina denetik baino urrunago dauden bezala. (30) Gainera, badirudi mutur batzuetan nolabaiteko antzekotasuna dagoela erdiko terminoarekiko, ausarkerian adorearekiko eta zarrastelkerian eskuzabaltasunarekiko bezala; muturren artean, oster, ezberdintasun handiena gertatzen da, eta elkarrengandik urrutien daudenak aurkako definitzen dira; horrenbestez, (35) urrutiago daudenak aurkakoagoak ere badira.

Erdiko terminoari dagokionez, (1109a) zenbaitetan gabezia da aurkakoagoa, eta beste zenbaitetan, berriz, gehiegikeria; adibidez, adorearen aurkakoa ez da ausarkeria –gehiagikeria dena–, koldarkeria –gabezia dena– baizik; eta neurritasunaren aurkakoa ez da soraioakeria –eskasia dena–, neurrigabekeria –gehiagikeria dena– baizik. (5) Eta hori bi kausarengatik gertatzen da. Batak gauzaren baitan du jatorria: erdiko terminotik mutur bat bestea baino hurbilagoa eta antzekoagoa izateagatik, erdiko terminoaren aurkakotzat ez dugu hori hartzen, mutur horren aurkakoa baizik; adibidez, ausarkeria adorearen antzekoagoa eta hurbilagoa,

eta koldarkeria ezberdinagoa dirudenez, (10) nahiago dugu hori kontrajarri, erdiko terminotik urrunago daudenek aurkakoagoak baitirudite. Beraz, kausa bat hau da, jatorria gauzaren baitan duena; baina besteak geure baitan du jatorria, izatez nolabait joera handiagoa dugun hori erdiko terminoarekiko aurkakoagoa omen baita; esate baterako, (15) izatez plazeretarako dugu joera handiagoa, eta horregatik neurrigabegikeriarako dugu joera handiagoa, begirunerako baino. Beraz, joera handiagoak ditugun gauza horiek aurkakoagotzat hartzen ditugu, eta arrazoi horregatik da neurrigabekeria –gehiegikeria dena– neurritasunaren aurkakoagoa.

IX

(20) Izan ere, nahikoa azalduta dago bertute etikoa erdiko terminoa dela eta zein zentzutan, eta erdiko terminoa bi bizioaren artekoa dela, bata gehiegikeriaz eta bestea gabeziak, eta horrelakoa dela pasioetan eta ekintzetan, erdiko terminora jotzeko gai izateagatik. Horregatik da nekeza ere lan bertutetsua izatea, (25) gauza orotan erdiko terminoa aurkitzea lan nekeza baita; adibidez, zirkuluaren zentroa ezin du edozeinek aurkitu, dakienak baizik; halaber, sumintzea ere gauza erraza da eta edonor sumin daiteke, baita dirua ematea eta gastatzea ere; baina nori, zenbat, noiz, zergatik eta nola eman, hori ezin du edozeinek egin, eta erraza ere ez da; ongia horrexegatik da urria, goragarria eta ederra. (30) Eta erdiko terminoa helburu duena horregatik urrundu behar da lehen-lehenik erdiko terminoarekiko aurkakoena den horretatik, Kalipsok aholkatzen duen bezala:

Eutsiozu ontziari apar horretatik eta uhinetik urrun⁸;

izan ere, bi muturretan, bata okerragoa da, eta bestea, ez hain okerra. Beraz, erdiko terminoa erdiesteak arras nekeza denez, bigarren nabegazioan⁹ (35) esan bezala, biziorik

⁸ Homero, *Odyssea* XII 108-109.

⁹ Bigarren nabigazioan esaten da haizerik ezarengatik arraun egin behar denean

txikiena hartu behar da; (1109b) eta hori posible izango da, batez ere esaten dugun modu horretan.

Gauza jakin batzuetarako erraz jotzen dugu, eta gauza horiek ere aztertu behar ditugu (batzuok gauza jakin batzuetarako joera baitugu izatez, eta beste batzuek, beste batzuetarako); hori ezaguna egingo zaigu geure baitan sentitzen ditugun plazeretik eta atsekabetik abiatuta. Orduan kontrako aldera eraman behar dugu geure burua, (5) huts egitetik asko urrunduz iritsiko baikara erdiko terminora, ohol makurtuak zuzentzen dituztenek egiten duten bezalaxe. Bestalde, edozertan egon behar da zeharo erne atseginaren eta plazeraren aurrean, plazera ez baitugu inpartzialki epaitzen. Beraz, Helenarekiko herriko zaharrek sentitu zuten horixe bera¹⁰ (10) sentitu behar dugu guk plazerari dagokionez, eta edozein egoeratan haien hitzak errepikatu; honela urruntzen bagara hartatik, askoz ere gutxiagotan huts egingo baitugu. Orduan, laburbilduz, horrela egiten badugu, erdiko terminoa askoz hobeto erdietsi ahal izango dugu. Baina hori, jakina, nekeza da, eta batez ere banako kasuetan, ez baita erraza zehaztea nola, (15) norekin, zergatik eta zenbat denboraz sumindu behar den; izan ere, zenbaitetan geuk iristen ez direnak laudatzen ditugu eta adeitsuak esaten diegu, eta beste zenbaitetan suminduta daudenei otzanak deitzen diegu. Hala ere, ongitik gutxi urruntzen dena, ez gehiegikeriaz ez gabeziaz, ez da gaitzesten, asko urruntzen dena baizik, (20) hau ez baita oharkabea suertatzen. Baina gaitzesgarria noraino eta zein neurritan den ez da erraza arrazoiak zehaztea, zentzumenezko beste edozer ere zehaztea erraza ez delako. Horrelako gauzak banakoetan izaten dira, eta erabakiak zentzumenetan dautza. Beraz, esandakoak agerian jartzen du erdiko aztura gauza guztietan goresgarria dela, baina batzuetan gehiegikeriarako joera izan behar da, (25) eta beste batzuetan, gabeziarako, horrela erdiko terminoa eta ongia oso erraz erdietsiko baititugu.

¹⁰ Homero, *Ilias* III 155-160.

I

(30) Bertutea pasioei eta ekintzei buruzkoa denez, eta borondatezko pasio eta ekintzek goraipenak eta gaitzespenak, baina nahi gabekoek barkamena eta, batzuetan, errukia jasotzen dituztenez, bertuteari buruz aztertzen dutenentzat agian izango da beharrezkoa borondatezkoa eta nahi gabekoa zer den zehaztea, baita legegileentzat ere onuragarria, ohoreei eta zigorrei begira. (35) Hortaz, badirudi nahi gabekoak indarkeriaz edo ezjakitez gertaturikoak direla; (1110a) indarrez behartua da bere printzipioa kanpoan duen hori, eta printzipioa den moduan egileak eta jasaleak ez diote ezertan delako horri laguntzen; adibidez, haizeak norbait edonora eramaten baldin badu, edo nagusi zaizkion gizakiek eramana baldin bada. Gaitz handiagoen beldurrez edo gauza eder jakin batengatik egiten diren gauza guztiei dagokienez, zalantzazkoa da nahi gabekoak diren ala borondatezkoak—; (5) adibidez, norbaiten gurasoak eta seme-alabak tirano baten menpe egonik, baldin eta horrek hari zerbait lotsagabea egiteko aginduko balio, eta agindua beteta, haiek salbatuko balira, baina bete ezean, hilko balira—. Beste horrenbeste gertatzen da ekaitzetan zamak botatzen direnean; egia esan, ez du inork borondatez botatzen, (10) baina beren buruaren eta gainerakoen salbazioarengatik egiten dute hori zentzudun guztiek. Beraz, horrelako ekintzak mistoak dira, baina borondatezkoen antza handiagoa dute, egiten diren momentuan aukeratuak baitira, eta ekintzaren helburua egokierari dagokiolako. Beraz, bai nahi gabekoa bai borondatezkoa egileak egiten duen unean esan behar da; (15) baina borondatez egiten du, horrelako ekintzetan gorputz-atalak mugitzen dituen printzipioa egilearen baitan dago-eta; bestetik, ekintzen printzipioa egilearen baitan badago, egitea edo ez egitea ere egongo da haren esku. Beraz, horrelako ekintzak borondatezkoak dira, baina zentzu absolutuan agian izango dira nahi gabekoak, ez bailuke inork horrelako ekintzarik berez aukeratuko. Horrelako ekintzei dagokienez, gizakiak laudatuak ere badira batzuetan, (20) kausa handi eta noble baten truke

zerbait lotsagarri edo neketsuari eusten diotenean; eta, alderantziz, gaitzetsiak ere badira, onurarik gabe edo ezer gutxiren truke gauzarik laidogarrienak jasatea ziztrinari baitagokio berez. Zenbait kasutan, aldiz, ez da goraipena gertatzen, barkamena baizik: giza izaera gainditzeko duen eta (25) inork jasan ez lezakeen egoera baten menpe egonik, norbaitek egin behar ez duena egiten duenean. Hala ere, gauza jakin batzuk agian ezin dira behartuta egin; aitzitik, sufrimendurik ikaragarrienak jasan ondoren, hiltzea nahiago behar da; izan ere, Euripidesen Alkmeon bere ama hiltzera behartu zuten arrazoiak, hain zuzen ere, barregarri azaltzen dira¹¹. Hala ere, zenbait kasutan bi ekintzatan zein aukeratu behar (30) eta zein jasan behar den bereiztea nekeza da, baina askoz ere nekazagoa ere bada harturiko erabakiei eustea, zeren gehienetan itxaroten duguna mingarria baita; eta behartuta egin behar duguna, berriz, lotsagarria; hori dela eta, ematen dira goraipenak eta gaitzespenak, gizakiak behartuak izan ala ez izan.

(1110b) Beraz, nolako ekintzei deitu behar zaie indarrez behartuak? Akaso ekintzak ez dira behartuak, zentzu absolutuan, kausa kanpoan egonda egileak ezertan parte hartzen ez duenean? Bestalde, berez nahi gabeko ekintzak, baina egoera jakin batean eta ondorio jakin batzuk ekiditeko aukeratuak direnak eta printzipioa egilearen baitan duten horiek, berez nahi gabekoak badira ere, (5) egoera jakin batean eta ondorio jakin batzuk ekiditeko borondatezkoak dira. Hala ere, borondatezkoen antza handiagoa dute, ekintzak banako gertaeretan baitira, eta gertaera horiek borondatezkoak dira. Ez da erraza, ordea, zenbait aukeratan zein hautatu behar den zehaztea, banako kasuetan desberdintasun anitz gertatzen baita.

Baina norbaitek esango balu atseginak eta ederrak diren gauzak behartuak direla (10) (kanpokoak izanik behartzen baikaituzte), beraren ustez gauza guztiak lirateke behartuak, haiei esker denek egiten baitute gauza oro; gainera, bortxatuta eta nahi gabe egiten dutenak atsekabez egiten dute, eta atsegina eta ederra denarengatik egiten dutenak, atseginez; eta barregarria da errua kanpoko gauzei egozte, –eta ez, nork bere buruari, horrelako gauzek

¹¹ ik. Euripides, frag. 69 (Nauck)

edonor hain erraz harrapatzen dituztelarik– eta, bestalde, gertaera ederrak bere buruari eranstea, (15) eta laidogarriak, berriz, plazerari. Beraz, ekintza indarrez behartua bere prinzipioa kanpoan duena da, nonbait, beharra jasaten duenak ezertan lagundu gabe.

Ezjakitez egiten den oro ez da borondatezkoa, eta nahi gabekoa, atsekabea eta damua dakartzana; edozer ezjakitez egin duenak, (20) eginarekiko inolako aladurarik gabe, ez zuen borondatez egin, jakinik egiten ez zuelako bederen, ezta nahi gabe ere, atsekabetzen ez delako behintzat. Beraz, ezjakitez egiten dutenen artean, badirudi damua sentitzen duenak borondatez egiten duela; baina damurik sentitzen ez duenak, desberdina denez, ez du borondatez egin, nonbait; izan ere, desberdina denez, hobe da izen berezia edukitzea. Gainera, (25) badirudi ezjakitez egitea eta jakin gabe egitea ere desberdinak direla, mozkor dagoenak edo sumintzen denak ez omen baitute ezjakitez egiten, aurretik esandako zerbaitengatik baizik, hots, jakinik ez, jakin gabe baizik. Izan ere, zital orok ez daki zer egin behar duen eta zeri egin behar dion uko, eta horrelako hutsegitearen ondorioz bihurtzen dira bidegabe eta, oro har, gaizto. (30) Nahi gabeko ekintza esaten da ez norbaitek onuragarri dena ezagutzen ez duenean, hautapenaren inguruko ezjakintasuna ez baita nahi gabeko ekintzen kausa, zitalkeriarena baizik; eta ezjakintasun orokorrarena ere ez (horrengatik behintzat baitira gizakiak gaitzetsiak), banako ekintzaren baldintzen eta objektuaren ezjakintasuna baizik; (1111a) izan ere, bai errukia bai barkamena baldintza horietan dautza, horietako bat ezagutzen ez duena nahi gabe ari delako. Beraz, agian ez da soberan izango honi guztia zehaztea, hots, zein eta zenbat diren, zeinek egiten duen eta zer, zeri buruz eta zertan; eta batzuetan zertaz (5) –zein tresnaz, alegia– eta zergatik –salbazioarengatik, alegia– eta nola –lasaiki edo bortizki, alegia–.

Hala ere, inork ez luke hori guztia alde batera utziko –erotuta ez balego, behintzat–, ezta, jakina, egiten duena ez ezagutu ere; izan ere, nola lezake nork bere burua, behintzat, ezagutu ez? Baliteke, ostera, norbaitek egiten duena ez ezagutzea; adibidez, hizketan ari zela norbaiti zerbaitek ihes egin diola edo norbaitek zerbait sekretua dela ez zekiela esaten da –misterioei dagokienez (10) Eskilok egin zuen bezala–, edo erakutsi nahi zuen hartan mekanismoa jaurti

zitzaiola, katapultaren kasuan bezala. Halaber, norbaitek bere semea etsaia dela pentsa lezake, Meropek bezala; eta burdinezko puntadun lantza kamusturik zegoela, edo harri hura pomiz harria zela; edo norbait salbatzeko asmoz, edaria emanda hura hil; eta norbaiti ukitu nahi izanda, zauritu jipoitzean esku-borrokan bezala. (15) Beraz, ezjakitea ekintzaren baldintza horietan guztietan gerta daitekeenez, horietako bat ezagutzen ez duenak nahi gabe egin duela pentsatzen da, gehienbat ezjakitea baldintza garrantzitsuenetan gertatzen bada, eta garrantzitsuenak ekintzarenak eta helburuarenak direla pentsatzen da. Ezbairik gabe, horrelako ezjakitea dela-eta nahi gabe egin duenarentzat, (20) ekintza atsekabetua eta damutua izan behar da.

Nahi gabeko ekintza bortxaz eta ezjakitez egiten dena izanik, borondatezkoa printzipioa bere baitan duena eta banako ekintzaren baldintzak dakizkien hori dela pentsa liteke; izan ere, ziur aski ez da zuzena nahi gabeko ekintzak (25) haserrez edo desiraz egindakoak direla esatea. Lehen-lehenik, hain zuzen ere, gainerako animalietan, batek berak ere ez luke borondatez ezer egingo, eta umeek ere ez; bigarrenik, akaso ez dugu borondatez egiten haserrez edo desiraz egindako ezer? Edo, akaso, ekintza ederrak borondatez egiten ditugu, baina lotsagarriak, nahi gabe? Edo, kausa bakar bat izanik, hau barregarria litzateke? Baina, ziur aski, zentzugabea da (30) gogokoak izan behar diren gauza horiek nahi gabekoak direla esatea; oster, zenbait gauzarengatik sumindu behar da, eta, beste batzuk, desiratu, osasuna eta ezaguera, alegia. Bestalde, badirudi nahi gabekoak atsekabeak direla, eta desiraren arabekoak, atseginak. Eta bestalde, nahi gabekoak izanez gero, zertan bereizten dira nahita egindako eta haserrez egindako okerrak? Izan ere, batzuk eta besteak saihestu behar dira. (1111b) Baina pasio irrazionalak beste pasioak bezain gizatiarrak dira; hortaz, haserrez eta desiraz egindako ekintzak ere badira giza ekintzak. Beraz, ekintza horiek nahi gabekotzat hartzea zentzugabea da.

Borondatezko dena eta nahi gabekoa dena zehaztuta gero, (5) hautapenari buruz aritu behar da, bertutearen berezkoena baita, nonbait, eta ekintzak baino hobea da aiurriak epaitzeko. Argi dago, zalantzarik gabe, hautapena borondatezko zerbait dela, baina ez da gauza bera, borondatezkoa dena zabalagoa baita; izan ere, borondatezkoan umeek eta gainerako animaliek ere hartzen dute parte, baina ez hautapenean, eta bat-bateko ekintzei (10) borondatezkoak esaten diegu, baina ez hautatuak. Hautapena, desira, sumindura, gogoia edo nolabaiteko iritzia dela esaten dutenek ez omen dute zuzen esaten, hautapena ez baitugu inolaz ere baterako irrazionalekin; desira eta sumindura, ordea, bai. Eta gizaki meneraezinak desiraz egiten du, baina ez hautatuz; meneratuak, aitzitik, (15) hautatuz, baina ez desiratuz. Eta hautapenari desirak egiten dio aurka, baina ez desirak desirari. Eta desira atsegingarri denarena eta atsekabegarri denarena da; baina hautapena, ez atsekabetsuarena ez atsegingarriarena.

Are gutxiago ere bulkada, bulkadaz egindakoa ez omen baita inolaz ere hautapenaren araberakoa; gogoia ere ez, (20) nahiz eta oso hurbil agertu; izan ere, ezinezkoa denaren hautapenik ez dago, eta baten batek hori hautatzen duela esango balu, ergela litzateke; gogoia, berriz, ezinezkoa denarena ere bada, hilezkortasunarena, alegia. Gainera, gogoia norbaitek bere kabuz inolaz ere egingo ez lituzkeen gauzei buruzkoa ere bada, adibidez, aktore edo atleta jakin bat garaile ateratzearen gogoia; (25) baina inork ez du horrelakorik hautatzen, bere ustez bere kabuz egin ditzakeen horiek baizik. Bestalde, gogoia helburuarena da neurri handiagoan, eta hautapena, berriz, helbururantz gidatzen duten baliabideena; esate baterako, osasuna izan nahi dugu, baina osasuntsu izateko baliabideak hautatzen ditugu, eta zoriontsua izan nahi dugu –eta horrela esaten dugu–, baina hautatzen dugula esatea ez da egokia, hautapena, oro har, (30) gure menpe dauden gauzei buruzkoa omen delako.

Hautapena, zalantzarik gabe, iritzia ere ez da, iritzia gauza guztiei buruzkoa omen baita, eta inolaz ere ez gutxiago betierekoei eta ezinezkoei buruzkoa, gure menpe dauden gauzei buruzkoa baino; eta iritzia bereizten da faltsua edo egiazkoa izateagatik, ez ona edo txarra izateagatik; eta hautapena, neurri handiagoan, azken hauetatik bereizten da. Beraz,

laburbilduz, (1112a) inork ez du ziur aski esango hautapena eta iritzia gauza bera direnik; ezta iritzi jakin bat ere, ona edo txarra dena hautatzeagatik baitugu nolabaiteko aiurria, baina ez iritzia izateagatik. Eta haietako bat hartzea edo saihestea hautatzen dugu, baina horri deritzogu zer den edo nori komeni zaion edo nola; (5) baina inolaz ere ez deritzogu hartzea edo saihestea. Eta hautapena neurri handiagoan da laudatua behar bezalakoa izateagatik, zuzena izateagatik baino; iritzia, berriz, egiazkoa izateagatik. Bestalde, ona dela ongi ezagutzen dugun hori hautatzen dugu, baina ongi ezagutzen ez ditugun gauzei buruz ematen dugu iritzia. Onena hautatzen dutenak eta onenari deritzotenak ez omen dira gizaki berberak; batzuek onenari irizten diote, baina (10) bizio batengatik ez dute hautatu beharrekoa hautatzen. Gainera, iritzia hautapenaren aurretikoa den edo hurbiletik jarraitzen dion ez du batere axola, ez baitugu hori aztertzen, hautapena nolabaiteko iritzia ote den baizik.

Beraz, aipaturikoetan bat bera ere ez denez, zer da edo nolakoa da hautapena? Agerikoa da, jakina, borondatezkoa dirudiela; hala ere, borondatezko oro ez da hautagarria. (15) Baina, izango ote da aldeztu aurretik hausnartua dena? Izan ere, hautapena arrazoinamenduekin eta pentsamenduekin batera doa, eta bere izenak ere adierazten omen du hura beste zenbait gauzaren aurrean aukeratua izan dela.

III

Hausnarketa gauza orori buruz egiten dugu eta gauza oro hausnargarria da, ala gauza batzuei buruz ez dago hausnarketarik? Agian esan beharko zaio (20) hausnargarri ez ergel batek edo ero batek hausnar lezakeen horri, zentzudunak hausnartuko lukeen horri baizik. Izan ere, inork ez du hausnartzen betiereko gauzei buruz, adibidez, unibertsoaren ordenari buruz, edo diagonalari eta aldeari buruz, neurtezinak direlako; ezta mugimenduan dauden gauzei buruz ere, beti berdin gertatu egiten baitira, nahitaez, izatez (25) edo nolabaiteko beste kausa batez, solstizioak eta astroen irteerak bezala; ezta batzuetan era batean eta beste batzuetan beste era batean gertatzen diren gauzei buruz ere, lehorteak eta euriteak bezala; ezta halabeharrezko gauzei buruz ere, altxorraren aurkikuntza bezala; baina giza kontu orori

buruz ere ez; adibidez, lakedemoniar batek berak ere ez du hausnartzen eszitarrak nola goberna litezkeen era bikainean, (30) kasu horiek guztiak ez bailirateke gure kabuz gertatuko.

Baina gure esku daudenei eta egingarri diren gauzei buruz hausnarketa egiten dugu, eta hori ere aipatzeakoa da. Izan ere, kausatzat natura, beharra eta halabeharra hartzen dira, baita adimena eta gizakiaren esku dagoen gauza oro ere. Eta gizaki orok bere kabuz egin ditzakeen gauzei buruz hausnartzen du. (1112b) Ezaguera zehatzei eta autarkikoei dagokienez ere ez dago hausnarketarik, adibidez, letrei buruz (idazterakoan ez baitugu zalantzarik); baina gure kabuz gertatzen den horri guztiari buruz, beti berdin ez bada ere, hausnartu egiten dugu; adibidez, medikuntza-kontuei eta irabaziak lortzeko arteari buruz; (5) eta ontzia gobernatzeko arteari buruz, gimnastikari buruz baino gehiago, hura hori bezain zehaztuta ez dagoen neurrian; eta berdin gainerako guztiari buruz ere, eta arteei buruz, zientzei buruz baino gehiago, haiei buruz zalantza gehiago izaten baitugu. Hausnarketa, gehienetan, era jakin batean gertatu baina beren ondorioak zalantzarriak izango diren gauzez egiten da, baita ondorio zehaztugabeko gauzez ere; (10) bestalde, gai garrantzitsuetan aholkulariak hartzen ditugu, geure buruan konfiantza handirik izan ezean, erabakitzeko gai izango ez garela pentsatzen dugulako. Baina ez dugu hausnarketa egiten helburuei buruz, helburuetarako baliabideei buruz baizik. Izan ere, sendagileak ez du hausnartzen sendatuko ote duen, ezta hizlariak limurtuko ote duen, ezta politikoak gobernu ona osatuko ote duen, ezta gainerakoek beren helburuari buruz ere; (15) aitzitik, nolabaiteko helburua ezarrita gero, aztertzen dute hura nola eta zein baliabideren bidez lortu; eta agerian baldin badago baliabide askoren bidez lor daitekeela, zeren bidez lor daitekeen errazago eta ederkiago ikertzen dute, eta baliabide bakar baten bidez erdietsi badaiteke, horren bidez nola lortuko den eta, era berean, azken hori zeren bidez, kausa leheneraino iritsi arte, aurkitzen den azkena dena. (20) Badirudi hausnartzen duenak, hain zuzen ere, esandako eran ikertzen eta analisisia zuzentzen duela, irudi geometriko bat bezala (hala ere, agerikoa da ikerketa oro ez dela hausnarketa –adibidez, matematikak–, baina hausnarketa oro ikerketa da), eta analisisian azkena dena lehendabizikoa da sortzean. Eta ezinezko zerbait topatzen badute, (25) alde batera uzten dute, adibidez, norbaitek diruaren

premia izanik eskuratzeko gai ez bada; baina ahalezkoa azaltzen bada, egiten saiatzen dira. Ahalezkoak dira gure kabuz egin daitezkeen horiek; gure lagunen bidez egin daitezkeenak, hain zuzen ere, guk egindakoak dira nolabait, printzipioa gure baitan baitago. Batzuetan baliabideak ikertzen dira, beste batzuetan, haien erabilpena; (30) eta berdin gainerako alorretan: batzuetan zeren bidez egiten den ikertzen da, beste batzuetan nola edo noren bidez.

Beraz, badirudi, esanda dagoen bezalaxe, gizakia ekintzen printzipioa dela, eta hausnarketa norberak egin ditzakeen gauzei buruzkoa dela, eta ekintzak beste zerbaitengatik egiten direla; hausnarketaren objektua ezin baita helburua izan, helburuetara gidatzen duten baliabideak baizik; ezta banako gauzak ere, (1113a) adibidez, hau ogia ote den, edo behar bezala errea dagoen, gauza horiek zentzumenezko gauzak baitira; eta etengabe hausnartzen bada, infiniturantz joango da.

Hausnarketaren objektua eta hautapenaren objektua gauza bera da, hautapenarena jadanik zehaztuta badago ere, hautatzen dena hausnarketaren ondorioz erabaki dena baita. (5) Izan ere, denok uzten diogu nola egingo dugun bilatzeari, prozesuaren printzipioa geuregana eta geure alderdi zuzentzailearengana ekartzen dugunean, hautatzen duena alderdi hori baita. Homerok irudikaturiko aintzinako erregimen politikoetan ere argitzen da hori, erregeek erabakitzen zituzten neurrien berri ematen baitzioten herriari.

Eta hautapena (10) gure esku dauden gauzetan zerbait hausnartua eta gogokoa denez, hautapena ere izango da gure esku dagoen gogoko gauzaren baten hausnarketa, hausnartu ondoren erabakitzen dugunean hausnarketaren arabera izaten baitugu gogoia.

Horrela, bada, azaletik esan dugu hautapena zer den, eta zer nolako gauzei buruzkoa den, eta helburuei begirako baliabideak horiek direla.

IV

(15) Esana dago gogoia helburuarena dela, baina batzuek ongiarena dela uste dute, eta beste batzuek, itxurazko ongiarena. Baina horren arabera, gogoaren objektua ongia dela esaten dutenentzat, zuzen aukeratzen ez duenak gura izaten duena ez da gogoaren objektua

(gogoaren objektua baldin bada, ona ere izango baita; baina horrela gertatuko balitz, ongia txarra litzateke); (20) bestalde, borondatearen objektua itxurazko ongia dela esaten dutenentzat, berriz, borondatearen berezko objekturik ez dago, norberari iruditzen zaiona baizik: bati gauza bat, eta beste bati, beste gauza bat; eta horrela gertatuko balitz, kontrako gauzak. Beraz, ondorio horiek asetzen ez bagaituzte, akaso esan beharko dugu, zentzu absolutuan eta benetan, gogoaren objektua ongia dela, baina, banako bakoitzarentzat, ongitzat azaltzen zaiona? (25) Izan ere, gizaki bertutetsuarentzat benetako ongia izango da; baina gizaki ziztrinaarentzat, edozer (esate baterako, gorputzei dagokienez ere, gorputz sendoa dutenentzat osasuntsua izango da benetan horrelakoa dena; gaixoentzat, oster, beste edozer; eta berdin gertatuko zaie mingotsak, gozoak, beroak eta astunak diren gauzekin, baita gainerako guztiarekin ere). Izan ere, gizaki bertutetsuak (30) gauza oro zuzen epaitzen du, eta gauza orotan agertzen zaio egia, aztura bakoitzak berezko gauza ederrak eta atseginak baititu, eta gizaki bertutetsua ziur aski bereizten da nagusiki banako gauza guztietan egia ikusteagatik, bera izanik gauza hauetarako araua eta neurria. Baina gizaki gehienei dagokienez, berriz, badirudi iruzurra atseginaren kausa dela, iruzurrak ongi bat baitirudi, nahiz eta ez izan. (1113b) Beraz, atsegina aukeratzen dute ongi bat bailitzan, eta atsekabea saihesten dute gaizki bat bailitzan.

V

Horrela, bada, gogoaren objektua helburua, baina hausnarketena eta hautapenena helburuetarako baliabideak izanik, horiei buruzko ekintzak (5) hautapenaren arabekoak eta borondatezkoak izango dira, eta horiei buruzkoa ere izango da bertuteen jarduera. Beraz, bertutea ere gure esku dago, eta, berdin, bizioak ere bai. Izan ere, egitea gure esku dagoen bakoitzean, ez egitea ere badago, eta ezezkoa gure esku dagoen bakoitzean, baiezkoa ere bai. Horrenbestez, ongia egitea gure esku badago, era berean, lotsagarria ez egitea ere egongo da gure esku, eta ongia ez egitea gure esku badago, (10) lotsagarria egitea ere egongo da gure esku. Eta ongia eta lotsagarria egitea gure esku badago, eta, berdin, ez

egitea, eta hori zen, hain zuzen ere, onak eta bihozgaiztoak izatea, orduan, bertutetsuak eta biziotsuak izatea gure esku izango da. Bestalde, inor ez dela nahita bihozgaiztoa ezta nahi gabe dohatsua ere esateak (15) badirudi, alde batetik, faltsua dela, eta, beste aldetik, egiazkoa, inor ez baita dohatsua nahi gabe, baina zitalkeria borondatezkoa da; edo orain esandakoa agian jarri beharko da zalantzan, eta esan gizakia ez dela ekintzen printzipioa, ezta haien sortzailea ere, seme-alabena den bezala. Baina hori agerikoa bada eta, gure baitako printzipioetara izan ezik, (20) ezin badugu beste inolako printzipiotara zuzendu, orduan, printzipioa gure baitan duten ekintza horiek ere egongo dira gure esku eta izango dira borondatezkoak. Badirudi horren testigantza ditugula bai gizabanako ororen bizitza pribatua, bai legegileen jardura, horiek, zitalkeriak egiten dituztenei, horretarako indarrez behartuta edo eragileak direlarik jakin gabe egiten dituzten horiei, zigorrak eta kalte-ordainak ezartzen baitizkiete; (25) gauza ederrak egiten dituztenek, ostera, ohoreak jasotzen dituzte, horiei adorea emateko eta besteei asmoa kentzeko; hala ere, inork ez gaitu bultzatzen gure esku ez dagoena ezta borondatezkoa ez dena egitera, erabat alferrikakoa izango baita beroa, mina, gosea edo horrelako beste edozer ez sentitzera gu limurtzea, edonola ere, gauza bera jasango baitugu. (30) Izan ere, ez jakitea bera zigortzen dute, egilea ezjakitearen eragilea bada; adibidez, mozkortzen direnei zehapen bikoitza ezartzen zaie, ekintzaren printzipioa haien baitan baitago: izan ere, ez mozkortzeko gai ziren eta mozkorraldia izan zen ezjakitearen kausa. Eta ezagutzen nekeza izan gabe ezagutu behar diren legeetan zerbait ez dakitenak ere zigortzen dituzte; (1114a) eta berdin gainerako gauzetan, ez jakitea zabarkeriaren ondorioz gertatzen omen den bakoitzean, jakitea euren esku baitzegoen, jakiteaz arduratzeko gai zirelako. Baina baten bat, agian, hain da horrelakoa, ezen ez baita arduratzen. Hala ere, zabarkeriaz bizi izatearen ondorioz haiek beraiek dira horrelako izaeraren eragileak, (5) baita bidegabeak eta lasakak izatearenak ere; batzuk, gaizki jokatzen dutelako, besteak, denbora edanean eta horrelako gauzetan ematen dutelako, egoera jakin bakoitzeko jarduerak horrelako edo halako bilakatzen baitu gizakia. Eta hori agerikoa da lehiaketa edo ekintza jakin baterako trebatzen direnengan, etengabe prestatzen baitira. Beraz, egoera jakin

bakoitzeko jarduerak aztura osatzen duela (10) ez jakitea zeharo burugabea den batek berezkoa du; gainera, zentzugabea da bidegabe jokatzeko duenak bidegabea nahi ez izatea, edo lasaka jokatzeko duenak, lasaka. Baina, baldin eta baten batek haien ondorioz gizakia zuzengabe izango dela jakinik gauza horiek egiten baditu, borondatez izango da zuzengabea; hala ere, nahi ez izateagatik soilik ez dio utziko zuzengabea izateari eta bilakatuko da zuzena, gaixoa ere osasuntsu bilakatuko ez den bezala. (15) Baina horrela gertatuko balitz, borondatez gaixotuko litzateke, meneratzerik ezaz bizi izateagatik eta sendagileek esana ez egiteagatik; beraz, saihas zezakeen gaixotasuna; baina axolagabetuta, jadanik ezin du, harri bat jaurti duenak ere hura berreskuratu ezin duen bezala; baina, hala ere, hartzea eta jaurtitzea bere esku zegoen, printzipioa bere baitan baitzegoen. Era berean, zuzengabeak (20) eta lasakak hasieran horrelakoak bihurtzea saihas zezaketen, eta horregatik dira borondatez horrelakoak; baina behin horrelakoak bihurtuta gero, jadanik ezin diote izateari utzi.

Eta ez dira arimaren bizioak bakarrik borondatezkoak direnak; aitzitik, eta, kasu batzuetan, gorputzarenak ere gaitzetsi egiten ditugu. Izan ere, inork ez ditu berez itsusiak direnak gaitzesten, baina bai baldarkeriaz eta zabarkeriaz direnak. (25) Eta berdin ahuleziari eta ezintasunari dagokienez, inork ez bailioke ezer aurpegiratuko berez edo gaitz baten edo zauri baten ondorioz itsua denari; aitzitik, erruki lekiok; baina denek gaitzetsiko lukete mozkorren ondorioz edo beste edozein neurrigabekeriaren itsua dena. Beraz, gorputzari buruzko bizioetan gure esku daudenak gaitzesten dira, baina gure esku ez daudenak, ez. (30) Hori horrela bada, gainerako kasuetan ere gaitzetsitako bizioak gure esku izango dira.

Baina norbaitek esango balu denek itxurazko ongia irrikatzen dutela, baina ezin dutela irudipena menperatu –bakoitza nolakoa izan, (1114b) helburua ere horrelako iruditu baitzaio—. Horrenbestez, bakoitza, bere azturaren beraren eragilea bada, bere irudipenaren eragilea ere izango da nolabait; eta horrela ez bada, ez da inor berak eginiko gaitzakerien eragilea; aitzitik, helburuaren ezjakiteaz egiten ditu gaitzakeriak, (5) baliabide horien bitartez ongi goren bereganatuko duelako ustea izateagatik; baina helburuaren asmoa ez da norberak aukeraturikoa: eder epaitzeko eta egiaren arabeko ongia aukeratzeko beharrezkoa da

ikusmena bezalako ahalmen batekin jaiotzea, eta ongi dohatua da ahalmen hori eder eta izatez duena, ahalmen hori handiena eta ederrena baita, beste baten ondoan lortu eta ikas ez daitekeena; (10) aitzitik, jaiotzean jaso zuen bezala izango du, eta hau izatez eder eta ugari edukitzeak buru-argitasun betea eta egiazkoa ekarriko du.

Beraz, hori egia bada, zergatik ote da bertutea bizioa baino borondatezkoagoa? Izan ere, batari eta besteari, gizaki zintzoari eta gizaki gaiztoari, izatez edo beste edonolatan ere, modu berean azaltzen eta egokitzen zaie helburua, (15) eta gainerako guztia, helburu horretarantz zuzenduta, modu egokian jokatzen dute. Beraz, bai bakoitzari helburua modu batez edo bestez izatez azaltzen ez bazaio, nolabait bere baitan ere dagoelako baizik, bai helburua berezkoa bada baina bertutea borondatezkoa –gizaki bertutetsuak gainerako gauzak borondatez egiten dituelako–, bizioa ere ez da neurri gutxiagoz borondatezkoa izango; (20) izan ere, gaiztoaren baitan berdin izango da ekintzetan bere kabuz jartzen duena, helburuan ez bada. Orduan, esan bezala, bertuteak borondatezkoak badira (izan ere, gu geure azturen eragile-kideak gara nolabait, eta nolabaitekoak izategatik helburu jakin bat hartzen dugu), bizioak ere izango dira borondatezkoak, (25) haiei dagokienez berdin gertatzen baita.

Horrela, bada, oro har esan dugu, bertuteei buruz, laburki, haien generoari dagokienez, haiek direla erdiko terminoak eta azturak; eta sortzen dituzten ekintza berak egiteko joera dutela berez; eta gure esku daudela eta borondatezkoak direla; eta arrazoi zuzenak agintzen dien moduan ere jokatzen dutela. (30) Hala ere, ekintzak ez dira borondatezkoak azturak diren moduan, gure ekintzen kasuan nagusiak baikara hasieratik amaierara banako baldintzak ezagutzen baditugu; azturen kasuan, hasieran gara nagusiak, (1115a) baina haien handitzea ez da hautemangarria, gaixotasunetan gertatzen den bezala; hala ere, horietaz modu batez edo bestez baliatzea gure esku zegoelako, horrexegatik dira borondatezkoak.

Bertuteak banan-banan berrartuz, esan dezagun zein diren, zeri dagozkion eta nola. (5) Aldi berean argi geldituko da zenbat diren.

Eta lehen-lehenik hitz egin dezagun adoreari buruz. Izan ere, hori beldurraren eta ausardiaren arteko erdiko terminoa dela argitu da jadanik. Eta argi dago gauza beldurgarrien beldur garela, eta horiek, hitz batean esateko, gaitzak direla; horregatik, zehazten da beldurra baita gaitz baten susmoren bat bezala ere. (10) Horrela, bada, gaitz guztiak ditugu beldurgarriak, adibidez, aipu txarra, pobrezia, gaixotasuna, lagunik eza, heriotza; baina badirudi adoretsua ez dela adoretsua gauza guztiei dagokienez, batzuen beldur izan behar baita, eta beldur izatea ederra da, eta ez izatea, lotsagarria; adibidez, aipu txarra: horren beldur dena zintzoa eta agurgarria da, eta beldur ez dena, lotsagabea; (15) hala ere, batzuek adoretsua deitzen diote metaforikoki lotsagabeari, adoretsuaren nolabaiteko antza baitu, adoretsua nolabaiteko beldurgabea ere badelako. Baina agian ez da pobrezia beldur izan behar, ezta gaixotasunarena, ezta, oro har, bizio batetik edo norberaren eraginez sortuak ez diren gaitz horiena ere ez. Baina, gauza horien beldur ez dena adoretsua ere ez da (izen hori nolabaiteko antzekotasunez ematen diogu); (20) izan ere, batzuk, gudaren arriskueta koldarrak badira ere, eskuzabalak dira eta ondasunen galera kemenez jasaten dute. Eta ez da koldarra ere bere seme-alaben eta emaztearen aurkako irainen beldur bada, edo bekaizkeriarena edo horrelakoren batena; ezta adoretsua ere, zartadak jasotzeko zorian dagoena kementsu agertzen bada.

Beraz, gauza beldurgarrien artean, zeintzuei dagokienez da adoretsua? (25) Beldurgarrienei dagokienez ote da? Izan ere, arriskuak eramateko, ez da adoretsua bezalakorik. Baina beldurgarriena heriotza da, muga bat baita; eta hilda dagoenari ezer ez zaio dagoeneko ezer ona iruditzen, ezta txarra ere. Hala ere, badirudi gizaki adoretsua heriotzaren aurrean ez dela beti adoretsu azaltzen, adibidez, itsasoan edo gaixotasunetan. Beraz, zein kasutan? Kasu ederretan ote da? (30) Horrelakoak gudarenak dira, arriskurik handiena eta ederrena gertatzen baita; eta hiriek eta monarkek eskainitako ohoreak ere badira arrisku haien arabekoak. Hortaz, zentzurik gorenean, adoretsua deitu lekieke heriotza eder baten eta heriotza dakartzaten arrisku gertu horien beldur ez denari, eta horrelako arriskuak, (35) gehienbat, gudarenak dira. Hala eta guztiz ere, itsasoan eta

gaixotasunetan ere adoretsua beldurgabea da, (1115b) baina ez itsasgizonak diren moduan: haiek, hain zuzen ere, salbazioaren itxaropena galdu dute eta horrelako heriotza kostata jasaten dute; besteek, berriz, esperientziari esker dute itxaropena. Aldi berean, gizakiek ausarki jokatzen dute kemena behar den egoeretan (5) edo hiltzea ederra denean; baina horrelako hondamendietan ez da gertatzen ez bata ez bestea.

VII

Beldugarria ez da gauza bera guztientzat, eta gizakia gainditzen duen zerbaiti buruz ere hitz egiten dugu. Hori da beldugarria, hain zuzen ere, gizaki zentzudun ororentzat. Baina gizakiari dagozkion gauza beldugarriak tamainean eta graduan bereizten dira (10) (eta bihotz ematen diotenak ere bai). Hala ere, adoretsua izukaitza da gizakia den aldetik; horrenbestez, horrelako gauzen beldur izango da, baina behar bezala eta, arrazoimenak iradokitzen dion bezala, ederra denarengatik, hori baita bertutearen helburua. Hala ere, gauza horien beldur izan daiteke neurri handiagoan ala txikiagoan; eta, gainera, haiek beldugarriak bailiran, beldugarriak ez diren gauzen beldur izan daiteke. (15) Eta akatsak gertatzen dira beldur izan behar ez denaren beldur izateagatik, edo behar ez bezala, edo behar ez denean, edo horrelakoetan; eta, berdin, bihotz ematen duten gauzei dagokienez. Izan ere, behar dena, behar denari begira, behar den bezala eta behar denean jasaten eta beldur dena, eta era berean bihotz izaten duena, adoretsua da (adoretsuak egoerek merezi dutenaren arabera eta arrazoimenak agin lezakeen bezala jasaten eta jokatzen baitu; (20) eta jarduera ororen helburua azturaren araberakoa dena da, eta adoretuarentzat bere adorea zerbait ederra da; hortaz helburua ere izango da horrelakoa, gauza bakoitza bere helburuaren arabera definitzen baita; beraz, adoretuak helburu eder horrengatik jasaten eta egiten du adorearen araberakoa den guztia).

Neurria gainditzen dutenen artean, beldurrik ezaz egiten duena izengabea da (25) (esana dugu lehenago aztura asko izengabeak direla); baina zoroa edo bihozgabea litzateke deusen beldur ez balitz, ez lurrikararen beldur, ez olatuen beldur, zeltei buruz esaten den bezala.

Bestalde, gauza beldurgarriari dagokienez, bihotz handiegia duena ausartegia da; eta ausartegia harroputza eta adore-itxura egiten duena ere bada, nonbait; (30) behintzat, hark egoera beldurgarriaren jokatzeko duen moduan agertu nahi du horrek; beraz, ahal duen guztian imitatzen du. Horregatik, haietako gehienek ere beren burua adoretzat hartzen duten koldarrak izaten dira, egoera horietan harro agertzen badira ere, ez baitituzte gauza beldurgarriak jasaten. Bestalde, beldurraren aurrean neurritz gainera dena koldarra da; eta hori, hain zuzen ere, behar ez denaren (35) eta behar ez bezala da beldur, eta horrelako ezaugarri guztiek laguntzen diote; (1116a) bihotza ere falta zaio, baina bere gehiegizko beldurra egoera atsekabetsuetan agertzen da gehienbat. Beraz, koldarra etsita dago, gauza guztien beldur baita; adoretua, berriz, aurkakoa da, ausarta izatea itxaropenez beteta dagoenaren berezkoa baita. Beraz, egoera berberei egin behar diete aurre koldarrek, (5) ausartegiak eta adoretuek, baina haien aurrean era desberdinetan jokatzeko dute; aurreko biek, hain zuzen ere, gehiegikeriaz eta gabeziak jokatzeko dute; baina hori, aldiz, erdiko eta behar bezalakoa da. Ausartegiak, gainera, gartsuak dira, eta arriskuak agertu aurretik gogoz azaldu arren, arriskuaren atzera egiten dute; adoretuak, berriz, ekimenetan sutsuak dira, baina aurretik, lasaiak.

(10) Beraz, esan denez, aipaturiko egoeretan bihotza eta beldurra ematen duten gauzekiko erdikotasuna da adorea; eta hori aukeratu eta jasaten du ederra delako edo ez egitea lotsagabea delako. Baina gosea, maitasuna edo atsekabea den zerbait saihesteko hiltzea ez da adoretuaren berezkoa, koldarrarena baizik, nekeak saihestea ahuleria baita, (15) eta heriotza ez du jasaten hori ederra delako, gaitz bat saihesteagatik baizik.

VIII

Beraz, adorea horrelako zerbait da, baina adorea beste bost eratan ere esaten da. Lehen-lehenik hiri-adorea, honek zentzurik ertsienean den adorearen antza handiena baitu. Izan ere, badirudi hiritarrek arriskuak jasaten dituztela legeek ezarritako zigorren eta gaitzespenen eta ohoren kausaz; (20) eta, horregatik, koldarrak desohoratzen eta adoretuak ohoratzen dituen

hiri horietako hiritarrek adoretsuenak dirudite. Horrelakoak dira Homero azaltzen dituenak, Diomedes eta Hektor, alegia:

Polidamente izango da irainak aurpegiratuko dizkidan lehenengoa¹².

Eta Diomedesek:

(25) Hektorrek troiatarren aurrean zera esango du egun batean:

Tideoaren semea nik ikaratua ...¹³

Adore-mota hori da lehenago azaldukoaren antza handiena duena, bertute bati jarraiki sortzen delako: lotsa-sentimenduari, edertasunaren gogoari (ohorearen gogo baita) eta aipu txarraren saihaspenari, lotsagarria delako. Eta euren agintariek behartuak direnak ere (30) maila berean sailka litezke; baina okerragoak dira lotsa-sentimenduari jarraiki jokatzeko ez duten neurrian, beldurrari baizik, eta ez dute saihesten lotsagarria dena, atsekabea dena baizik. Euren jaunek, hain zuzen ere, behartzen dituzte, Hektorrek bezala:

Borrokatik urrun ezkutatzen nik ikusten dudanak

(35) erabat ezinezkoa izango du txakurrengandik ihes egitea.¹⁴

Eta gauza bera egiten dute soldaduak aurrean kokatzen dituztenek, eta, haiek atzera egiten dutenean kolpatzen dituztenek; (1116b) eta soldaduak lubakien eta antzeko zerbaiten aurrean formatzen dituztenek ere bai, horiek guztiek behartu egiten baitute. Baina adoretsua ez da betebeharrez izan behar, zerbait ederra delako baizik.

¹²Homero, *Ilias* XXII 100.

¹³ Homero, *Ilias* VIII 148.

¹⁴Homero, *Ilias* II 391-392.

Banako gauzen inguruko esperientziak ere badirudi nolabaiteko adorea dela; hori dela eta uste zuen Sokratesek ere adorea zientzia bat zela. (5) Eta gizaki batzuek egoera batzuetan modu bateko adorea adierazten dute; beste batzuek, berriz, beste egoera batzuetan, beste modu batekoa; eta soldaduek, hain zuzen, gerratearen gauzetan; izan ere, badirudi gerratearen arrisku asko hutsalak direla, eta soldaduek bereziki ezagutzen dituzte; beraz, adoretzu azaltzen dira, besteak zein diren ez dakitelako.

Gainera, euren esperientziari esker kalte handia egin dezakete haiek beraiek kalterik jasan gabe, (10) armez baliatzeko gai direlako, eta armarik eraginkorrenak dituztelako, bai kalte egiteko bai kalterik ez jasateko; beraz, armarik gabekoen aurka armatuek bezala eta atletek amateuren aurka bezala borrokatzen dute. Izan ere, horrelako lehiaketetan ere ez dira adoretsuenak borrokarako egokienak, (15) indar handiena eta gorputz onenak dituztenak baizik. Bestalde, soldadu profesionalak koldarrak bihurtzen dira arriskua handiegia egiten denean, eta kopuruari edo armamentuari dagokienez egoera txarrean daudenean, ihes egiteko lehenak dira; hiri-soldaduak, aitzitik, irmo eutsiz hiltzen dira, Hermes tenpluan gertatu zen bezalaxe. Izan ere, euren ustez ihes egitea lotsagabea da (20) eta heriotza nahigarriagoa da horrelako salbazioa baino; soldadu profesionalak, aitzitik, indartsuagoak direlakoan arriskutzen dira hasieran, baina benetako egoera ezagutu orduko ihes egiten dute, heriotzaren beldur handiago direlako lotsaren baino; adoretsua, ordea, ez da horrelakoa.

Batzuek kemena ere sartzen dute adorearen baitan, kemenak bultzaturiko gizakiak, (25) piztia zaurituek aurka egiten duten bezala egiteagatik, hartzen omen baitira adoretsutzat, adoretsuak ere kementsuak direlako (arriskuen aurrean kemena ausartena baita). Hori dela eta, esaten du Homerok: indarra sorrarazi zuen kemenean, eta ahalmena eta kemena piztu zituen, eta kemen handia eta garratza sudurrean, eta odola irakin zitzaion¹⁵. Horrek guztiak, hain zuzen ere, badirudi kemenaren esnatzea (30) eta bulkada adierazten dituela. Izan ere, adoretsuek edertasunarengatik jokutzen dute, baina kemenak lagundu egiten die; piztiek, aldiz, atsekabearengatik, hots, zaurituak izateagatik edo beldur izateagatik, zeren, oihanean

¹⁵Aristotelesek pasarte horretan aipatutako esamoldeak formula homerikoak dira.

edo zingiran badaude, ez baitute aurrera egiten. Hortaz, adorea ez da gertatzen minak eta kemenak akuilaturik (35) eta inolako arriskurik aurreikusi gabe arriskuaren kontra joateagatik, horrela, bestela, astoak ere, goseak daudenean, adoretsuak liratekeelako, jipoituta ere ez baitira bazkatik aldentzen. (1117a) Adulteriogileek ere ekintza ausart asko egiten dute desirarengatik. Badirudi adorerik naturalena kemenak sortua dela; eta hautapen bat eta helburu bat eransten bazaizkio, (5) benetako adorea izango da. Gizakiek, hain zuzen ere, haserre daudenean, sufritu egiten dute, eta mendeku hartzen dutenean, atsegin hartzen dute; baina kausa horiengatik borrokatzen dutenak borrokalariak dira, baina ez adoretsuak, ez baitute borrokatzen kausa eder batengatik, ezta arrazoiak iradokita ere, pasiorengatik baizik; hala ere, badute nolabaiteko antzekotasuna.

Fidakorrak ere ez dira adoretsuak, (10) askotan etsai asko menperatzeagatik azaltzen baitira kementsu arriskueta; baina oso antzekoak dira, batzuk eta besteak izukaitzak direlako; hala ere, adoretsuak lehenago esandako arrazoiengatik dira izukaitzak; besteak, berriz, indartsuagoak direla eta ezer jasango ez dutela pentsatzeagatik (beste horrenbeste egiten dute mozkortzen direnek ere, (15) fidakorrak bihurtzen baitira). Baina, gauzak nahi bezala gertatzen ez zaizkienean, ihes egiten dute, eta adoretsuaren berezkoa da gizakiarentzat beldurgarria dena, edo beldurgarria dirudienari eustea, egitea ederra delako, eta ez egitea, lotsagabea. Horregatik, badirudi adore handiagokoa dela beldurgabea eta ikaragaitza izatea ustekabeko arriskueta, begi-bistakoetan baino, horrelako egoera bat prestakuntzatik (20) baino azturatik sortzen baita neurri handiagoan; begi-bistako arriskuak, hain zuzen ere, neurriaren bidez eta arrazoinamenduaren arabera hauta daitezke; ustekabeko arriskuak, berriz, azturaren arabera.

Ezjakinak ere azaltzen dira adoretsu, eta ez daude fidakorrengandik oso urrun, baina okerragoak dira inolako duintasunik ez duten neurrian, eta haiek bai; horregatik eustsi egiten diote irmo denbora batez edozein egoerari; (25) engainaturik daudenek, aitzitik, konturatu

edo susmatzen badute egoera bestelakoa dela, ihes egiten dute, argotarrei gertatu zitzaien bezala, sikionarrak zirelakoan, lakoniarrekin ustekabean topatu zirenean¹⁶.

Hortaz, esana dago adoretuak nolakoak diren eta zein hartzen diren adoretutzat.

IX

Adorea kemenari eta beldurrari buruzkoa da, baina ez modu berean batari eta besteari, (30) neurri handiagoan beldurgarria denari buruzkoa baizik; adoretuagoa baita horrelako egoeretan ikaragaitz azaldu eta horrelako egoerei dagokienez behar bezala jokatzeko duena, kemenari behar den egoeretan jokatzeko duena baino; izan ere, esanenez, atsekabeak jasateagatik deitzen zaie adoretu. Horregatik, adorea zerbait atsekabetsu ere bada; eta zuzen laudatzen da, atsekabea (35) jasatea plazerei uko egitea baino nekezagoa baita. Hala eta guztiz ere, (1117b) adorearen arabera helburua atsegina dela pentsa liteke, inguruko egoera iluna izanda ere, gimnastika-lehiaketan ere gertatzen den legez: boxealarietzat helburua atsegina baita –koroa eta ohoreak lortzea, hain zuzen ere–; kolpeak hartzea, berriz, mingarria da, hezur-haragizko gizakiak baitira, (5) eta euren zeregin osoa, atsekabea; eta gauza horiek asko direnez eta borrokaren helburua txikiaenez, badirudi inolako atseginik ez dagoela. Beraz, adoreari dagokionez ere horrelakoa bada, heriotza eta zauriak atsekabetsuak izango dira adoretuarentzat, eta bere borondatearen kontrakoak, baina jasango ditu, jasatea ederra delako, eta ez jasatea, lotsagabea. (10) Eta erabateko bertutea neurri handiagoan eduki eta zoriontsuagoa izan ahala, neurri handiagoan atsekabetuko du heriotzak, horrelako gizaki batentzat bizitza erabat estimagarria baita; eta gizon honek ongi handienei uko egin beharko diela jakingo du, eta hori atsekabetsua da. Baina ez da inolaz ere neurri gutxiagoan adoretua izango, agian, bietako batean, neurri handiagoan baizik, gerratean, ohorea nahiago izango duelako, ongi haiek baino. (15) Hortaz, bertute orotan ez dago beti jardura atseginik, helburua erdiesten den neurrian izan ezik. Eta ezerk ez du eragotziko, ezbairik gabe, horrelako gizakiak soldadu onenak izatea, adore gutxiagokoak baizik, hauek inolako ondasun

¹⁶ ik. Jenofonte, *Helenikak*, IV 4-10.

gehiagorik ez baldin badute: hauek, hain zuzen ere, arriskuetaako prest daude eta (20) bizitza irabazkin txikiaren truke ematen dute.

Horrela, bada, izan bedi nahikoa adorea buruz esandakoa. Bestalde, esandakotik ez da nekez ulertzen adorea zer den, orokorki bederen.

X

Horren ondoren, mintza gaitezen neurritasunari buruz, horrek eta adoreak alde irrazionalen bertuteak direla baitirudite.(25) Izan ere, esana dugu neurritasuna plazerei dagokienez erdikotasuna dela (atsekabeei baitagokie neurri gutxiagoan eta ez modu berean); eta gauza berberetan neurrigabekeria ere azaltzen da. Beraz, zehaz dezagun zer nolako atseguinei buruzkoa den.

Horrela, bada, bereiz daitezen arimaren eta gorputzaren plazerak, ohoreen guraria eta jakin-mina bezala; izan ere, gizaki oro haien artean guraria duen horretaz gozatzen da, (30) gorputza inolaz ere aztoratu gabe, adimena baizik, neurri handiagoan. Baina horrelako atseginak bilatzen dituzten gizakiei ez zaie esaten ez neurrizkoak ez neurrigabeak; eta, berdin, gorputzarenak ez diren gainerako atsegin guztiak bilatzen dituztenei ere ez; istorioak eta ipuinak entzuteko eta kontatzeko zaletasuna dituztenei (35) eta zorizkoa den edozertan egunak igarotzen dituztenei berriak esaten diegu, baina ez neurrigabeak; (1118a) eta diruaren eta lagunen kausaz atsekabetzen direnei ere ez.

Beraz, neurritasuna gorputzaren atseguinei buruzkoa izango da, baina ez haiei guztiei buruz; ikusmenaren bidezko gauzez gozatzen direnei –koloreez, formez eta marrazkiez, alegia–, ez zaie esaten ez neurrizkoak ez neurrigabeak; (5) hala ere, gauza horietaz ere goza omen liteke behar bezala, gehiegikeriaz edo gabeziak; eta gauza bera entzumenari buruzko atseginetan; izan ere, musikaz eta antzezpenez gozatzen direnei inork ez die neurrigabeak esaten, ezta behar bezala gozatzen direnei neurrizkoak ere; ezta usaimenaren ingurukoez gozatzen direnei ere, akzidentalki ez bada, (10) ez baitiegu neurrigabeak esaten fruten, arrosen edo lurringaien usainez gozatzen direnei, lurrinez eta janariez gozatzen direnei baizik; horietaz gozatzen dira

neurrigabeak, hain zuzen ere, euren desiraren objektuak gogorarazten dizkietelako. Baina ikus daiteke gainerakoak ere gozatzen direla janarien usainez gose daudenean; (15) baina horrelakoez gozatzea neurrigabearen berezkoa da, gauza horiek bere desiraren objektuak baitira.

Gainerako animaliek ere ez dute atseginik hartzen zentzumenezko sentsazioetan, akzidentalki ez bada, txakurrak ez baitira gozatzen erbien usainaz, jateaz baizik, usainak sentsazioa sortu bazien ere; (20) ezta lehoia ere idiaren marruaz, irensteaz baizik; hala ere, marruaren bidez hauteman zuen gertu zegoela, eta horregatik dirudi horretaz gozatzen dela; eta, berdin, ez oreina edo basahuntza ikusten duelako, elikagaia izango duelako baizik.

Hala ere, neurritasuna eta neurrigabekeria gainerako animaliek ere parte hartzen duten horrelako atseaginei buruzkoak dira; (25) eta horregatik dirudite atsegin horiek doilorrak eta animalekoak; horiek ukimenarenak eta dastamenarenak dira; baina badirudi dastamena zertxobait edo ezer gutxi erabiltzen dela, dastamenaren berezkoa zaporeen bereizketa baita, ardoen dastatzaileek eta janariak ontzen dituztenek egiten dutena, hain zuzen ere; baina ez dute inolaz ere gauza horietaz gozatzen, edo ez neurrigabeek behintzat, (30) janarietan, edarietan eta sexu-atseginetan ukimenaren bidez erabat sortzen den gozamenaz baizik. Horregatik eskatu egin zien halako tripontzi batek jainkoei bere eztatia kurrilo batena baino luzeagoa bihurtzea, ukimenaren bidez gozatzen zuelakoan.

(1118b) Beraz, zentzumenezko sentsazioetan neurrigabekeria dakarrena da orokorrena; eta zuzen hartzen omen da gaitzesgarritzat, gure baitan izaten delako ez gizakiak garen aldetik, animaliak garen aldetik baizik. Beraz, horrelakoez gozatzea eta gehiegi maitatzea piztien berezkoa da; izan ere, ez dira kontuan hartzen (5) ukimenaren bidezko atsegin nobleenak, gimnasioetan igurtziaren eta beroaren bidez sortzen direnak, alegia, neurrigabearen ukimenak ez baitu inolako zerikusirik gorputza osoarekin, gorputz-atal batzuekin baizik.

Desiren artean, badirudi batzuk baterakoak direla, eta beste batzuk, bereziak eta eskuratuak; adibidez, elikadurarena berezkoa da, (10) behartsu orok elikagai solido edo likidoa desiratzen baitu, eta, batzuetan, bata eta bestea; eta sexu-harremanak, Homerok dioenez¹⁷, adinaren sasoi ederrean dagoen gazteak. Baina inolaz ere ez du gizaki orok hori edo hura desiratzen, ezta gauza berberak ere; horregatik, badirudi desirok gurea den zerbait direla. Hala ere, berezko zerbait ere badute, behintzat, gauza batzuk batzuentzat baitira atseginak, eta beste batzuk beste batzuentzat, eta zenbait gauza gainerakoak baino atseginagoak dira guztientzat.

(15) Izan ere, natur desiren kasuan gutxik huts egiten dute, eta era bakar batean, hots, gehiegikeriaz, oka egin arte edozer jatea edo edatea berezkoa denaren arabera neurria gainditzea baita, natur desira beharraren asetzea baita. Horregatik esaten zaie tripontzi gizaki horiei, (20) gurari hori behar baino askoz ere neurri handiagoan asetzen dutelako; eta horrelakoak bilakatzen dira doilorregiak direnak.

Baina, atsegin bereziei dagokienez, gizakiak asko eta era askotan okertzen dira. Gizaki batzuek horrelako edo halako gauzarekiko zaletasuna edukita izen jakin bat jasotzen dute – behar ez diren gauzez atsegin hartzeagatik, edo gizaki gehienek baino atsegin handiagoa hartzeagatik, edo behar ez den moduan, alegia–; neurrigabeek, aitzitik, gauza guztietan gainditzen dute neurria. (25) Izan ere, batzuek behar ez diren gauzez (higuingarriak baitira) atsegin hartzen dute, eta, horrelako gauza batez atsegin hartu behar bada, behar dena baino neurri handiagoan, edo gizaki gehienek baino atsegin handiagoa hartzen dute. Argi dago, zalantzarik gabe, atseginei buruzko gehiegikeria neurrigabekeria eta zerbait gaitzesgarria dela. Atsekabeei dagokienez, gizaki bati ez zaio neurrizkoa esaten atsekabeak jasateagatik – adorea kasuan bezala–, (30) ezta neurrigabea ere atsekabeak ez jasateagatik; aitzitik, neurrigabea esaten zaio behar baino gehiago atsekabetzeagatik atseginik lortzen ez duenean (beraz, atseginak atsekabea ere eragiten dio), eta neurrizkoa, atseginaren gabeziak eta atseginari uko egiteaz ez atsekabetzeagatik.

¹⁷ Homero, *Ilias* XXIV 129.

(1119a) Beraz, neurrigabeak atsegin guztiak, edo haietan atsegingarrienak, desiratzen ditu, eta bere desirak atsegin horiek gainerakoak baino nahiago izatera eramaten du; horregatik, atsekabetu egiten da bai lortzen ez dituenean bai desiratzen dituenean, desira atsekabearekin batera baitoa, atseginaren kausaz atsekabetzeak zentzugabea badirudi ere. (5) Baina, atseGINEI dagokienez, gabezia okertzen direnak eta behar baino atsegin gutxiago hartzen dutenak ez dira asko, horrelako sentikortasunik eza ez baita gizatiarra; izan ere, gainerako animaliek ere bereizten dituzte elikagaiak, eta batzuek atsegin hartzen dute, eta beste batzuek, ez. Horiek horrela, norbaiten ustez ezer atsegingarririk ez balego eta gauzak euren artean bereiziko ez balira, norbait hori gizakia izatetik urrun legoke. (10) Baina horrelako gizakiak ez du izenik, kasu asko gertatzen ez delako.

Neurrizkoa bi mutur horiekiko erdiko terminoa da, berak ez baitu neurrigabeak gehien gozatzen den gauza horietaz atsegin hartzen; aitzitik, nazkatu egiten da; eta oro har, ez du atsegin hartzen behar ez denaz, ezta ezertaz gehiegi ere, eta ez da atsekabetzen gauza horiek falta baditu, eta ez ditu desiratzen, edo bere neurrian desiratzen ditu, eta ez behar baino gehiago, (15) ezta behar ez dituenean ere, ezta, oro har, horrelako ezertaz ere; osasunerantz eta ongizaterantz gidatzen duen gauza atsegingarri oro neurrian eta behar bezala desiratuko du; eta atsegin horietarako eragozpenak edo ongiaren aurkakoak ez direnak, edo bere baliabideak gainditzen ez dituzten gainerako atseginak ere desiratuko ditu, horrela jokatzeko duenak horrelako atseginak duintasuna baino gehiago maite baititu; (20) neurrizkoa, osteraz, ez da horrelakoa, arrazoi zuzenak iradokitzen dion bezalakoa baizik.

XII

Badirudi neurrigabekeria borondatezkoagoa dela koldarkeria baino; izan ere, hura atseginaren kausaz sortzen da, eta hau atsekabearen kausaz, eta bietan, bata aukeratu eta bestea saihestu egiten da. Halaber, atsekabeak senetik atera eta hondatu egiten du sufritzen duenaren natura; atseginak, ordea, ez du inolaz ere horrelakorik egiten. Beraz, borondatezkoagoa da; (25) eta, horrenbestez, baita gaitzesgarriagoa ere. Izan ere, errazagoa

da gauza hauetara ohitzea, horrelakoak asko baitira bizitzan eta gauza hauetara ohitzen direnak ez dira arriskuan jartzen; gauza beldurgarriekin, berriz, guztiz kontrakoa gertatzen da. Bestalde, pentsa liteke koldarkeria ez dela borondatezkoa haren banako agerpenak diren moduan; izan ere, koldarkeria ez da berez atsekabetsua, baina koldarkeriaren banako agerpenetan, sortutako atsekabearen kausaz gure senetik ateratzen gara eta, hortaz, armak botatzen ditugu (30) eta beste edozein lotsagabekeria egiteko prest gaude; eta horregatik dirudi indarrez behartuak direla. Neurrigabearentzat, oster, banako ekintzak borondatezkoak dira, desiratu eta haien gogoak duelako, baina, orokorrean, ez da hain borondatezkoa, inork ez baitu neurrigabea izatea desiratzen.

Neurrigabekeria izena haurren akatsei ere ematen diegu, nolabaiteko antzekotasuna baitute. (1119b) Oraingoz ez du batere axola jakiteak bietan izena zeinek eman eta zeinek jaso duen, baina argi dago ondorengoak aurrekotik jaso duela; bestalde, badirudi transferetzia ez dela gaizki eman, gauza lotsagabeetarako joera duena eta horrelakoetan garapen handia duena agirakatu behar baita, eta horrelakoa desira da bereziki, (5) eta haurra ere bai: haurrak, hain zuzen ere, desiraren arabera bizi dira, eta horiengan bereziki hazten da atsegingarria denaren gogoak. Beraz, esanekoa bilakatzen ez bada eta ez badio agintariari men egiten, oso urrutira iritsiko da. Izan ere, atseginaren gogoak aseezina eta jatorri orotarikoa da zentzugabearengan, eta desiraren jarduteak berarekin senidetasuna duena areagotzen du; (10) gainera, gurariak handiak eta biziak badira, arrazoimena ere baztertzen dute. Horregatik izan behar dira neurritsuak eta gutxi desirak, eta arrazoimenari ezertan aurka egiten ez diotenak – horrelako izateari esanekoa eta zuzendua izatea esaten diogu–, eta haurrak bere tutorearen aginduaren arabera bizi behar duen legez, desiragarria dena ere izango da arrazoimenaren arabera. (15) Horregatik, etorri behar dira bat neurrizkoak desiratzen duena eta arrazoimena, bien xedea ederra dena baita, eta neurrizkoak behar duena, behar bezala eta behar duenean desiratzen du, eta horrela arrazoimenak ere agintzen du.

Bego, beraz, neurritasunari buruz esan beharrekoa.

I

Jarraian hitz egin dezagun eskuzabaltasunari buruz. Badirudi, hain zuzen ere, ondasuneekiko erdikotasuna dela, eskuzabala ez baita goratua ez gerrate kontuetan, ez neurrizkoa goratua den arrazoi horietan, ezta are gutxiago bere epaietan ere, (25) dirua emateari eta jasotzeari dagokienean baizik, eta bereziki ematean. Eta bere balioa diruz neurtzen duen horri guztiari esaten diogu ondasuna.

Zarrastelkeria eta zikoizkeria ere badira ondasunei buruzko gehiegikeria eta gabezia. Zikoizkeria ondasunetara behar baino gehiago jotzen dutenei egotzen diegu beti, baina zarrastelkeria beste zerbaiti lotuta ezartzen dugu zenbaitetan, (30) meneraezinei eta neurririk gabe xahutzen dutenei zarrastelak deitzen baitiegu; horregatik dirudite ziztrinetan ziztrinenak, horrekin batera bizio asko baitute. Beraz, ez dira egoki izendatzen, zarrastela bizio jakin bat duena baita, hots, ondasunak hondatzearena; (1120a) bere burua hondatzen duena, hain zuzen ere, galdua da, eta badirudi ondasunen hondamena norberaren nolabaiteko suntsipena dela, haiei esker bizi daitekeela uste dugulako. Beraz, zarrastelkeria zentzu horretan ulertzen dugu.

Gizakia baliagarriak dituen gauzez ongi edo gaizki balia daiteke, (5) eta aberastasuna gauza baliagarriren bat da; bestalde, gauza jakin batez gauza horri dagokion bertutea duena baliatzen da ezin hobeki; beraz, aberastasunaz ere baliatuko da ezin hobeki ondasunei dagokien bertutea duena, eta hori eskuzabala da. Baina badirudi ondasunez baliatzea gastatzea eta ematea dela; ondasunak lortzea eta zaintzea lorpenak dira neurri handiagoan. Horregatik dagokio (10) neurri handiagoan eskuzabalari behar duten horiei ematea, behar den lekutik lortzea eta behar ez den lekutik ez lortzea baino; bertuteari neurri handiagoan baitagokio ongia egitea ongia jasotzea baino, eta gauza ederrak egitea, gauza lotsagarriak ez egitea baino. Bestalde, agerikoa da ongia egitea eta gauza ederrak egitea emateari dagozkiola, eta hartzeari, ongia jasotzea (15) eta gauza lotsagarriak ez egitea. Gainera, esker

ona ematen duenari adierazten zaio, ez jasotzen ez duenari, eta hura ere goratzen da gehiago. Halaber, errazagoa da ez jasotzea ematea baino, gizakiak ez baitaude euren emateko besterena ez hartzeko bezain prest. Eta ematen dutenei eskuzabal esaten zaie, baina hartzen ez dutenak ez dira beren eskuzabaltasunarengatik goratzen, (20) beren zuzentasunarengatik baizik, hein batean. Bestalde, jasotzen dutenak ez dira inolaz ere goratzen. Gainera, bertutetsuen artean eskuzabalak dira maitatuenak gutxi gorabehera, onuragarriak baitira, eta hori dira ematean.

Bertutearen araberako ekintzak ederrak dira eta edertasunarengatik egiten dira; horrenbestez, eskuzabalak ere emango du edertasunarengatik eta zuzen: (25) behar direnei, behar dena, behar denean eta emate zuzenari jarraitzen dioten beste baldintza guztietan. Eta hori atseginez eta atsekaberik gabe, bertutearen araberakoa dena atsegina edo atsekaberik gabea baita, eta inolaz ere ez atsekabetsua. Behar ez den horiei, edo ez edertasunarengatik – beste kausa batengatik baizik– ematen duenari ez dio inork eskuzabala esango, bestelako zerbait baizik. Ezta atsekabez ematen duenari ere, (30) horrek nahiago baititu ondasunak ekintza ederra baino, eta hori ez da eskuzabalaren berezkoa. Eta eskuzabalak ez du hartuko behar ez den lekutik, horrela hartzea ez baita ondasunak gurtzen ez dituenaren berezkoa. Eta ez da inolaz ere ibiliko eske eta eske, mesedeak erraz hartzea ez baita ongia egiten duenaren berezkoa. Hori dela eta, behar duen lekutik hartuko du, adibidez, (1120b) bere onibarretatik, ez ederra delako, eman ahal izateko beharrezkoa delako baizik. Eta ez da bere ondasunez arduragabetuko, horien bidez beste batzuei lagundu nahi baitie, hain zuzen ere. Eta, eman ahal izateko, ez dio edozeini emango, eman behar zaienei eta behar denean, eta ematea egokia den unean. Baina neurriz gaineratik ematea ere bada eskuzabalaren berezkoa, (5) erabat, eta horren ondorioz, bere buruarentzat oso gutxi gordetzea, bere burua gehiegi ez zaintzea eskuzabalaren berezkoa baita.

Eskuzabaltasuna ondasuneekiko esaten da, eskuzabalaren ezaugarria ez baitatza emandako kantitatean, ematen duenaren azturen baizik, eta aztura eskuzabala bere ondasunen araberakoa izaten da. Beraz, ezerk ez du eragozten (10) gutxiago ematen duena

eskuzabalagoa izatea, horrek aberastasun txikiagotik ematen badu. Baina badirudi haiek beraiek lortu dituztenak ez direla eskuzabalagoak, ondasunak jarauntsi dituztenak baizik, horiek ez baitute inoiz gabeziarik jasan, eta, bestalde, denek maitatzen dituzte gehiago beren obrak, gurasoek eta poetek bezala. Baina ez da erraza eskuzabala aberastea, (15) dirua hartzeko eta gordetzeko joerarik ez duelako, emateko joera baizik; eta dirua ez du berez estimatzen, emateko baizik. Horregatik aurpegiratzen zaio zoriari gehien merezi dutenak gutxien aberasten direnak direla; baina hori ez da arrazoirik gabe gertatzen, ezin baitu ondasunik izan lortzeaz arduratzen ez denak, beste edozein kasutan bezala. (20) Hala eta guztiz ere, ez die emango, behintzat, ez behar ez duten horiei, ez behar ez denean, ezta horrelako beste edozein baldintzatan ere, hartara ez bailuke eskuzabalaren arabera jokatu; eta aipaturiko gauza horietan gastatuko balu, ez lezake behar dituen gauzetan gastatu. Izan ere, esan denez, bere ondasunen arabera eta behar dituen gauzetan gastatzen duena eskuzabala da, eta neurria gaintitzen duena, zarrastela. (25) Horregatik ez diegu zarrastel esaten tiranoiei, beren opariekin eta gastuekin beren ondasun ugari gaintitzeak ez baitirudi erraza.

Beraz, eskuzabaltasuna ondasunak emateari eta harteari dagokien erdikotasuna izanik, eskuzabalak behar den gauzetan eta behar den guztia emango eta gastatuko du, afera txikietan zein handietan, (30) eta beti atseginez; eta behar den lekutik eta behar den guztia hartuko du, bertutea batari eta besteari dagokien erdiko terminoa izanik, biak egingo baititu behar den moduan, egoki emateari egoki hartzeak jarraitzen baitio, eta horrelakoa ez bada, aurkakoa da. Horrela, bada, elkarrekin ematen diren bi baldintza horiek batera azalduko dira pertsona berarengan, baina aurkakoak, oster, ez, jakina. (1121a) Eta gertatzen bazaio beharrezkoa eta zuzena dena baino gehiago gastatzen duela, atsekabetuko da, baina neurritz eta behar bezala; izan ere, behar denarekin eta behar bezala atsegintzea zein atsekabetzea bertutearen berezkoa da. Bestalde, diru kontuetan eskuzabala moldakorra ere bada, (5) berari iruzur egin baitakioke, ondasunak estimatzen ez dituelako; eta neurri handiagoan

nahigabetzen da behar zuen gastu bat egin ez bazuen, behar ez zuen gastu bat egin bazuen baino, eta ez dator bat Simonidesekin.

Bestalde, gauza horietan ere huts egiten du zarrastelak, ez baitu gozatzen ezta atsekabetzen ere behar duenekin eta behar bezala; hori argiago geratuko da ikerketan aurrera egin ahala. (10) Esana dugu zarrastelkeria eta zikoizkeria gehiegikeria eta gabezia direla, bi gauzetan: ematean eta hartzean, ematean gastua ere sartzen baitugu. Beraz, zarrastelkeriak ematean eta ez hartzean gainditzen du neurria, eta hartzean, berriz, falta du; eta zikoizkeriak ematean du falta eta hartzean gainditzen du neurria, (15) gauza txikietan izan ezik. Beraz, zarrastelkeriaren bi ezaugarriok ez dira sarritan elkarrekin agertzen (ez baita erraza guztiei ematea inondik hartzen ez bada, banako emailei ondasunak berehala agortzen baitzaizkie, eta horiek zarrastelak izaten omen dira). Agerikoa denez, pentsa liteke horrelako gizakia zikoitza baino hobea dela, (20) eta ez neurri txikian, hura adinak zein pobreziak erraz sendatua baita, eta erdiko terminora irits daiteke; izan ere, eskuzabalaren ezaugarriak ditu, eman egiten baitu, eta ez du hartu egiten, baina ez ditu ez bata eta ez bestea behar bezala egiten, ezta ongi ere. Beraz, ohitura hori hartuko balu, edo nola edo hala aldatuko balitz, eskuzabala litzateke; izan ere, behar direnei emango lieke eta behar ez den lekutik ez luke hartuko. (25) Horregatik ez da bere aiurria ziztrintzat hartzen, neurria gainditzea ez baita zitalaren berezkoa ematean eta ez hartzean, ezta jaiotzez doilorra denarena ere, ergelarena baizik. Badirudi horrelako zarrastela zikoitza baino askoz hobea dela, esandako arrazoiengatik eta bata askori on egiten dielako eta besteak, berriz, inori ez, ezta bere buruari ere.

(30) Baina zarrastel gehienek, esan denez, behar ez den lekutik hartu egiten dute, eta, hori dela eta, zikoitzak dira. Eta gutziatsu bilakatzen dira, gastatu nahi izateagatik, baina hori ezin dute ahurka egin, baliabideak berehala agortzen baitzaizkie; beraz, beste nonbaitetik lortzera behartuta daude; (1121b) eta aldi berean, ederkiaz batere arduratzen ez direnez, arduragabeki eta edonondik hartzen dute; izan ere, emateko irrikitan daude, baina ez zaie batere axola nola edo nondik hartu. Horregatik, hain zuzen ere, ez dira eskuzabalak euren emariak, ez baitira ez ederrak ez edertasunarengatik eginak, (5) ezta behar bezala ere; aitzitik,

zenbaitetan behartsuak izan behar direnak aberasten dituzte, eta aiur neurritsua dutenei ez liekete ezer emango, baina losintxariei edo beste edozein atsegin lortzen dietenei, berriz, emari asko. Horregatik dira neurrigabeak ere haietako gehienak: ahurka gastatzeaz gain, euren neurrigabekerietan xahutzaileak ere baitira, eta ederkiaren asmoz (10) bizi ez izateagatik atseginen bila zuzentzen dira.

Horrela, bada, zarrastela gidaritzarik gabe aurkitzen bada, esandako neurrigabekeriatar iristen da; baina norbaiten ardura aurkitzen badu, erdiko terminora eta behar den lekura irits daiteke. Zikoizkeria, berriz, sendaezina da (zahartzaroak eta ezgaitasun orok gizakiak zikoitz egiten omen dituzte, jakina), eta zarrastelkeria baino berezkoagoa dute gizakiek, (15) gehienak emankorrek baino diruzaleak baitira. Gainera, zikoizkeria hedadura handikoa eta forma askotarikoa da, zikoizkeria-era asko omen baitago. Izan ere, hori bi gauzatan datza: ematearen gabezia eta hartzearen gehiegikerian, baina ez da guztiengan osorik agertzen, zenbaitetan bereizi egiten baitira; (20) eta batzuek hartzean gaintitzen dute neurria, eta beste batzuk ematean gelditzen dira labur. Eskulabur, zurkaitz, ziztrin eta horrelako deiturak jasotzen dituzten guztiak, hain zuzen ere, ematean gelditzen dira labur, baina ez dituzte besteren ondasunak gutiziatzen, ezta hartu nahi izan ere, batzuek nolabaiteko zintzotasunarengatik eta lotsagarria den guztiaren kontra neurriak hartzeagatik (25) (izan ere, batzuek euren dirua gordetzen omen dute –edo hori esaten dute, behintzat– ondoko arrazoiarengatik, hain zuzen ere: ekintza lotsagarririk egitera behartuta inoiz egon ez daitezen; horien artean eskueutsia eta horrelako guztiak daude, eta honela deitzen dira ezer ez ematean neurria gaintitzearen ondorioz); eta beste batzuk, euren aldetik, besteen ondasunetatik urruntzen dira, besteena hartzea besteek norberarena hartu gabe (30) erraza ez dela pentsatzen dutelako; beraz, ontzat jotzen dute ez hartzea eta ez ematea. Beste batzuek, aldiz, hartzeari dagokionez neurria gaintitzen dute edozer eta edonondik hartzeagatik, adibidez, zeregin arbuigarrietan dabiltzanak, burdel-jabeak eta horrelako guztiak, eta diru gutxi utzi eta interes handiak ezartzen dituzten lukurariak; (1122a) horiek guztiek, hain zuzen ere, behar ez duten lekutik eta behar ez duten kantitatea hartzen dute. Agerikoa da etekinzalekeria

baterako dutela, horiek guztiek etekinengatik, txikiak izanda ere, gaitzespenak pairatzen baitituzte. Izan ere, behar ez den lekutik ondasun handiak eta behar ez dutena hartzen dutenei ez diegu zikoitz esaten (5) –hiriak arpilatu eta leku sakratuak gabetzen dituzten tiranoei, alegia–, bihozgaiztoak, donausleak eta bidegabeak baizik. Hala ere, dadolariak, lapurrak eta bandilak zikoitzen artean daude, gutziatsu zikinak baitira, jakina. Batzuek eta besteek, hain zuzen ere, etekinengatik ekiten diete jarduera horiei eta pairatzen dituzte gaitzespenak; (10) eta batzuk arrisku handietan jartzen dira harrapakinarengatik, eta besteek, eman beharko litzaiekeen lagunen kontura lortzen dute onura. Beraz, batzuk eta besteak, onura behar ez den lekutik lortu nahi izanik, gutziatsu zikinak dira, eta eskuratze modu horiek guztiak, hain zuzen ere, zikoitzak dira. Normala da zikoizkeria eskuzabaltasunaren aurkakotzat hartzea, zarrastelkeria baino bizio handiagoa baita, (15) eta gizakiek haren kausaz akats gehiago egiten dute delako zarrastelkeriaren kausaz baino. Horrela, bada, izan bedi nahikoa eskuzabaltasunari eta horren aurkako bizioei buruz esandakoa.

II

Badirudi jarraian oparotasunaz aritu beharko genukeela, hori ere ondasunei buruzko bertutea omen da eta. (20) Hala ere, eskuzabaltasuna ez bezala, ez da zabaltzen ondasunen inguruko ekintza orotan, dirutza handia xahutzen den ekintzetan bakarrik baizik; eta horietan eskuzabaltasuna gainditzen du tamainaz. Izenak berak adierazten duen legez, gastu egokia eta oso handia da. Baina tamaina erlatiboa da, trirreme-armadore baten gastuak eta erlijio-prozesio baten gidariarenak inola ere berdinak ez direlako. (25) Hortaz, egokitasuna gastatzen duenari berari, egoerari eta objektuari dagokie. Baina gauza txikietan edo neurritsuetan egokiro gastatzen duenari ez zaio oparoa esaten; adibidez, askotan ematen nion eskaleari¹⁸ esaten duenari, gauza handietan horrela egiten duenari baizik; izan ere, oparoa eskuzabala da, baina eskuzabala ez da ezinbestean oparoa. (30) Horrelako azturaren gabeziari zekenkeria esaten zaio, eta gehiegikeriari nabarmenkeria, arrunckeria eta beste

¹⁸Homero, *Odyssea* XVII 420.

horrelako bizio horiek ezartzen zaizkio, hau da, ez behar den egoeran neurria gainditzen ez duten bizioak, behar ez den egoeran eta behar ez bezala ilaraintzen direnak baizik; baina horri buruz aurrerago hitz egingo dugu.

Oparoak adituaren antza du, egokia dena (35) bereizi eta diru-kopuru handiak modu orekatuan gastatu baititzake (izan ere, hasieran esan dugun bezala, (1122b) aztura jardueren bidez eta bere objektuengatik zehazten da). Beraz, oparoaren gastuak handiak eta egokiak dira; hortaz, haren obrak ere horrelakoak dira; izan ere, horrela, gastua handia eta obrarekiko egokia izango da. Beraz, obra gastuaren duina izan behar da, (5) eta gastua obrarena, edota hau gainditu. Eta oparoak horrelako gastuak edertasunarengatik egingo ditu, hori baterako baitute bertuteek. Gainera, atseginez eta lasai egingo du, kalkulu zehatza zekena baita; eta obra nola egin ahalik eta ederren eta egokien neurri handiagoan hausnartuko du, zenbat kostatuko den eta nola egin ahalik eta merkeen baino. (10) Beraz, oparoa eskuzabala ere izango da nahitaez, eskuzabalak, hain zuzen ere, behar duena eta behar bezala gastatzen baitu; eta hor dago oparoaren tamaina, bere handitasuna, alegia: eskuzabaltasuna gauza horiei dagozkiena izanik, gastu berberaz obra bikainagoa egingo du, ondasunena eta obrarena (15) ez baita bertute bera; izan ere, ondasunik preziatuena baliagarriena dena da, adibidez, urrea; baina obrarik preziatuena da handia eta ederra dena (horrelako obraren begiratzea miresgarria baita, eta bikaina dena miresgarria da). Eta obra baten bertutea, bere bikaintasuna, bere tamainan datza.

Gastuetan badaude ohoragarriak esaten diegun horiek, jainkoei dagozkienak, alegia (20) –boto-opalkuntza, gurtzeko objektuak, eraikinak eta sakrifizioak–, eta, berdin, jainkotasunari dagokion guztia ere, eta herri-ongiari begira behar bezala egin nahi izaten diren horiek guztiak; adibidez: baten batek koru bat edo trirreme bat naroki hornitu behar duela edo hiriari herri-oturuntza oparitu behar diola pentsatzen duenean. Baina esan bezala, gauza haietan guztietan egileak ere hartzen ditugu kontuan, nor diren eta zein baliabide dituzten galdetuz, (25) gastuak horrelako gizakien duinak izan behar baitira, eta egokiak, obrari ez ezik, egileei ere bai. Horregatik ez liteke behartsu bat oparoa izan, ez baitu gastu handiak egokiro egiteko

baliabiderik; eta saiatzen dena ergela da, duina eta beharrezkoa den horretatik urruntzen baita, eta bertutearen arabera gastua zuzen egindakoa da. Gastu handiak, orduan, (30) dagozkie horrelako baliabideak lehendik dituzten horiei –haien beraien bidez edo arbasoen bidez edo bere harremanen bidez lortuak–, eta nobleei, ospe handikoei eta beste horrelako guztiei, horiek guztiek handitasuna eta duintasuna baitituzte. Horrenbestez, oparoa horrelakoa da bereziki eta horrelako gastuak dagozkio oparotasunari, esan bezala (35) (handienak eta ohoragarrienak baitira). Eta banako gastuen artean, behin bakarrik egiten diren gastu horiei oparo esaten zaie, (1123a) eskontza batean edo horrelako egoera batean bezala, edo hiri osoari edo gizarte-maila altua dutenei interesatzen zaien zerbaitean, edo atzerriarren harreretan eta agurretan, edo opariak ematen eta hartzen direnean; oparoak ez baitu bere onurarako gastatzen, guztien onurarako baizik, (5) eta opariak boto-eskaintzen antza dute, nolabait, eta aberastasunaren arabera nork bere etxea hornitzea ere bada oparoaren berezkoa (hau ere baita ospe-adierazgarria), eta gehienbat obra iraunkor horietan gastatzea (horiek ederrenak baitira), eta kasu bakoitzean egokia dena, ez baitagokie gastu berbera jainkoei eta gizakiei, (10) ezta tenplu bati eta hilobi bati ere. Eta gastu bakoitza bere generoan handia da, eta, nahiz eta zentzu absolutuan gasturik oparoena obrarik handienean egindakoa gastu handia izan, beste kasu batzuetan ere izan daiteke handia gastua. Bestalde, obraren handitasuna eta gastuarena ez dira berdinak (pilotarik edo flaskorik ederrenak handitasuna baitute (15) ume batentzako opari moduan, baina haien balorea txikia eta eskasa da). Horregatik da oparoaren berezkoa oparoki eginiko edozein gastu (horrelako gastua ez baita erraz gainditzen) eta gastuak merezi duen duintasunaren arabera egitea.

Beraz, horrelakoa da oparoa; neurria gainditzen duenak eta nabarmena denak (20) behar baino gehiago gastatzeagatik gainditzen du neurria, esan denez, gauza txikietan gastu handiak egiten baititu, eta ezegoki harrotzen da, adibidez, nork berea ordaindu beharreko otordu baten mahaikideak gonbidatuz ezkontza bat bailitzan, eta komediantek koru baten arduraduna izanik, korua eszenatokira purpuraz jantzita sarraraziz, megaratarrek bezala. Eta hori guztia ez du ongiarengatik egingo, (25) bere aberastasuna erakusteko baizik, eta gauza horiengatik

mirestua dela uste izateagatik; eta asko gastatu behar duen horretan gutxi gastatuz, eta gutxi gastatu behar duen horretan, asko. Bestalde, zekena labur gelditzen da gauza guztietan, eta gasturik handienak egin ondoren, huskeria batean hondatuko du lan ederra, eta egiten duen guztian pentsatu eta hausnartuko du (30) nola gasta lezakeen ahalik eta gutxien, eta egindakoz kexatuko da, behar duena baino gehiago gastatu duelakoan. Beraz, aztura horiek bizioak dira; baina ez dute gaitzespen sortarazten, behintzat, hurkoentzat kaltegarriak ez direlako, ezta lotsagarriegiak ere.

III

Badirudi arimanditasuna, izenak berak ere adierazten duenez, gauza handiei dagokiela. (35) Ikus dezagun, lehendabizi, zer nolako gauzari buruzkoa den, (1123b) ez baita ezertan bereizten aztura edo aztura duen gizakia aztertzea.

Izan ere, arimandikoa omen da bere buruarentzat gauza handiak eskatzen dituen, horiek merezi dituelarik, bere merezimenduaren arabera jokatzeko ez duena ergela baita, eta bertutetsuen artean inor ez da ez ergela, ez burugabea. Arimandikoa, beraz, esandako hori da. (5) Izan ere, gauza txikiak merezi dituen eta horrelakoak bere buruarentzat eskatzen dituen zuhurra da, baina ez arimandikoa, arimanditasuna handitasunean baitatza, edertasuna, gorputz handian bezalaxe; txikiak, lerdinak eta proportzionatuak izango dira, baina ez ederrak. Eta duineza izanik gauza handiak merezi dituela uste duena handizalea da; merezi dutena baino gauza handiagoen duinak direla uste duten guztiak ez dira handizaleak. Merezi duena baino gauza txikiagoen duina dela uste duena, (10) arimatxikikoa da, gauza handiak edo ertainak merezi nahiz gauza txikien duina izan; edo gutxiago merezi duela ere uste badu; baina bereziki, gauza handien duina dela pentsatuko balu; izan ere, zer egingo luke, horrenbeste mereziko ez balu? Beraz, arimandikoa mutur batean dago handitasunarekiko, baina erdian behar denarekiko (bere merezimenduaren arabera duina dela uste baitu); (15) gainerakoek, berriz, hori neurritz gainditu dute edo labur gelditu dira.

Beraz, baten batek merezimendu osoz gauza handien duina dela uste badu, eta batez ere gauza handienena, gauza bakar bati dagokionez izango da bereziki. Merezimendua kanpoko ongiei dagokienez esaten da; eta handientzat har genezake jainkoei eskaintzen diegun hori, hots, goi-mailakoak direnek beste edozein baino gehiago irrikatzen dutena eta ekintza ederrenetarako saria dena: (20) horrelakoa ohorea da, hori baita, hain zuzen ere, kanpoko ongien artean, handiena. Beraz, ohoreei eta desohoreei dagokienez, arimandikoa behar bezalakoa da; eta arrazoirik eman gabe ere, agerian dago arimandikoek ohorearekin zerikusirik badutela; izan ere, gizaki bikainek ohorearen duinak direla uste dute bereziki, eta merezimendu osoz. Uzkurra, berriz, labur gelditzen da, bai bere buruarekiko, bai arimandikoaren duintasunarekiko; (25) handizaleak, bere aldetik, bere buruarekiko neurria gainditzen du, baina arimandikoa, behintzat, ez du gainditzen. Arimandikoa, gauza handien duina baldin bada, onena izango da, hobeia dena gauza handiagoen duina baita beti, eta onena, handienena. Beraz, benetan arimandikoa dena ona izan behar da; gainera, (30) badirudi arimandikoaren berezkoa litzatekeela bertute orotan bikaina izatea; eta ez lekiok inolaz ere arimandikoari korrika eta presaka ihes egitea egokituko, ezta zuzengabekeriak egitea ere. Izan ere, zergatik egingo lituzke gauza lotsagarriak handitzat ezer hartzen ez duenak? Eta zehaztasunez aztertuko bagenu, erabat barregarria agertuko litzateke arimandikoa ona ez balitz; bestalde, ziztrina balitz, ez litzateke ohorearen duina izango, (35) ohorea bertutearen saria baita, eta onak direnei eskaintzen zaie. (1124a) Horrela, bada, badirudi arimandikotasuna bertuteen nolabaiteko apaindura dela, euren handitasuna areagotzen baitu, eta haiek gabe ez da bera sortzen. Arrazoi horregatik da nekeza benetan arimandikoa izatea, noblezia handienik gabe eman ezin baitaiteke.

Beraz, arimandikoak ohoreekin eta desohoreekin zerikusia du bereziki, (5) eta gizaki bertutetsuek emandako ohore handiekin neurritz hartuko du atsegin, ohore egokiak edo txikiagoak jaso dituelakoan, erabat betea den bertuteak ezin baitu nahikoa duina den ohorerik izan. Hala ere, onetsi egingo ditu, haiek ezin baitiezaioquete ohore handiagorik eskaini; (10) baina jende arruntak eta arrazoi xumeengatik emandakoak erabat gutxietsiko ditu, ohore

horiek merezi ez dituelako; eta berdin desohoreari dagokionez ere, ez baita hari dagokionez zuzena izango. Beraz, arimandikoak, esan denez, ohoreekin zerikusia du bereziki; hala ere, aberastasunari, botereari, zorion eta zorigaitz orori dagokienez ere jokatu du neurriz, (15) edonola gertatuta ere; eta, zoriona badu, ez da oso alai azalduko, ezta oso goibel ere zorigaitza badu. Izan ere, ohoreari dagokionez ere, ez du jokatzen hura gauzarik handiena bailitzan (boterea eta aberastasuna ohorearen bidez baitira eskuragarriak; horiek dituztenek, behintzat, gauza horiengatik izan nahi dute ohoratuak); baina ohorea gauza txikitzat hartzen duenak gainerako gauzak ere hartuko ditu horrela. (20) Horregatik dirudite buruiritziak.

Badirudi, halaber, zoriaren dohainek ere laguntzen diotela arimandikotasunari; izan ere, etxeonekoek, boteretsuek edo aberatsek ohorea merezi dutela uste dute, ohorea nolabaiteko bikaintasunean baitago, eta ongiarengandik gailentzen den guztia ohoratuagoa da; horregatik horrelako dohainek ere egiten dituzte arimandikoagoak gizakiak, batzuk haiengatik ohoratuak baitira. (25) Baina, egia esan, gizaki ona baino ez da ohoragarria, nahiz eta ondasunak eta boterea dituen ohorearen duinagoa omen den; aitzitik, bertuterik gabe horrelako ongiak dituztenek ez dute zuzen euren burua ohore handien duintzat hartzen, eta ez zaie egokiro arimandikoak esaten, erabat betea den bertuterik gabe dohain horiek ez baitira sortzen. Izan ere, horrelako ongiak dituztenak ere bilakatzen dira buruiritzi eta ozar, (30) bertuterik gabe ez baita erraza halabeharraren dohainak egoki eramatea; bestalde, gainerakoak eraman ezin dituztenez, eta haiek baino hobeak direla uste dutenez, (1124b) erdeinatu egiten dituzte, eta gogoak ematen diena egiten dute. Izan ere, arimandikoa imitatzen dute –antzekoak ez izan arren–, baina ahal duten gauzetan imitatu egiten dute: ez dute bertutearen arabera jokatzen, baina gainerakoak erdeinatzen dituzte. (5) Beraz, arimandikoak zuzentasunez erdeinatzen du (iritzi zuzena baitu), baina herri xeheak halabeharraren arabera erdeinatzen du. Huskeriak preziatzen ez dituenek, ez da arrisku txikietan jartzen, eta arriskua ez du gogokoa; baina aurre egiten die arrisku handiei, eta arriskuan jartzen denean, bizitzarekiko arduragabea da, beraren ustez edonola bizi izatea inolaz ere merezi ez duelako. Eta mesedeak egiteko gai da, baina mesedeak jasotzeak lotsatu egiten du, (10) hura nagusi baten berezkoa baita, eta hori

menpeko batena. Eta jasotako mesedeak baino askoz gehiago itzultzeko prest dago, horrela lehendabizi hasi zena beraren zordun bilakatuko baita, eta bera lagunduta izango da; halaber, badirudi haiek egindako ongia gogoratzen dutela, baina ez jasotzen dutena (ongia jasotzen duena ongia egiten duena baino menpekoagoa baita, eta paregabea izan nahi du), eta haiek egindako ongiaz (15) gustura entzuten dute, baina jasotzen duten ongiaz, atsekabez. Horregatik ez ditu Tetisek aipatzen Zeusi egindako zerbitzuak¹⁹, ezta lakoniarrek atenastarrei egindakoak ere, jasotakoak baizik.

Batere behar ez izatea, edo oso gutxi, baina besteei zerbitzuak egiteko oso prest izatea ere bada arimandikoaren berezkoa; eta, halaber, goi-mailakoekiko eta zorionekoekiko harroa izatea, baina neurrizkoa erdi-mailakoekiko, (20) haiek baino hobea izatea zaila eta agurgarria baita, baina hauek baino hobea, erraza; eta goi-mailakoen aurrean harro azaltzea ez da doilorra, baina xumeen aurrean, gogaikarria litzateke, ahulen aurka indarrez baliatzea bezala. Halaber, ez du gauza estimatuen atzetik ibili behar edo besteek lehendik betetzen dituzten postuetara joan behar; eta alfer eta motel egongo da, ohore bat edo eginkizun handiak (25) eskaintzen diren lekuetan izan ezik; baina ekintza gutxitan hartuko du parte, handiak eta ospetsuenetan bakarrik. Bestalde, bere sinpatiak eta gorrotoak ere agerian izan behar ditu (isilean gordetzea ikaratuaren berezkoa baita, eta gehiago kezkatu behar da egiaz iritziaz baino); eta aho betean hitz egin eta argi jokatu behar du (erdeinaria izateagatik erabateko askatasunaz hitz egiten duena baita, (30) eta egiatia, ironiaz hitz egiten ez badu; eta ironiaz herri xehearen aurrean hitz egiten du); eta ezin du beste bati begira bizi, (1125a) adiskide bati ez bada (hau esklaboen berezkoa baita; horregatik dira makurrak losintxari guztiak ere, eta xumeak, losintxariak). Eta mirestekoa joerarik ere ez du, ez baitu handitzat ezer hartzen; herratsu ere ez da, oroitzea ez baita arimandikoaren berezkoa, gauza txarrez bereziki, neurri handiagoan haiei jaramonik ez egitea baizik; (5) maiseatzaile ere ez da, ez baitu bere buruari buruz hitz egingo, ezta beste bati buruz ere; izan ere, berdina zaio bera goraipatua edo gainerakoak gaitzetsiak izatea; bestalde, laudatzaile ere ez da, eta

¹⁹Homero, *Ilias* XXIV 129. Homero, *Ilias* I 394-407.

horrexegatik, hain zuzen ere, gaizkiesale ere ez, ezta bere etsaiei buruz ere, irain batengatik ez bada. Eta gauza beharrezkoei edo txikiei dagokienez, kexatzeko eta erregutzeko joerarik txikiena du, (10) gauza horiei dagokienez horrela jokatzea gizaki arduratsu baten berezkoa baita. Eta gauza ederrak eta alferrikakoak eduki nahiago izango ditu, emankorrak eta onuragarriak baino, haiek gizaki autarkiko baten berezkoagoak baitira. Eta badirudi ibilera lasaia, ahots baxua eta ahoskera baratza ere arimandikoaren berezkoak direla, gauza gutxi interesatzen zaion hori ez baita presatsua, (15) ezta gartsua handitzat ezer hartzen ez duen hori ere; eta arrazoi horiengatik sortzen dira ahots zorrotza eta azkartasuna.

Beraz, horrelakoa da arimandikoa, eta labur gelditzen dena, arimatxikikoa, eta neurria gaintitzen duena, handizalea. Izan ere, horiek ere ez ditugu gaiztotzat hartzen, ez baitiote inori kalterik egiten, oker ez badaude. Arimatxikikoak, hain zuzen ere, (20) gauza onen duina izanik, berez merezi duenari uko egiten dio, eta bere burua gauza onen duintzat hartzen ez duenez eta bere burua ezagutzen ez duenez, badirudi nolabaiteko bizioa duela, merezi duen hori, behintzat, ona izanik, erdiesten saiatuko bailitzateke. Hala ere, horrelakoek ez dirudite ergelak, atsekak baizik, neurri handiagoan; baina horrelako iritziak okerragoak egiten omen ditu, (25) gizaki orok merezi duen hori lortzea baitu helburu, baina haiek ekintza eta bizibide nobleetatik ere urruntzen dira duinezak direlakoan, eta, era berean, kanpoko ongietatik ere bai. Handizaleak, bere aldetik, ergelak dira eta ez dute beren burua ezagutzen; eta hori begien bistakoa da: izan ere, duinak ez izan arren, eginkizun ohoragarriei ekiten diete, eta gero nabarmen geratzen dira; eta jantziz, itxuraz eta horrelako gauzez apaintzen dira, (30) eta euren arrakasta beste guztien aurrean agerian uztea nahi dute, eta haiei buruz hitz egiten dute arrakastarengatik ohoratuak izango direlakoan. Baina arimatxikikeria handizalekeria baino neurri handiagoan dago arimanditasunaren aurka, arruntagoa zein okerragoa baita. (35) Beraz, arimanditasunak, esan bezala, ohore handiekin du zerikusia.

(1125b) Badirudi, lehenengo liburuetan esan zenez, horri buruz beste bertute bat dagoela, eta pentsa liteke horrek arimanditasunarekin zerikusia baduela, eskuzabaltasunak oparotasunarekin duenaren antzera. Biak ala biak, hain zuzen ere, handitasunetik urrun daude, (5) baina neurriei eta gauza txikiei dagokienez behar bezalako jarieran ezartzen gaituzte; eta ondasunak hartzean eta ematean erdiko termino bat, gehiegikeria bat eta gabezia bat dauden bezala, berdin, ohoreen gogoan ere baliteke behar bezalakoa baino gehiago edo gutxiago irrikatu, edo behar den lekuan eta behar bezala desiratu. Beraz, handinahikoa gaitzesten dugu ohorea behar ez den lekutik eta behar baino gogo handiagoz desiratzen duelako, baita handinahigabeak ere, (10) ekintza ederrengatik ere ohoratua izan nahi ez duelako. Hala ere, batzuetan, ohoreak irrikatzen dituen goraipatzen dugu kementsutzat eta bertutezaletzat hartzen dugulako, eta handinahigabea, neurrizkotzat eta zuhurtzat hartzen dugulako, lehenengo liburuetan ere esan bezala. Agerian dago, horrelako gauzaren zalea esaera zentzu batean baino gehiagotan esaten denez, (15) ez dugula beti pertsona berbera handinahikotzat hartzen; aitzitik, goraipatzen dugu ohoreak gainerakoek baino gehiago irrikatzen dituelako, baina gaitzesten dugu behar baino gogo handiagoz egiten duelako; eta erdikotasuna izenik ez duenez, badirudi muturrak norgehiagoka daudela, haren lekua hutsik bailitzan. Hala ere, gehiegikeria eta gabezia dauden gauzetan erdiko terminoa ere egongo da; ohorea behar baino gehiago edo gutxiago desiratu egin daitekeenez, (20) behar bezala ere egin daiteke. Horrela, bada, aztura hori goستن dugu, ohoreari dagokionez erdiko terminoa delako, izenik ez badu ere. Ohoreen handinahikeriaren aurrean, handinahigabekeria agertzen da; ohoreen handinahigabekeriaren aurrean, handinahikeria; eta bien aurrean, nola edo hala, biak. Badirudi gainerako bertuteei dagokienez ere gauza bera gertatzen dela; baina kasu horretan muturrak elkarren aurka agertzen dira, (25) erdiko terminoak izenik ez duelako.

v

Otzantasuna sumindurarekiko erdikotasuna da; baina erdiko terminoa bera izengabea denez, eta muturren egoera ere oso antzekoa denez, erdiko terminoa otzantasuna izendatzen

dugu, gabeziarako joera badu ere, hura izengabea delako. Gehiegikeriari suminkortasuna dei lekiok, (30) pasioa sumina baita, baina eragileak asko eta desberdinak dira. Beraz, behar den egoeretan eta behar den gizakiekin sumintzen dena eta, gainera, behar bezala, behar denean eta behar den denboraz, goraipatua da; beraz, gizaki hori otzana litzateke, otzantasuna bene-benetan goraipatzen bada (otzanak lasai egon nahi baitu eta ez pasioak eramana izan; (35) aitzitik, arrazoiak agintzen dion bezala, hots, behar den bezala, behar den egoeretan eta behar den denboraz sumindu). (1126a) Baina badirudi batez ere gabeziak huts egiten duela, otzana ez baita mendekaria, barkabera baizik, neurri handiagoan. Gabezia, nolabaiteko suminkortasunik eza nahiz beste edozer izan, gaitzetsia da. Behar den egoeretan sumintzen ez direnek ergelak dirudite, baita behar ez den moduan, unean eta gizakiekin sumintzen direnek ere, (5) uste baitugu halako gizakiak sentitzen eta atsekabetzen ez duela, eta, sumintzen ez denez, bere burua babesteko gai ez dela; eta jasotako laidoak pairatzea edo bere senideen kontrako laidoak onartzea esklaboaren berezkoa da.

Gehiegikeria esandako era guztietan gerta daiteke (behar ez den pertonekin, behar ez den egoeretan, (10) behar baino gehiago, behar baino lehen eta behar baino denbora luzeagoz gerta baitaiteke); hala ere, akats guztiak, behintzat, ez dira gizaki beraren baitan gertatzen; izan ere, hori ezin liteke gertatu, gaizkiak bere burua ere hondatzen baitu, eta erabatekoa agertzen baldin bada, jasan ezina da. Horrela, bada, suminkorrak berehala sumintzen dira behar ez den pertonekin, behar ez den egoeretan eta behar baino gehiago, baina berehala lasaitzen dira; (15) eta hori da, hain zuzen ere, euren ezaugarriarik onena. Hori gertatzen zaie euren sumidurari eusten ez diotelako; aitzitik, hura askatzen dute eta tupusteko suminkortasunaren kausaz nabarmen gelditzen dira, baina gero lasaitu egiten dira. Suminkorrak oso odolbero dira eta gehiegi eta tupustean sumintzen dira, ororen aurka eta ororengatik; hortik beraien izena. Erresuminduak, aldiz, nekez lasaitzen dira, (20) eta beren sumindurari denbora luzez eusten diote, beren baitan amorrua geldiarazten baitute; hau amaitzen da mendekua hartzen dutenean, mendekuak sumindura geldiarazten baitu, atsekabearen ordeztasuna sortuz. Hau gertatzen ez bada, zama handia eramaten dute, beren

amorrúa agerian azaltzen ez denez, inork ez dituelako lasaitzen, eta denbora luzea behar da norberaren sumina liseritzeko. (25) Horrelako gizakiak amorragarrienak dira beren buruarentzat eta euren adiskideentzat. Eta lakarrak deitzen diegu behar ez den egoeretan, behar baino gehiago eta denbora luzeagoz haserretzen direnei, eta mendekurik edo zigorrik gabe berradiskidetzen ez direnei.

Gehiegikeria otzantasunaren aurkakoagotzat hartzen dugu, gehiagotan gertatu ez ezik (30) (mendeku hartzea gizatiarragoa baita), bizikidetzarako ere okerragoak baitira. Lehen esandakoa oraingo azalpenetatik ere geratuko da agerian, ez baita erraza zehaztea nola, norekin, zergatik eta zenbat denboraz sumindu behar dugun, eta noraino jokatzeko dugun zuzen edo huts egiten dugun. (35) Izan ere, gutxi desbideratzen dena, gehiegikeriaz nahiz gabeziak, ez da gaitzesten, noizean behin labur gelditzen direnak goraipatzen baititugu (1126b) eta otzanak esaten diegu, eta adoretuak, sumintzen direnei, agintzeko gai direla pentsatzen dugulako. Beraz, ez da erraza hitzez azaltzea zenbat eta nola desbideratu behar dugun gaitzesgarria izateko, horri buruzko iritzia banako kasuetan eta zentzumenetan baitatza. Hala ere, hau behintzat argi dago: (5) erdiko aztura laudagarria dela, haren arabera behar direnekin, behar den gauzengatik, behar bezala eta abar sumintzen garela, eta gehiegikeriak eta gabeziak gaitzets daitezkeela, leunki, txikiak badira; gogor, berriz, handiagoak badira, eta oso gogor, larriak badira. Argi dago, beraz, erdiko azturari eutsi behar diogula. (10) Beude esanda, bada, sumindurari buruzko azalpenak.

VI

Harremanetan, bizikidetzan eta hitza eta ondasun-trukaketan, batzuek atsegingarriak dirudite, edozer laudatzen dute atsegina emateko eta ez diote ezeri trabarik jartzen; aitzitik, topo egiten dituztenei atsekaberik ekarri behar ez dietela pentsatzen dute. Beste batzuek, berriz, orori jartzen dizkiote trabak, (15) eta atsekabea sortzen badute, ez dira ezertxo ere kezkatzen; horiei kontentagaitzak eta liskarzaleak deitzen zaie. Beraz, agerian dago aipaturiko azturak gaitzesgarriak direla, eta haien arteko erdikoa, laudagarria; horren arabera, bestalde,

behar den guztia eta behar bezala onartuko dugu, eta, berdin, arbuiatu ere egingo dugu. Aztura horrek ez du inolako izenik jaso, baina adiskidetasunaren antza handia du, bereziki; (20) erdiko aztura hori duena, hain zuzen ere, adiskide zintzoa izendatzen duguna bezalakoa izango da, maitasuna gehitzen badiogu. Hala ere, aztura hori adiskidetasunetik bereizten da, tratua dituenekiko pasiorik eta maitasunik ez duelako, ez baitu aztura horrek gauza oro behar bezala onartzen maitatzeagatik edo gorrotatzeagatik, berez horrelakoa izateagatik baizik. (25) Izan ere, berdin jokatu du bai ezezagun eta ezagunekin, bai etxekoekin eta arrotzekin, baina kasu bakoitzean egokia den bezala, ez baita bidezkoa etxekoez eta arrotzez berdin arduratzea, ezta berdin atsekabetzea ere. Horrela, bada, esanda dago aztura hori duenak, oro har, besteeikiko harremanetan behar bezala jokatu duela, eta sufrimendurik ez eman edo atseginak emateko joera badu, noblea eta onugarria dena hartuko du kontuan, (30) giza harremanetan sorturiko atsegin eta atsekabeekin zerikusia omen baitu. Bere ustez poza ematea ezaina edo kaltegarria den kasu horietan guztietan, egiteari uko egingo dio, eta nahiago izango du atsekabetu; eta zerbait egiterakoan bere ekintzak desagokitasun bat –eta ez txikia, hain zuzen ere– edo kalte bat ekartzen badio, eta kontrakoak, aldiz, (35) nahigabe txiki bat, ez du lehenago ekintza onartuko; aitzitik, uko egingo dio. Bestalde, goi-mailakoekin eta herri xehearekin harreman ezberdinak izango ditu, (1127a) eta hobeto edo gutxiago ezagunekin, eta, berdin, gainerako ezberdintasunei dagokienez ere; eta bakoitzari begirune egokia emango dio, eta berez aukeratuko du atsegina ematea, eta saihestuko du nahigabea sortzea; eta ondorioak –noblezia eta onura, alegia– kontuan hartuko ditu garrantzitsuagoak badira. Halaber, geroko atsegin handi batengatik (5) nahigabe txiki bat eragingo du. Beraz, horrelakoa da erdiko aztura duena, baina ez du izenik.

Atsegina eragiten dutenen artean, atsegina izateagatik eta beste zerbaitengatik egiten ez duena, adeitsua da; onura lortzeagatik egiten duena –bai dirutan, bai diruz lorturiko gauza horietan–, losintxaria; (10) bestalde, esana dugu gauza oro arbuiatzen duena kontentagaitza eta liskarzalea dela. Muturrek elkarren aurkakoak dirudite erdiko terminoak izenik ez duelako.

VII

Harrokeriaren eta ironiaren arteko erdikotasuna ere bada, gutxi gorabehera, gauzari berberari buruzkoa, eta horrek ere ez du izenik. Halaber, ez legoke gaizki horrelako azturak ere aztertzea, (15) aiurriari buruzko kontuak hobe ezagutuko baikenituzke banako kasuak aztertu eta bertuteak erdiko terminoak direlako uste osoa izan ondoren, edozein kasutan honela dela igarrita. Bizikidetzan, hurkoei atsegina edo nahigabea emateko joera dutenak aipatu ditugu jadanik; baina orain hitz egin dezagun egiazki edo gezurti jokatzan dutenei buruz, (20) bai hitzetan, bai ekintzetan, nahiz itxura egitean.

Badirudi, orduan, harroputza dela ekintza ospetsu jakin bat, berea ez izanik, berea delako itxura egiten duena, edo dagokiona baino neurri handiagoan delako itxura egiten duena; gainzuritzaileak, osterak, dagokiona ezeztatu edo txikiagotu egiten du; erdikoa, berriz, gizaki tolesgabea izanik, egiazalea da, bai bizitzan bai hitzetan, (25) eta berez dagokiona onartzen du, ez gehiago ez gutxiago. Gauza horiek guztiak helburu batez edo helbururik gabe egin daitezke; eta, gizon orok bere izaeraren arabera hitz egin, jokatu eta nolabaiteko bizimodua du, helburu batengatik jokatzan ez badu. Bestalde, faltsukeria ziztrina eta gaitzesgarria da berez, eta egia, ederra eta laudagarria; (30) horrela ere, gizaki egiatia, erdiko terminoa izanik, laudagarria izango da, eta gizaki gezurtiak, bata eta bestea, gaitzesgarriak, baina neurri handiagoan gizaki harroputza.

Hitz egin dezagun bata eta besteari buruz, baina lehendabizi egiatari buruz. Hala ere, ez gara ari hitzarmenetan edo zuzengabekeriari edo zuzentasunari dagozkion gauza horietaz, egiatia denari buruz (hori guztia beste berturte bati bailegokioke), (1127b) baizik eta egiatia denari buruz, egiatia izateak inolako desberdintasunik ekartzen ez duen egoeretan, ez bere hizketan, ez bere bizimoduan, horrelako aztura izateagatik. Horrelako gizakia zintzoa liteke, egia maite duenak eta axolarik ez duen egoeran egia esaten duenak, arrazoi handiagoz ere axola duten egoeretan esango baitu egia, (5) faltsukeria lotsagarria bailitzan saihestuko baitu – gezurra berez saihesten zuen horrek, hain zuzen ere–; horrelako gizakia laudagarria da. Eta

hura egiaatik gabeziaz urruntzen da batik bat –orekatsuagoa agertzen baita–, gehiegikeriak higuingarriak direlako. Inolako arrazoiarengatik bere buruari dagokiona baino gehiago delako itxura egiten duenak (10) gizaki ziztrinaren antza du (ez bailitzateke bestela faltsukerian poztuko), baina agerian dago gaiztoa baino, harroputza dela. Hala ere, arrazoi batengatik egiten badu, loriarengatik edo ohorearengatik, alegia, ez da harroputza bezain gaitzesgarri; baina diruagatik edo dirua lortzeko edozerengatik egiten duena askoz ere lotsagarriagoa da (harroputza izatea ez datza ahalmenean, hautapenean baizik, (15) harroputza izaten baita aztura baten arabera eta joera jakin bat izateagatik); horrela ere, gezurtia da faltsukeriaren baitan pozten dena, edo loria nahiz etekina irrikatzen duena. Beraz, loriarengatik harroputzak direnek goraipamenak edo zorionak eskuratzen dituzten gauzak dituztelako itxura egin ohi dute, eta etekinengatik harroputzak direnek, berriz, hurkoentzat onuragarriak ere diren gauzak dituztelako itxura egin ohi dute, gauza horien gabezia ezkutuan gorde baldin badaitezke, (20) aztiaren, jakintsuaren eta sendagilearen kasuetan bezala. Hau dela eta, gehienek horrelako itxura hartzen dute eta harroputzu egiten dira, esandako baldintzak haietan betetzen baitira.

Gainzuritzailek, euren ezaugarriak txikiagotzen dituztenek, aiurria askoz atsegingarriagoa omen dute, horrela hitz egiten omen baitute ez etekinengatik, arrandia saihesteagatik baizik. (25) Horiek ere gauza ospetsuak ukatzen dituzte gehienbat, Sokratesek egiten zuen bezala. Baina ezaugarri txikiak eta begien bistakoak ez dituztelako itxura egiten dutenei azaluts esaten zaie, eta askoz ere arbuiagarriagoak dira; eta, noizbehinka, harropuzkeria dirudi, lakoniarren jantzia bezala, harropuzkeria baitira, hain zuzen ere, bai gehiegikeria bai gehiegizko gabezia. Baina gainzurikeriaz neurrian baliatzen direnak (30) eta gainzurikeria arruntegiak eta begien bistakoak ez diren gauzetan erabiltzen dituztenak, atsegingarriak suertatzen dira.

Badirudi, orduan, egiazaleraren aurkakoa harroputza dela, txarragoa baita.

Bizitzan atsedenaldiak ere daudenez, eta horiek olgetan igaro daitekeenez, badirudi egoera horretan ere badagoela nolabaiteko tratu adeitsua, (1128a) non behar dena eta behar bezala esaten eta, halaber, entzuten den. Eta alde handia ere izango da solaskideen eta hiztunen arabera. Eta agerian dago horren inguruan ere badirela erdiko terminoarekiko gehiegikeria bat eta gabezia bat. Horrenbestez, barregarrikerietan neurria gainditzen dutenek zantarrak (5) eta gogaikarriak dirudite, barregarri azaltzeko irrikitan daude, eta gauza egokiak esateko eta isekatua dena ez nahigabetzeko baino barre eragiteko joera dutela neurri handiagoan. Bestalde, ezer barregarririk esateko gai ez diren horiek eta esaten dutenekin gustura ez daudenez zarpailak eta mukerrak dirudite. Besteekin txantxetan modu adeitsuz dabiltzanak, aldiz, (10) gatzduntzat hartzen ditugu, hots, aiurri onekoak, horrelako mugimenduek aiurriarenak baitirudite, gorputzak mugimenduengatik epaitzen ditugun moduan, aiurriak ere epaitzen ditugu horrela. Gauza barregarriak ugari direnez, eta gizaki gehienek txantxekin eta isekekin behar bezala baino atsegin gehiago hartzen dutenez, zakarrei ere esaten zaie gatzdunak, (15) eta atsegingarritzat hartzen dira; baina esandakoa kontuan hartuta, agerian dago haien artean aldea dagoela, eta ez txikia.

Kontuz ibiltzea ere bada erdiko azturaren berezkoa; eta kontuz ibiltzen denaren berezkoak dira esatea eta entzutea gizaki zintzoari eta eskuzabalari dagozkien gauza horiek; horrelako gizakiak, hain zuzen ere, olgeta moduan gauzak esan eta entzun ditzake, (20) eta gizaki librearen txantxak eta morroiarenak desberdinak dira, baita ongi heziarenak eta gaizki heziarenak ere. Hori, hain zuzen ere, komedietan ikus daiteke, bai aintzinakoetan bai gaur egungoetan, haietan komikotasuna hizkera lizunean baitatza, eta horietan, berriz, aieruetan; eta horiek oso desberdinak dira begiruneari dagokionez. (25) Beraz, definitu behar da iseka egoki egiten duena gizaki libre batentzat gauza desegokirik ez esateagatik, ala entzuten duena ez nahigabetzeagatik edo gozarazteagatik? Baina, horrelako definizioa ere, behintzat, ez al da zehaztugabea izango? Izan ere, gizaki batentzat gauza jakin bat gorrotagarria da eta beste batentzat, berriz, atsegina. Baina, horrelako txantxak ere entzungo ditu, entzuten duenean jasaten dituen txantxak egin omen baititzake. Hala ere, ez du edozein txantxa egingo, (30)

iseka nolabaiteko iraina baita, eta legegileek zenbait irain debekatzen dituzte; eta agian iseka batzuk ere debekatu beharko lituzkete. Horrela, gizaki atseginak eta libreak legea bere baitan bailitzan jokatuko du. Beraz, horrelakoa da erdiko terminoa, kontuz ibiltzeagatik nahiz gatzduna izateagatik definituta. Zakarra, berriz, barre egiteko joeraren menpe dago, eta barre eragin badezake ez ditu errespetatuko (35) ez bere burua, ez gainerakoak; eta hori lortzeko esango ditu ongi hezitako gizakiak inolaz ere esango ez lituzkeen gauzak, (1128b) baita entzungo ez lituzkeen gauza batzuk ere. Gizaki zarpaila, bere aldetik, ezgaia da horrelako jolasetarako, ez baitu parte hartzen, eta edozerk haserritzen du; bestalde, badirudi bizitzan atsedena eta olgeta beharrezkoak direla.

Beraz, aipaturiko erdiko terminoak –bizitzan ematen direnak– hiru dira, (5) eta hirurak dira harremanetan eginiko hitz eta ekintza jakin batzuei buruzkoak. Haien artean bereizten dira, bat egiari buruzkoa delako, eta besteak atseginari buruzkoak. Atseginari buruzkoen artean, bata olgetan gertatzen da, eta bestea, bizitzaren beste edozein harremanetan.

IX

(10) Ez da komeni lotsari buruz hitz egitea hori nolabaiteko bertutea bailitzan, azturaren antza handiagoa baitu pasio batena baino. Nolanahi ere, ospe-galtzearen nolabaiteko beldurra definitzen da, eta gauza ikaragarriei buruzko beldurretik oso gertua da, lotsa sentitzen dutenak gorritu egiten baitira, eta heriotzaren beldur direnak, zurbildu. Horrenbestez, agerian dago bata eta bestea, nola edo hala, gorputz-erasanak direla, (15) eta hori, hain zuzen ere, pasioaren berezkoagoa da azturarena baino. Hala ere, pasioa ez zaio egokitzen edozein adini, gaztaroari baizik; izan ere, pentsatzen dugu gazteak lotsatiak izan behar direla, pasioaren menpe bizi izanik, sarritan okertzen direlako, baina lotsak eutsi egiten ditu; bestalde, gazte herabetiak laudatzen ditugu, baina inork ez luke zahar bat laudatuko lotsatia izateagatik, (20) lotsatzeko ezer egin behar ez duela pentsatzen baitugu. Bestalde, gizaki zintzoak ere ez du lotsarik sentitzen, lotsa ekintza ziztrinetan sortzen baldin bada, horrelako ekintzarik egin behar ez delako (eta ez du batere axola ekintza horiek benetan diren lotsagarriak edo gizakien

iritziz, ez baita ez bata ez bestea egin behar, horren ondorioz lotsa ez gaitzen); (25) baina ziztrina dena, aldiz, zerbait lotsagarria egiteko modukoa da. Eta horrelako ekintzaren bat egin ondoren bere azturaren ondorioz lotsatzea, eta horregatik zintzoa dela pentsatzea, zentzugabea da, lotsa borondatez egindako ekintzetan sortzen baita, eta zintzoak ez du inoiz ezer ziztririk borondatez egingo. Lotsa onbidetsua izan liteke hipotetikoki, (30) norbaitek horrelakorik egingo balu, lotsatuko bailitzateke; baina horrek ez du zerikusirik bertuteekin. Baina lotsagabekeria eta gauza lotsagarriak egiteaz ez lotsatzea ziztrina bada, horrelakoak egiteaz lotsatu arren, ez da zintzoa izango. Baina norbera meneratzea ere ez da bertute bat izaten, nolabaiteko nahastea baizik; baina hari buruz aurrerago emango da azalpena. Orain mintza gaitzen zuzentasunaz.

I

(1129a) Zuzentasunari eta zuzengabekeriari buruz, ikertu behar dugu zer nolako ekintzei dagozkien, eta zuzentasuna zer nolako erdikotasuna den, (5) eta zuzena dena zein muturren arteko erdiko terminoa den; eta gure ikerketa aurreko eztabaidetan jarraituriko metodo berberaren arabera izango da.

Hain zuzen ere, denon iritziz zuzentasuna aztura jakin bat dela ikusten dugu; aztura horretatik abiatuta, gizakiek zuzena dena egiten dute, eta hari esker zuzena denari ekiten diote eta zuzena dena nahi dute; eta, era berean, (10) zuzengabekeriari ere dagokionez, horretatik abiatuta zuzengabea denari ekiten diote eta zuzengabea dena nahi dute. Horregatik, lehen-lehenik, onar ditzagun guk ere azalpen hauek laburpen gisa; zientziekin eta ahalmenekin, eta azturekin, hain zuzen ere, ez da gauza bera gertatzen; izan ere, badirudi ahalmena eta zientzia gauza bera direla kontrakoekiko; baina kontrako aztura bat, berriz, ez da bere kontrakoaren kontrakoa; (15) adibidez, osasunetik abiatuz ez da kontrakoa egiten, osasungarria dena baizik, besterik ez; izan ere, era osasungarrian ibiltzen garela esaten dugu osasun onekoa den baten moduan ibiltzen garenean.

Horrela, bada, askotan, aztura bat bere kontrakoaren bidez ezagutzen da, eta beste askotan, haiek gertatzen diren azpiko gauzen bidez ere ezagutzen dira azturak: izan ere, aztura ona nabaria baldin bada, (20) aztura txarra ere nabaria egiten da; eta egoera onean dauden azpiko gauzen bidez aztura ona nabaria egiten da, eta aztura onaren bidez, egoera onean dauden azpiko gauzak. Horrela, bada, egoera ona haragiaren sendotasuna bada, egoera txarra ere haragiaren biguntasuna izango da nahitaez, eta egoera hobetzen duena, haragiaren sendotasuna egiten duena izango da. Sarritan ondorioztatzen da honakoa: bietako bat zentzu askotan esaten bada, (25) bestea ere esaten da zentzu askotan; adibidez, zuzena dena zentzu askotan esaten bada, zuzengabea dena ere bai. Hala ere, badirudi zuzentasuna eta

zuzengabekeria zentzu askotan esaten direla, baina, zentzu horien artean hurbiltasun handia izateagatik, euren izenkidetasuna oharkabe gelditzen da, zentzuak urrunak diren kasuetan ez bezala, izenkidetasuna nabari samarra da eta (formaren arabera desberdintasuna handia baita); adibidez, (30) izenkidetasunez giltza bai animalien lepoko klabikulari bai ateak ixten dituenari esaten diegunean.

Beraz, azter dezagun gizaki zuzengabea, zuzengabe esan daitekeen zentzu guztietan. Izan ere, badirudi gizaki zuzengabea legez kontrakoa dela, eta gutziatsua eta ezberdinkoia dena ere bai; horrenbestez, agerian dago gizaki zuzena legea betetzen duena eta berdinkoia izango dela. Hortaz, zuzentasuna legezkoa dena eta berdinkoia dena izango da, eta (1129b) zuzengabekeria, legez kontrakoa dena eta ezberdinkoia dena. Gizaki zuzengabea gutziatsua ere denez, ongiekin zerikusia izango du, ez guztiekin, arrakastari eta porrotari dagozkien ongi horiekin baizik; zentzu absolutuan, azken hauek beti dira ongiak, baina gizakiren batentzat ez beti. Gizakiek jainkoei gauza horiek eskatu egiten dizkiete eta haien atzetik joaten dira, (5) hori egin behar ez badute ere; aitzitik, zentzu absolutuan ongiak direnak haientzat ere ongiak izan daitezela eskatu behar diete jainkoei, eta haientzat ongiak direnak aukeratu. Hala ere, gizaki zuzengabeak ez du beti handiagoa dena aukeratzeko, txikiagoa dena baizik, zentzu absolutuan diren gaizkien kasuetan bezala; baina gaizki txikiagoa ere, nolabait, ongi bat omen denez, eta gutzia ongiari dagokionezkoa denez, arrazoi horrengatik (10) badirudi gutziatsua dela. Eta ezberdinkoia da, horrek gutziatsua dena, eta zuzengabea dena, bere barruan izaten baitu, eta baterakoa dute biek.

Legez kontrakoa zuzengabea zenez eta legea betetzen zuena, berriz, zuzena, agerikoa da legezko guztia zuzena dela, nolabait, legeriak ezarritakoa legezkoa baita, eta horietako xedapen bakoitza zuzena dela esaten dugu. Baina legeak gai guztiei buruzkoak izaten dira, (15) guztientzat, onenentzat edo agintarientzat baterako onura dena kontuan hartuz, edo bertutearen arabera, horrelako beste zerbaite; beraz, zentzu batean, elkarte politikoan zoriona edo horren osagaiak sortzen eta babesten dituzten gauzei zuzenak esaten diegu. Legeak, gizaki kementsuaren (20) berezko ekintzak egitea ere agintzen du; adibidez, formazioa ez

uztea, ihes ez egitea, ezta armak botatzea ere; eta gizaki neurrizkoaren berezkoa dena; adibidez, adulterioa ez egitea, ezta ozartu ere; eta gizaki baketsuaren berezkoa dena; adibidez, ez jotzea, ezta edozein gizakiz txarto berba egitea ere; eta berdin baita gainerako bertuteei eta zitalkeriei dagokienez ere, haiek aginduz eta horiek debekatuz, zuzen, (25) legea zuzenki ezarrita badago, eta, okerrago, legea erdizka ezarrita badago.

Horrela, bada, zuzentasun hori bertute betea da, baina ez erabateko zentzuan, beste gizaki bati dagokionez baizik. Eta horregatik dirudi sarritan zuzentasunak bertuterik bikainena, eta ez arratsaldeko izarra ez goizeko izarra ez dira hain miresgarri²⁰; edo, atsotitsaz esaten dugunez, zuzentasunaren baitan bertute guztiak kausitzen dira batera²¹. Eta bertute guztiz betea da, (30) bertute betearen baliatzea baita; eta betea da, hura duena bere buruarekiko ez ezik, besteekiko ere balia daitekeelako bertuteaz; izan ere, badira asko haien aferetan bertuteaz balia daitezkeenak, baina ezin beste batekiko. Eta horregatik dirudi zuzena Biasen esarak: botereak jarriko du agerian gizona²²; izan ere, agintaria besteekiko eta gizartean dago. Arrazoi horregatik berarengatik omen da zuzentasuna bertuteetan besteekiko ongia den bertute bakarra, besteekikoa izaten delako: (1130a) beste batentzako baliagarria dena egiten baitu, agintaria nahiz kidea izan. Beraz, gizakirik gaiztoena (5) bere buruaren aurka eta bere adiskideen aurkako zitalkeriaz baliatzen dena da; eta gizakirik onena, ez bere buruarekiko bertuteaz baliatzen dena, beste batekiko baizik, hori egitea nekeza baita. Beraz, zuzentasun hau ez da bertutearen zati bat, bertute osoa baizik; eta aurkako zuzengabekeria ez da gaiztakeriaren zati bat, gaiztakeria osoa baizik. Beraz, esandakoaren arabera, agerikoa da (10) bertutearen eta zuzentasun horren arteko desberdintasuna zein den: gauza bera baitira, haien esentzia gauza bera ez bada ere; aitzitik, beste batekikoa den neurrian, zuzentasuna da, eta, erabateko zentzu batean, horrelako aztura den neurrian, bertutea.

II

²⁰Euripides, *Melanipus* (frag 486, Nauck).

²¹Teognis, 147.

²² Bias Greziako Zazpi Jakintzuen bat zen.

Egia esan, bertutearen zati den zuzentasuna bilatzen ari gara, horrelako zuzentasuna baitago, esan dugun bezala; eta, era berean, gaiztakeriaren zati den (15) zuzengabekeria. Horren adierazle dugu hauxe: gainerako zitalkerien arabera jokatzeko duen gizakia zuzengabea da, baina ez du ezer gutziziatzen. Adibidez, koldarkeriaren kausaz ezkutua botatzen duena, edo bere aztura mukerraren kausaz gaizki hitz egiten duena, edo zikoizkeriaren kausaz diruz laguntzen ez duena. baina gutziziatzen duenean, askotan ez du jokatzeko horietako bizio batek bultzaturik, (20) ezta bizio guztiek bultzaturik ere, nolabaiteko bihozgaiztakeriak (gaitzesten baitugu) eta zuzengabekeriak bultzaturik baizik. Badago, orduan, zuzengabekeria jakin bat zuzengabekeria osoaren zati bat dena, eta zuzengabea izateko modu jakin bat –legearen aurka jokatzeko, alegia– guztiz zuzengabea izatearen zati bat dena. Gainera, gizaki batek etekinak lortzeagatik adulterioa egiten badu, eta, hortaz, (25) dirua lortzen badu, eta beste gizaki batek, berriz, desiragatik dirua ordaindu eta zigorra hartzen badu, azken hori neurrigabea izango omen da, ez gutziziatzen, eta hura, zuzengabea, baina ez neurrigabea; agerian dago, beraz, etekinak lortzeagatik egiten duela. Gainera, egite zuzengabe guztiek zitalkeria jakin batera eramaten dute beti; adibidez, baten batek adulterio egiten badu, (30) neurrigabekeriara; armakidea uzten badu, koldarkeriara; norbait jipoitzen badu, sumindurara; baina etekinak lortzen baditu, ez zaizkio zitalkeria jakin bati egokitzen, zuzengabekeriari baizik. Horrenbestez, begi-bistakoa da zuzengabekeria osoaz gain beste alde bateko zuzengabekeria bat dagoela, sinonimoak direnen definizioa genero berean (1130b) sartzen baita; bataren eta bestearen ahalmena, hain zuzen ere, beste batekikoa dute; baina bata ohoreari, ondasunei edo salbazioari buruzkoa da, edo horiek guztiak biltzen dituen bati buruzkoa –azken hori izen bakar batekin izendatu ahal izango bagenu–, asmoa etekinek sortzen duten atsegina izanik; bestea, berriz, gizaki bertutetsuari eragiten dion horri guztiari buruzkoa (5) da.

Horrela, bada, agerikoa da zuzentasun asko dagoela, eta bertute osoaren ondoan, beste bertute desberdin bat ere badagoela. Aurkitu behar dugu zein den eta nolakoa den.

Zuzengabea dena, legez kontrakoa eta ezberdinkoia dena, eta zuzena dena, legezkoa eta berdinkoia dena, bereizi egin ditugu. (10) Baina, horrela, bada, lehenik aipaturiko zuzengabekeria legez kontrakoa denaren arabera da; eta ezberdinkoia dena eta legez kontrakoa dena gauza bera ez direnez, desberdinak baizik, osoari dagokionez zati den bezala (ezberdinkoia den guztia legez kontrakoa baita, baina legez kontrakoa den guztia ez da ezberdinkoia), zuzengabea dena eta zuzengabekeria ere ez dira gauza bera bi zentzuetan, desberdinak baizik, hots, haiek zatiak eta horiek osoak diren aldetik; zuzengabekeria hau zuzengabekeria osoaren zati baita, eta, berdina, zuzentasuna ere zuzentasun osoarena. (15) Horren ondorioz, alde bateko zuzentasunaz ere mintzatu behar da, eta, era berean, zuzena eta zuzengabea den horretaz.

Horrela, bada, utz ditzagun bertute osoaren arabera ezarritako zuzentasuna eta zuzengabekeria, bata bestetik bertute osoaren erabilpena eta bestea gaiztakeriarena direnak. (20) Eta agerian dago horien arabera zuzena eta zuzengabea dena ere nola zehaztu behar den; izan ere, lege gehienak bertute osoak agindutakoak dira, legeak bertute ororen arabera bizi izateko agintzen baitu eta zitalkeria ororen arabera bizi izatea debekatzen du. Eta legezko xedapenetan, bertute osoa lortzeko gai dira (25) elkarbizitzaren heziketari buruz ezarritako legezko xedapen horiek. Gizabanakoaren heziketari buruz –zentzu absolutuan gizona ona egiten duena–, aurrerago zehaztu behar da politikari ala beste zientzia bati dagokion, agian ez baita gauza bera gizon ona izatea eta hiritar ona izatea edozein egoeratan.

(30) Alde bateko zuzentasunaren eta honen arabera zuzena denaren espezie bat da estatu batean parte hartzen dutenen artean ohoreen, ondasunen edo banatu daitezkeen gainerako gauza guztien banaketaren zuzentasuna (banaketa hauetan, hain zuzen ere, hiritar batek beste baten zati berdina izan dezake ala ez); (1131a) eta beste espezie bat da gizakien arteko itunak zuzentzen dituenak. Azken horrek bi zati ditu, direlako itunetan batzuk borondatezkoak baitira, eta beste batzuk, nahi gabekoak. Borondatezkoak dira, adibidez, salmenta, erosketa, mailegua, bermea, gozamina, gordailua, alokairua eta horrelakoak

(borondatezkoak deitzen dira, (5) itun horien printzipioa borondatezkoa baita); eta nahi gabekoetan, batzuk isilpekoak dira, adibidez, ebasketa, adulterioa, pozoidura, prostituzioa, esklaboen ustelkeria, hilketa, testigantza faltsua, eta beste batzuk, bortitzak, adibidez, erasoak, kartzelaratzeko, gizahilketa, arpilatzea, lapurreta, elbarritzea, gaitzesana eta laidoa.

III

(10) Gizaki zuzengabea ezberdinkoia eta zuzengabea dena ezberdinkoia direnez, agerian dago ezberdinkoia denaren erdiko termino bat ere badagoela, eta hori berdinkoia dena da, gehiena eta gutxiena gertatzen den edozein ekintzatan berdinkoia dena ere gertatzen baita. Beraz, zuzengabea dena ezberdinkoia bada, zuzena dena berdinkoia izango da; eta hori, argudiorik gabe ere, denek onartzen dute. Berdinkoia dena erdiko termino bat denez, zuzena dena ere izango da erdiko termino bat (15). Bestalde, berdinkoia dena bi gauzatan bederen datza. Horrela, bada, zuzena dena erdiko terminoa eta berdinkoia izan beharko da, zerbaiterako eta norbaitentzat; eta erdiko terminoa den neurrian, mutur batzuen izango da (gehienarena eta gutxienarena, alegia); berdinkoia den neurrian, bi gauzentzat, eta zuzena den neurrian, gizaki batzuentzat. Orduan, zuzena denak lau gauza bederen eskatzen ditu nahitaez: zuzena dena jasotzen dutenak bi bederen (20) baitira, eta zuzena dena ematen den gauzetan, beste bi. Eta berdinkotasuna berdina izango da gizakiengan eta gauzetan, horien arteko erlazioa bera izango baita haien artean; izan ere, berdinak ez badira, ez dute zati berdinek izango; bestela, kasu horretan, liskarrak eta salaketak sortzen dira, berdinek direnek zati desberdinak izaten edo jasotzen dituztenean, edo berdinek ez direnek zati berdinek izaten edo jasotzen dituztenean. Gainera, hori agerikoa da (25) merezimenduengatik; izan ere, denek hartzen dute aintzakotzat banaketetan zuzena denak merezimenduen arabera izan behar duela; hala ere, merezimendua ez da gauza bera denen ustez; aitzitik, demokraten ustez, askatasuna da; oligarkikoen ustez, aberastasuna; beste batzuen ustez, jaiotzetik noblezia; eta, aristokratikoen ustez, bertutea. Beraz, zuzena dena proportzio jakin bat da; (30) proportzioa ez da bakarrik zenbaki abstraktuaren ezaugarri berezia, zenbaki ororena baizik,

proportzioa arrazoiaren berdinkotasun bat baita, eta lau terminotan bederen. Beraz, argi dago proportzio diskretua lau terminotan dagoela; baina, proportzio jarraia ere bai, hau termino bakar batez bi bailitzan baliatzen baita, eta bi aldiz aipatzen du; adibidez, (1131b) A, B-rentzat bezala, B, D-rentzat izango da. Beraz, B terminoa bi aldiz esaten da; hori dela eta, B terminoa bi aldiz ezartzen bada, lau izango dira termino proportzionalak. Beraz, zuzena dena ere emango da lau terminotan bederen, eta arrazoiak berbera da, (5) gizakiekiko eta gauzetarako zatiketa berdin egiten baita. Horren ondorioz, lehen terminoa bigarren terminoarentzat bezala, horrela izango da hirugarren terminoa laugarrenarentzat, eta alderantziz, lehena hirugarrenarentzat bezala, bigarrena laugarrenarentzat izango da; horren ondorioz, osotasuna osotasunarentzat ere bai; eta hori da, hain zuzen ere, banaketak egiten duen parekatzea; eta horrela elkartzen badira, parekatzea zuzena izango da. Beraz, lehenengo eta hirugarren terminoen batzea eta bigarren eta laugarren terminoena, (10) banatze zuzenak dira, eta zuzena den hori erdiko termino bat da, eta zuzengabea dena proportzionala denaren aurkakoa da; izan ere, proportzionala dena erdiko terminoa da, eta, zuzena dena, proportzionala dena. (Matematikariek horrelako proportzioari proportzio geometriko deitzen diote; proportzio geometrikoan, hain zuzen ere, zati bat beste zati batentzako den bezalaxe, osotasuna osotasunarentzako da. Baina proportzio hori ez da jarraia, gizakiarentzat eta zatiarentzat ez baita zenbaki bakar bat nahikoa (15)); beraz, zuzena dena hori da: proportzionala dena; eta zuzengabea dena, proportzionala denaren kontrakoa. Horrenbestez, termino bat handiagoa izan daiteke, eta bestea, berriz, txikiagoa, gauza praktikoetan ere gertatzen den bezala: izan ere, zuzengabekeriak egiten dituenak ongiaren zati handiagoa du, jasaten duenak, txikiagoa. (20) Gaizkiari dagokionez, kontrakoa gertatzen da, gaizki handiarekiko gaizki txikia ongitzat hartzen baita: izan ere, gaizki txikia handia baino nahigarriagoa da, eta nahigarriagoa dena ongi bat da, eta zenbat eta nahigarriagoa, handiagoa. Beraz, hori da zuzentasunaren forma bat.

(25) Geratzen zaigun espezia zuzentasun zuzentzailea da, gizakien arteko itunetan –bai borondatezkoetan bai nahi gabekoetan– kausitzen dena, alegia. Baina zuzentasun-espezia hori eta aurrekoa desberdinak dira. Izan ere, guztien ondasunen zuzentasun banatzailea esandako proportzioaren arabera da beti, ondare publikoen (30) banaketa izanda ere, azken hau jarritako parteek elkarrekiko duten proportzioaren beraren arabera egingo baita; eta zuzentasun horren aurkakoa den zuzengabekeria proportzioaren aurkakoa da. Baina gizakien arteko itunetan zuzena dena nolabaiteko berdinkotasuna da, eta zuzengabea dena (1132a), aldiz, ezberdinkotasuna, baina ez proportzio haren arabera, aritmetikoaren arabera baizik. Izan ere, ez du axola zintzo batek gaizto bati huts egin dion edo gaizto batek zintzo bati, ezta adulterioa zintzo batek edo gaizto batek egin zuen; legeak, bere aldetik, kaltearen berezitasuna besterik (5) ez du behatzen eta kontuan hartzen, eta berdin hartzen ditu zuzengabekeria egin duena eta zuzengabekeria jasan duena, eta kaltea egin duena eta kaltea jasan duena. Horrenbestez, epailea, ezberdinkoia den zuzengabekeria hori berdintzen ahalegintzen da; horrela, bada, batek kolpe bat hartu eta beste batek ematen duenean, edo batek hil eta beste bat hiltzen denean, oinazea eta ekintza modu ezberdinkoiez bereizten dira, baina epailea (10) zigorraren bidez berdintzen saiatzen da, etekinetatik kenduz. Izan ere, horrelako kasuetan, zentzu orokorrean, termino hori erabiltzen da, zenbait kasutan egokia ez izan arren: adibidez, etekina kolpea jo duenarentzat, eta kaltea jasan duenarentzat; hala ere, oinazea neurtzen denean, behintzat, batari kaltea deitzen diogu eta besteari etekina. Horrela, bada, berdinkoia dena gehiagoren eta gutxiagoren arteko (15) erdiko terminoa da, eta etekina eta kaltea gehiago eta gutxiago dira kontrako moduan, etekina ongi handiagoa eta gaizki txikiagoa baita, eta kaltea, kontrakoa; horien arteko erdiko terminoa berdinkoia dena zen, zuzena dela esaten duguna, alegia. Hori dela eta, zuzentasun zuzentzailea etekinaren eta kaltearen arteko erdiko terminoa izango da. Horregatik jotzen da epailarengana liskar egiten denean, hain zuzen ere, (20) eta epailarengana jotzea zuzentasunera jotzea da, epaileak zuzentasunaren hezur-mamitzea izan nahi baitu. Eta epailea erdiko termino gisa bilatzen da, eta batzuek epaileei bitartekari deitzen diete, hauengandik erdikoa erdiesten badute,

zuzentasuna erdietsiko dutelakoan. Zuzentasuna, beraz, erdiko termino bat da, epailea ere erdiko terminoa baita. Epaileak berrezarri egiten du berdintasuna, zati ezberdinetan zatituriko lerroan, (25) zati handiagoari erditik gaintitzen duena kendu eta zati txikiagoari erantsiko balio bezala. Eta osotasuna bi zatitan zatitzen denean, esaten da zati bakoitzak berea duela zati berdina jaso dutenean; eta berdina dena handiagoaren eta txikiagoaren erdiko terminoa da, proportzio aritmetikoaren arabera. (30) Arrazoi horregatik esaten zaio zuzena, bi zati berdineko zatiketa²³ delako, bi zati berdinetan zatitua²⁴ esango bailitzan, eta, epaileari, bi zati berdinetan zatitzailea²⁵. Izan ere, bi zati dituen bi gauza berdin izanik, zati bat gauza bati kendu eta besteari eransten zaionean, bigarrenak bi zatitan gaintituko dio lehenengoari, azken horri kendu baina besteari erantsiko ez balio (1132b), zati bakar batean gaintituko bailioke. Beraz, bigarrenak zati bakar batean gaintitzen du erdia, eta erdiak, kenduriko zatia, zati bakar batean gaintitzen du. Beraz, zati horren bidez, hain zuzen ere, jakingo dugu gehiago duenari zer kendu behar zaion eta gutxiago duenari zer erantsi behar zaion: izan ere, lehenengo zatiak erdia gaintitzen duen zatia gutxiago duenari (5) erantsi behar zaio, eta bigarren zatia iristeko falta zaiona gehiago duenari kendu behar zaio. Bitez lerro berdinak AA', BB' eta DD'; ken bekio AA' lerroari AF-zatia, eta erantsi bekio DD' lerroari ED zatia, honen ondorioz EDD' lerro osoak, ED eta DG lerroetan, FA' lerroa gaintituko duelarik; orduan, BB' lerroa ED lerroan gaintituko du. [Hau gainerako arteetara ere zabaltzen da, (10) euren artean deuseztuko bailirateke egileak, moduari eta neurriari dagokienez, egin behar duena egingo ez balu, eta jasaleak, jasango ez balu]

Izen horiek –kalte-ak eta etekin-ak–, borondatezko aldaketetan dute jatorria, lehen edukitzen zena baino gehiago edukitzeari irabaztea esaten baitzaio, eta hasieran edukitzen zena baino gutxiago edukitzeari, galtzea, (15) erosketetan, salmentetan eta legeak baimentzen dituen gainerako guztietan bezala; baina baten batek ez gehiago ez gutxiago eduki ez, eta aberastasun berbera mantentzen duenean, bere ondasunak dituela, eta ez galdu ez irabazi egin

²³gr. *dícha*

²⁴gr. *díchaion*

²⁵gr. *dichastês*

ez duela esaten da. Horrela, bada, zuzena dena etekinaren eta kaltearen arteko nolabaiteko erdiko terminoa da nahi gabeko itunetan, bai hasieran bai amaieran (20) berdin edukitzea, alegia.

V

Batzuen ustez elkarrekikotasuna ere bada zuzena, pitagorikoek baieztatzen zuten bezala, pitagorikoentzat zuzentasuna, elkarrekikotasuna baitzen, besterik ez. Baina elkarrekikotasuna ez da egokitzen ez zuzentasun banatzaileari ez zuzentasun zuzentzaileari (25), batzuek Radamantisen zuzentasuna ere zuzentasun zuzentzailea dela uste dutelarik:

Gizakiak egin zuena jasango balu, benetako zuzentasuna legoke²⁶;

Izan ere, askotan ez dira egokitzen; adibidez, magistratu batek beste bat jotzen badu, ez du bueltan emandakoa jaso behar, baina baten batek magistratu bat jotzen badu, jipoiturik ez ezik (30), zigorturik ere izan behar da. Gainera, desberdintasun handia dago borondatezko ekintzaren eta nahi gabeko ekintzaren artean. Hala ere, truke-harremanetan horrelako zuzentasunak eusten die harremanei, hots, proportzioaren arabeko elkarrekikotasunak, eta ez berdintasunaren arabekoak. Izan ere, proportzioaren arabera ordainduz eusten zaio hiriari batuta; izan ere, gizakiek gaiztakeria bat gaiztakeria baten ordaina bilatzen dute; aitzitik, euren egoera esklabotzat hartzen omen dute, ordaina hartzen ez badute; edo ongia ongiaren ordaina bilatzen dute, (1133a) bestela ez da eman-harturik gertatzen, eman-hartuari esker eusten baitiote elkaturik egoteari. Horregatik Grazien jainkotegia ere eraikitzen dute guztien begi-bistan, ordaina izan dadin, hori eskertasunaren berezkoa baita; izan ere, mesedea egin zigunari horrenbesteko ordaina egin behar diogu, eta, gure aldetik, hari mesedea egiteko aurrea hartu.

²⁶ik. Hesiodo frag. 174 (Rzack).

(5) Erabat aurkakoak diren elementuen arabera uztartzeak sortzen du proportzioaren arabera ordaina; demagun A arkitekto bat dela, B zapatari bat, D etxe bat eta E sandalia bat. Horrela, bada, arkitektoak zapatariarengandik haren lana hartu behar du eta (10) bere lana harekin partitu. Beraz, lehenik proportzioaren arabera berdintasuna sortzen bada, eta gero elkarrekikotasuna, esandakoa agertuko da; horrela ez bada, berdintasuna ez da sortuko, ezta akordiorik ere, ezerk ez baitu eragozten gizaki baten lana besteari baino hobea izatea; beraz, parekatu behar dira. Gainerako arteetan ere gertatzen da hori, haiek (15) deuseztuko bailirateke egileak egiten duena eta egin duen moduan, jasaten duenak horrenbeste eta horren moduan jasango ez balu. Izan ere, bi sendagileren artean ez da elkartzerik sortzen, sendagile baten eta nekazari baten artean baizik, eta, oro har, gizaki desberdinen artean, eta ez berdinen artean. Baina bi horiek parekatu behar dira, eta, horregatik, izan behar da nolabait alderagarria truka daitekeen guztia. Horretarako (20) sortu da moneta, eta, nola edo hala, erdiko terminoa da, gauza guztiak neurtzen baititu eta, ondorioz, baita gehiegikeria eta gabezia ere: zenbat sandalia diren, hain zuzen ere, etxe bat edo jaki bat. Izan ere, arkitektoaren eta zapatariaren artean gertatzen den tratua, baita sandalien eta etxearen artean ere gertatu behar da, eta, berdin, jakiaren kasuan; hori gertatzen ez bada, ez da ez trukerik ez elkarerik izango. (25) Baina hori ez da gertatuko ondasunak, nola edo hala, berdingarriak ez badira. Horrela, bada, dena neurri bakar batez neurtu behar da, lehenago esan bezala. Eta, egia esan, hori beharra da, denari bilduta eusten diona; izan ere, gizakiak ezeren behar ez balira, edo ez neurri berean, ez legoke trukerik, edo hori ez litzateke berdinkoia izango. Baina moneta, behararen ordezkotzat bilakatu da hitzarmen baten bidez, (35) eta, horregatik, hain zuzen ere, du moneta²⁷ izena, berezkoa ez delako, legezkoa²⁸ baizik, eta gure esku dago bai aldatzea bai baliogabetzea. Beraz, elkarrekikotasuna izango da berdintasuna gauzatzen denean eta, horren ondorioz, nekazaria zapatariarekiko den bezala, zapatariaren ekoizkina nekazariarekiko izango da. (1133b) Beraz, ez da proportzioaren irudiaz baliatu behar

²⁷gr. *nómisma*

²⁸ik. gr. *nómos* legea dela

gauzak trukatu ondoren (bestela, mutur batek bi gehiegikeriak izango ditu), alderdi bakoitzak oraindik bere ekoizkina duenean baizik. Horrelako baldintzetan berdinak izango dira, baita elkarkideak ere, haien artean berdintasun hori gerta daitekeelako. (Demagun A nekazaria dela, D elikagaia, (5) B zapataria, eta E, D-rekin parekatutako B-ren ekoizkina) Baina honelako elkarrekikotasuna ez balego, ez legoke elkarterik. Beharrak denari eusten dio bilduta nolabaiteko batasun gisa: hori agerian jartzen da gizakiek elkarri truke egiteko beharrik ez dutenean, biek edo bietako batek trukatu egiten ez duelako, baten batek beste batena behar duenean bezala; adibidez, garia esportatzeko baimena ardoaren truke ematen dutenean (10). Beraz, berdinketa egin behar da. Eta etorkizuneko trukeari dagokionez, orain ezeren beharrik ez bada, moneta gure berma izan behar da, eta etorkizunean zerbaiten beharra bada, lortu ahal izango dugu, dirua daramanak behar duena beregana baitezake. Baina monetari gauza bera gertatzen zaio, ez baitu beti balio berbera; baina, hala ere, bere balioari eusteko joera handiagoa du. Horregatik (15) tasatu behar da dena, horrela trukea posible izango baita beti, eta, horren ondorioz, elkartea ere bai. Beraz, monetak, neurria den aldetik, gauzak berdintzen ditu haiek neurgarriak bilakatuz; izan ere, trukerik ez balego, elkarterik ere ez legoke, ezta trukerik ere, berdintasunik ez balego; ezta berdintasunik ere, neurgarritasunik ez balego. Horrela, bada, egia esan, ezinezkoa da hain gauza desberdinak neurgarriak izatea, baina (20) beharrarengatik nahikoa neurgarritasuna lor daiteke. Hortaz, neurri bakar bat izan behar da, eta hori akordio batean oinarrituta (horregatik deitzen da moneta²⁹), horrek gauza guztiak elkarren artean neurgarriak bilakatzen baititu, monetak gauza guztiak neurtzen baititu. Demagun A etxe bat dela, B, hamar mina, eta D, ohe bat. Orduan, A B-ren erdia da, etxeak bost mina balio badu edo zerbait baliokide (25); D, ohea, B-ren hamarrena da; agerikoa da, beraz, zenbat ohek duten etxe baten balio bera, bost mina, alegia. Eta bestalde, agerikoa da moneta sortu aurretik trukea horrela egiten zela, bost ohe etxe batengatik ematea eta bost oheren balioa ezertan bereizten ez baitira.

²⁹gr. *nóμισμα*

Horrela, bada, esanda dago zuzengabea dena eta zuzena dena zer diren, eta (30) horiek zehaztuta gero, agerikoa da jokaera zuzena zuzengabekeria egitearen eta zuzengabekeria jasatearen arteko erdiko terminoa dela, bata gehiago edukitzea baita, eta bestea, gutxiago. Zuzentasuna nolabaiteko erdikotasuna da, baina ez gainerako bertuteekin gertatzen den moduan, hura erdibidearen berezkoa delako baizik, eta zuzengabekeria, berriz, muturrena. Eta zuzentasuna da bertutea zeinaren arabera (1134a) esaten dugun gizaki zuzenak zuzena dena aukeraren arabera egiten duela, eta, bestalde, banatzen duela –bai bere buruaren eta beste baten artean, bai beste bi gizakiren artean– ez berak gauza nahigarri gehiago jaso eta bere ondokoak gutxiago lor dezan, eta gauza kaltegarriei dagokienez, alderantziz; aitzitik, proportzioaren araberrako (5) gauza berbera, eta, berdin, beste biren artean banatzen duenean. Eta zuzengabekeria, berriz, gizaki zuzengabearen berezkoa da, eta hori mesedegarria edo kaltegarria denaren proportzioaren aurkako gehiegikeria edo gabezia da. Horregatik, zuzengabekeria da gehiegikeria eta gabezia, gehiegikerian eta gabezian datzalako: (10) bere buruari dagokionez, erabat onuragarria denaren gehiegikeria, eta kaltegarria denaren gabezia; eta beste gainerakoei dagokienez, gauza bera orokorrean, baina proportzioaren aurka, bi moduetan. Eta zuzengabekeria gabeziazkoa da, jasaten bada; baina, gehiegikeriazkoa, egiten bada.

Beraz, zuzentasunari eta zuzengabekeriari buruz gera bitez esanda horrela bakoitzaren (15) izatea zein den, eta, modu berean, orokorrean zuzena eta zuzengabea denari buruz ere bai.

VI

Zuzengabekeria egitea zuzengabea izan gabe litekeena denez, zer nolako zuzengabekeriak egin behar ditu gizaki batek zuzengabekeria-mota bakoitzean zuzengabea izateko, hots, ebaslea, adulteriogilea edo bidelapurra? Edo, agian, ez da inolako desberdintasunik izango? Izan ere, (20) gizon batek ezagutzen duen emakume batekin sexu-harremanak izan litzake, baina ez nahita eginiko hautapen bati jarraiki, pasioari jarraiki baizik; kontua da

zuzengabekeria egiten duela, baina ez da zuzengabea, bat lapurra ez den bezala behin batean lapurtu egin bazuen ere, ezta adulteriogilea ere, behin adulterioa egin bazuen ere; eta berdin gainerako kasuetan.

Beraz, esana dugu lehenago zuzentasunari dagokionez elkarrekikotasuna nolakoa den. Hala ere, ez dugu ahaztu behar (25) erabateko zuzentasuna ez ezik, zuzentasun politikoa ere bilatzen ari garela; hori gauzatzen da autarkiari begira bizikidetza duten gizaki libre eta berdinen artean, proportzioaren nahiz aritmetikaren arabera. Horren ondorioz, hori ez duten horiek ez dute elkarrekiko zuzentasun politikorik, horrekin antza duen zuzentasun jakin bat baizik. (30) Izan ere, zuzentasuna dago euren arteko harremanak lege batek arautzen dituen gizakien artean, hain zuzen ere; eta legea dago zuzengabekeria gerta daitekeen egoeretan, zuzentasuna zuzena denaren eta zuzengabea denaren arteko bereizketa baita. Zuzengabekeria dagoen egoeretan, berriz, zuzengabekeriak ere gertatzen dira (baina zuzengabekeriak gertatzen diren egoeretan, osteraz, ez dago beti zuzengabekeria); eta hori nork bere buruari erabateko ongi gehiago eta erabateko gaizki gutxiago ematean datza. (35) Horregatik ez dugu onartzen gizaki batek agintzea, arrazoiak baizik, gizakiak bere onerako (1134b) egin eta tirano bihurtzen baita. Magistratua, berriz, zuzentasunaren zaindaria da, eta zuzentasunarena bada, baita berdinkoitasunarena ere. Eta badirudi horrek gehiagorik ez duela benetan zuzena bada (ez baitio bere buruari erabateko ongi gehiago ematen, bere merezimenduaren arabera proportzionala ez bada; horregatik lan egiten du (5) besteen onerako, eta, arrazoi horregatik ere, esaten da zuzentasuna besteentzako ongia dela, lehenago ere esan bezala). Horrela, bada, ordainsari bat eman behar zaio, eta hori ohorea eta duintasuna dira; horrelakoekin nahikoa ez dutenak tirano bihurtzen dira.

Jabearen eta aitaren zuzentasuna eta magistratuena ez dira gauza bera, baina bai antzekoa, erabateko zentzuan ez baitago (10) zuzengabekeriarik norberaren gauzei dagokienez, eta ondasunak eta semea, hori adinekoa izan eta emantzipatu arte, norberaren zati bat bezalakoa dira, eta inork ez dio nahita bere buruari kalte egiten. Horregatik ez dago zuzengabekeriarik norberarekiko; beraz, zuzengabekeria eta zuzentasun politikorik ere ez,

zuzentasun hau legearen arabera baitzen, legea berezko moduan duten gizakien artean sortzen baitzen, eta gizaki horiek (15) bai agintzean bai esana egitean berdinak ziren. Horregatik da zuzentasuna neurri handiagoan emaztearekikoa, seme-alabekikoa eta ondasunarekikoa baino, zuzentasun hori etxeko zuzentasuna baita, baina hori eta zuzentasun politikoa desberdinak dira.

VII

Zuzentasun politikoa naturala eta legezkoa izan daiteke; naturala dena edonon indar bera duena da, (20) edonoren iritzia alde batera utzita; eta legezkoa, oster, hasiera batean modu batean edo bestean egiteak axola ez badu ere, behin finkatuta gero, axola duena da; adibidez: norbait askatzea mina bat kostatzea, edo ahuntz bat sakrifikatzea eta ez bi ardi, eta, bestalde, legeek banako kasuetan aginduriko guztia; adibidez, Brasidari sakrifizioak eskaintzea, baita dekretuen antzeko erabakiak ere. Batzuen ustez, zuzentasun politiko oro (25) horrelakoa da, naturaz den guztia aldaezina delako, eta edonon indar bera duelako; adibidez, suak bai hemen bai persiarren artean erre egiten duen moduan; baina ikusten dute zuzentasunaren kontuak aldatu egiten direla. Hori, horrela ez bada ere, bada zentzu batean: nolanahi ere, jainkoen artean, behintzat, agian ez da inondik inora horrela izango, baina gizakien artean badago zuzentasun natural bat, baina zuzentasun oro aldakorra da (30); hala ere, badago zuzentasun bat naturala dena eta beste bat naturala ez dena. Baina beste era batekoak izan daitezkeen gauzetan agerikoa da zein den naturala eta zein ez, legezkoa eta hitzarmenezkoa baizik, bata eta bestea aldakorrak izan arren. Bereizketa bera gainerako kasuei ere egokitzen zaie, hots, eskuineko eskua berez da indartsuagoa; hala ere, gizaki guztiak eskuin-ezkertiak (35) bilaka daitezke. Hitzarmenaren eta onuraren arabera zuzentasuna (1135a) neurrien antzekoa da, ardo-neurriak eta gari-neurriak ez baitira edonon berdinak, erosi egiten den lekuan handiagoak, eta saldu egiten den lekuan txikiagoak baizik. Era berean, naturalak ez diren gauza zuzenak, gizatiarrak baizik, ez dira berdinak leku guztietan, erregimen politikoak (5) ere ez baitira berdinak; aitzitik, bat eta bakarra da edonon berez bikaina dena.

Gauza zuzen eta legezko bakoitza, unibertsala banakoekikoa bezalakoa da; izan ere, ekintzak asko dira, baina haietako bakoitza bakarra da, unibertsalak direlako. Ekintza zuzengabea eta zuzengabea dena desberdinak dira, baita ekintza zuzena eta zuzena dena ere, zuzengabea dena (10) naturaz edo jarrerez baita, eta hori bera, burutu egin denean, ekintza bidegabea da; baina burutu aurretik, oraindik ez da ekintza zuzengabea, zuzengabea baizik. Eta berdin ekintza zuzenari buruz; hala ere, ekintza zuzena ekintza arruntari deitzen zaio, eta egite zuzena, berriz, ekintza zuzengabearen ordainari. Haietako gauza bakoitzari dagokionez, formak nolakoak eta zenbat eta zeri buruzkoak omen diren, (15) aurrerago aztertu behar da.

VIII

Ekintza zuzenak eta zuzengabeak esandakoak izanik, zuzengabekeria egiten da eta zuzen jokatzek da ekintza horiek borondatez egiten direnean; nahi gabe egiten direnean, oster, ez da zuzengabekeriarik egiten, ezta zuzen jokatzek ere, akzidentalki ez bada, akzidentalki zuzena edo zuzengabea den zerbait egiten baita. Baina, egite zuzena eta (20) ekintza zuzena borondatez edota nahi gabe izateagatik bereizten dira: izan ere, egitea borondatez gauzatzen denean, gaitzetsi egiten da eta, aldi berean, ekintza zuzengabe ere bilakatzen da; horren ondorioz, borondatea erantzen ez bazaio, zerbait zuzengabea egongo da, baina oraindik ez da ekintza zuzengabea izango. Borondatezkoa deitzen diot, lehenago ere esan bezala, zerbait egitea ala ez egitea gizakiaren esku izanik, jakinik eta ezagutuz (25) nori, zertaz eta zergatik gauzatzen duen ekintzari; adibidez, nor jipoitu, zerez eta zergatik, eta hori guztia ez akzidentalki, ezta bortizkeriaz ere (baten batek beste baten eskua hartuz hirugarren bat joko balu bezala, bigarrenak nahi izan gabe, hori bere esku ez dagoelako kasu horretan). Baliteke jipoitua dena bere aita izatea, eta gizaki bat edo aurrean daudenetariko bat (30) dela jakitea, baina ez jakitea bere aita denik; eta, bereizketa bera egin behar da ekintzaren helburuari eta ekintza orori dagokienez. Horrela, bada, ezagutzen ez dena, edo ezagutu arren norberaren esku ez dagoena, edo indarrez egiten dena, nahi gabekoa da; izan ere, berezkoak diren gauza asko ere jakinik (1135b) egiten eta jasaten ditugu, haietako bat bera ere ez borondatezkoa ez

nahi gabekoa izan arren, zahartzea edo hiltzea bezala. Eta berdin izan daiteke akzidentalki eginikoa ekintza zuzengabea zein zuzena; izan ere, baten batek gordailu bat nahi gabe eta beldurrez itzul dezake, eta, orduan, ez dugu esango horrek ekintza zuzena egiten duenik, ezta zuzen jotzen duenik ere, (5) akzidentalki ez bada; berdin, esan behar dugu gordailua behartuta eta nahi gabe itzultzen ez duenak zuzengabe jokatu eta ekintza zuzengabea akzidentalki egiten duela. Borondatezko ekintzen artean, batzuk, alde aurretik hautatu ondoren egiten ditugu, eta beste batzuk, alde aurretik hautatu gabe (10): alde aurretik hautatuak, alde aurretik deliberatu diren horiek; eta hautatu gabeak, deliberatu gabeko horiek. Hortaz, giza harremanetan hiru motatako kalteak izanik, ezjakitez eginikoak akatsak dira, horiek egileak uste zuen hari, uste zuena, uste zuen tresnaz eta uste zuenerako egin ez zituztenean, uste baitzuen zauritzen ez zuela, edo ez tresna horretaz, edo ez gizaki hori, edo ez asmo horrekin, eta, aitzitik, kontuan hartu ez zuena ondorioztatu zen; adibidez, ez zuen jo hura zauritzeko, (15) ziztatzeko baizik; edo ez gizaki hori, edo ez tresna horretaz. Horrela, bada, kaltea ustekabe gertatzen denean, zorigaitza da; ez ustekabe, baina gaiztakeriarik gabe gertatzen denean, akatsa da (batek akats egiten baitu kausaren jatorria bere baitan dagoenean, baina zorigaitza kanpoan badago). Baina, jakinik (20) eta alde aurretik deliberatu gabe egiten denean, ekintza zuzengabea da; adibidez, sumindurarengatik eta gainerako pasioengatik eginiko guztiak, hots, gizakiengan ezinbestekoak eta berezkoak diren horiek. Izan ere, gizakiek kalte eta akats horiek egiten dituztenean, zuzengabekeriak egiten dituzte, eta ekintza horiek zuzengabekeriak dira; baina, hala ere, ekintza horiengatik egileak oraindik ez dira zuzengabeak, ezta bihozgaiztoak ere, kaltearen kausa zitaleria ez delako; (25) baina hautatu ondoren nahita egiten dituztenean, zuzengabeak eta zitalak dira. Horregatik uste izaten da zuzen suminak sorturiko ekintzak ez direla nahita eginikoak, ez baitu suminaren menpe jotzen duenak agintzen, sumindu egin duenak baizik. Gainera, ez da eztabaidatzen ekintza gertatu zen ala ez, beraren zuzentasuna baizik, amorrua zuzengabekeriaren antza duen kausa baten ondoren gertatzen baita. Izan ere, ez da eztabaidatzen ekintza gertatu zen ala ez, (30) gizakien arteko hitzarmenetan bezala, non bietako bat nahitaez zitala den, ahanzturaz

egiten ez badute; aitzitik, gertaerari buruz ados egonik, eztabaidatzen dute bi moduetan zein den zuzena (baina azpijokoa egin zuenak badaiki); horrenbestez, bata zuzengabekeria bat sufritu (1136a) duelakoan dago; bestea, berriz, ez. Baina hautatu ondoren kaltea nahita egiten badu, zuzengabekeria egiten du, eta zuzengabekeria egiten duena zuzengabekeria horrengatik zuzengabea da, zuzengabea proportziaren edo berdintasunaren aurkakoa jokatzen den bakoitzean. Berdin, gizaki bat zuzena ere izango da, hautatu ondoren zuzena dena egiten duenean; eta zuzena dena egingo du, borondatez (5) egiten badu bakarrik.

Nahi gabeko ekintzen artean, batzuk barkagarriak dira, eta beste batzuk, ez. Izan ere, ezjakinik ez ezik, ezjakitez ere egiten diren akats horiek barkagarriak dira; baina ez ezjakitez, baizik eta berezkoa eta gizatiarra ez den pasio batengatik ezjakinik egiten diren horiek ez dira barkagarriak.

IX

(10) Zuzengabekeria jasatea eta zuzengabekeria egitea nahiko zehaztu badira, baten batek agian galde liezaioke bere buruari lehendabizi ea zuzena den, Euripidesek era bitxian esana:

Nire ama hil dut, hitz batean.

Hark eta biok borondatez, ala hark eta biok nahi gabe?³⁰

(15) Izan ere, litekeena al da, benetan, zuzengabekeria borondatez jasatea, ala, aitzitik, zuzengabekeria jasate oro da nahi gabekoa, zuzengabekeria egite oro borondatezkoa den bezalaxe? Bestalde, beti al da horrelakoa edo halakoa³¹, edo batzuetan borondatezkoa eta beste batzuetan, nahi gabea? Eta berdin zuzen tratatua izateari dagokionez, zuzen jokatzea beti borondatezkoa baita; beraz, zentzuzkoa da (20) bata eta bestea, era berean, aurkakoak

³⁰ Euripides, *Alkmeon* frag. 68 (Nauck)

³¹ Leku honetan eskuizkribuetan agertzen den «[zuzengabekeria egitea beti borondatezkoa den bezala]» esaldia eskuz idatzitako transmisioaren akatsztat hartzen dugu Bywateren uxatzeari jarraiki.

izatea, eta zuzengabekeria jasatea eta tratu zuzena hartzea borondatezkoak ala nahi gabekoak izatea. Baina zentzugabea litzateke, tratu zuzena hartuta ere, beti borondatezkoa izatea, batzuek, nahi gabe, tratu zuzena hartzen baitute.

Jarraian baten batek bere buruari galde liezaioke zerbait zuzengabea jasaten duen gizaki oro zuzengabe tratatua den, ala zuzengabekeria egitearen kasuan gertatzen den bezala, (25) horrela ere jasatearen kasuan: akzidentalki, hain zuzen ere, aipaturiko bi kasuak ekintza zuzenetan eman daitezke eta, agerikoa denez, era berean ekintza zuzengabeetan, ekintza zuzengabeak egitea eta bidegabe tratatzea ez baitira gauza bera, ezta ekintza zuzengabeak jasatea eta zuzengabe tratatua izatea ere; eta berdin baita ekintza zuzenak egiteari eta tratu zuzena hartzeari dagokienez ere, ezinezkoa (30) baita zuzengabekeria jasatea beste batek zuzengabekeria egiten ez badu, edo tratu zuzena hartzea beste batek zuzena egiten ez badu. Baina zuzengabea dena egitea, erabateko zentzuan, beste bati borondatez kalte egitea bada, jakinik ere nori, zerez eta nola egin, meneraezinak bere buruari borondatez kalte egiten badio, zuzengabekeria borondatez jasan lezake, bere buruari zuzengabekeria egiteko gai balitz. Baina, hori ere bada sorturiko zalantzaren bat (1136b), litekeena ote den batek bere buruari zuzengabea dena egitea, alegia. Gainera, baten bat, bere meneratzerik ezagatik, beste batek kaltetua izan daiteke borondatez; beraz, baliteke tratu zuzengabea borondatez jasatea. Edo, ez da agian zuzena izango emandako definizioa, eta gaineratu (5) beharko diogu jakinik nori, zerez eta nola egin kaltea eta haren borondatearen kontra? Horrela, bada, baten batek kaltea har dezake borondatez eta zuzengabekeriak jasan, baina inork ez du tratu zuzengabea borondatez jasaten, ez baitu inork nahi izaten, ezta meneraezinak ere; aitzitik, bere borondatearen kontra jotatzen du. Izan ere, inork ez du nahi izaten bere ustez ona ez dena, eta meneraezinak bere ustez egin behar ez duena egiten du. Berea dena ematen duena, Homerok dioenez, (10) Glaukok Diomedesi eman zion bezala,

urrezko armak brontzezkoen truke,

ehun idirena bederatzi idirenaren truke,³²

ez du tratu zuzengaberik jasaten, ematea bere esku baitago, baina tratu zuzengabea jasatea, ez; aitzitik, zuzengabekeria egiten duena beste gizaki bat izan behar da. Beraz, agerian dago tratu bidegabea jasatea ez dela borondatezkoa.

Gainera, (15) proposatu genituen gaietan bi dira oraindik mintzatu beharrekoak: (a) zuzengabekeria zeinek egiten duen, banatzean baten bati merezi duena baino gehiago ematen dionak edo merezi duena baino gehiago izaten duenak; eta (b) baten batek bere buruari zuzengabekeria egin diezaiokeen. Izan ere, lehendabizi esandakoa litekeena bada, hots, zuzengabekeria egiten duena banatzailea baldin bada, ez gehiago duena, orduan, baten batek banatzean jakinik eta borondatez beste bati bere buruari baino gehiago ematen badio, horrek berak (20) bere buruari zuzengabekeria egiten dio; eta hori da, hain zuzen ere, gizaki arruntek egiten omen dutena, zintzoa, merezi duena baino gutxiago hartzeko joera duen gizakia baita. Baina, hain simplea ote da hori? Izan ere, baliteke beste ongi bati dagokionez gehiago edukitzea, adibidez, ospe ona edo erabateko edertasuna. Gainera, zailtasuna zuzengabekeria egin horren definizioaz ere konpontzen da, ez baitu inork ezer bere borondatearen kontra jasaten; beraz, horregatik, behintzat, ez du tratu zuzengabea jasaten, (25) eta, horrela, bada, kaltetua baizik ez da. Nabaria da, orduan, banatzaileak ere zuzengabekeria egiten duela; baina ez beti, gehiago duenak. Izan ere, zuzengabea den hori duenak ez du zuzengabekeria egiten, dagokiona baino gehiago duenak, hori borondatez egiten duenak baizik, hots, ekintzaren jatorria denak, eta jatorria banatzailearen baitan dago eta ez hartzailearen baitan. Bestalde, egin zentzu anitzetan (30) esaten denez, eta bizigabeek, edo beste batek agindutako esku batek nahiz morroi batek hiltzen dutela esatea litekeena denez, ez du zuzengabe jokatzeko, baina zuzengabekeria bat egiten du. Gainera, baten batek ezjakinik epaitzen badu, zuzentasun legalaren arabera ez du zuzengabe jokatzeko, eta beraren epaiketa ere ez da zuzengabea, baina zuzengabea da nolabait, zuzentasun legala eta zuzentasun lehena

³² Homero, *Ilias* VI 236.

desberdinak baitira; baina jakinik zuzengabe epaitu badu (1137a), berak ere lortu nahi izango du dagokiona baino mesede edo mendeku handiagoa. Beraz, banatzean baten batek bere buruari ekintza zuzengabe baten zati bat ematean bezalaxe, arrazoi horrengatik epaileak ere eskuratzen du zuzengabe dagokiona baino gehiago; adibidez, horrelako terminoetan soroari buruz epaitzen badu, ez du sororik hartzen, dirua baizik.

(5) Zuzengabe jokatzeari beraien esku dagoela uste dute gizakiek, eta, horrengatik, zuzena izatea ere badela erraza. Baina hori ez da horrela; izan ere, bizilagunaren emaztearekin sexu-harremanak izatea, hurkoa jipoitzea edo diruz erostea erraza da, eta haien esku dago; baina horrelakoak egitea aztura jakin batekoa izateagatik ez da erraza, eta ez dago haien esku. Eta, berdin, uste dute (10) zuzena eta zuzengabea dena ezagutzea ez dela inolaz ere jakintsuaren berezkoa, legeek jakinarazten dutena ez baita ulertzen zaila (baina hori ez da zuzena dena, akzidentalki ez bada); baina zuzentasunez nola egin eta nola banatzen den jakitea, hain zuzen, osasunerako ona dena jakitea baino nekezagoa da. Hori dela eta, ezitia, ardoa, (15) otsababa, kauterizatzen eta ebakitzen, hori dena jakitea erraza bada ere, osasunaren onerako nola, nori eta noiz eman behar jakitea, sendagilea izatea bezain zaila da. Eta arrazoi horrengatik berarengatik uste dute zuzengabe jokatzeari gizaki zuzenaren berezkoa ere badela, gizaki zuzenak beste edonork baino ez gutxiago, gehiago baizik, egin bailitzake horietako ekintza zuzengabeak, (20) emakume batekin sexu-harremanak izan eta hurkoa jipoitu, hain zuzen ere; eta kementsuak ezkutua bota eta atzera emanez edonorantz ihes egin. Hala ere, koldarra izatea eta zuzengabe jokatzeari ez da hura egitea (akzidentalki ez bada), aztura jakin batekoa izateagatik egitea baizik; modu berean, medikuntzan jardutea eta sendatzea ez da ebakitzea ala ez ebakitzea, edo botikak ematea ala ez ematea, gauzak modu jakin batean egitea (25) baizik. Zuzena dena erabateko ongietan parte hartu eta horietan gehiegikeria zein gabezia onartzen dutenen baitan dago; izan ere, badira horietan gehiegikeria ez dutenak, jainkoek bezala, agian; beste batzuek –erremediorik gabeko gaiztoek, hain zuzen– ez dute ezer onuragarrikerik ateratzen, eta, aitzitik, gauza guztiek (30) kalte egiten diete; eta beste

batzuek haien neurri jakin bateraino ateratzen dute onura. Horregatik da gizatiarra zuzentasuna.

X

Jarraian, zintzotasunari eta zintzoa denari buruz hitz egin behar dugu, zer nolako lotura den zintzotasuna zuzentasunarekikoa, eta zintzoa dena zuzena denarekikoa. Izan ere, aztertzen dituztenei ez zaizkie zentzu absolutuan gauza bera iruditzen, ezta genero desberdinekoak ere, eta batzuetan zintzoa dena (35) eta gizaki zintzoa goraipatzen ditugu; beraz, (1137b) gainerako gauzak ere goraipatzean zintzo erabiltzen dugu on-aren ordeaz, eta zintzoago-ren bidez hobe adierazi nahi dugu; beste batzuetan, berriz, hausnartzen dutenei zentzugabea iruditzen zaie zintzoa dena goragarria izatea, zintzoa dena zuzena denaz aparteko zerbait baldin bada; hori dela eta, edo zuzena dena ez da ona, edo zintzoa dena ez da (5) zuzena, gauza bera ez baldin badira; eta bata eta bestea onak badira, orduan gauza bera dira.

Zintzoa denari buruzko zailtasuna, beraz, hausnarketa horiek sortua da gutxi gorabehera; eta horiek guztiak nolabait ere badira zuzenak, eta elkarren artean ez dira batere kontrakoak, zintzoa dena, nolabaiteko zuzentasuna baino hobe bada ere, zuzena baita, eta ez da zuzena dena baino hobe beste genero desberdin batekoa bailitzan. (10) Beraz, zuzena dena eta zintzoa dena gauza bera dira, eta bata eta bestea onak badira ere, zintzoa dena hobe da. Zailtasuna sortzen duena da zintzoa dena zuzena dena izatea, baina ez legearen arabera, legeko zuzentasunaren zuzenketa baten arabera baizik. Horren kausa da lege oro unibertsala izatea, baina kasu batzuez ezin daiteke unibertsalki zuzen mintzatu. Beraz, unibertsalki mintzatu (15) behar baina zuzen ezin daitekeen kasu horietaz, legeak gehien ezagututako kasuak hartzen ditu kontuan, baina beraren baitan akatsak daudela jakinik. Hala ere, ezin daiteke esan zuzena ez denik, akatsa ez baitago legean, ezta legegilearengan ere, gauzaren naturan baizik, ekintza moralen materia horrelakoa baita berez. Beraz, (20) legea unibertsalki esaten denean, eta kasu jakin batean unibertsalean sartzen ez den zerbait sortzen denean, orduan, legegileak aipatu ez zuen heinean eta sinpleegi hitz eginik akatsa egin zuen heinean,

zuzena da aipatu ez dena zuzentzea, hots, han bertan izan balitz legegileak berak ere zuzenduko zukeena, eta jakin izan balu, legean agertuko zatekeena. Horregatik da zuzena, eta nolabaiteko zuzentasuna baino hobea, (25) ez erabateko zuzentasuna, baina bai erabatekoa izateagatik sortzen den akatsa baino hobea. Eta hauxe da zintzoa denaren natura: legearen zuzenketa, unibertsaltasunarengatik zer bait alde batera geratzen den heinean; kausa horregatik ere, hain zuzen, ez dira gauza guztiak legearen menpe, gauza batzuei buruz lege bat ezartzea ezinezkoa delako, eta, beraz, dekretu bat behar da. Izan ere, mugagabea denaren araua ere (30) bada mugagabea, eraikuntza lesbiatarren berunezko araua bezala, harriaren formari egokitzen zaiona, eta ez dio arauari jarraitzen; horrela dekretuak ere bai, kasuei dagokienez.

Agerikoa da, beraz, zintzoa dena zer den, eta zuzena dela, eta zuzentasun jakin bat baino hobea. Eta honen ondorioz, nabaria da gizaki zintzoa nor den, (35) hots, horrelako gauza zuzenak hautatzen eta egiten dituen, eta (1138a) zuzena dena zorrotz eskatzen ez duena eta okerragorako prest ez dagoena, eta, aitzitik, amore emateko joera duena, legea beraren alde izan arren; gizaki hau da zintzoa; eta aztura hori da zintzotasuna, nolabaiteko zuzentasuna baita, eta ez bestelako aztura bat.

XI

(5) Esandakotik agerian dago nor bere buruarekiko ea zuzengabea izan daitekeen ala ez. Izan ere, ekintza zuzenen artean batzuk bertute ororen araberakoak eta lege batek agindutakoak dira; adibidez, legeak ez du eskatzen nork bere buruaz beste egitea, eta eskatzen ez duen guztia, debekatu egiten du. Bestalde, baten batek legearen aurka eta borondatez kaltea egiten duenean, eta ez kalte baten ordainetan, zuzengabekeria egiten du; eta borondatez egiten du hori nori eta nola egin dakienak; baina borondatez, suminaldi batean, bere buruaz (10) beste egiten duenak arrazoi zuzenaren aurka jotzen du –legeak onartzen ez duena–; eta zuzengabekeria egiten du, beraz. Baina, noren kontra? Agian hiriaren eta ez bere buruaren kontra? Izan ere, borondatez jasaten du, baina inork ez du

zuzengabekeriari borondatez jasaten. Horregatik, hiriak ere zigortzen du bere buruaz beste egin nahi duena, eta nolabaiteko gaitzespena ezartzen dio, hiriari zuzengabekeria egiten diolakoan. Gainera, zuzengabekeria egiten duena zuzengabea da soilik, (15) ez erabat maltzurra, eta zentzu horretan ezin dio bere buruari zuzengabekeria egin (hori eta bestea desberdinak baitira, gizaki zuzengabea, nola edo hala, koldarra bezain bihozgaiztoa baita; baina ez erabateko bihozgaiztakeria bere baitan izatearen zentzuan; beraz, ez du honen arabera zuzengabe jokatzeko); orduan, gerta liteke gizakiaren baitan aldi berean gauza bera edukitzea eta ez edukitzea; baina hori ezinezkoa da, zuzena dena eta zuzengabea dena beti gizaki batengan baino gehiagorengan ematen (20) baitira nahitaez. Gainera, ekintza zuzengabea borondatezkoa, alde aurretik hautatua eta hasierakoa izan behar da, jasandakoa ordaintan itzultzen duenak ez omen baitu zuzengabe jokatzeko; eta pertsona bera bada, gauza bera jasan eta egiten du batera. Gainera, baliteke zuzengabekeria borondatez jasatea. Horrezaz gain, inork ez du zuzengabe jokatzeko banako zuzengabekeriari egin gabe (25), eta inork ez du bere emaztearekin adulterio egiten, ez bere etxeko horma zulatzeko, ezta bere ondasunak lapurtzeko ere. Eta oro har, norberaren buruaren aurka zuzengabe jokatzeko inguruko gaia ebazten da borondatezko zuzengabekeriari buruzko definizioa kontuan hartuz. Bestalde, nabaria da biak direla makurrak, zuzengabekeria bai jasatea bai egitea (bata batez bestekoa dena baino gutxiago edukitzea baita, (30) eta bestea, batez bestekoa dena baino gehiago, medikuntzan osasuntsua eta gimnastikan sasoikoa bezalakoa izanik); hala ere, okerragoa da zuzengabekeria egitea, zuzengabea dena egitea gaiztakeriaz egiten baita, eta gaitzesgarria da; eta gaiztakeria betea eta erabatekoa da, edo gutxi gorabehera (borondatezko ekintza oro ez baita zuzengabekeriaren egiten); zuzengabekeria jasateak, osteraz, ez darama berekin gaiztakeriarik, (35) ezta zuzengabekeriari ere. Horrela, bada, zuzengabekeria jasatea, berez, ez da hain txarra, (1138b) baina akzidentalki ez du ezerk eragozten gaizkirik handiena izatea. Haatik, hori ez da batere interesgarria zientziarako; aitzitik, horrek pleuritisa behaztopa baino gaixotasun larriagotzat hartzen du, nahiz eta noizbait

akzidentalki kontrakoa gerta litekeen, behaztopatu ondoren eroriko balitz eta, horren ondorioz, (5) etsaiek atzemango edo hilko balute.

Hala ere, esanahia zabalduz eta antzekotasunez, gizaki baten eta bere buruaren artean zuzentasunik ez badago ere, bai bere atal jakin batzuen artean, baina ez edozein zuzentasun, jabearena edo etxekoena baizik, horrelako baldintzetan bereizten dira arimaren alde arrazioduna eta irrazionala; eta, (10) alde horiei begiratuz, hain zuzen ere, badirudi norberaren buruarekiko zuzengabekeria eman daitekeela, atal horiek beren gogoen kontrako zerbait jasan dezaketelako; beraz, atal horietan ere badago elkarren arteko zuzentasun jakin bat, agintariaren eta aginpekoaren artean ezartzen dena bezalakoa. Beraz, utz ditzagun horrela zehaztuta zuzentasuna eta gainerako bertute moralak.

I

Lehenago erdiko terminoa –eta ez gehiegikeria ezta gabezia ere– aukeratu behar dela eta (20) erdiko terminoa arrazoi zuzenak esaten duen hori dela esan dugunez, azter dezagun hori. Izan ere, aipaturiko aztura guztietan, baita gainerakoetan ere, badago itu antzeko zerbait, eta horri begira gizaki arrazoidunak bere ekintza biziagotu eta moteldu egiten du; eta erdikotasunen nolabaiteko mugak gehiegikeriaren eta gabeziaren artekoak eta arrazoi zuzenaren arabekoak dira. (25) Baieztapen hori egia da, dudarik gabe, baina ez dago batere argi, ezaguera zientifikoa ematen den beste alorretan ere egia baita esatea ez dela ez ahalegin gehiago ez ahalegin gutxiago egin behar, ezta nagikerian egon ere, erdiko terminoa eta arrazoi zuzenak agintzen duen bezala baizik; hala ere, hori besterik jakingo ez bagenu, ez genuke ezer gehiagorik jakingo; adibidez, ez genuke jakingo gorputzari zein tratamendu eman behar zaion (30) norbaitek esango baligu medikuntzak agintzen duen guztia eta sendagileak agintzen duen bezala egin behar dugula. Horregatik, arima-azturei dagokienez, esandakoa egiazkoa izateaz gain, arrazoi zuzena, horren definizioa eta muga zehaztu ere egin behar dira.

Arimaren bertuteak bereizi genituenean, esan genuen batzuk etikoak direla, (1139a) eta besteak, adimenezkoak. Izan ere, bertute etikoei buruz jadanik eztabaidatu dugu; eta lehenik arimari buruz hitz egin ostean, gainerakoei buruz hitz egingo dugu. Izan ere, esana dago lehendik arimaren aldeak bi direla: bata arrazoiduna, bestea irrazionala (5). Eta orain, modu berean banatu behar dugu alde arrazoiduna. Demagun alde arrazoidunak bi direla: bata, bestelakoak izan ezin daitezkeen printzipioak dituzten gauza horiek guztiak ikusteko erabiltzen dugun aldea; bestea, ahalmen hori duten printzipioak dituzten gauzak ikusteko aldea, genero desberdineko gauzei dagokienez arimaren genero desberdineko aldeak ere baitaude berez (10), gauza horiekiko ezagutza baldin badago, nolabaiteko antzekotasunaren eta ahaidetasunaren araberakoa baita. Dei diezaiogun lehenengoari zientifikoa, eta besteari,

kalkulatzaila, deliberatzea eta kalkulatzea gauza bera baita, eta inork ez du deliberatzen bestelakoa izan ezin daitekeenari buruz; horrela, bada, alde kalkulatzaila (15) alde arrazoidunaren alde jakin bat da. Beraz, horietako alde bakoitzari dagokionez egoera onena zein den aztertu behar dugu, egoera hori alde bakoitzaren bertutea izango baita, eta bertutea berezko zereginari buruzkoa izango da.

II

Ariman hiru dira ekintza eta egia zuzentzen dituztenak: sentimena, adimena eta guramena. Horietan sentimena ez da inolako ekintzaren jatorria, eta hori agerikoa da (20) animaliek sentimena badute ere, arrazoizko ekintzetan parte hartzen ez dutelako. Pentsamenduan baieztapena eta ezeztapena direnak, guramenean jazarpena eta ihesa dira. Beraz, bertute morala hautapenezko aztura denez gero, eta hautapena, bere aldetik, guramen deliberatua, arrazoi horregatik arrazoinamendua egiazkoa izan behar da eta guramen zuzena, (25) hautapena bikaina izan dadin, eta arrazoiak esaten duenari guramenak jazarri behar dio. Izan ere, adimen eta egia jakin horiek praktikoak dira; praktikoa eta sortzailea ez den adimen teorikoaren ongia eta gaizkia, egitasuna eta faltsutasuna dira hurrenez hurren (hori baita adimenaren inguruko ororen zeregina); baina (30) alde praktikoaren eta adimenezko aldearen zeregina, desira zuzenarekin bat datorren egia da. Beraz, ekintzaren sorrera –mugimenduaren abiapuntua, ez helburua– hautapena da, eta hautapenarena, gogoa eta beste zerbaitengatik egiten den arrazoia. Horregatik ez dago hautapenik adimenik gabe, pentsamendurik eta izaera moralik gabe; jokaera ona eta horren aurkakoa ekintzaren eremuan ez baitira pentsamendurik eta aiurririk gabe; (35) eta pentsamenduak, berez, ez du ezer mugitzen, beste zerbaiten kausa eta praktikoa ez bada, horrek pentsamendu sortzailea ere gobernatzen baitu, zerbait egiten duen orok zerbaiti begira egiten duelako (1139b), eta egindakoa ez da helburua erabateko zentzuan (zerbaiti buruzkoa eta zerbaitena bada ere), ekintza bera baizik; ekintza ona helburua baita, eta horren desira. Horregatik, edo hautapena guramenezko adimena da, (5) edo adimenezko guramena, eta horrelako hastapena gizakia da. Igaro den guztia ezin daiteke

hautagai izan; adibidez, inork ez du hautatzen Iliona arpilatua izana; izan ere, inork ez du gertaturikoari buruz deliberatzen, gertatuko denari eta gerta daitekeenari buruz baizik; gainera, gertaturikoa ezin liteke ez gertatua izan; horregatik esaten du zuzen Agatonek:

(10) izan ere, jainkoa botere bakar batez dago gabetua:
egin izan den guztia egin gabe izateaz³³

Hortaz, bi adimenezko aldeen zeregina egia da; beraz, alde bakoitzean egia burutzea erdiesten duten aztura horiek izango dira bataren eta bestearen bertuteak.

III

Has gaitezen, beraz, hasieratik, eta hitz egin dezagun berriro bertuteei buruz. (15) Demagun, orduan, ezeztapenaren edo baieztapenaren bidez egia erdiesteko arimak erabiltzen dituen horiek bost direla, hain zuzen ere: artea, zientzia, zuhurtzia, jakinduria eta adimena; bat ustearen eta iritziaren bidez iruzur egin baitaiteke. Horrela, bada, zientzia zer den, han agerikoa da –zehaztasunez hitz egin behar badugu, behintzat, eta ez antzekotasunei jarraituz–, (20) denon ustez dakiguna ezin bailiteke bestelakoa izan; gainera, bestelakoak izan daitezkeenak, gure begietatik urrun daudenean, ez dakigu diren ala ez. Beraz, zientifikoki ezagut daitekeena beharrezkoa da; beraz, betierekoa da, beharrezkoa eta erabatekoa den guztia betierekoa baita, eta betierekoa dena, sortu gabea eta suntsiezina da. (25) Gainera, zientzia oro irakasgarria omen da, eta ezagungarria dena, ikasgarria. Eta irakaskuntza orok alde zuzenetik ezaguturikoa du jatorria, Analitikoetan ere esaten dugun bezalaxe, batzuetan indukzioaren bidez, beste batzuetan silogismoaren bidez. Indukzioa, hain zuzen, unibertsala denaren printzipioa ere bada, eta silogismoak unibertsala dena du abiapuntua. Horrenbestez, (30) badira silogismoaren abiapuntua diren printzipioak, silogismoren bidez lortzen ez direnak, indukzioaren bidez baizik. Hortaz, zientziaren aztura erakuslea da, Analitikoetan ematen

³³ Agaton, frag. 5.

ditugun beste zehazte guztiak ere gaineratuta; izan ere, gizaki batek, nola edo hala zerbaiti buruzko ziurtasuna duenean eta zerbait horren printzipioak ezagutzen dituenean, zientifikoki jakiten du; haiek ondorioa baino hobeto ezagutzen ez baditu, ordea, zientzia akzidentalki, besterik ez du izango. (35) Gera bedi, beraz, zientzia, horrela zehaztuta.

IV

(1140a) Bestelakoak izan daitezkeen gauzetan badaude sor daitezkeen hori eta egin daitezkeen hori; sortzea eta ekintza desberdinak dira (eta uste osoa dugu horiei buruz tratatu exoterikoetara ere jo dezakegula); beraz, ekintzari dagokion arrazoizko aztura eta sortzeari dagokiona ere badira desberdinak. (5) Horregatik ez dute elkar barne hartzen, ekintza ez baita sortzea, ezta sortzea ekintza ere. Baina, eraikuntza arte bat eta sortzeari dagokion arrazoizko aztura denez gero, eta sortzeari dagokion arrazoizko aztura ez den arterik ez dagoenez gero, ezta artea ez den horrelako azturarik ere, gauza bera izango dira artea eta egiazko arrazoiaren arabera aztura sortzailea. Arte oro (10) sortzeari buruzkoa da, eta arte batean jardutea, eta aztertzea nola sor daitezkeen bai izan bai ez izan daitezkeen hori, bere printzipioa sortzen duen horretan eta ez sortutakoan duen horretan jardutea da, alegia. Izan ere, artea ez dago, ez beharrez diren edo izatera heltzen diren gauzetan (15), ez beraien naturaren arabera diren edo izatera heltzen diren gauzetan, horiek euren baitan baitute euren prinzipioa. Eta, sortzea eta ekintza desberdinak direnez gero, artea sortzearen egokia da, nahitaez, baina ez ekintzarena. Eta zoria eta artea, nolabait, gauza berberei buruzkoak dira, Agatonek ere dioenez:

Arteak zoria maite du eta zoriak, (20) artea³⁴.

³⁴ Agaton, frag. 6.

Horrela, bada, artea, esanda dagoenez, nolabaiteko egiazko arrazoiaren arabera aztura sortzaile bat da, eta arterik eza, aurkakoa, hots, gezurretako arrazoiaren arabera aztura sortzaile bat, bestelakoa izan daitekeen horri buruzkoa.

V

Zuhurtziari dagokionez, azter genezake beraren definizioa, (25) zuhur zein gizoni deitzen diogun kontuan hartuz. Izan ere, zuhurra denaren berezkoa izaten omen da bere buruarentzat ona eta onuragarria den horri buruz zuzen deliberatzeko gai izatea, ez alde bateko zentzuan – adibidez, osasunerako, indarrerako –, zentzu orokorrean baizik, ongi bizi izateko, alegia. Horren adierazle dugu gauza jakin bati buruz nolabaiteko helburu on bati begira (30) ongi arrazoinatzen dutenei zuhurrak deitzen diegula, inolako arteren objektua ez diren gaitan. Horrenbestez, orokorrean, gizaki deliberatzailea ere izan daiteke zuhurra. Hala ere, inork ez du deliberatzen bestelakoa izan ezin daitekeenari buruz, ezta berak egin ezin dezakeen horri buruz ere. Beraz, zientzia frogapenen bidez eraikitzen baldin bada, eta bestelakoak izan daitezkeen printzipioak dituzten gauza haiei buruzko frogapenik ez badago (35) (gauza guztiok bestelakoak ere izan baitaitezke), eta ezinbestekoa den horri buruz (1140b) deliberatu ezin bada, zuhurtzia ez daiteke zientzia bat izan, ezta arte bat ere: ez zientzia, egiten dena aldatu daitekeelako, eta ez artea, ekintzaren eta sortzearen generoak desberdinak dira eta. Beraz, geratzen da zuhurtzia, (5) egiazko eta arrazoizko aztura praktikoa izango dela gizakiarentzako ongiari eta gaizkiari buruz. Izan ere, sortzearen helburua eta zuhurtziarena desberdinak dira, baina ekintzarena ezin liteke desberdina izan, ekintza ona bera helburu bat baita. Horrexegatik uste dugu Perikles eta hori bezalakoak zuhurrak direla, bai beraientzat bai gizakientzat ona dena begiets baitezakete; (10) eta pentsatzen dugu administratzaileak eta politikariak horrelakoak direla. Hori dela eta, neurritasuna ere zuhurtziari erantsi ohi diogu, neurritasunak zuhurtzia babesten duen ustean; eta neurritasunak aipaturiko ustea, hots, zuhurtziari buruzkoa, babesten du, atseginak eta atsekabeak ez baitute uste oro deusezten, ezta okertzen ere (adibidez, triangeluaren hiru angeluak (15) eta bi angelu zuzenak

baliokideak diren ala ez diren ustea), bakarrik ekintzei buruzko usteak baizik. Izan ere, ekintzen printzipioak ekintzen helburua dira, baina atseginak eta atsekabeak galbideraturiko gizakiari ez zaio printzipioa nabari agertzen, eta, horiek horrela, ez da nabaria ere gizaki horrentzat helburu horri begira dena aukeratu behar izatea, ezta dena egitea nahiago behar izatea ere, bizioa printzipioaren hondatzaile baita (20). Beraz, zuhurtzia gizakientzako ongiei dagokien egiazko eta arrazoizko aztura praktikoa da nahitaez. Are gehiago, badago artearen bertutea, baina ez da zuhurtziarena; eta, beste aldetik, artean borondatez akats egitea nahigarriagoa da, baina zuhurtziari dagokionez, ez, bertuteei dagokienez ere nahigarriagoa ez den bezala. Agerikoa da, beraz, zuhurtzia bertute bat (25) dela eta ez arte bat. Eta, arimaren alde arrazoidunak bi izanik, biotako batena izango da bertutea, iritziak osatzen dituenarena, alegia, bai iritzia bai zuhurtzia bestelakoa izan daitekeenari buruzkoak baitira; hala ere, arrazoizko aztura baino ez da, eta honen adierazle dugu horrelako aztura bat ahatz daitekeela, baina (30) zuhurtzia ez.

VI

Zientzia unibertsala eta beharrez den horri buruzko ustea denez, eta frogagarria denaren eta zientzia ororen printzipioak daudenez (zientzia arrazoizkoa baita), zientifikoki ezagut daitekeenaren printzipioa ez da zientzia izango, ezta artea, ezta zuhurtzia ere, zientifikoki ezagut daitekeena frogagarria baita, baina aipaturiko artea eta zuhurtzia (1141a) bestelakoa izan daitekeenari buruzkoak dira. Hortaz, horiei dagokienez, jakinduriarik ere ez dago, jakintsuari baitagokio zenbait gauzari buruzko frogapenaz baliatzea. Beraz, egia erdiesteko eta bestelakoa izan ala izan ez daitekeen horri guztiari buruz (5) inoiz ez okertzeko erabiltzen ditugun baliabideak baldin badira zientzia, zuhurtzia, jakinduria eta adimena, eta horien artean hiruk (zientziak, zuhurtziak eta jakinduriak, hain zuzen ere) ezin baldin badituzte printzipioak objektutzat izan, printzipioak adimenaren objektuak izango dira.

VII

Arteetan ere, haietan bikainak direnei (10) eransten diegu jakinduria; adibidez, Fidias harri-lantzaile jakintsua eta Polikleto eskultorea direla uste dugu, horrela, jakinduria artearen bikaintasuna besterik ez dela adieraziz. Eta gizaki batzuk zentzu orokorrean direla jakintsuak pentsatzen dugu, eta ez alde bateko zentzuan edo beste zentzu jakin batean, Homerok Margites-en dioenez³⁵:

(15) jakina denez, Jainkoek ez zuten aitzurtzaile egin,
ezta laborari, ezta beste edozertan jakintsu ere.

Horrela, bada, agerikoa da zientziarik bikainena jakinduria izango dela. Beraz, jakintsuak, printzipioetatik ondorioztatzen dena jakin ez ezik, printzipioei dagokienez egia erdietsi ere egin behar du; hori dela eta, jakinduria adimena eta zientzia izango da, gauza (20) preziatuenen zientzia gorena, alegia. Izan ere, zentzugabea litzateke politika edo zuhurtzia zientzia gorena dela uste izatea, gizakia munduko gauzarik bikainena ez balitz. Beraz, osasuntsua dena eta ona dena gizakientzat eta arrainentzat desberdinak baldin badira, baina zuria dena eta zuzena dena, ordea, beti gauza berbera baldin badira, denek onar lezakete jakintsua dena beti gauza bera dela, baina zuhurra (25) dena, beti da desberdina; izan ere, bere buruari dagokion guztia ongi bereizten duena zuhurra dela esaten da, eta hori zuhurrari eginaraziko zaio. Horregatik esaten da piztia batzuk ere zuhurrak direla, euren bizitzari dagokionez aurrikusteko gaitasuna omen duten piztia horiek, alegia. Bestalde, nabaria da jakinduria eta politika ez direla gauza bera izaten. (30) Izan ere, jakinduria norberaren buruarentzat onuragarria dena ezagutzeari esaten bazaio, jakinduria asko izango dira, ez baita animalia guztientzako ongiari buruzko jakinduria bakar bat izango, bakoitzarentzat jakinduria desberdin bat baizik, izaki guztientzat medikuntza bakar bat ere ez dagoen bezala. Eta gizakia animalia guztietan hobezina dela onartuta ere, egoera ez da ezertan aldatuko, euren naturari dagokionez beste gauza batzuk gizakiak baino askoz ere (1141b) jainkotiarraagoak direnak baitaude; adibidez, kosmosa

³⁵ *Margites* poema epiko-burleskoa da; ustezko egilea Homero da.

osatzen duten gauza ikusgarrienak, behintzat. Esandakoengatik, hain zuzen, agerikoa da jakinduria berez gauzarik preziatuenenak direnen zientzia eta adimena dela. Horregatik esaten da Anaxagoras, Tales eta horrelakoak (5) jakintsuak direla, eta ez zuhurrak, euren buruentzako onuragarria dena ez dakitela ikustean; eta esaten da haiek gauza bikainak, miresgarriak, zailak eta jainkotiarrek dakizkitela, baina alferrikako gauzak, giza ongiak bilatzen ez dituztelako. Zuhurtzia, ordea, giza kontuei eta deliberagarria den guztiari buruzkoa da. Izan ere, zuhurra denaren zeregina, hain zuzen, (10) gehienbat ongi deliberatzea dela esaten dugu; eta inork ez du bestelakoa izan daitekeenari buruz deliberatzen, ezta nolabaiteko helbururik ez duen horri buruz ere, eta hori ongi egingarri bat izanik. Eta zentzu absolutuan ongi deliberatzen duena da gizakientzat onena, eta, egingarria dena, itutzat hartzen duena arrazoinamenduaren arabera. Zuhurtziak, (15) unibertsala dena ez ezik, banakoa dena ere ezagutu behar du, praktikoa baita, eta ekintza, banakoa denari dagokio. Horregatik, batzuk ere, jakin gabe, dakiten beste batzuk baino praktikoagoak dira, beste zenbait gauzatan esperientzia dutenak bereziki; izan ere, baten batek okela arinak liserigarriak eta osasuntsuak direla jakingo balu, baina ez zein okela diren arinak, ez luke osasuna sortuko; (20) aitzitik, hegaztikiak arinak eta osasuntsuak direla dakienak sortuko du. Zuhurtzia praktikoa da; beraz, biak eduki behar dira, baina zuhurtzia neurri handiagoan. Baina, kasu horretan ere, egon beharko litzateke nolabaiteko arau-emaile bat.

VIII

Politikagintzak eta zuhurtziak aztura bera dute, baina euren izatea ez da gauza bera. Hiriari dagokion zuhurtzia (25), arau-emailea den aldetik, zuhurtzia legegilea da, eta banakoei dagokienak izen arrunta du, zuhurtzia politikoa, alegia. Hori praktikoa eta deliberatiboa da, lege-dekretua praktikaren azken urratsa baita; horregatik esaten da horiek bakarrik ekiten diotela politikagintzari, horiek bakarrik jarduten baitute eskulangileen moduan. Baina (30) badirudi zuhurtzia gizakiari berari eta banakoari dagokiola bereziki, eta hori da, hain zuzen ere, izen arrunta: zuhurtzia, alegia; gainerakoek, bestalde, ekonomia, legegintza eta

politikagintza –eta azken hau deliberatzailea nahiz judiziala– izena dute. Beraz, norberarentzat onuragarria dena jakitean datzan nolabaiteko ezagutza bat egongo da (eta hori oso desberdina da besteei dagokienez); (1142a) eta badirudi bere buruarentzat onuragarria dena dakiena eta horretaz arduratzen dena zuhurra dela; baina politikoak, berriz, muturluzetzat hartzen dira; horregatik dio Euripidesek:

Baina, nola izan nintzatekeen zuhurra ni,
armadaren jendetza handiaren artean zenbaki bat izanik,
nekerik gabe parte berbera har nezakeena? (5)
Gizaki gailenak eta zerbait gehiago egiten dutenak ...³⁶

Izan ere, zuhurrek euren onura bilatzen dute, eta hori egin behar dela uste dute. Eta uste horretatik iritsi zaigu horiek zuhurak direlako iritzia, hain zuzen ere, norberaren ongia, ekonomiarik (10) eta konstituzio politikorik gabe, beharbada ahalezkoa ez den arren. Gainera, iluna da norberarena nola gobernatu behar den, eta hori azertu behar dugu.

Eta esandakoaren adierazle dugu gazteak geometrialariak eta matematikariak izan daitezkeela horrelakoetan, baita jakintsuak ere; baina zuhurak, ordea, ez dirudi izan daitezkeenik. Honen kausa zera da: zuhurtziak banako gauzak ere ditu objektu, esperientziaren bidez ezagutzen direnak, alegia (15); baina gazteak, bere aldetik, ez du esperientzia handirik, esperientzia lortzeak denbora luzea behar izaten baitu. Bestalde, norbaitek hausnar lezake haur bat zergatik bilaka daitekeen matematikari, hain zuzen ere, baina ez jakintsu nahiz fisikari; hau ez ote da izango errealitate matematikoak abstrakzioaren bidez lortzen direlako, eta besteen printzipioak, berriz, esperientziaren bidez, eta horietaz gazteek inolako segurtasunik gabe (20) hitz egiten dute, baina haien printzipioen zerkia begibistakoa dutelako? Gainera, deliberatzean gerta daiteke akatsa, bai unibertsalari dagokionez,

³⁶Galdutako *Filoktetes* tragediaren lerroak.

bai banakoari dagokionez; adibidez, ur astun guztiak txarrak direla edo ur jakin hori astuna dela esatean.

Zuhurtzia zientzia ez dela agerikoa da, esan den bezala banakoari –hots, errealitatearen azken muturrari– baitagokio, (25) eta egingarria dena horrelakoa da. Beraz, adimenaren aurrean kokatzen da, adimena arrazoinamendurik ez duten definizioei buruzkoa baita; zuhurtzia, aldiz, beste muturreko gauzei buruzkoa, sentimenaren bidez bereganatu eta zientziarik ez duten horiei buruzkoa, alegia; ez banakoak direnen sentimena, matematiketan azken errealitate jakin hori triangelu bat dela adierazten diguna bezalakoa baizik, prozesua hor ere geldituko baita muga batean, alegia. Baina azken hori, zuhurtzia baino sentimena da, (30) zuhurtziaren espeziea bestelakoa baita.

IX

Ikertzea eta deliberatzea desberdinak dira, deliberazioa nolabaiteko bilatze bat baita. Baina, deliberazio onari dagokionez ere miatu behar da zer den, zientzia, iritzia, asmamen betea ala beste generoren bat. Ez da zientzia, jakina, ez baita ezagutzen den horretaz ikertzen; eta deliberazio ona deliberazio jakin bat da, eta deliberatzen duenak (1142b) ikertu eta kalkulatu egiten du. Hala ere, asmamen betea ere ez da, asmamen betea arrazoinamendurik gabe eta tupustean eginikoa baita; deliberazioak, aitzitik, denbora luzea behar du, eta esaten da deliberazioz erabakitakoa berehala gauzatu behar dela, (5) baina astiro deliberatu. Halaber, adimen-azkartasuna eta deliberazio ona desberdinak dira: adimen-azkartasuna asmamen bete jakin bat da. Bestalde, deliberazio ona ere ez da inolako iritzia. Hala ere, gaizki deliberatzen duena oker dagoenez, eta ongi deliberatzen duenak zuzen deliberatzen duenez, agerian dago deliberazio ona nolabaiteko zuzentasun bat dela, eta hori ez da zientziaren egokia, ezta iritziarena ere. (10) Izan ere, zientziari ez dagokio zuzentasuna (ezta okerra ere, jakina), eta iritziaren zuzentasuna egia da; bestalde, iritzia ezartzen duen hori guztia zehazturik dago jada. Hala ere, arrazoinamendurik gabe ez dago deliberazio onik. Beraz, pentsamenduaren zuzentasuna izan behar da; hori, hain zuzen ere, oraindik ez da baieztapena,

iritzia ere ez baita ikerketa, baizik eta nolabaiteko baieztapen bat dagoeneko, eta deliberatzen duenak, (15) ongi nahiz gaizki deliberatuta ere, bilatu eta kalkulatu egiten du. Baina deliberazio ona deliberazioaren nolabaiteko zuzentasun bat da; horregatik bilatu behar da lehendabizi deliberazioa zer eta zeri buruzkoa den.

Zuzentasunak zentzu bat baino gehiago duenez, agerian dago ez dela edozein zuzentasun, meneraezinak eta ziztrinak harturiko asmoa arrazoinamenduaren ondorioz erdietsiko baitute; beraz, euren deliberazioa zuzena izango da, baina lorturikoa gaizki handi bat; hala ere, badirudi ongi deliberatu izana (20) ongi bat dela; deliberazioaren horrelako zuzentasuna deliberazio ona baita, ongi bat lortzeko gai dena, alegia. Hala ere, ongi bat silogismo faltsu baten bidez ere lor daiteke, hots, egin behar ez dena lortu, ez egiazko termino baten bidez, faltsua den erdiko terminoaren bidez baizik; hortaz, (25) hori ere ez da oraindik izango deliberazio ona, hots, lortu behar dena lortzen den deliberazio onari esker, baina ez egin behar den moduan. Gainera, batek denbora luzez deliberatu eta gero lor dezake ongi bat; beste batek, berriz, berehala; horrenbestez, hura ere ez da oraindik izango deliberazio ona; aitzitik, zuzentasuna onuragarria denari egokitzen zaiona da, objektuari, moduari zein denborari dagokienez. Bestalde, ongi deliberatu izana erabateko zentzuan eta helburu jakin bati begirakoa izan daiteke; beraz, (30) lehenengoa, erabateko helburura eramaten duena da, eta bestea, helburu jakin batera eramaten duena. Beraz, ongi deliberatu izana zuzurak direnen berezkoa baldin bada, deliberazio ona hauxe izango da: zuzurtzia, egiazko ustea denaren helburuari begira, onuragarria den zuzentasun bat.

X

Ezagumena eta ezagumen ona –horien arabera gizakiok ezagumetsuak edo ezagumen onekoak direla esaten dugu– (1143a) eta zientzia, edo iritzia, ez dira inolaz ere gauza bera (horrela balitz, denak azkarrak bailirateke), ezta banako zientzia bat ere, medikuntza osasunari edo geometria luze-zabalei dagokien bezala, ezagumena ez baita iraunkor eta (5) mugiezina denari buruzkoa, ezta izatera heltzeko zorian dagoen edozeri buruzkoa ere, aporiak

sortu eta deliberazioaren gaia izan daitekeen horri buruzkoa baizik. Horrenbestez, hura eta zuhurtzia gauza berberei buruzkoak dira, baina ez dira gauza bera ezagumena eta zuhurtzia. Izan ere, zuhurtzia arau-emailea da, helburu baitu zer egin behar den, eta zer ez; ezagumena, ostera, (10) judizio-emailea besterik ez da, gauza bera baitira ezagumena eta ezagumen ona, ezagumentsuak edo ezagumen onekoak. Alabaina, ezagumena ez datza zuhurtzia izatean, ezta erdiestean ere; aitzitik, zientziaz baliatzen denean ikasteari ezagutzea esaten zaion bezala, horrela ere, zuhurtziaren berezkoa den horri berari buruz epaitzean (15) eta zuzen epaitzean iritziaz baliatzean, beste gizaki bat mintzatzen denean; ongi epaitzea eta zuzen epaitzea gauza bera baitira. Eta handik etorri da ezagumen izena –honen arabera batzuk ezagumen onekoak direla esan daiteke–, ikastean parte hartzen duen ezagumena, alegia; ezagutzea esaten baitiogu askotan ikasteari.

XI

Deituriko ulermena –gizaki bat ulermen onekoa dela (20) edo ulermen ona duela esaten dugun horren arabera–, zintzoa denaren judizio zuzena da. Horren adierazle hauxe dugu: zintzoa, ulerkor denari esaten diogu gehienbat, eta zintzoa, zenbait gauzari buruz ulerkuntza edukitzeari. Eta ulerkortasuna zintzoa denaren judizio zuzena ematen duen ulermena da; eta zuzena, egiari egokitzen zaiona.

(25) Aztura horiek guztiak objektu berberara bideratzen dira arrazoipean, ulermenaz, ezagumenaz, zuhurtziaz eta adimenaz mintzatzen garenean, ulermena eta adimena dutela egokitzen baitzaie gizaki beraiei, eta zuhurrak direla eta ezagumentsuak direla gaineratzen dugu, ahalmen horiek guztiak muturrei eta banako gauzei buruzko ahalmenak dira; eta (30) gizaki ezagumentsua ulermen onekoa edo ulerkorra izatea zuhurtziari dagozkion objektuei buruz erabakitzeke gai izatean datza, gizaki on guztiek zintzoa den guztia baterako baitute elkarrekiko harremanetan. Baina egingarriak diren gauza guztiak muturretako eta banako gauzen artean daude eta, horrela, gizaki zuhurrak ezagutu behar ditu; bestalde, adimena eta ulermena ere egingarriak diren gauzei buruzkoak (35) dira, eta gauza egingarriak muturrak

dira; adimena, bere aldetik, muturrei buruzkoa da bi norabideetan, bai lehenengo bai azkeneko mugetan sena baitago (1143b) eta ez arrazoinamendua; bata, lehenengo eta mugiezinak diren mugen frogapenena da; bestea –gauza praktikoena–, muturra eta gertagarri denarena eta bigarren premisarena da; horiek dira, hain zuzen ere, helburu den horren printzipioak, unibertsalitatea (5) banakoetatik iristen baita. Beraz, horietaz izan behar da sentimena, eta hori sena da. Horregatik dirudi ahalmen horiek berezkoak direla, eta berez jakintsua inor ez bada ere, berez ulermena, ezagumena eta adimena, badira. Honen adierazle dugu haiek adin jakin batzuei jarraitzen dietelako ustea, adin jakin batean adimena eta ulermena gertatzen direlako, alegia, natura euren kausa balitz bezala. (Horregatik (10) adimena hasiera eta amaiera da, frogapenak haietatik abiatu eta haiei buruzkoak baitira) Horrela, bada, adinekoak eta zuhurak diren adituen frogarik gabeko adierazpenei eta iritziei ez diegu frogapenei baino jaramon gutxiago egin behar, esperientziatik sortzen den sena izateagatik zuzen ikusten baitute. Esana dago, beraz, zuhurtzia eta jakinduria zer diren, (15) eta zeri buruzkoa diren bata eta bestea, eta bakoitza arimaren alde jakin baten bertute bat dela.

XII

Bertute haiei dagokienez, baten batek galde liezaioke bere buruari zertan diren baliagarriak, jakinduriak ez baitu gizakia zoriontsua egingo duen ezer aztertzen (20) (ez baita jakinduria inolako sorreraren berezkorik); eta zuhurtzia, hori edukita ere, zertarako da beharrezkoa? Zuhurtzia gizakiarentzat zuzena, noblea eta ona den guztiari buruzkoa bada, eta hori da, hain zuzen ere, gizaki onari egitea dagokiona, hori jakiteak ez gaitu bertuteetan jarduteko gai egingo, (25) bertuteak azturak baldin badira, behintzat –zerbait osasuntsu eta osasungarria dela jakitea ere baliagarria ez den bezalaxe, ez osasuna sortzen duen aldetik, aztura osasuntsuan jatorria duen aldetik baizik; izan ere, medikuntza eta gimnastika edukitzeak ez gaitu haietan jarduteko trebeago egiten. Bestalde, ez bada esan behar gizakia helburu horiei begira zuhurra denik, bertutetsua izatera heltzeko baizik, bertutetsuak

direnentzat zuhurtzia ez da batere baliagarria izango, (30) ezta gutxiago ere zuhurtzia ez dutenentzat, haiek beraiek edukitzearen eta zuhurtzia duten besteei men egitearen artean ez baita inolako desberdintasunik izango; eta nahikoa izango genuke osasunari dagokionez egiten dugun bezala jokatu egingo bagenu; izan ere, osasuna izan nahi badugu ere, ez dugu medikuntza ikasi egiten. Honetaz gain, lekuz kanpokoak litzateke jakinduria, nahiz eta bera zuhurtzia baino nagusiagoa izan, horren menpe balego; izan ere, sortzailea den zuhurtziak, hain zuzen ere, agintzen eta manatzen du eginiko gauza bakoitzari dagokionez.

Beraz, (35) gai horiei buruz mintzatu behar da, orain horiei buruzko zalantzak planteatu besterik egin ez baitugu. (1144a) Lehendabizi, esan dezagun, beraz, aztura haiek, nahitaez, berez direla guragarriak, bata eta bestea arimaren bi aldeen bertuteak direlako, nahiz eta ez bata ez besteak ezer sortu ez. Bigarrenez, sortu ere zerbait sortzen dute, ez medikuntzak osasuna sortzen duen bezala, osasunak bezala baizik; horrela, hain zuzen ere, sortzen du jakinduriak zoriontasuna; (5) izan ere, bertute osoaren zati bat denez, hura edukiz eta gauzatuz zoriontasuna sortzen du.

Gainera, gizakiak zuhurtziaren eta bertute moralaren bidez betetzen du eginkizuna, zeren eta bertuteak xedea zuzen egiten baitu, eta zuhurtziak, horretarako baliabideak. Baina (10) arimaren laugarren aldeak, alde elikagarriak, hain zuzen, ez du horrelako bertuterik, egiterik edo ez egiterik ez baitago bere esku.

Zuhurtzia ekintza onak eta zuzenak egiteko gai inolaz ere egiten ez gaituelako esanari dagokionez, pixka bat goragotik hasi behar dugu, abiapuntutzat honako printzipioa hartuz: izan ere, zuzena dena egiten duten gizaki batzuk oraindik ez direla zuzenak esaten dugun bezala –adibidez, (15) legeek agindutakoa nahi gabe, ezjakitez edo beste edozergatik betetzen dutenak, baina ez haiengatik beraiengatik (nahiz eta egin behar dena eta gizaki bertutetsuak egin behar duen guztia, hain zuzen ere, egin)–, horrela ere, dirudienez, badago aztura jakin baten menpe gauza oro egitea, eta horren ondorioz, ona izatea; esan nahi dut, adibidez, hautapenaz eta egindako gauzengatik haiengatik beraiengatik. (20) Beraz, bertuteak hautapena egiten du zuzena, baina horrengatik berez egiten den guztia ez da bertutearen

berezkoa, beste ahalmen batena baizik. Etenaldi bat egin behar dugu eta gai horiei buruz argiago mintzatu.

Badago, hain zuzen ere, trebetasun izeneko ahalmen bat; eta hau, hainbestekoa da, non (25) ezarritako xedera abiatzen den hori guztia gauzatu eta erdiets dezakeen. Beraz, xedea ederra bada, ahalmena goresgarria izango da, baina maltzurra bada, azerikeria; horregatik, esaten dugu, halaber, zuhurak trebeak eta azeriak direla. Zuhurtzia ez da ahalmena bera, baina ahalmen hori gabe, zuhurtziarik ez dago; eta aztura hori, (30) arimaren begi horren bidez osatzen da, baina ez bertuterik gabe, esanda eta agerian dagoenez; izan ere, silogismo praktikoek printzipio bat dute, helburua horrelakoa eta onena denez, alegia, edozer izanda ere (aukera dezagun edozein arrazoinamendu aztertzeko); eta gizakia ona ez bada, helburu hori ez da begi-bistakoa, zitalkeriak (35) usteltzen baikaitu eta ekintzaren printzipioei buruz iruzur eginarazten baitigu. Agerikoa da, beraz, ona ez izanik zuhurra izatea ezinezkoa dela.

XIII

(1144b) Beraz, bertutea ere ikertu behar dugu berriro; zuhurtzia trebetasunarekiko gertatu bezala –ez direla gauza bera, antzekoak baizik–, bertutean, hain zuzen ere, oso antzeko egoera gertatzen da, berezko bertutea bertute gailenarekiko. Izan ere, denen ustez, norberaren aiurria nola edo hala berezkoa da, (5) zuzenak, neurrizkoak, adoretuak eta beste gainerako guztia jaiotzetik baikara; baina, hala ere, ongi gorenaren gisa beste zerbaiten bila gabiltza, eta horrelako azturak beste era batean edukitzea bilatzen dugu. Izan ere, badira berezko azturak, bai haurrengan, bai animaliengan, baina adimenik gabe kaltegarriak dira nabari; (10) Dena dela, badirudi honako hau ongi ikusten dela: ikusmenik gabe mugitzen den gorputz indartsu bat, ikusmenik ez izateagatik, bortizki eror daitekeen bezala, kasu horretan ere gauza bera gerta daiteke; baina gizakiak sena erdiesten badu, bere portaeran nabarmenduko da; eta aztura antzekoa izanik, orduan aztura bertute gorena izango da. Horrenbestez, iritziak eratzen dituen arimaren aldean bi forma (15) –trebetasuna eta zuhurtzia, alegia–, dauden bezala, berdin daude arimaren alde moralean ere bi forma, berezko bertutea

eta bertute gorena, alegia, eta horien artean, bertute gorena ez da zuhurtziarik gabe sortzen. Horrexegatik esaten dute batzuek bertute oro nolabaiteko zuhurtzia dela; eta Sokratesek, alde batetik, zuzen bilatzen zuen, baina beste aldetik, oker zegoen; izan ere, bertute oro nolabaiteko zuhurtzia delako ustean oker zebilen; baina zuhurtziarik gabe (20) bertuterik ez dagoela esatean eder mintzatzen zen. Eta horren adierazle badago, oraingo gizaki guztiek, bertutea definitu egiten dutenean, bertutearen aztura eta jomugak zehaztuta gero arrazoi zuzenaren arabera eranstean baitiote definizioari; eta arrazoi zuzena da, hain zuzen ere, zuhurtziaren arabera dena. Badirudi, beraz, nola edo hala, denek asmatzen dutela (25) horrelako aztura dela bertutea, zuhurtziaren arabera aztura, hain zuzen. Baina, bertutearen definizioari dagokionez, pixka bat aurrerago jo behar da; izan ere, bertutea ez da, besterik gabe, arrazoi zuzenaren arabera den aztura, arrazoi zuzenarekin batera doana baizik; eta horrelako kontuei dagokienez, arrazoi zuzena zuhurtzia da. Sokratesek, uste zuen, beraz, bertuteak arrazoiak direla (bertute guztiak ezaguera zientifikoak direla uste baitzuen); (30) guk, aldiz, arrazoiarekin batera doazenak.

Esandakoarengatik agerikoa da, beraz, zuhurtziarik gabe ezin daitekeela ona izan zentzu gorenean, ezta zuhurra ere bertute moralik gabe. Baina, horrela, bertuteak elkarren artean bereizita daudela baieztatzen duen arrazoinamendu dialektikoa ere gezurta liteke, gizaki bat berez ez baita bertute guztiak izateko gai, (35) bertute jakin bat du jada jaso, eta beste bat oraindik ez. Hori, hain zuzen ere, litekeena da berezko bertuteei dagokienez, (1145a) baina ez, berriz, gizaki bati erabateko zentzuan ona esaten zaion bertute haiei dagokienez, zuhurtzia besterik ez edukita ere, denak edukiko baititu. Baina, agerian dago, praktikoa ez balitz ere, beharrezkoa izango litzatekeela, arimaren alde honen bertutea delako, eta zuhurtziarik eta bertuterik gabe, hautapena zuzena izango ez delako, batak helburua ezarri eta besteak (5) helbururantz eramaten duten ekintzak eginarazten baititu.

Halaz ere, zuhurtzia ez zaio jakinduriari nagusitzen, behintzat, ezta alde onenari ere, medikuntza ere osasunari nagusitzen ez zaion bezala; izan ere, ez da horretaz baliatzen; aitzitik, hori nola sortzen den ikusten du. Beraz, zuhurtziak jakinduriarengatik agintzen du,

baina ez hura. (10) Gainera, politikagintzak hirian gauza guztiei buruz agintzen duelako, jainkoak gobernatzen dituela esatea bezala litzateke hori esatea.

I

(15) Horren ondoren, beste printzipio bat hartuta, esan behar da aiuriei dagozkien disposizioen artean hiru espezie saihestu behar direla, bizioa, meneratzerik eza eta piztikeria, alegia. Horietako biren kontrakoak begi bistakoak dira: izan ere, batari bertute esaten diogu, eta besteari, meneratze; eta, piztikeriari dagokionez, oso egokia litzateke gizagaineko bertutea aipatzea, bertute jainkotiar eta (20) heroiko bat, alegia, Homerok Hektori buruz egin duen bezala, Priamok Hektor bikaina zela esaten duenean, eta behintzat, ez zirudien gizon hilkor baten semea, jainko batena baizik³⁷. Beraz, esaten dutenez, bertutearen oparotasunez gizakiak jainko bilakatzen badira, agerian dago horrelako izaera basapiztia-azturaren aurkakoa (25) izango dela, bizioa eta bertutea basapiztiari ez dagozkion moduan, era berean, jainkoari ere ez; aitzitik, hori bertutea baino garaiagoa da, eta hura, bizioaren bestelako genero bat. Baina, gizaki bat jainkotiarra izatea ere oso urria denez –lakoniarrek esaten dutenez, norbait izugarri maitatzen dutenean, gizon jainkozkoa esaten baitiote–, horrela ere, (30) gizakien artean gizaki basapiztia ere oso urria da; barbaroen artean gertatzen da gehienbat, eta, batzuetan, gaixotasunen eta ebakuntzen ondorioz ere agertzen dira; eta gaiztakeriaz giza neurriak gainditzen dituzten gizakiei ere deitzen diegu horrelako modu gaitzesgarrian. Hala ere, horrelako disposizioari buruz, aurrerago egingo dugu aipamen bat, eta bizioaz (35) dagoeneko mintzatu da; baina meneratzerik ezari, bigunkeriari eta emakeriari buruz, hitz egin behar da, baita meneratzeari eta irmotasunari buruz ere, (1145b) ez baitugu pentsatu behar bi aztura haiek, eta bertutea eta zitalkeria berberak direnik, ezta genero desberdinekoak ere. Gainerako kasuetan bezala, ageriko gertaerak ezarri eta lehenengo zalantzak ebatzi ondoren, pasio horien inguruko (5) iritzi arrunt guztiak frogatu behar dira;

³⁷Homero, *Ilias* XXIV 258-259.

baina iritzi guztiok frogatu ezin badira, orduan gehienak eta garrantzitsuenak, edo zailtasunak ebazten badira eta iritzi arruntenak ontzat gelditzen badira, frogapena nahikoa izango da.

Beraz, badirudi meneratzea eta irmotasuna gauza onen eta laudagarrien artekoak direla, eta meneratzerik eza eta bigunkeria, (10) txarren eta gaitzesgarrien artekoak; eta gizaki berbera meneratua eta arrazoinamenduari eusteko prest dagoena dela, edo meneraezina eta arrazoimenari eusteko prest ez dagoena; eta meneraezinak, bere aldetik, badakiela gaizki jokatzeko duela pasioaren eraginpean; eta neurrizkoak, oster, desirak txarrak direla jakinik, arrazoiari esker jarraitzen ez direla. Halaber, gizaki neurrizkoa meneratua eta (15) irmoa dela; baina azken horretaz, batzuen ustez neurrizkoa beti izaten da horrelakoa, baina beste batzuen ustez, ez; eta batzuek esaten dute neurrigabea meneraezina dela, eta meneraezina, neurrigabea aldi berean; eta beste batzuek, aldiz, desberdinak direla. Eta batzuetan esaten dute zuhurra ezin daitekeela meneraezina izan, baina beste batzuetan, berriz, zuhurrak eta trebeak izanik, batzuk meneraezinak direla. Gainera, gizakiari (20) suminduraren, ohorearen eta etekinaren arabera esaten zaio meneraezina. Hori da, beraz, esan ohi dena.

II

Ondoko zalantza sor liteke: burubide zuzena duen gizakiak, nola jokatu dezake meneratzerik gabe? Batzuen ustez, ezaguera edukita ezinezkoa da meneratzerik gabe jokatzeko; izan ere, Sokratesek uste zuenez, ezaguera izanik, zentzugabea litzateke beste zerbaitek hura menperatu eta hara eta hona eramango balu, morroi bat bailitzan. (25) Izan ere, Sokrates ideia horren kontra zegoen guztiz, meneratzerik eza ez dagoelakoan, inork ez baitu jakinik onena denaren aurka jokatzeko, ezjakiteagatik baizik. Horrela, bada, arrazoinamendu hori ez dator bat nabari ikusten dugunarekin, eta pasioari dagokionez, ezjakiteagatik bada, zer-nolako ezjakitea den ikertu behar da. (30) Izan ere, agerian dago pasioaren menpe izan aurretik, behintzat, meneratzerik gabe jokatzeko duenak ez duela uste horrela jokatu behar denik. Badira esandakoarekin zentzu batean bat datozenak, baina beste zentzu batean, ez, onartzen baitute ezaguera baino ahaltsuagorik ez dagoela, baina ez dute

onartzen bikaintzat hartzen duenaren kontra inork jokatzeko ez duenik, eta horregatik esaten dute, hain zuzen ere, meneraezinak, plazeraren menpe (35) dagoenean, ez duela ezaguera, iritzia baizik. Baina, iritzia baldin bada eta ez ezaguera, eta pasioaren kontra egiten duen ustea (1146a) indartsua ez bada, motela baizik –zalantzan daudenengan bezala–, barkamena legoke desira gogorrei aurre eginik haietan erortzen ez den horrentzat; baina zitalkeriarako ez dago barkamenik, ez eta gainerako gauza gaitzesgarrietarako ere. Ba al da zuhurtziarik, orduan, pasioari aurre egiten dionik? (5) Zuhurtzia, hain zuzen ere, oso indartsua da. Hala ere, hori zentzugabea litzateke, gizaki berbera, aldi berean, zuhurra eta meneraezina bailitzateke, eta inork ez luke esango gauzarik ziztrinenak borondatez egitea zuhurtziari dagokionik. Baina, honetaz gain, frogatuta geratu da lehenago, zuhurra, behintzat, ekintza zuzenak egiteko gai dela, (zuhurtzia ekintzei baitagokie), eta gainerako bertuteak dituela.

Gainera, meneratua izatea desira gogor eta ziztrinak edukitzean baldin badatza, (10) gizaki neurritzkoa ez da meneratua izango, ezta meneratua neurritzkoa ere, gizaki neurritzkoari ez baitagokio desira ugari edukitzea, ezta desira ziztrinak ere. Dena dela, jakina, desirak izan behar ditu, desirak onuragarriak balira, haiei jarraitzea eragozten dion aztura ziztrina bailitzateke; beraz, meneratzea ez litzateke beti (15) ona; aitzitik, ahulak eta ez ziztrinak balira, ez legoke ezer bikainik haiei aurre egitean, ezta ezer handirik ere ziztrinak eta ahulak balira.

Gainera, meneratzeak beraren iritzi guztiei eusteko prest dagoen bat bihurtzen badu, ziztrina izango da, adibidez, iritzi faltsuari ere eusteko prest dagoen bat bihurtzen badu; eta, meneratzerik ezak iritzi orori eusteko prest dagoen bat bihurtzen ez badu, meneratzerik eza hori bertutetsua izango da; adibidez, Neoptolemo, (20) Sofoklesen Filoktetes-en, goragarria da Odiseoren hitz limurtzaileei eusteko prest ez egoteagatik gezurretan ibiltzeaz atsekabetzen zelako.

Gainera, faltsua den arrazoinamendu sofistikoak zalantza bat dakar, sofistek, paradoxak gezurtatu nahi izateagatik –trebetzat hartuak izan daitezkeen bete-betean asmatzen dutenean–, sortutako silogismoa zalantza bihurtzen da; izan ere, (25) pentsamendua estuturik gelditzen da ekin nahi ez duenean ondorioa atsegin ez duelako, eta ezin du aurreratu arrazoinamendua

askatzeko gai ez delako. Beraz, arrazoinamendu jakin batetik ondorioztatzen da meneratzerik ezarekin baterako zuhurtzigabekeria bertute bat dela; izan ere, gizakiak bere ustez egin behar denaren kontrakoa egiten du bere meneratzerik ezagatik, baina uste du ona dena (30) txarra dela eta egin behar ez dela; eta horren ondorioz, ona dena egingo du eta ez txarra dena.

Gainera, badirudi sinetsita egoteagatik egiten duena eta atseginei aurrez erabakita ere jarraitzen diena, meneratzerik ezaz eta ez arrazoinamenduaz egiten duena baino hobeia izan litekeela, zuzentzen errazago baita, aldatzeko limurtu litekeelako. Baina meneraezinari esaera zaharra lotzen zaio, (35) ura kontrako eztatritik joaten zaigunean, zer edan behar dugu? esaten dugunean, egiten duena limurturik egingo balu, bere iritzia aldatzeko limurtuta, egiteari utziko lioke; baina kontua da, (1146b) beste iritzi batek limurturik egon arren, berdin jokatzeko duela. Gainera, meneratzerik eza eta meneratzea gauza orori badagozkio, nor ote da meneraezina zentzu absolutuan? Izan ere, inork ez ditu meneratzerik eza guztiak, (5) baina esaten dugu batzuk zentzu absolutuan direla meneraezinak.

Horrelakoak dira, bada, azaltzen diren zalantzak; haien artean, batzuk ezabatu eta besteak gorde behar ditugu, zeren eta zalantzaren ebazpena egiaren aurkikuntza baita.

III

Beraz, lehendabizi, aztertu behar da meneraezinek jakinik jokatzeko duten ala ez, eta jakinik jokatzeko gero, nola; ondoren, meneraezina (10) eta meneratua zeren arabera esan behar ditugun, hots, plazer eta atsekabe orori buruz ala plazer eta atsekabe jakin batzuei buruz; eta meneratua eta irmoa, gizaki berbera den ala gizaki desberdinak; eta, berdin, ikerketa honekin lotuta dauden gainerako gai guztiak. Eta ikerketaren abiapuntua da aztertzea (15) meneratua eta meneraezina desberdinak diren egiten dituzten gauzei dagokienez, ala jokaerari dagokienez, hots, meneraezina, ea meneraezina den bakarrik gauza jakin horien arabera izateagatik, edo moduaren arabera izateagatik, ala biengatik. Horren ondoren, aztertu behar dugu meneratzerik eza eta meneratzea gauza guztiei dagozkien ala ez. Alabaina, meneraezina ere, zentzu absolutuan, ez da gauza guztien arabera meneraezina,

(20) neurrigabea den horren araberakoa baizik, hain zuzen ere; eta, bestalde, neurrigabea horren araberakoa besterik ez izateagatik ere ez (meneratzerik eza eta neurrigabekeria gauza bera izango bailirateke), horri buruz era jakin batean izateagatik baizik. Izan ere, batak hautapen deliberatuak hartzen ditu, beti uneko atseginari jarraitu behar diolakoan; besteak ez du horrela pentsatzen, baina jarraitu egiten dio.

Beraz, meneraezinak egiazko iritzi baten aurka eta ez ezaguera baten kontra (25) jotzen duela pentsatzeak ez du ezertan aldatzen gure argumentua, iritzia besterik ez duten batzuk ez baitaude zalantzatan; aitzitik, zehaztasunez dakitela uste dute. Hortaz, iritzia besterik ez dutenek, iritzia uste ahulak edukitzeagatik, ezaguera dutenek baino neurri handiagoan jotzen badute euren iritzia kontra, ezaguera eta iritzia ez dira desberdinak izango, gizaki batzuk euren iritzietan (30) beste batzuk euren ezagueran bezain sinetsita baitaude, Heraklitoren kasuan begi-bistakoa denez. Baina, ezagutzea bi zentzutan esaten dugunez (ezaguera erabiltzen ez badu ere ezaguera duenak zein hura erabiltzen duenak ezagutzen dutela esaten baita), desberdinak izango dira ezaguera edukiz baina hartaz baliatu gabe egin behar ez dena egitea, eta ezaguera edukiz eta hartaz baliatuz egitea, (35) azken kasu honek bitxia baitirudi, baina ez, ezagueraz baliatzen ez bada.

Gainera, bi premisa-mota dagoenez, (1147a) biak edukita ere, ezerk ez du eragozten ezagueraren kontra jotzea, premisa unibertsalaz baliatuz, baina ez partikularraz, ekintzak banakoak baitira. Baina premisa unibertsala ere bereizten da: bata, egileari dagokiona, (5) bestea, objektuari dagokiona; adibidez, elikagai lehorrak gizaki guztiek dituzte onuragarri, eta ni gizakia naiz, edo honelako elikagaia lehorra da; baina, honako hau horrelakoa da, egileak edo ez daki edo ez da ezanguera honetaz baliatzen. Beraz, ezagutzeko era hauetan desberdintasuna hain izango da apartekoa, ezen horrela ezagutzea zentzugabea irudiko ez baita, baina beste era batean ezagutzea, harrigarria.

(10) Gainera, gizakiek, ezaguera edukitzeko orain aipaturiko moduez gain, bestelako modu bat izan dezakete, ezaguera edukita ere ez erabiltzean ikusten baitugu aztura desberdina, eta, hortaz, nolabait, ezaguera eduki eta ez eduki daiteke; adibidez, lo edo

burutik joanda edo mozkor eginda dagoena. Baina, pasioen menpe daudenak, behintzat, horrelako egoeran daude, hain zuzen, (15) haserrealdiek, lizunkeriek eta horrelako pasio batzuek gorputza ere asaldatzen baitute oso nabari, eta batzuetan erotasuna ere eragiten dute. Agerian dagoenez, beraz, esan behar da meneraezinak ere disposizio berean daudela. Eta gizaki horiek ezagueraz baliatuz mintzatzeak ez du ezer adierazten, pasio horien menpe (20) daudenek ere Enpedoklesen frogapenak eta bertsoak buruz esaten baitituzte, eta ikasten hasi direnek esaldiak txertatzen dituzte, baina oraindik ez dakite, jakintza bereganatu behar baita, eta horrek denbora behar du; beraz, aktoreek hitz egiten duten moduan meneraezinek ere hitz egiten dutela pentsatu behar omen da.

Bestalde, kausa, abiapuntu naturaletik ere har liteke kontuan horrela: (25) premisetatik bat iritzi unibertsala da, baina bestea, banakoari buruzkoa, eta hori zentzumenen menpe dago jadanik. Eta bi horietatik premisa bakar bat sortzen denean, orduan, nahitaez, arimak, alde batetik, ondorioa baieztatzen du, eta beste aldetik, kasu praktikoetan jarduten du segituan; adibidez, gozoa den guztia dastatu behar bada, (30) eta banako jakin hori gozoa bada, orduan, nahitaez, aldi berean egin dezakeenak eta eragozpenik ez duenak hori dastatu ere egingo du. Beraz, gozoa dena dastatzea eragozten duen iritzi unibertsala dagoenean, batetik, eta bestetik, gozoa den guztia atsegina den iritzia, eta hortako hori gozoa da (iritzi hori da eraginkorra), eta gure barneko desira agertzen denean, orduan iritzi unibertsalak hori saihesteko esaten digu, baina desirak, berriz, horretara eramaten gaitu, (35) arimaren alde bakoitza mugiarazi baitezake; gertatzen da, beraz, (1147b) arrazoiak eta iritziak nolabait eragirik, meneraezinak garela, baina iritzia ez dago berez arrazoi zuzenaren aurka, akzidentalki baizik –arrazoi zuzenaren aurkakoa desira baita, inolaz ere iritzia. Hortaz, horregatik ere ez dira meneraezinak animaliak, haiek uste unibertsalik ez dutelako, (5) banakoa denaren irudia eta oroitza baizik.

Meneraezinak ezjakintasuna nola ezabatu eta ezaguera nola berreskuratzen duen, lo egiten duenaren eta mozkor eginda dagoenaren modukoa da, eta ez da grina horren berezkoa; hori, fisiologoei entzun behar diegu.

Baina, azkeneko premisa zentzumenezko gauzei buruzko iritzia (10) eta ekintzak bideratzen dituen denez, bietako bat: edo pasioaren menpe dagoenak ez du iritzirik, edo baldin badu, beste modu batean, hau da, edukitzea ez dela ezagutzea, esatea baizik esan daitekeen zentzuan, mozkor eginda dagoenak Enpedoklesen bertsoak buruz esaten dituen bezala. Eta, azken terminoa unibertsala ez denez, ezta zientifikoa ere –unibertsala zientifikoa den moduan, behintzat–, badirudi (15) Sokratesek bilatzen zuena, hain zuzen ere, gertatzen dela; izan ere, pasioa ez da gertatzen zentzu goreneko ezagueratzat hartzen duguna aldi berean gertatzen denean, eta ez da hori pasioak ezaguera hori eramaten duena, zentzumenezko ezaguera baizik.

Beraz, meneraezina jakinik ala ez jakinik den, eta jakinik zein zentzutan esan daitekeen, nahikoa esana dugu.

IV

(20) Jarraian, esan behar da meneraezina zentzu absolutuan izan daitekeen, ala meneraezin guztiak zentzu jakin batean diren, eta, hala bada, hura zeri dagokion. Beraz, agerian dago, bai meneratuak eta irmoak, bai meneraezinak eta makalak, plazerei eta atsekabeei dagozkiela. Baina, plazer ematen duten gauzetan, batzuk beharrezkoak eta besteak (25) berez nahigarriak direnez, horiek gehiegikeria onartzen dute; beharrezkoak gorputzarenak dira (horrelakoak elikadurari eta sexu-harremanei dagozkienak dira, eta gure ustez neurrigabekeria eta neurritasunarekin lotzen diren beste horrelako gorputz-behar horiek); besteak, osteraz, ez dira beharrezkoak, baina berez nahigarriak ((30) adibidez, garaipena, ohorea, aberastasuna eta horrelako gauza on eta atseginak); beraz, gauza hauei dagokienez, euren baitako arrazoi zuzenaren neurria gaintitzen dutenei ez diegu meneraezin zentzu absolutuan esaten, eta gaineratzen diegu diruarekiko, irabaziarekiko, ohorearekiko eta sumindurarekiko meneraezinak direla; baina ez zentzu absolutuan, gizaki horiek eta besteak desberdinak direlakoan, eta hauei meneraezin deitzen zaie (35) nolabaiteko antzekotasunaren

arabera, *Anthropos*³⁸ bezala, joko olinpikoetako irabazlea: (1148a) izan ere, bere izen bereziaren definizioa eta izen arruntarena oso gutxi desberdintzen ziren, baina, hala ere, bestelakoak ziren. Horren adierazle honakoa dugu: meneratzerik eza akatsa den aldetik ez ezik, nolabaiteko bizio bat den aldetik ere gaitzesten da, zentzu absolutuan nahiz alde bateko zentzuan, baina, bestalde, horietako inor ez.

(5) Meneraezinak gorputz-gozamenei dagozkienez direnenetan –gorputz-gozamenen arabera gizaki bat neurrizkoa ala neurrigabea dela esaten dugu– plazerak lortzeko irrikitan ibili eta atsekabeak saihesten dituenari –gosea, egarria, beroa, hotza eta ukimenari eta dastamenari dagozkien guztiak, alegia–, ez aldeztu aurretik deliberatuta, hautapenaren eta pentsamenduaren kontra baizik (10), meneraezina esaten zaie, gauza jakin honekiko gaineratu gabe –sumindurarekiko, adibidez–, zentzu absolutuan baizik. Horren adierazle dugu, gizakiei gauza hauei dagokienez bigunak ere esaten zaiela, baina ez beste plazer eta atsekabeei dagokienean. Eta horrexegatik, nolabait plazerei eta atsekabe berberei buruzkoak izateagatik, hain zuzen ere, jartzen ditugu maila berean, bai meneraezina eta neurrigabea, bai meneratua eta neurriduna, baina ez haietako bat bera ere (15). Baina, gauza berberei badagozkie ere, ez dute berdin jokatzeko, batzuek aurrez deliberatuki hautatuz jokatzeko baitute, eta besteek, ez. Horregatik, desirarik gabe edo desira motelekin gehiegikerien bila ibili eta atsekabe arinak saihesten dituen horri bereziki deituko genioke neurrigabea, (20) hori bera desira gogorren menpe egiten duen horri baino. Izan ere, zer egingo luke hark, desira sutua eta beharrezko gauzen gabeziarekiko atsekabe gogorra ere jasango balu?

Bestalde, desiren eta plazeraren artean, batzuk, generoari dagokionez, gauza nobleen eta ederrenak dira (gauza atsegin batzuk nahigarriak baitira berez), beste batzuk, aipaturikoen aurkakoak, eta beste batzuk, (25) bitartekoak, lehenago zehaztu genuenez, hau da, ondasunak, irabazia, garaipena eta ohorea. Horrelako gauza guztioi eta bitartekoei dagokienez, gizakiak ez dira gaitzesten pasio haiek jasan, desiratu edo maitatzeagatik,

³⁸ Aristotelesen garaian ospetsua zen pugilaren izena da. Kontuan hartu behar da *anthrôpos*-ek *gizaki* esan nahi duela grekoaz.

nolabait eta gehiegizko moduan egiteagatik baizik. Horregatik, arrazoiaren kontra, edo gauza horien menpe, edo berez ederrak eta nobleak diren gauzak lortu nahian dauden gizaki guztiak goretsiak dira, (30) adibidez, ohoreekiko edo seme-alabekiko eta gurasoekiko behar baino irrika handiagoa dutenak –gauza horiek onak baitira eta gauza horiekiko irrika handia dutenak goretsiak dira). Hala eta guztiz ere, pasio horiekiko ere litekeena da nolabaiteko gehiegikeria, gizaki batek jainkoen aurka ere borrokatuko balu, Niobek bezala, edo aita-maitatzaile deituriko Satiro bezala, (1148b) bere aitarekiko gehiegizko era erotuan jokatzeko omen baitzuen. Izan ere, ondasunari, irabaziari eta aipaturiko beste gauzei dagokienean, ez dago inolako zitalkeriarik, esandako arrazoiengatik, gauza horiek guztiak berez direlako nahigarriak, baina haiekiko gehiegikeriak txarrak dira eta saihestu behar dira. Era berean, (5) meneratzerik ezarik ere ez dago, meneratzerik eza saihestu ez ezik, gaitzetsi ere egin behar diren horietako gauza bat baita; baina gizakiek, pasioarekiko antzekotasunarengatik, gauza haiei meneratzerik eza esaten diete, kasu bakoitzean zerekiko gaineratuz; adibidez, sendagile txarra edo aktore txarra esaten diogu zentzu absolutuan txarra inolaz ere esango ez geniokeen horri. Beraz, gauza haiei guztiei nolabaiteko antzekotasun analogikoa edukitzeagatik eta ez gaiztakeria izateagatik txarrak esaten zaien bezala, (10) horrela ere, agerikoa denez, kasu honetan ere pentsatu behar da soilik meneratzerik eza eta meneratzea, neurritasuna eta neurrigabekeria dagozkien gauza berberei dagozkiela; eta, sumindurari dagokionez, hitz horiek antzekotasunez erabiltzen ditugula; eta horregatik esaten dugu meneraezina, baina suminarekiko, ohoreekiko eta irabaziarekiko gaineratuz.

v

(15) Gauza batzuk berez direnez atseginak, eta, horien artean, batzuk zentzu absolutuan eta beste batzuk animalien eta gizakien generoaren arabera, eta, bestalde, beste gauza batzuk atseginak berez ez badira ere atseginak bilaka daitezkeenez –batzuk lesioaren ondorioz, beste batzuk ohiturengatik, eta beste batzuk, izaera zitalarengatik–, horietako kasu bakoitzean ere ikus dezakegu oso antzeko aztura. Basatia esaten diet, (20) adibidez, emakume haurdunak

zulatu eta gero, handik ateratako haurrak irensten dituen emakumearen azturari, edo Ponto inguruko zenbait tribu basatiren azturei –batzuk haragi gordina edo giza haragia jateaz gozatzen baitira, eta beste batzuek, euren oturuntzetarako, haurrak elkarri ematen baitizkiote–, edo Falarisi buruz kontatzen dutenari. Aztura horiek, hain zuzen ere, basatiak dira, baina beste batzuk gaixotasunen ondorioz gertatzen dira (25) (eta erokeriaren ondorioz zenbait kasutan, bere ama sakrifikatu eta jan egin zuen gizonaren kasua bezalaxe, hain zuzen, edo bere lagunaren gibela jan zuen esklab0arena); beste batzuk, erigarriak edo ohituretan sortuak dira, ileak ateratzea edo azkazalak jatea bezala edo, bestalde, ikatza eta lurra jatea, eta, halaber, gizonen arteko sexu-harremanak; azken horiek, batzuetan, berezkoak dira; beste batzuetan, berriz, ohitura batetik sortu dira, txikitatik sexu-abusuak jasan dituztenen kasuan bezala. (30) Egia esan, meneratzerik ezaren kausa naturala den kasuetan inork ez die meneraezinak esango aztura hori dutenei, emakumeei ere esaten ez diegun bezala, ez baitira aktiboak senar-emazteen arteko sexu-harremanetan, pasiboak baizik; eta berdin disposizio erigarriak ohituraz jasoak dituzten horiei dagokienez ere. Horrela, bada, disposizio horiek (1149a) gaiztakeriaren mugetatik kanpo daude, piztikeria bezala, eta disposizio horiek jasaten dituen haiei gainean edo haiei menpe egotea ez da meneratzerik eza zentzu hertsian, antzekotasunez baizik, disposizio suminkorra jasaten duenak grina-mota jakin hori duela esan den bezala, baina ez zaio meneraezina deitu behar. (5) Izan ere, gehiegizko burugabekeria, koldarkeria, neurrigabekeria eta aiurri txar guztien artean, batzuk basatiak dira, eta besteak, erigarriak; izan ere, gauza ororen beldur dena berez –sagu batek zarata aterata ere– koldarkeria basatiaz da koldarra, baina erbinudearen beldur zena, gaixotasun batengatik; burugabeen artean ere, berez irrazionalak direnak (10) eta bizitzarako euren zentzumenez beste edozertaz baliatzen ez direnak basatiak dira, urrutiko barbaroen arteko zenbait arraza bezala; gaixotasunen ondorioz direnak –adibidez, epilepsia edo erotasuna–, erigarriak dira. Horietako grinen bat jasaten duenak hura eduki dezake, besterik gabe, eta haren menpe egon ez; aipatzen dut, adibidez, Falarisen kasua, haur bat irensteko edo (15) lekuz kanpoko sexu-plazerak gozatzeko irrikan bazegoen ere, bere burua kontrolpean zuena; baina bestalde,

eduki ez ezik, haien menpe ere egon daiteke. Beraz, zitalkeriaz mintzatzen garenean, zenbait kasutan gizakiari dagokionari zitalkeria zentzu absolutuan erabiltzen da; baina, beste zenbait kasutan, beste zerbait gaineratzen da –basatia eta erigarria dela, alegia–, baina zentzu absolutuan erabili gabe; honela ere, nabari da meneratzerik eza basati bat dagoela eta beste bat erigarria; baina, zentzu absolutuan esaten den meneratzerik eza bakarra giza neurrigabekeriaren araberakoa da. (20) Agerian dago, beraz, meneratzerik eza eta meneratzea neurrigabekeria eta neurritasuna dagozkien gauza berberei buruzkoak direla bakarrik, eta, beste zerbaiti buruzkoa bada, beste meneratzerik eza-mota bat izango dela, metaforikoki deituta eta ez zentzu absolutuan, jakina.

VI

Iker dezagun jarraian suminduraren meneratzerik eza (25) desirera bezain lotsagarria den ala ez. Izan ere, badirudi sumindurak arrazoiari aditzen diola nolabait, baina gaizki aditzen dio, mirabe presatsuek bezala, esaten ari zaien guztia entzun aurretik, lasterka joan, eta gero agindua gaizki betetzen duten horiek; edo txakurrek bezala, zaratarik txikiena entzunda, laguna den jakin aurretik, zaunka egiten dutenak. Horrela, (30) suminduak, entzuten badu ere, gartsutasunaren eta presaren ondorioz ez du agindua aditzen, eta mendekura amiltzen da. Arrazoiak, hain zuzen ere, edo irudimenak, jasandako iraina edo arbuioa ikustarazi zion, eta hark, horrelakoari aurre egin behar zaiola ondorioztaturik, berehala sumintzen da. Desira, berriz, (35) arrazoiak edo zentzumenak zerbait atsegina dela besterik esan gabe ere, gozatzeri amiltzen da. (1149b) Beraz, sumindurak arrazoiari jarraitzen dio nolabait, baina desirak ez. Hortaz, hori lotsagarriagoa da, sumindurarekiko meneraezina dena, nolabait ere, arrazoiak menperatua baita, baina desirarekikoa ez du arrazoiak menperatzen. Gainera, berezko gogoei jarraitzea askoz barkagarriagoa da, (5) gizaki guztiek baterako dituzten horrelako desirari jarraitzea bezala, eta baterakoak diren neurrian; eta sumindura eta gaitzustearen berezkoagoak dira beharrezkoak ez direnen eta gehiegikerien desirak baino; adibidez, bere aita jipoitzetik defendatzen zuena honako hau esanez: egia esan, honek bere aita jipoitu zuen,

eta hark, berea; eta, (10) bere semeari seinalatuz, eta horrek ni jipoituko nau, esan zuen, gizontzen denean, joera hori berezkoa baitugu; eta besteak, bere semeak bera herrestaturik, ate alboan gelditzeko agindu zion, hark bere aita horreraino, hain zuzen, herrestatu baitzuen. Gainera, amarrutsuenak zuzengabeagoak dira. Horrela, bada, suminkorra ez da amarrutsua, eta sumindura ere ez, (15) amarrugabea baizik. Baina desira Afrodita bezalakoa da, Txipreko alaba iruzur-irazkitzailea³⁹ esaten baitiote, eta haren gerriko bordatua bezalakoa, Homerok zuhurrari ere sena kentzen dion hitz-limurtzailea⁴⁰ esaten baitio. Hortaz, meneratzerik eza hori sumindurari dagokiona baino zuzengabeagoa eta lotsagarriagoa bada, zentzu absolutuan izango da meneratzerik eza, eta, (20) nolabait ere, bizioa. Gainera, inork ez du beste inor atsekabez iraintzen, eta haserre jokatzan duen orok atsekabez egiten du, eta iraintzen duenak, berriz, atseginez. Beraz, sumindura askoz ere zuzenagoa eragiten duena zuzengabeagoa baldin bada, baita desiraren meneratzerik eza ere bai, suminduran ez baitago irainik. Agerian dago, beraz, desirari buruzko meneratzerik eza sumindurari buruzkoa baino lotsagarriagoa dela, (25) eta bai meneratzea bai meneratzerik eza gorputzaren desirari eta plazerei dagozkiela; baina horien beraien arteko desberdintasunak kontuan hartu behar dira, hasieran esan dugunez, batzuk gizakienak eta berezkoak baitira, bai generoari bai handitasunari dagokienez, beste batzuk, basatiak dira eta beste batzuk, lesioen eta gaixotasunen ondorioak. (30) Lehenengo haiei dagozkie neurritasuna eta neurrigabekeria, eta ez beste ezeri; horregatik ez diegu esaten piztiei neurrizkoak edo neurrigabeak, metaforikoki ez bada, eta animalia-genero bat, bere osotasunean hartuta, beste genero batekiko desberdina baldin bada bortitzkeriari, suntsikorkeriari eta irentsi-beharrari dagokienez, haiek ez baitute hautapenik, (35) ezta arrazoimenik ere; aitzitik, gehiegikeria horiek naturan dautza, (1150a) gizaki eroak bezala. Eta piztikeria ez da bizioa bezain txarra, baina bai beldurgarriagoa, ez gizakiaren alderik onena ustelduta dagoelako –gizakiarengan bezala–, alde hori ez dutelako baizik. Beraz, bietako gaiztoagoa nor den jakitea izaki bizigabe bat eta animatu bat konparatzea bezalakoa da,

³⁹Idazle ezezagun baten lerroa

⁴⁰ Homero, *Ilias* XIV 217

prinzipiorik ez duenaren maltzurkeria (5) beti arinagoa baita, eta adimena prinsipio bat da. Beraz, zuzengabekeria eta gizaki zuzengabea konparatzea bezalakoa da, bakoitza, bere eran, bestea baino okerragoa baita, gizaki gaizto batek animalia batek baino askoz ere gauza okerragoak egin ditzakeelako.

VII

Ukimenaren eta dastamenaren bidezko plazer, atsekabe, (10) gogo eta itzur-beharrei buruz –zentzuei dagokienez neurrigabekeria eta neurritasuna zehaztu ditugun lehenago–, halako disposizioa izan daiteke, non gizaki gehienek menperatzen dituzten grinak menpe ere egon gaitezkeen, eta, beste aldetik, gizaki gehienak menperatzen dituzten grinak ere menperatu. Bi disposizioak kontuan hartuta, plazerei dagokienez, bata meneraezina izango da, eta bestea, meneratua; atsekabeei dagokienez, bata biguna izango da, eta bestea, irmoa. (15) Eta erdian gizaki gehien aztura dago, gauza txarrenetarako joera handiagoa badute ere. Plazer batzuk, neurri bateraino, beharrezkoak direnez, eta beste batzuk ez, baina gehiegikeriak eta gabeziak, ez, eta gurariei eta atsekabeei dagokienez berdin gertatzen denez, gauza atseginetan gehiegikerien bila dabilena, gogo handiegiz (20) nahiz hautapenez, haiengatik beraingatik eta ez beste edozerengatik, neurrigabea da; izan ere, horrelako gizakia, ezinbestean, ez da damukorra; beraz, sendagaitza da, damutzeko gauza ez dena sendagaitza baita. Eta honen beste muturrekoa da gutxiegi desiratzen duena, eta erdikoa, neurrizkoa. Berdin, gorputz-atsekabeak saihesten dituen, ez haien menpe dagoelako, hori hautatzen duelako baizik. (25) Hautatu gabe jokatzen dutenen artean, bata plazerak bultzatua da, eta bestea desirak dakarren atsekabea saihesteak; beraz, bata eta bestea desberdinak dira. Edozeinek pentsatuko luke desiratu gabe edo leunki desiratuz zerbait lotsagarri egiten duena irrikaz desiratuz egiten duena baino gaiztoagoa dela, eta sumindurarik gabe beste norbait jipoitzen duena (30) suminduta egiten duena baino gaiztoagoa; izan ere, zer egingo luke, bada, pasioen menpe balego? Horregatik, neurrigabea meneraezina baino gaiztoagoa da. Beraz, aipaturiko bi disposizioetatik, bata nolabaiteko bigunkeria da neurri handiagotan,

eta bestea, neurrigabekeria hutsa. Meneraezinaren aurkakoa gizaki meneratua da, eta bigunaren aurkakoa, gizaki irmoa; irmoa izatea, hain zuzen, eustean datza, eta meneratzea, (35) menperatzean; eta irmoa izatea eta menperatzea desberdinak dira, garaitua ez izatea eta garaitzea bezala. Horregatik da nahigarriagoa meneratzea (1150b) irmotasuna baino. Eta gehienek eusten eta euts ditzaketen gauzen aurka irmotasunik ez duen gizona makala eta emagizona da, emagizonkeria nolabaiteko makalkeria baita; horrelako gizonak arrastaka darama gainjantzia, jasotzearen atsekabea jasan behar ez izateagatik, edo, gaixoarena eginik, (5) ez du pentsatzen zorigaiztokoa denik, nahiz eta zorigaiztokoaren antzekoa den. Eta berdin meneratzeari eta meneratzerik ezari dagokienez. Izan ere, ez da harrigarria baten bat izugarrizko eta neurriz gaineko plazerek eta atsekabeek garaitua bada; aitzitik, barkagarria da aurre egiten badie, Teodektesen Filoktetes-ek bezala, sugerriak kosk egin ondoren, (10) edo Karkinoren Kerkionek Alope-n, edo barreari eusten ahaleginduta barrez lehertzen direnak, Xenofantori gertatu bezala. Baina bada harrigarria baten bat gizaki gehienek euts ditzaketen gauzek garaitua eta haiei aurre egin ezin izatea, sortzezko naturaren edo gaixotasunaren ondorioa ez bada –eszitarren erregeen artean bezala, (15) makalkeria herentziazkoa baita, edo emea arrarekiko bezala, bereizgarria baita. Olgetazalea ere neurrigabea omen da, baina makala da; olgeta, hain zuzen ere, lasakeria da, atsedena baita, eta olgetazaleak olgetarekiko neurria gainditzen du.

Meneratzerik eza, edo jauzkortasuna, edo ahuleria da; (20) izan ere, batzuek, hausnartzen badute ere, pasioaren ondorioz ez diete hausnarturiko erabakiei eusten; beste batzuk, ez hausnartzeagatik, pasioak bultzatzen ditu, zeren eta gizaki batzuk, aurrez erne daudenek kilima sentitzen ez duten bezala, horrela ere, aurrez sumatuta eta aurrikusita, eta euren burua eta arrazoia ernatuta, ez baititu pasioak gainditzen, (25) pasioa atsegina zein atsekabetsua izan. Sutsuak eta buruberoak dira bereziki, meneratzerik eza jauzkorrerako joera izateagatik meneraezinak direnak, batzuek presarengatik eta besteek suhartasunarengatik ez baitiote arrazoairi eusten, euren irudimenari jarraitzeko joera izateagatik.

VIII

Neurrigabea, esan bezala, ez da damukorra, (30) bere hautapenari eusten baitio; meneraezina, berriz, damukorra da. Horregatik, zailtasuna ez da hasieran azaldu genuena; aitzitik, bata sendaezina da, baina bestea, sendakorra; izan ere, badirudi zitalkeriak zenbait gaixotasunen antza duela, hidropesiarena eta tisiarena, alegia, eta meneratzerik ezak, epilepsiarena, bata gaitza kronikoa baita, eta bestea, berriz, ez. (35) Eta, orokorrean, meneratzerik ezaren generoa eta bizioarena desberdinak dira, bizioa kontzientzia gabea baita, eta meneratzerik eza, ez. (1151a) Gizaki meneraezinen artean, euren onetik aterata daudenak hobeak dira arrazoiari, nahiz eta arrazoia eduki, eusten ez diotenak baino; azken horiek pasio txikiago batek garaitzen baititu, eta ez dihardute, besteek bezala, aurrez hausnartu gabe; izan ere, meneraezina berehala eta ardo gutxiz (5) edo gehienak baino ardo gutxiagoz mozkortzen direnak bezalatsua da. Beraz, agerian dago meneratzerik eza bizioa ez dela (nola edo hala agian bada ere), meneratzerik ezak hautapenaren aurka jotzen baitu, eta bizioak, berriz, hautapenaren arabera; hala ere, ekintzei dagokienez, behintzat, badago antzekotasuna, eta Demodokok miletoarrei esan bezala –miletoarrak ez dira burtzoroak, baina burtzoroek bezala jotzen dute–; (10) meneraezinak ere ez dira zuzengabeak, baina zuzengabekeriak egingo dituzte.

Eta meneraezinak arrazoi zuzenaren aurkako eta gehiegizko gorputz-plazerak bilatzen dituenek, baina ez sinetsita egoteagatik, eta neurrigabeak, berriz, sinetsita bilatzen dituenek, bere izaera horrelakoa izateagatik, meneraezina erraz damutuko da, baina neurrigabea ez; (15) izan ere, bertuteak babestu eta bizioak usteldu egiten dute printzipioa, eta ekintzetan helburua printzipioa da, matematiketan hipotesiak bezala; beraz, han ez da arrazoia printzipioak irakasten dituenak, eta hemen ere ez, berez nahiz usadioz sorturiko bertutea baizik, printzipioari buruz zuzen iriztarazteko arduraduna dena, alegia. Beraz, meneraezina den gizakia (20) neurrizkoa da, eta haren aurkakoa, neurrigabea. Baina badago pasio batengatik bere onetik aterata eta arrazoi zuzenaren aurka jotzen duenik; hori, arrazoi zuzenaren aurka

jokatzeko moduan dago pasioak gaindituta, baina ez aipaturiko plazerak neurririk gabe bilatu behar direla sinetsita egoteko moduan; hau da meneraezina, neurrigabea baino hobe dena, eta zentzu absolutuan ziztrina ez dena, alegia, babesten baitu onena den hori, hau da, printzipioa (25). Horren kontrakoa bestelakoa da, hots, bere erabakiei eutsi eta pasioaren kausa, behintzat, bere onetik aterata ez dagoena. Beraz, agerian dago horietatik aztura bat ona dela, eta bestea, ziztrina.

IX

Beraz, nor izango da meneratua, edozein arrazoiri (30) eta edozein hautapeni eusten diona, ala arrazoi zuzenari eusten diona? Eta meneraezina, inolako hautapen eta inolako arrazoiri eusten ez diona, ala faltsua ez den arrazoiari eta hautapen zuzenari eusten ez diona, zailtasuna hasieran planteatu genuen bezala? Edo, akzidentalki, edozein arrazoi eta hautapen izan daiteke, baina egiazko arrazoiari eta hautapen zuzenari dagokienez bata eutsi egiten die eta (35) besteak ez? Izan ere, baten batek gauza jakin bat beste gauza jakin batengatik (1151b) aukeratzen edo bilatzen badu, hori berez bilatzen eta aukeratzen du; lehenengoa, aldiz, akzidentalki; berez esaten dugunean zentzu absolutuan bilatzen dela esaten dugu; beraz, zentzu batean, bata eutsi eta besteak utzi egiten dio edozein iritziri, baina zentzu absolutuan hitz eginik, egiazko iritziri.

Badira batzuk (5) euren iritziriari eusten diotenak, eta horiei burugogor deitzen diegu; horiek limurtzen nekezak dira eta ez dira iritziz aldatzera erraz limurtzen; horiek badute meneratuaren nolabaiteko antza, zarrastelak eskuzabalarena eta ausartak izukaitzarena bezala, baina gauza askori dagokionez desberdintzen dira; izan ere, bata, meneratua, pasioagatik eta desiragatik ez da iritziz aldatzen, (10) naiz eta, beste arrazoi batzuen bidez, limurtzen erraza izan; besteak, aldiz, ez ditu arrazoiak zuzentzen, desirak, behintzat, hartzen baitituzte, eta plazerez gehienak gidatzen ditu. Burugogorrek dira egoskorrek, ezjakinak eta zarpailak; egoskorrek plazer eta atsekabearengatik dira burugogorrek, garaipenaz gozatzen baitira limurtzen ez direnean, (15) eta atsekabetzen dira euren iritziak baliagabetzen direnean,

dekretuak bailiran; beraz, badirudi egoskorak direnek meneraezinaren antz handiagoa dutela, meneratuarena baino.

Badira batzuk euren iritziei eusten ez dietenak, baina ez meneratzerik ezarengatik, Sofoklesen Filoktetesen Neoptolemo bezala: hala ere, bere iritzia plazeragatik eutsi ez bazion ere, plazer eder batengatik izan zen, egia esatea edertzat hartzen baitzuen, (20) nahiz eta Ulisesez limurtu ere egin zuen gezurra esatera. Izan ere, plazeragatik jokatzeko duena ez da beti, ez neurrigabea, ez ziztrina, ezta meneraezina ere, plazer lotsagarri batengatik egiten ez badu.

Gorputz-plazerez behar dena baino gutxiago gozatzen dena ere badagoenez –eta ez dio, bada, arrazoiari eusten–, (25) honelako gizakiaren eta meneraezinaren arteko erdia meneratua izango da; izan ere, meneraezinak nolabaiteko gehiegikeriagatik ez dio eusten arrazoiari, eta hark, nolabaiteko gabeziagatik; baina meneratuak arrazoiari eusten dio eta ez da okertzen, ez alde batera ez bestera. Eta meneratzea bikaina denez, aurkako bi azturak ziztrinak izango dira derrigor, agerian dagoen bezala; (30) hala ere, horietako aztura bat gizaki gutxirengan eta gutxitan agertzen denez, neurritasuna bakarrik neurrigabekeriaren kontrakoa den bezala, horrela ere, meneratzea meneratzerik ezaren kontrakoa da.

Gauza asko antzekotasunez esaten denez gero, gizaki neurrizkoaren meneratzea ere antzekotasunez ondorioztatzen da, gizaki meneratuak (35) ez baitu gorputz-plazerengatik arrazoiaren kontra ezer egiten, eta gizaki neurrizkoak ere ez; (1152a) baina hark desira ziztrinak ditu eta horrek ez; eta hark ezin du arrazoiaren kontra gozatu, eta horrek bai, plazerak bultzatua ez bada ere. Meneraezina eta neurrigabea ere badira antzekoak, desberdinak izanik; (5) bata eta besteak bilatzen dituzte gorputz-gozamenak, baina bata, bilatu behar dituelakoan, eta besteak, ez.

X

Gizaki berbera aldi berean zuhurra eta meneraezina izatea ezinezkoa da, gizaki zuhurra, aldi berean, aiurri bertutetsua duela demostratu baitugu. Gainera, zuhurra, jakiteagatik ez ezik,

egiteko gai izateagatik ere izaten da zuhurra; meneraezina, oster, ez da egiteko gai; (10) hala ere, ezerk ez du eragozten gizaki trebea meneraezina izatea, eta horregatik, noizean behin, badirudi batzuk zuhurrak eta meneraezinak direla, trebetasuna eta lehenengo liburuetan aipatu den moduko zuhurtzia desberdinak direlako; eta definizioaren arabera hurbilak badira ere, hautapenaren arabera desberdinak dira; egia esan, meneraezina jakin eta ikusten duena bezalakoa ere ez da, (15) lo edo mozkor dagoena bezalakoa baizik. Eta nahita egiten du (nolabait, zer eta zergatik egiten duen baitaki), baina ez da bihozgaiztoa, hautapena zintzoa baita; beraz, erdi-bihozgaiztoa da. Eta ez da zuzengabea, ez baita amarrutsua. Izan ere, batakin ezin diezaieke deliberatu ondoren harturiko erabakiei eutsi, eta besteak, buruberoak, ez du inolaz ere deliberatzen. (20) Horrela, bada, meneraezina da beharrezko erabaki guztiak hartu eta, lege onak izanik ere, hauek erabiltzen ez dituen hiri bezalatsua, Anaxandridesek⁴¹ txantxetan esan zuen bezala:

Erabaki zuen hiriak, legea bost axola zaion hiriak;

Bihozgaiztoa, aldiz, legeak erabiltzen dituen hiri bezalatsua da, baina lege zorrotzak erabiltzen dituen hiri bezalatsua.

(25) Hala ere, meneratzerik eza eta meneratzea, gizaki gehienek azturaren neurria gaintzen duenari buruzkoak dira: meneratuak gizaki gehienek dezaketena baino gehiago eusten baitio arrazoiari, eta menerazinak, berriz, gutxiago.

Meneratzerik ezen artean, buruberoena sendatzen errazagoa da deliberatu ondoren euren erabakiei eusten ez dietenena baino; eta usadioz diren meneraezinena, berez direnena baino, (30) aldatzen errazagoa baita usadioa natura baino; izan ere, naturaren antzekoa izateagatik, usadioa ere bada aldatzen zaila, Evenok ere dioen bezala:

⁴¹ Aristotelesen garaikidea zen poeta komikoa.

Ohitura, denbora luzez aritzea dela diot, laguna, eta azkenean hau, gizonengan, natura bihurtzen dela.

Esana dago, bada, meneratzea zer den, eta zer, meneratzerik eza; eta zer, irmotasuna, eta (35) zer, makalkeria; eta aztura horien artean zer-nolako lotura dagoen.

XI

(1152b) Plazerari eta atsekabeari buruz ikertzea politikagintzaz filosofatzen duenari dagokio; izan ere, hori helburuaren arkitektoa da, helburua zeinari begira gauza bakoitza zentzu absolutuan ona ala txarra dela esaten dugun. Bestalde, hori ere bada aztertu behar ditugun horietako gai bat, bertute eta bizio etikoak atsekabeei eta plazerei buruzkoak (5) direla ezarri baikenuen, eta gehienek esaten dute zoriontasuna plazerarekin batera gertatzen dela; eta horregatik, gizaki dohatsua gozatu⁴² aditzatik eratorritako hitz batez izendatu dute.

Beraz, gizaki batzuen ustez ez dago ongia den inolako plazerik, ez berez, ez akzidentalki, ongia eta plazera gauza bera ez direlakoan. Beste batzuen ustez, berriz, plazer batzuk ongiak dira, baina gehienak txarrak. (10) Badago, bestalde, hirugarren iritzi bat: plazer guztiak onak badira ere, ongi gorena ezin daitekeela plazer bat izan pentsatzen dutenena, hain zuzen.

Beraz, plazera ez da inolaz ere ongia, plazer oro natura baterantz bideratzen den sortze hautemangarria delako, baina sortzeak eta helburuak ez dira kidekoak, etxegintza eta etxea kidekoak ez diren bezala. (15) Gainera, neurrizkoak plazerak saihesten ditu; eta bestalde, zuhurra, atsekaberik ez izatearen bila dabil, ez atsegina denaren bila. Gainera, hausnartzeari begira, plazerak oztopoak dira, gozamina zenbat eta handiagoa izan, oztopoa ere, handiagoa, sexu-plazeretan bezala, horrelakoetan sartuta ez bailiteke inor gogoetan ibil. Gainera, ez dago inolako plazeraren arterik, ongi oro artelana bada ere. Gainera, haurrek (20) eta animaliek plazerak bilatzen dituzte. Plazer guztiak bertutetsuak ez diren adierazle dugu plazer lotsagarriak eta gaitzesgarriak ere badirela, eta, bestalde, plazer kaltegarriak, zenbait plazer

⁴²gr. *makários* (dohatsu) eta *chaírein* (gozatu); grekoen usez *makários málista* (asko) *chaírein* -etik dator.

osasunerako kaltegarriak baitira. Eta ongi gorena plazera ez den adierazle dugu plazera ez dela helburua, sortzea baizik. Beraz, hori da, gutxi gorabehera, plazerari buruz esandakoa.

XII

(25) Hau guztia kontuan hartuta, ez da ondorioztatzen plazera ez denik ongi bat, esta ez ongi gorena ere; hori, gainera, ondoko azalpenotatik argitzen da. Lehendabizi, ongia bi zentzutan esaten denez (bai zentzu absolutuan, bai norbaiten ustez), eta, horren ondorioz, baita giza izaerak eta azturak ere, orduan, mugimenduak eta sortzeak ere esango dira bi zentzutan. Eta ziztrinak diruditen mugimendu eta sortzeen artean, batzuk zentzu absolutuan izango dira ziztrinak, baina zenbait gizakiren ustez agian ez, (30) nahigarriak baizik, eta beste batzuk, inoren ustez ere ez dira nahigarriak izango, baina bai behinola eta denbora gutxirako, baina ez zentzu absolutuan. Beste batzuk, horrelakoak badirudite ere, ez dira plazerak: sendatzeari begira atsekabearekin batera gertatzen diren horiek, gaixoenak, alegia.

Gainera, ongia, alde batetik, jarduera, eta, beste aldetik, aztura denez, gure berezko azturara itzultzen gaituzten jarduerak akzidentalki dira atseginak; (35) eta jarduera desiretan gure gaineratiko azturaren eta naturaren jarduera da, atsekaberik eta desirarik gabeko plazerak ere baitaude, (1153a) begiespen-jardueretan, alegia, natura ezeren beharrearik ez dagoenean. Eta horren adierazle dugu gizakiak ez direla gauza atsegin berberekin gozatzen euren natura osatzen ari denean eta osatuta dagoenean; aitzitik, osatuta dagoenean, zentzu absolutuan diren plazerak gozatzen dira, eta osatzen ari denean, baita aurkakoez ere, (5) gauza garrantzez eta mikatzez gozatzen baitira, horiek, atseginak, ez berez, ez zentzu absolutuan, ez izan arren; beraz, plazerak ere ez, gauza atseginak, euren artean, desberdinak diren bezala, horrela ere, gauza horietatik sortzen diren plazerak ere bai. Gainera, plazera baino hobeagorik ez da zertan izanik, batzuek helburua sortzea baino hobe dela dioten bezala, plazerak ez baitira sortzeak, ezta plazer guztiak sortze batekin batera gertatzen ere, (10) jarduerak eta helburua baizik; eta ez dira sortzen izatera iristen ari garenean, gaitasun batez baliatzen garenean baizik; eta helburua eta plazer guztiak ez dira bestelako ezer,

naturaren hobetzero gidatzen dutenak izan ezik. Horregatik plazera sortze hautemangarria dela esatea ere ez da zuzena; hobeto esan behar da naturaren arabera azturaren jardura dela, (15) eta hautemangarria dela esan beharrean, eragozpenik gabekoa. Batzuen ustez plazera sortze bat da, zentzu hertsian ongi bat delako; izan ere, jardura sortze bat dela pentsatzen dute, baina bestelako zerbait da.

Eta gauza atsegin batzuk osasunerako kaltegarriak direlako, haiek ziztrinak direla argudiatzea, gauza osasungarri batzuk dirua irabazteari begira ziztrinak direlako, ziztrinak direla esatea bezalakoa da; zentzu horretan, egia esan, biak dira ziztrinak, baina ez horregatik, behintzat, (20) begiespen-jarduerak ere, noizean behin, osasunari kalte egiten baitio. Bestalde, aztura bakoitzak sortzen duen plazera ez da oztopo ez zuhurtziarentzat ez beste edozein azturarentzat, plazer arrotzak baizik, pentsatzetik eta ikastetik sortzen diren plazerak gehiago pentsaraziko eta ikastaraziko digute eta. Eta arrazoi sendoak daude esateko ez dagoela artelan den inolako plazerik, (25) ez baitago beste edozein jardueraren arterik, gaitasunarena baizik, bai lurrinen arteak, bai sukaldaritzak, plazer baten arteak badirudite ere. Bestalde, neurrizkoak plazerak saihesten dituen, eta zuhurrak atsekaberik gabeko bizitza bilatzen duen, eta hurrek eta animaliek plazerak bilatzen dituzten argudioei dagokienez, argudio berberaz baliogabetzen dira denak. Izan ere, plazer guztiak zein zentzutan diren onak zentzu absolutuan (30) eta zein zentzutan ez diren onak esana dagoenez, hurrek eta animaliek azken horiek bilatzen dituzte, eta zuhurrak haien atsekabetik askatzea, hots, desirarekin eta atsekabearekin batera gertatzen direnak, eta gorputzenak (gorputzarenak desirarekin eta atsekabearekin batera gertatzen direnetakoak baitira), eta haien gehiegikeriak, hau da, haiek, zeintzuen arabera neurrigabea baita gizaki neurrigabea. Horregatik saihesten ditu neurrizkoak plazer horiek, (35) neurrizkoaren plazerak ere baitaude.

XIII

(1153b) Hala ere, atsekabea gaitz bat dela onartuta dago, eta saihetsi egin behar dela, edo txarra zentzu absolutuan delako, edo, nola edo hala, oztopo bat izateagatik; eta saihestu

behar denaren kontrakoa, saihestu behar den eta txarra den neurrian, ongi bat da. Beraz, plazera nolabaiteko ongi bat izango da, nahitaez. Izan ere, (5) Espeusipok ematen zuen moduko ebazpena ez da ebazpena –esate baterako, plazera atsekabearen kontrakoa dela, handiagoa txikiagoaren eta berdinarekin kontrakoa den bezala–, ezin esan baitezake plazera nolabaiteko gaitz bat den horixe denik. Ezerk ez du eragozten ongi gorena plazer bat izatea, plazer batzuk ziztrinak izan arren, ezaguera bat ere izan daitekeen bezala, batzuk ziztrinak izan arren. Baina, beharrezkoa ere izango da, agian, (10) aztura bakoitzaren jarduerak oztoporik gabekoak baldin badira, zoriontasuna –nahiz eta aztura guztien jarduera edo haietako bat izan, eragozpenik gabekoa baldin bada– gauzarik nahigarriena izatea, eta hori da plazera. Beraz, ongi gorena plazer bat izan liteke, plazer gehienak ziztrinak balira ere, eta, nahi izanez gero, zentzu absolutuan. Eta horregatik ere pentsatzen dute denek bizitza zoriontsua atsegina dela, (15) eta, arrazoi osoz, plazera zoriontasunari lotzen diote, inolako jarduera, oztopoa jasatekotan, ez baita betea, eta zoriontasuna betea den gauzaren bat da; horregatik behar ere izaten ditu gizaki zoriontsuak gorputz-ongiak, eta kanpoko eta zoriaren ongiak, dena delako oztoporik izan ez dezan. Gurrpil-tortura eta malura handiak jasan dituen pertsona, (20) gizaki ona bada, zoriontsua dela etengabe esaten dutenek, nahita ala nahi gabe huskeria besterik ez dute esaten. Bestalde, zoriontasuna zoriaren beharrean egoteagatik, batzuen iritziz zoriontasuna eta zoriona gauza bera dira, gauza bera ez izanik, zoriona ere, neurritz gainekoa bada, zoriontasunerako oztopo bat baita, eta, agian, jadanik ez da zuzena izango zoriona deitzea, bere definizioa (25) zoriontasunarekikoa baita.

Eta, animalia guztiek eta gizakiek plazera bilatzeak adierazten du plazera, nolabait, ongi gorena dela:

Ez da ospe erabat galdua, hori zein herri askok...⁴³

⁴³Hesiodo, *Opera et dies* 763.

Baina, gizaki guztien iritzizko onena den natura eta aztura jakinik (30) ez dagoenez, ezta hori dirudienik ere ez dagoenez, ez dute denek plazer berbera bilatzen, baina, hala ere, denek bilatzen dute plazera. Baina baliteke bilatzen duten plazera ez izatea ez uste dutena, ez esango luketeena, plazer berbera baizik, gauza guztiek jainkozko zerbait baitute berez. Baina, gorputz-plazerak izenaren jabe egin dira, gizaki gehienak haietara hurbiltzen direlako sarritan, (35) eta haietan parte hartzen dutelako; beraz, horiek besterik ez ezagutzeagatik plazer horiek besterik ez dagoela pentsatzen dute.

(1154a) Bestalde, agerian dago plazera eta jarduera ongi bat ez badira, gizaki zoriontsua ez dela atseginik bizi izango; izan ere, zergatik egongo ote zen plazeraren beharrean benetan ongi bat ez bada, eta, aitzitik, atsekabeki ere bizi badaiteke? Izan ere, atsekabea ez da gaizki bat ezta ongi bat ere izango, (5) plazera ere, ez gaizki bat, ez ongi bat ez bada; beraz, zergatik saihesti beharko genuke? Horrela, bada, gizaki bertutetsuaren bizitza ez da batere atseginagoa izango, bere jarduerak ere ez badira atseginak.

XIV

Horrela, bada, gorputz-plazerei dagokionez, plazer batzuk, behintzat, erabat nahigarriak direla baieztatzen dutenek –plazer ederrak, alegia,(10) baina ez gorputzenak eta neurrigabeak bilatzen dituen horiek– aztertu beharko dute, beraz, kontrako atsekabeak zergatik diren dongeak, txarra denaren kontrakoa ona baita. Edo izango dira onak beharrezko plazerak, txarra ez dena ere ona delako? Edo ote dira onak neurri bateraino? Izan ere, gehiegizko ondasunik ez dagoen aztura eta mugimendu horietan, gehiegizko plazerik ere ez dago, (15) eta hura dagoen horietan, gehiegizko plazera ere bai. Baina, gorputz-ongietan gehiegikeria gerta daiteke, eta gizaki ziztrina gehiegikeria bilatzeagatik da ziztrina, eta ez beharrezkoa dena bilatzeagatik, zeren eta denek janariez, arduez eta sexu-harremanez nola edo hala atsegin hartzen baitute, baina ez behar bezala. Baina, atsekabeari dagokionez, kontrakoa gertatzen zaio, ez baitu gehiegikeria saihesten, erabateko atsekabea baizik, (20) gehiegikeriaren aurkako atsekaberik ez baitago, gehiegikeria bilatzen duenarentzat izan ezik.

Baina, egia ez ezik, gezurraren kausa ere esan behar denez –izan ere, horrek sinesteari laguntzen dio, zeren eta egiazkoa ez dena egiazko agertzearen zergatia arrazoi sendoz ikusteak (25) egian gehiago sinestarazten baikaitu–, esan behar dugu, beraz, gorputz-plazerak zergatik agertzen diren nahigarriagoak. Lehenik eta behin, hain zuzen ere, horrela da, gizakiek atsekabea baztertzen dutelako, eta gehiegizko atsekabearengatik, sendabide bat balitz bezala, gizakiek neurriz gaineko plazera bilatzen dute eta, orokorrean, gorputzarena. Baina, sendabideak gogorak dira, (30) eta horregatik bilatu ere egiten dira, euren kontrakoaren ondoan nabarmen agertzen direlako. Eta, esana dagoenez, plazera ez omen da ona, jakina, bi arrazoi hauengatik: bata, plazer batzuk natura ziztrinaren ekintzak direlako (nahiz sortzetikoa, animaliarena bezala, zein ohiturazkoa, gizaki ziztrinena bezala), bestea, beste batzuk behar baten sendabideak direlako, eta izatea izatera iristeko bidean egotea baino hobea da; (1154b) azken sendabide horiek gertatzen dira gizakiak lehenerazten ari direnean, beraz, akzidentalki dira onak. Bestalde, gainerako plazerez goatzeko gai ez diren gizakiek plazer gogorak bilatzen dituzte, horiek gogorak izateagatik, eta, hortaz, horiek beraiek hornitzen dute beren burua egarri moduko horrezaz. Horrela, bada, kaltegarriak ez direnean, ez da gaitzesgarria, baina (5) kaltegarriak direnean, ziztrina da. Izan ere, goatzeko beste ezer ez dute, eta gehienentzat euren naturagatik, erdiko terminoa atsekabetsua da; izan ere, izaki biziduna etengabeko atezuan dago, fisiologoek ere adierazten duten bezala ikustea eta entzutea atsekabetsuak direla esaten dutenean; baina, diotenez, ohituta gaude dagoeneko. Halaber, (10) gaztaroen, hazkuntzarengatik, gazteak mozkor baleude bezala daude, eta gaztaroa atseгина da. Buruberoak berez direnak sendabide baten beharrean daude beti, euren gorputza, euren jitearen ondorioz, xaxaturik eta gogo bortitzek hartuta baitago beti; baina, kontrako eta ustekabeko plazer batek, bizia bada, atsekabea kanporatzen du, eta (15) gizaki horiek horregatik bihurtzen dira neurrigabeak eta ziztrinak.

Atsekaberik gabeko plazerek ez dute gehiegikeriarik, eta horiek berez eta ez akzidentalki atseginak diren gauzek sortuak dira. Atsegina akzidentalki esaten diot sendatu egiten duenari; izan ere, osasuntsu irauten duen aldeak sortutako zerbaiten ondorioz

sendatzea gertatzen da, eta horregatik dirudi atsegina; (20) eta atsegina berez, horrelako naturaren ekintza sortzen duenari.

Guretzat, gauza berbera ez da beti atsegina, gure natura bakuna ez delako; aitzitik, gure baitan bestelako zerbait ere badago, hilkorrek garen aldetik; horren ondorioz, gure naturaren alde batek zerbait egiten badu, horrek gure naturaren beste aldearen kontra joko du; baina orekatzen direnean, horrek sortutakoa ez omen da ez atsekabea ez atsegina; izan ere, (25) norbaiten natura bakuna balitz, ekintza berbera izango litzateke beti atseginena. Horregatik, jainkoa plazer bakar batez eta bakunaz gozatzen da beti, mugimenduaren jarduera ez ezik, gelditasunaren jarduera ere baitago, eta plazera atsedenean dago neurri handiagoan, mugimenduan baino. Gauza guztietan aldaketa goxoa da, poetak dioenez⁴⁴, nolabaiteko bihozgaiztakeria batengatik, (30) gizaki bihozgaiztoa aldakorra den bezala, horrela ere aldaketaren beharrean dagoen natura, hori ez baita ez bakuna ez zintzoa.

Horrela, bada, meneratzeaz eta meneratzerik ezaz, eta plazeraz eta atsekabeaz mintzatu da, eta esana dago bakoitza zer den, eta nola diren onak haietako batzuk eta txarrak besteak. Oraindanik adiskidetasunaz mintzatuko gara.

⁴⁴Euripides, *Orestes* 234.

ZORTZIGARREN LIBURUA

I

(1155a) Horren ondoren, jarrai genezake adiskidetasunari buruz ikertzen, bertute bat edo bertutearekin batera gertatzen den zerbait baita, eta, gainera, bizitzarako beharrezkoena. (5) Izan ere, adiskiderik gabe inork ez luke bizi nahi izango, gainerako ondasun guztiak edukita ere. Badirudi, bestalde, aberatsek, agintariak eta boteretsuek, batik bat, adiskideen beharra dutela. Izan ere, zertarako balio ote du horrelako ugaritasunak onura egiteko ahalmena gabetuz gero, hots, bereziki eta modu goragarrien lagunekiko sortzen dena? Edo, nola jagon (10) eta gorde liteke ugaritasuna adiskiderik gabe? Izan ere, ugaritasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta haren segurtasuna txikiagoa da. Pobrezian eta gainerako zorigaitzetan, babesa bakarra adiskideak direlakoan gaude; gazteek akatsez babesteko behar dituzte; zaharrek, beren zaintzarako eta ekintzarako ahultasunak dakarren gabezia osatzeko; eta adinaren lorean daudenek, (15) ekintza ederrak egiteko. Biak elkarrekin doazelarik: izan ere, pentsatzeko eta ekintzak aurrera eramateko gaitasun handiagoa dute horiek.

Eta badirudi seme-alabekiko adiskidetasuna aitarengan berez dagoela, eta aitarekikoa seme-alabengan, ez bakarrik gizakien artean: hegaztien artean eta animalia gehienek artean, baita espezie bereko kideen artean ere badago elkarrekiko adiskidetasuna, eta, bereziki, gizakien artean; (20) horregatik goraiatzeko ditugu filantropoak. Eta bidaietan ere ikus daiteke zein hurbila eta laguna den gizaki oro gizakientzat. Eta badirudi adiskidetasunak baita hiriei ere eusten diela bilduta, eta legegileek hari dagokionez zuzentasunari dagokionez baino ahalegin handiagoak egiten dituztela, adostasuna adiskidetasunaren antzeko zerbait (25) omen baita, eta harekiko joera dute bereziki, eta etsaikeria den asaldura, berriz, kanporatzeko ahaleginak egiten dituzte bereziki. Eta, gizakiak lagunak direnean, zuzentasunaren beharrik ez dago, baina, zuzenak izanda ere, adiskidetasunaren premia ere badute, eta badirudi zuzenak direla lagunkoienak. Baina adiskidetasuna beharrezkoa ez ezik, ederra ere bada; izan ere, bere

adiskideak maite dituztenak goraipatzen ditugu, (30) eta adiskide asko edukitzea gauza onenetariko bat dela iruditzen zaigu, eta, bestalde, gizaki onak eta adiskideak gauza bera diragure ustez.

Bestalde, adiskidetasunaren inguruko eztabaidak ez dira gutxi. Izan ere, batzuek nolabaiteko antzekotasuntzat hartzen dute, eta antzekoak direnak adiskidetzat hartzen direla; horregatik esaten da antzekoak antzekoekin⁴⁵, eta ipar-belea (35) ipar-belearen bila⁴⁶ dabil eta horrelako esaerak; beste batzuek, oster, esaten dute antzekoak diren guztiek, elkarrekin daudenean, (1155b) eltzegileek bezala eztabaidatzen dutela⁴⁷. Eta kontu horiei beraiei buruz azalpen altuago eta zientifikoagoak ere bilatzen dira, Euripidesek bezala, honakoa esaten duenean: lur lehortuak euria maitatzen du, eta euriz beteriko zeru goitarrak lurlean erortzea⁴⁸; eta Heraklitok: (5) aurkakoa dena da komenigarria, eta harmoniarik ederrena elementu desberdinetatik sortzen da, eta gauza oro liskarraren arabera sortzen da⁴⁹. Beste batzuek kontrako iritziak dituzte, Empedoklesek bezala, honakoa esaten baitu: antzekoak antzekorako joera du⁵⁰. Baina utz ditzagun eztabaidagai zientifikoak (ez baitagozkio oraingo ikerketari), eta azter ditzagun giza gaiak, eta (10) aiurriei eta pasioei dagozkien horiek guztiak; adibidez, adiskidetasuna gizaki guztiengan gertatzen den ala zitalak direnek ezin duten adiskideak izan; eta adiskidetasuna espezie bakarra den ala espezie bat baino gehiago. Izan ere, gehiago eta gutxiago onartzen dituelako bakar bat dela pentsatzen dutenak egokia ez den adierazgarri batez fidatzen dira, espezieari dagokionez desberdinak diren gauzek ere gehiago eta gutxiago onartzen baitituzte. Baina, (15) honi guztiari buruz dagoeneko mintzatu gara lehenago.

II

⁴⁵Homero, *Odyssea* XVII 218.

⁴⁶Demokrito, frag. 184 (Diels-Krantz).

⁴⁷Hesiodo, *Opera et dies* 25-26.

⁴⁸Euripidisen tragedia galdu baten lerroa, frag. 898 (Nauck)

⁴⁹Heraklito, frag. 8 eta 80 (Diels-Krantz).

⁵⁰Empedokles, frag. 62 (Diels-Krantz).

Gai horiek agian argituko lirateke adiskidetzea merezi duena ezagututa gero. Izan ere, badirudi gauza oro ez dela maitatzen, maitagarria dena baizik, eta hori ona edo gozoa edo onuragarria dela. Eta pentsa liteke (20) onuragarria ongi baten edo plazer baten sorburua dela; maitagarria dena, beraz, ona dena eta atsegina dena litzateke, helburuak diren neurrian. Hala ere, zer maitatzen dute gizakiek, ona dena ala haientzat ona dena? Izan ere, gauza horiek batzuetan ez dira egokitzen, eta berdin atsegina denari dagokionez ere. Eta badirudi bakoitzak bere buruarentzat ona dena maitatzen duela, eta, zentzu absolutuan, ona dena maitagarria bada ere, bestalde, bakoitzarentzat, bakoitzaren ona dena dela; (25) eta bakoitzak maitatzen du ez berarentzat ona dena, on irudia duena baizik. Baina ez du axola, maitagarria on irudia duena izango baita.

Gizakiek maitatzeko arrazoiak hiru izanik, gauza bizigabeekiko estimuari ez zaio adiskidetasuna esaten, ez baitago elkarrekiko estimurik, ezta objektuarentzako ongiaren gogoia ere (ardoarentzako ongia opa izatea, jakina, barregarria bailitzateke, (30) ardoa kontserbatzea nahi ez bada, ardoa edukitzeko); baina esaten dugu, oster, adiskidearen ongia adiskidearengatik berarengatik nahi izan behar dela. Baina besteen ongia horrela nahi izaten dutenei borondatetsuak esaten diegu besteen aldetik ere sentimendu berbera gertatzen ez bada, borondate ona elkarrekikoa izaten denean adiskidetasuna baita. Edo, erantsi behar dugu borondate ona oharkabea pasatzen ez denean? Izan ere, (35) gizaki asko ikusi ez dituztenekiko borondatetsuak dira, baina pentsatzen dute (1156a) zintzoak edo onuragarriak direla; eta horietako batek ere sentimendu berbera lezake beste haiekiko. Beraz, agerian dago gizaki horiek elkarrekiko borondate ona dutela; baina, nola dei liezaiekete adiskide, beraiekiko besteen jarrera oharkabea pasatzen bazaie? Beraz, elkarrekiko borondate ona izan behar da, eta elkarrekiko ongia oharkabea pasa gabe nahi izan behar dute (5) aipaturiko arrazoi jakin batengatik.

Hala ere, arrazoi horiek elkarren artean desberdinak dira espeziari dagokionez, eta, horren ondorioz, estimuak eta adiskidetasunak ere bai. Beraz, adiskidetasun espezieak hiru dira, gauza maitagarri bezainbeste; izan ere, espezie bakoitzaren elkarrekikotasuna ezaguna da, eta elkar maite dutenek elkarrentzako ongia nahi izaten dute (10) elkar maite duten moduan. Beraz, beren onurarako elkar maite dutenek ez dute haiengatik beraingatik elkar maite, elkarrengandik onura lor dezaketen neurrian baizik. Eta berdin gertatzen da plazerarengatik elkar maite dutenekin ere, gatzdunei estimua baitiete ez horrelakoak izateagatik, atsegintzat hartzen dituztelako baizik. Beraz, onuragatik elkar maite dutenek haientzat beraientzat (15) atsegina denarengatik maite dute elkar, eta plazerarengatik elkar maite dutenek, euren atseginagatik, eta bakoitza ez da maitatua bera denarengatik, onuragarria edo atsegina denarengatik baizik. Beraz, adiskidetasun horiek akzidentalak dira, ez baita maitatua bere izaerarengatik maitatua, batzuek onura eta besteek plazera ematen dutelako baizik. Izan ere, horrelako adiskidetasunak erraz deuseztatzen dira, (20) haiek berdin irauten ez badute; izan ere, dagoeneko ez dira atseginak edo onuragarriak, elkar maitatzeari uzten diote.

Onuragarria denak ere ez du aldaketak jasan gabe irauten; aitzitik, zenbaitetan gauza bat da, beste zenbaitetan beste bat. Beraz, adiskideak izateko arrazoia deuseztatuz gero, adiskidetasuna ere desagertzen da, adiskidetasuna helburu horri zuzendua baitzen. Badirudi horrelako adiskidetasuna zaharren artean (25) gertatzen dela gehienbat (adin horretan ez baita atsegina dena bilatzen, mesedegarria dena baizik), eta helduen eta adinaren lorean daudenetan eta euren atarramentu ona bilatzen duten gazte guztien artean. Horrelako lagunek ez dute denbora luzean elkarrekin bizi izaten, batzuetan ez baitira ezta elkarrekiko atseginak ere; egia esan, horrelako harremanaren beharrik ere ez dute mesedegarriak ez baldin badira, atseginak baitira (30) ongi baten itxaropenak dituzten neurrian. Adiskidetasun hauetan kanpotarrekiko abegia ere sartzen da. Gazteen arteko adiskidetasuna, aldiz, plazeragatik omen da, horiek pasioaren arabera bizi izaten baitira, eta batez ere eurentzako atsegina dena eta oraingoa dena bilatzen dute; baina, adina aldatu ahala, atsegin dituzten gauzak ere aldatzen dira. Horregatik,

gazteak berehala egiten dira lagunak (35) eta berehala uzten diote lagunak izateari, adiskidetasuna plazerarekin batera aldatzen baita, (1156b) eta horrelako plazera azkar aldatzen da. Gazteak maitaberak ere badira, amodioaren alderik handiena pasioaren arabera eta plazerarengatik sortzen baita; horregatik, hain zuzen ere, maitatzen eta maitatzeari uzten diote, egunean zehar ere oso maiz aldatuz. Hala ere, hauek elkarrekin nahi dituzte egunak igaro eta bizi, (5) beren adiskidetasunaren xedea horrela sortzen baita.

Baina adiskidetasun betea, gizaki onen eta bertuteari dagokionez antzekoak diren gizakiena da, gizakiok elkarrentzako ongia nahi izaten baitute, onak diren eta onak berez diren aldetik. Eta lagunarentzako ongia haiengatik beraingatik nahi izaten dutenak adiskide onenak dira, azken horiek (10) horrelakoak izateagatik berez baitira adiskideak, eta ez akzidentalki; beraz, onak diren bitartean horien arteko adiskidetasunak iraun egiten du, eta bertutea egonkorra da. Eta horietako bakoitza ona da zentzu absolutuan eta ona ere adiskidearentzat, onak direnak, onak baitira zentzu absolutuan eta elkarrenganako, mesedegarriak; eta, halaber, atseginak ere bai, (15) zentzu absolutuan onak direnak elkarrentzako atseginak ere baitira. Izan ere, gizaki bakoitzak bere jarduera bereziak eta antzekoak ditu atseginak, eta gizaki onen jarduerak berdinak edo antzekoak dira. Eta horrelako adiskidetasuna egonkorra izatea arrazoizkoa da, adiskideek eduki behar ditugun ezaugarri guztiak biltzen baitira horren baitan. Izan ere, adiskidetasun oro ongi batengatik (20) edo plazer batengatik da, zentzu absolutuan, edo maite duenarentzat, eta nolabaiteko antzekotasunaren arabera; eta aipaturiko ezaugarri guztiak adiskidetasun horretan biltzen dira adiskideen beraien izaeraren arabera, adiskidetasun horretan adiskideak ez ezik, gainerako gauzak ere antzekoak baitira, eta zentzu absolutuan ona dena zentzu absolutuan atsegina ere bada, eta gauza horiek maitagarrienak dira; beraz, bai maitatzea bai adiskidetasuna adiskide horiengan dira gorenak eta bikainak.

Horrelako adiskidetasunak, jakina, (25) urriak dira, horrelako gizakiak gutxi baitira. Gainera, denbora eta tratua behar dira, zeren eta, errefrauak dioenez, gizakiek ezin baitezakete elkar ezagutu gatza ugaria elkarrekin jan aurretik, ezta adiskideak direla onartu

ere elkarrekiko maitagarri azaldu eta konfiantza bereganatu arte. Elkarrekiko adiskidetasuna bizkor (30) adierazten dutenek adiskideak izan nahi dute, baina ez dira, maitagarriak ere ez baldin badira eta hori ez baldin badakite, adiskidetasunaren gogoia berehala sortzen baita, baina adiskidetasuna, ez.

IV

Beraz, adiskidetasun hori, denborari eta gainerako guztiari dagokionez, betea da; eta gauza guztiei dagokienez berdintasuna dago, eta elkarrengandik antzeko onurak erdiesten dituzte, (35) adiskideen artean gertatu behar bezala, hain zuzen. (1157a) Eta plazerarengatik den adiskidetasunak horren antza du, onak direnak elkarrekiko atseginak ere baitira; eta berdin onurarengatik dena ere, onak direnak elkarrekiko onuragarriak ere baitira. Eta gizaki horien artean bereziki, adiskidetasunak iraunkorrak dira adiskideek elkarrengandik gauza bera jasotzen dutenean, (5) plazera, alegia; eta ez hori bakarrik: plazeraren sorburua gauza bereberean denean ere bai, gatzdunak direnen arteko adiskidetasunean gertatu bezala, baina ez maitalearen eta maitatuaren artekoan bezala. Izan ere, horiek ez dute gauza berberetan atsegin hartzen, batak bestea ikustean eta besteak maitalearen adeitasunean baizik; eta edertasuna galtzen denean batzuetan adiskidetasuna ere galtzen da (batarentzat bestea ikustea ez baita dagoeneko atsegina, (10) eta besteak ere ez du adeitasunik jasotzen); baina gizaki askok, beren aldetik, adiskide irauten dute, harremanen ondorioz elkarren aiurriak maite dituztenean, antzeko aiurria dute eta. Amodiozko harremanetan elkarri onura, ez plazera, ematen diotenak ez dira hain adiskide, eta euren adiskidetasuna laburragoa da. Eta adiskideak onurarengatik direnek elkarren komenientzia bukatutakoan (15) desegiten dituzte harremanak, ez baitziren elkarren adiskideak, onurarenak baizik. Beraz, plazerarengatik eta onurarengatik, gizaki ziztrinak ere elkarren adiskideak izan daitezke, baita gizaki zintzoak eta ziztrinak ere, eta ez bata ez bestea ez dena edozeinen adiskidea izan daiteke, baina agerian dago haiengatik beraiegatik onak direnak, eta beste inor ezin daitekeela adiskidea izan, gaiztoek ez baitute haietaz beraiez atsegin hartzen, (20) nolabaiteko etekinik gertatzen ez

bada. Eta gizaki onen arteko adiskidetasuna bakarrik dago kalumniatik kanpo, inork ez baitu erraz sinesten berak denbora luzean probatu duen adiskideari buruz beste batek esandakoa. Onak direnen artean konfiantza ere badago eta zuzengabekeriarik inolaz ere, eta benetako adiskidetasunak dituen gainerako duin guztiak ere bai. Baina, beste adiskidetasunetan (25) ezerk ez du eragozten horrelako zuzengabekeriak gertatzea.

Baina, gizakiek onurarengatik direnei ere lagunak deitzen dietenez, hiri-estatuak egiten duten bezalaxe (badirudi, hain zuzen ere, hiri-estatuak arteko aliantzak komenientziagatik sortzen direla), eta plazerarengatik elkar maite duten horiei ere bai, umeei egiten duten bezalaxe, agian guk ere lagunak deitu beharko diegu, eta adiskidetasun-espezia bat baino gehiago dagoela esan: adiera lehen (30) eta hertsienean, onak diren gizakia, onak diren neurrian, eta gainerakoak, berriz, antzekotasunaz, horrelako adiskidetasunetan zerbait on eta antzeko zerbait dagoen neurrian, adiskideak izango baitira, atsegina dena ere ona baita plazerarengatik adiskideak direnentzat. Baina adiskidetasun horiek inolaz ez dira batera gertatzen, eta gizaki berberak ez omen dira lagunak onuragatik (35) eta plazeragatik, biengatik batera, akzidentala dena ez baita inolaz ere elkartzen.

(1157b) Adiskidetasuna espezia horietan banaturik, ziztrinak onurarengatik edo plazerarengatik izango dira lagunak, horretan antzekoak izanik; onak direnak, aldiz, horiexengatik izango dira adiskideak, onak diren neurrian izango direlako. Onak direnak, beraz, adiskideak dira zentzu absolutuan, eta ziztrinak direnak, aldiz, akzidentalki (5) eta haien antza izateagatik.

V

Bertuteei dagokionez, gizaki batzuei azturaren arabera onak esaten zaie, eta beste batzuei jardueraren arabera; egia esan, horrela ere adiskidetasunari dagokionez, elkarrekin bizi direnek elkar atsegin eta elkarri ondasunak ematen dizkiote; lo edo lekuz urruti daudenek, berriz, ez dute adiskidetasunean jarduten, baina egoera egokia dute (10) adiskidetasunez jarduteko, distantziak ez baitu adiskidetasun absolutua deuseztatzen, bere jardutea baizik.

Baina, urrunaldia luzea bada, badirudi adiskidetasuna ere ahaztu egiten dela, eta horregatik esaten da honako hau: harremanik ezak adiskidetasun asko deuseztatzen du⁵¹. Eta badirudi ez gizaki zaharrak ez gizaki garratzek ez dutela adiskidetasunerako joerarik, (15) gizaki horiengan aurkitu daitekeen plazera txikia baita, eta inork ezin dezake denbora luze igaro gizaki goibel edo gizaki ezatsegin batekin, agerian baitago naturak goibela dena bereziki saihestu eta atsegina denerako joera duela. Elkar onartzen dutenak baina elkarrekin bizi ez izanik, lagunak baino borondatetsuak dirudite, adiskideei berez ezer ez baitagokie elkarrekin bizi izatea baino gehiago (20) (laguntza, hain zuzen ere, behartsuek irrikatzen dute; eta egunak elkarrekin igarotzea, baita dohatsuek ere, horiei inolaz ere ez baitagokie bakartiak izatea); baina, gizakiek ezin dezakete denbora elkarrekin igaro elkarrekiko atseginak izan ezean eta gauza berberetzat jotzen ez badira, hain zuzen ere, adiskidetasunak omen duena.

(25) Beraz, onen arteko adiskidetasuna da gorena, maiz esan den bezala, zentzu absolutuan ona edo atsegina dena maitagarria eta nahigarria omen baita, eta bakoitzarentzat, berarentzat horrelakoa dena; eta ona dena ona denarentzat maitagarria eta nahigarria da bi arrazoiengatik. Hala ere, estimuak pasio baten antza du, eta adiskidetasunak, aztura batena, estimua (30) bizigabeekikoa ere baita, baina elkarrekiko adiskidetasuna hautapenarekin batera doa, eta hautapenak aztura batean du jatorria; eta elkar maite dutenek bestearen ongia nahi izaten dute bestearengatik berarengatik, eta ez grina bati jarraiki, aztura bati baizik. Eta adiskidea maitatzean euren ongia maite dute, gizaki ona norbaiten adiskide bihurtzen denean, harentzat ongi bat bihurtzen baita. Bakoitzak, beraz, (35) berarentzat ona dena maite du, eta gauza bera itzultzen du gogoari eta plazerari dagokienez; izan ere, adiskidetasuna berdintasuna dela esaten da; (1158a) eta hori, gehienbat, gizaki onen adiskidetasunean gertatzen da.

VI

⁵¹ Olerkari ezezagun baten lerroa.

Gizaki zaharren artean eta gizaki garratzen artean adiskidetasuna txikiagoa da, moldakaitzagoak diren eta giza harremanetan atsegin gutxiago hartzen duten neurrian, horiek omen baitira bereziki adiskidetasunari dagozkionak eta adiskidetasunaren sortzaileak direnak. Horregatik, (5) gazteak berehala egiten dira adiskideak, baina zaharrak ez, atsegin hartzen ez duten horietan ez baitira adiskidetzen; eta horrexegatik, garratzak ere ez. Hala ere, horrelako gizakiak borondatetsuak dira elkarrekiko, elkarrentzako ongia nahi izan eta elkarren beharrei erantzuten baitiete; baina ez dira erabat adiskideak, egunak elkarrekin igarotzen ez dituztelako eta atsegin hartzen ez dutelako, (10) horiek adiskidetasunari bereziki omen dagozkien ezaugarriak direlarik, alegia.

Baina ezin daiteke adiskide asko eduki adiskidetasun betearen arabera, gizaki askorekin batera maiteminduta egon ere ezin daitekeen bezala (gehiegikeria baitirudi, eta horrelako pasioa gizaki bakar batekikoa da berez); eta ez da erraza gizaki askok gizaki bati berari batera eta izugarri gustatzea, eta, agian, ez gizaki berarentzat onak izatea ere ez. Hala ere, adiskidetasunaren esperientzia (15) eta harreman estua ere erdietsi behar da, baina hori oso zaila da. Baina, onurarengatik eta plazerarengatik gizaki askori gusta dakioke, horrelako gizakiak asko baitira, eta euren mesedeak, denbora laburrerako. Biotan, plazerarengatik den adiskidetasunak adiskidetasun betearen antza handiagoa du, elkarri gauza bera ematen diotenean eta elkarrengandik edo gauzetan beraietan atsegin hartzen dutenean, (20) gazteen adiskidetasunak diren bezala, adiskidetasun horietan eskuzabaltasun handiagoa baitago. Onurarengatik den adiskidetasuna, oster, merkatariena da. Eta dohatsuek ez dute batere gauza onuragarririk behar, baina bai atseginak, batzuekin elkarrekin bizi nahi baitute, baina atsekabetsua dutena denbora gutxiz jasaten dute; hala ere, inork ez luke etengabe jasango, (25) ongia bera izanda ere, harentzat atsekabetsua balitz. Horregatik bilatzen dituzte adiskide atseginak; eta atseginak direnak, agian, onak ere izan beharko lirateke –eta, gainera, onak haientzat– horrela, adiskideei eskatzen zaizkien ezaugarri guztiak edukiko baitituzte.

Boterean daudenak mota desberdineko adiskideez baliatzen omen dira, batzuk onuragarriak eta beste batzuk atseginak baitira; baina batzuk eta besteak ez dira inondik inora

gizaki berberak, (30) ez baitituzte bilatzen ez bertutetsuak diren gizaki atseginak ezta xede ederretarako gizaki onuragarriak ere; aitzitik, batzuek gatzdunak –plazererako joera dutenak– bilatzen dituzte, eta beste batzuek, agindutakoa betetzeko iaioak, eta bi ezaugarriok gizaki berarengan nekez gertatzen dira. Eta esana dago aldi berean atsegina eta onuragarria gizaki bertutetsua dela, baina horrelako gizakia ez da bere gainetik dagoenarekin adiskidetzen, (35) bertutean ere gainditzen ez badu; horrela ez bada, menpean dagoenak ezin du berdintasun batera iritsi; eta horrelako gizakiak oso gutxitan aurkitu ohi dira.

(1158b) Beraz, aipaturiko adiskidetasunak berdintasunean dautza; izan ere, bi adiskidek gauza bera ematen diote elkarri eta gauza bera nahi izaten diote, edo zerbait beste zerbaiten truke aldatzen diote, plazera etekinen truke, alegia; baina esana dago, bestalde, adiskidetasun horiek askoz ere gutxiagotan gertatu eta gutxiago irauten dutela. (5) Eta xedearen beraren antzekotasunarengatik eta ez-antzekotasunarengatik adiskidetasunak dirudite ala ez, bertutearen araberako adiskidetasunaren antzekotasunaz adiskidetasunak baitirudite (adiskidetasun batek plazera baitu eta besteak onura, eta bi horiek adiskidetasun hartan ere gertatzen dira); baina, beste aldetik, bertutearen araberako adiskidetasuna kalumniarik gabea eta iraunkorra den aldetik, (10) eta adiskidetasun horiek berehala aldatu eta beste gauza askotan ere desberdinak diren aldetik, harekiko ez-antzekotasunarengatik ez dirudite adiskidetasunak.

VII

Badago beste adiskidetasun espezie bat, nagusitasunaren araberakoa, hain zuzen, semearekiko aitarena bezala eta, orokorrean, gazteekiko zaharrena, eta emaztearekiko senarrarena eta aginpekoekiko agintari ororena. Baina, adiskidetasun horiek euren artean ere desberdinak dira, seme-alabekiko gurasoena eta aginpekoekiko agintariena ez baitira adiskidetasun bera, (15) baina semearekiko aitarena eta aitarekiko semearena ere ez, ezta emaztearekiko senarrarena eta senarrarekiko emaztearena ere. Izan ere, gizakiotako bakoitzaren bertutea eta eginkizuna desberdinak dira, eta maitatzeko arrazoiak ere bai; beraz,

bai estimuak eta adiskidetasunak ere desberdinak dira. (20) Izan ere, ez dute elkarrengandik gauza berbera erdiesten, eta ez dute eskatu behar; baina seme-alabok sortu gaituztenei zor dieguna gurasoei ematean, eta gurasoek seme-alabei zor zaiena, horrelako gizakien adiskidetasuna ona eta iraunkorra izango da. Eta nagusitasunaren arabera adiskidetasun guztietan estimua ere zerbait proportzionala (25) izan behar da; adibidez, gizaki hobea, maitatu baino, maitatua izan behar da, eta berdin gizaki onuragarriagoa eta gainerako kasu bakoitzean ere, zeren eta, estimua merezimenduaren arabera denean, orduan, nola edo hala, berdintasuna sortzen baita, eta hori, hain zuzen ere, adiskidetasunari omen dagokio berez.

Hala ere, ez dirudi berdintasun bera denik zuzentasunean eta adiskidetasunean, (30) berdintasuna zuzentasunean, lehenengo eta behin, merezimenduaren arabera baita, eta, bigarrenean, kantitatearen arabera; adiskidetasunean, berriz, lehenengo eta behin, kantitatearen arabera, eta, bigarrenean, merezimenduaren arabera. Eta agerian dago bertutean, edo bizioan, edo ongizatean, edo beste edozertan alde handia gertatzen denean, orduan adiskide izateari uzten diotela, eta ez du adiskide izatea ere merezi. (35) Hori oso nabaria da jainkoen artean, horiek, ezaugarri on guztietan, nagusiak baitira; (1159a) eta agerian dago baita erregeen artean ere, erregeen oso menpe daudenek ere ez baitute uste horien adiskideak izan daitezkeenik, ezta gorenen eta jakintsuenen adiskideak izan inolako merezimendurik ez dutenek ere. Beraz, horrelako kasuetan ez dago muga zehatzik adiskidetasuna noraino irits daitekeen adierazteko, gauza asko gabetuta ere, adiskidetasunak oraindik ere iraun baitezake; (5) baina tartea handia baldin bada –jainko batengandik, alegia– adiskidetasunik jadanik ez. Hortik zailtasun bat sortzen da: ea adiskideek ez ote dituzten ongirik handienak adiskideentzat nahi izaten, jainkoak izan daitezela, alegia, harrezkero ez baitira haien adiskideak izango ezta, beraz, haientzat ongi bat ere, adiskideak ongi bat baitira. Beraz, ongi esana badago adiskideak adiskidearentzat ongi nahi izaten duela adiskidearengatik berarengatik, (10) adiskide horrek lehen bezalakoa izaten iraun beharko

du; beraz, gizakia izaten jarraituz gero, hark ongi handienak opa izango dizkio. Baina agian ez ongi guztiak, gehienbat nork beretzat nahi izaten baitu ongia.

VIII

Badirudi gizaki gehienek, handinahikeriak bultzaturik, nahiago dutela besteek maitatuak izan, beraiek besteak maitatu baino; gehienei horregatik gustatzen zaizkie losintxak, losintxaria menpeko adiskide bat baita, (15) edo sasiadiskidea, eta maitatuarena baino, maite duenarena egiten du; eta badirudi maitatua izatea ohoratua izatearen oso antzekoa dela, eta horretarako joera da, hain zuzen ere, gehienena. Baina ez dirudi ohorea ohorearengatik berarengatik aukeratzeko dutenik, akzidentalki baizik, boterean dauden gehienek ohoreak lortzearen itxaropenean hartzen baitute atsegin (20) (zerbaiten beharra izanez gero haiengandik erdietsiko dutela pentsatzen baitute; beraz, ohorean atsegin hartzen dute, hori espero duten mesede baten adierazle delakoan); gizaki zintzoek eta jakintsuek ohoratzea nahi izaten dutenak, berriz, haiei beraiei buruzko iritzi handia indartzeko jomuga dute; beraz, onak direla esaten dietenen aburuari jarraituz onak izatea atsegin dute. (25) Hala ere, gizakiek maitatuak izatea maitasunarengatik beragatik atsegin dute; horregatik pentsa liteke maitatua izatea ohoreak lortzea baino hobea dela eta adiskidetasuna berez dela nahigarria. Baina badirudi adiskidetasuna maitatua izatean baino maitatzean datzala. Eta horren adierazle dugu amek atsegin dutela maitatzea, batzuek euren seme-alabak eman egiten baitituzte besteek haz ditzaten, eta haiei buruz zerbait baldin badakite, etengabe maite dituzte, (30) haiek maitatuak izatea bilatu gabe, biak batera ezinezkoa bada; aitzitik, badirudi nahikoa dutela seme-alabak zoriontsu ikusten badituzte, eta maite dituzte nahiz eta seme-alabek, ama ez ezagutzeagatik, ama bati zor zaiona ematen ez dioten. Eta adiskidetasuna, neurri handiagoan, maitatzean datzanez eta adiskideak maite dituen goraipatzen dugunez, (35) badirudi maitasuna adiskideen bertutea dela; beraz, merezimenduaren arabera maitasuna duten gizakiak (1159b) adiskide sendoak dira, eta haien arteko adiskidetasuna ere bai.

Eta bereziki horrela, desberdinak direnak ere adiskideak izan daitezke, berdintzera hel baitaitezke; eta berdintasuna eta antzekotasuna adiskidetasuna dira, bertuteari dagokionez berdinak direnen berdintasuna gehienbat, horiek sendoak direnez, bai euren buruarekiko bai elkarrekiko berdin irauten baitute, (5) eta ez diote elkarri ezer ziztririk eskatzen, ezta horrelakorik egiten ere; aitzitik, nolabait esateko, elkarri eragozten dizkiote horrelakoak, gizaki onak ez baitira okertzen, eta ez diete lagunei uzten okertzen. Zitalak direnek, berriz, ez dute irmotasunik, haiekiko beraiekiko ere berdin irauten ez baitute; denbora laburrez egiten dira adiskide, (10) elkarren zitalkeriaz atsegin hartuz. Bestalde, onuragarriak eta atseginak direnen adiskidetasunak denbora luzeagoz irauten du, elkarri plazera edo etekinak erdiesten dizkioten bitartean irauten baitu. Onuragatik den adiskidetasuna, batez ere, aurkakoen artean sortzen omen da, behartsuaren eta aberatsaren artean, edo ezjakinaren eta jakintsuaren artean, alegia, halabeharrez zerbaiten premia duenak hori lortzeko joera baitu, eta horren truke beste zerbait eskaintzen du. (15) Eta hor, maitalea eta maitatua, edo ederra dena eta itsusia dena ere sar litezke. Maitaleak horregatik azaltzen dira noizean behin barregarri haiek maitatzen duten bezain maitatuak izan nahi dutenean; zalantzarik gabe, bata bestea bezain maitagarria bada, maitaleak ere maitatua izatea merezi behar du; baina, horrela ez bada, barregarria da eskaera. Baina aurkakoak ere agian ez du bere aurkakoa berez nahi izango, (20) akzidentalki baizik, eta gogoia agian izango da erdiko terminoaren gogoia, hau ongia baita; adibidez, lehorra dena ezko bilakatu ez, erdiko terminora heldu baizik, eta, berdin, beroa dena eta gainerako guztiak. Utz bitez, hala ere, kontu horiek, egia esan, gure ikerketatik kanpo gelditzen baitira.

IX

(25) Badirudi, hasieran esana dagoen bezala, adiskidetasuna eta zuzentasuna gauza bereberei dagozkiela eta gizaki berberengan agertzen direla. Izan ere, badirudi elkarte orotan nolabaiteko zuzentasun bat dagoela, baita nolabaiteko adiskidetasun bat ere. Hori dela eta, ontziko kideek eta armadako kideek adiskide esaten diote elkarri, eta berdin gainerako

elkarteetako kideek ere; (30) elkarte batean parte hartzen duten neurrian, nolabaiteko adiskidetasun bat dago, eta justizia ere bai. Beraz, adiskideena baterako da esaera zaharra zuzena da, adiskidetasuna elkartean baitatza. Anaia-arrebek eta kideek dena dute baterako; gainerakoek, gauza jakin batzuk, batzuek gehiago, beste batzuek gutxiago, adiskidetasunen artean ere batzuk handiagoak eta (35) beste batzuk txikiagoak baitira. Zuzentasunen artean ere badaude desberdintasunak, (1160a) seme-alabekiko gurasoek eta elkarrekiko anaia-arrebek ez baitute adiskidetasun bera, ezta elkarte baten kideek elkarrekiko, eta hiritarrek elkarrekiko ere ez, eta berdin gainerako adiskidetasunetan. Beraz, zuzengabekeriak ere desberdinak izango dira horietako bakoitzarekiko, eta zuzengabekeria jasandako adiskideak zenbat eta kidea minago izan, orduan eta handiagoa izango da zuzengabekeria; adibidez, (5) kide bati dirua kentzea hiritar bati kentzea baino higuingarriagoa da, eta senide bati ez laguntzea, arrotz bati ez laguntzea baino, eta aita jipoitzea, beste edonor jipoitzea baino. Bestalde, naturala da zuzentasuna adiskidetasunarekin batera handitzea, biak gizaki berarengan egon eta berdin hedatzen baitira.

Hala ere, badirudi elkarte guztiak elkarte politikoaren zatiak direla, (10) gizakiak komenientzia bati begira elkartzen baitira, hots, bizitzarako beharrezkoa den zerbait eskuratzeko; eta badirudi elkarte politikoa ere komenientziari begira osatu zela eta irauten duela hasieratik, legegileek ere hori baitute helburu, eta esaten dute herriaren komenientzia zuzena dela. Beraz, gainerako elkarteek (15) onuraren alderdi jakin baten bila zuzentzen dira; adibidez, marinelek nabigazioari dagokionaren bila, dirua egiteko edo horrelako zerbait lortzeko; armadako kideek gerrari dagokionaren bila, dirua, edo garaipena, edo hiri bat lortzeko; eta berdin tribu bateko kideek eta herrikideek. Badirudi elkarte batzuk plazerarengatik sortzen direla; adibidez, (20) zenbait elkarte erlijioso edo politiko, horiek sakrifizioengatik edo giza harremanengatikosatzen baitira. Baina badirudi elkarte horiek guztiak elkarte politikoaren menpe daudela, elkarte politikoa ez baita oraingo komenientziaren bila zuzentzen, bizitza osokoarenera baizik, sakrifizioak eginez eta horien inguruan herritarrak bilduz, jainkoei ohoreak eskainiz, eta (25) kideei beraiei plazerarekin batera atsedenaldiak

eskuratuz. Izan ere, badirudi aspaldiko sakrifizioak eta bilkurak fruituen uztaren ondoren gertatu direla, lehenengo hazien eskaintza gisa, garai haietan gizakiek aisialdi oso luzea baitzuten. Beraz, badirudi elkarte guztiak elkarte politikoaren zatiak direla eta adiskidetasun jakin bati elkarte jakin bat dagokiola.

X

Erregimen politikoak, espeziez, hiru dira, eta desbideratzeak, horien ustelkeriak, beste hainbeste. Erregimenak honakoak dira: monarkia, aristokrazia, eta hirugarren bat, ondasunetan sorburua duena, eta, nahiz eta timokrazia izena egokia izan, gehienek (35) errepublika esan ohi diote. Horien artean monarkia da onena, eta txarrena, timokrazia. Monarkiaren desbideratzea tirania da; (1160b) izan ere, biak monarkiak dira, baina zeharo desberdinak, tiranoak bere onura besterik ez baitu begiratzen, eta erregeak, aldiz, bere aginpekoena. Izan ere, autarkikoa ez den eta ongi guztietan beste guztiak gainditzen ez dituen erregerik ez dago, (5) eta horrelako gizakiak ez du ezer behar; beraz, ez lioke bere onurari begiratuko, bere aginpekoenari baizik, horrelakoa ez balitz kasualitatez izango bailitzateke erregea. Tirania monarkiaren kontrakoa da, bere ongia bilatzen baitu. Eta tiraniari dagokionez, oso agerikoa da erregimenik okerrenea dela, eta okerrenea, onena denaren kontrakoa da. (10) Monarkiatik tiraniara pasatzen da, tirania monarkiaren galbideratzea baita, eta errege zitala tirano bihurtzen da. Aristokraziatik oligarkiara pasatzen da gobernarien gaiztakeriaz, hiriko ondasunak merezimenduen kontra banatzen baitituzte, eta ondasun guztiak edo gehienak beren buruari ematen dizkiote, eta magistraturak, beti gizaki berberei, (15) ahalegin handienak aberasteko eginez; beraz, gutxi batzuek gobernatzen dute, eta zitalak, zintzoenen orde. Beste aldetik, timokraziatik demokraziara pasatzen da, bi horiek mugakideak baitira; izan ere, timokraziak ere jendetzaren gobernua izan nahi du, eta ondasunetan dauden guztiak berdina dira. Demokrazia desbideratzerik onena da, (20) errepublikatik gutxi desbideratzen baita. Beraz, erregimenen artean, horiek dira bereziki bilakaerak, horiek baitira bilakaerarik txikiak eta errazak.

Antzekotasunak eta, nolabait esan, erregimenen adibideak, etxeetan aurkitu litezke. Izan ere, seme-alabekiko aitaren elkarteak monarkiaren antza du, (25) aita seme-alabez arduratzen baita; hortik Homerok ere Zeusi aita deitzea⁵², monarkiak aita-agintaritza izan nahi baitu. Pertsiarren artean, aitaren agintaritza tiranikoa da, semeez esklaboak bailiran baliatzen baitira. Eta esklaboekiko nagusiaren erregimena ere tiranikoa da, (30) horretan nagusiaren onura gauzatzen baita. Beraz, erregimen horrek zuzena dirudi, eta pertsiarrenak, okerra, objektu desberdinen agintaritzak ere desberdinak izan behar baitira. Agerian dago emaztearekiko senarrarena aristokratikoa dela, senarrak merezimenduaren arabera agintzen baitu eta agindu behar duen horretan; eta emazteari dagokion guztia berari uzten dio. (35) Baina, senarra kontu guztiez nagusitzen denean, bere erregimena oligarkia bihurtzen da, merezimenduaren kontra egiten baitu, (1161a) eta ez hobe den neurrian. Hala ere, emakumeek agintzen dute oinordekoak direnean. Beraz, agintaritza hau ez datza bertutean, aberastasunean eta boterean baizik, oligarkietan bezala. Anaia-arreben arteko gobernuak timokraziaren antza du, berdina baitira, adinean izan ezik; (5) horregatik, hain zuzen ere, adin desberdintasuna oso handia bada, anaia-arreben arteko adiskidetasunik ez dago. Demokrazia nagusirik gabeko etxeetan gertatzen da gehienbat (etxe horietan denak berdina baitira), eta agintaria ahula den haietan, hau da, bakoitzak nahi duena egiten den etxeetan.

XI

(10) Badirudi adiskidetasun jakin bat erregimen jakin bati dagokiola, zuzentasunarekin gertatu bezala. Menpekoekiko erregearena onegitearen nagusitasunean datza, menpekoei on egiten baitie, benetan ona bada eta haiek artatzen baditu zoriontsuak izan daitezen, artzainak ardiak bezala; horregatik ere esaten zion Homerok Agamenoni (15) herrien artzaina⁵³. Aitaren adiskidetasuna ere horrelakoa da, onegiteen tamainan desberdinak badira ere, aita semearen sortzailea baita –eta izatea ongirik handientzat hartzen dugu–, eta hazkuntzarena eta

⁵²Homero, *Ilias* I 503-504.

⁵³ Formula homerikoa da, eta maiz agertzen da, Iliadan batez ere (ad. Homero, *Ilias* II 243).

hezkontzarena. Eta onura horiek arbasoei ere dagozkie; eta aitak berez du seme-alabekiko nagusitasuna, eta arbasoek ondorengoekiko, eta erregeak menpekoekiko. (20) Adiskidetasun horiek nagusitasunean dautza, eta horregatik ohoreak jasotzen dituzte gurasoek. Beraz, erregimen horietan zuzentasuna ere ez da berdina, merezimenduaren arabera baizik; eta adiskidetasuna ere bai. Emaztearekiko senarraren adiskidetasuna ere aristokraziarena bezalakoa da, bertutearen arabera baitira, eta hobe denari ongi handiago dagokio, eta bakoitzari komeni zaiona; (25) eta zuzentasuna ere bai. Anaia-arreben adiskidetasunak kideenaren antza du, berdinak eta adin berekoak baitira, eta horrelako gizakiak orokorrean berdinak dira sentimenduei eta aiurriei dagokienez. Eta horren antza du timokraziako adiskidetasunak ere, horretan hiritarrek berdinak eta zintzoak izan nahi baitute; beraz, txandaka gobernatzen dute, eta botere berdina; (30) beraz, adiskidetasuna ere horrelakoa da.

Desbideratzeetan, oso zuzentasun gutxi dagoen moduan, adiskidetasun gutxi ere dago, eta gutxiago ere okerreanean, tiranian ez baitago inolako adiskidetasunik, edo oso gutxi. Izan ere, agintariak eta aginpekoak baterako ezer ez duten erregimenetan adiskidetasunik ere ez dago, zuzentasunik ez baitago; adibidez, eskulangilea bere tresnarekiko, (35) arima bere gorputzarekiko eta nagusia bere esklaboarekiko, (1161b) bigarren horiek guztiek, lehenengoen haiez baliatuta, atarramentu ona ateratzen baitute, baina bizigabeekiko ez dago adiskidetasunik, ezta zuzentasunik ere. Bestalde, zaldiarekiko edo idiarekiko ere ez dago, ezta esklaboarekiko ere, esklabo den aldetik, ez baitute ezer baterako, esklabo tresna biziduna baita, eta tresna, esklabo bizigabea. (5) Beraz, esklabo den aldetik, ez dago esklaboarekiko adiskidetasunik, baina bai gizakia den aldetik, gizaki ororen eta legearen eta hitzarmenean parte har dezakeen guztiaren artean nolabaiteko zuzentasun bat omen baitago, eta, hortaz, baita nolabaiteko adiskidetasun bat ere, gizakiak diren aldetik. Beraz, tiranietan ere badaude adiskidetasunak eta zuzentasuna, baina neurri txikian; demokrazietan, oster, (10) neurri handian, herritarrek, berdinak izanik, gauza asko baitute baterako.

Beraz, esana dagoenez, adiskidetasun oro elkartean datza. Senideen eta kideen adiskidetasunak kanpoan utzi litezke; baina herritarren, tribuko kideen eta itsasontzi-bidaideen eta beste horrelakoen arteko adiskidetasunek elkarteko adiskidetasunaren antza handiagoa dute, (15) nolabaiteko akordio baten arabera omen baitira. Eta aipaturiko adiskidetasunen artean ostalarien adiskidetasuna ere sar litezke.

Eta senideen adiskidetasunean mota askotarikoa omen da, baina denak gurasoen adiskidetasunaren mendekoak dira. Izan ere, gurasoek seme-alabak maite dituzte beren zerbait diren aldetik, eta seme-alabek gurasoak, hauengan sorburua duten aldetik. (20) Eta gurasoek hobeto ezagutzen dituzte beraiek sorturikoak, seme-alabek sorburua haiengan dutela jakitearekin konparatuz; eta sortzailea sortuarekin lotuago dago sortutakoa sortzailearekin baino, norberarengandik datorrena norberarena baita, hortza, ilea edo beste edozer duenarena, alegia; baina sortzailea, berriz, ez da inolaz ere sortuarena, edo neurri txikiagoan. Denbora ere kontuan hartu behar da, (25) gurasoek haurrak jaio orduko maite baitituzte, baina hurrek gurasoak denbora pasa ondoren, hau da, ezagumena edo sentimena lortu ondoren. Esandakotik agerian dago zergatik maite duten gehiago amek. Horrela, bada, gurasoek seme-alabak euren buruak bezala maite dituzte (sorburua haiengan dutenak ia haiek beraiek baitira, banandurik bizi direlako); seme-alabek gurasoak berauengandik sortuak diren aldetik maite dituzte; (30) eta anaia-arrebek, elkar maite dute gizaki berberengandik sortuak izateagatik, haiekiko berberatasunak elkarrekiko gauza berbera sortzen baitu; horregatik esaten da odol bera eta sustrai bera, eta horrelakoak. Beraz, anaia-arrebak gauza berbera dira nolabait, gizaki bereizietan gertatu arren. Bestalde, eragin handia dute anaia-arreben adiskidetasunean baterako hazkuntzak eta adin berbera izateak, adin berekoak adin berekoekin gozaten baitira (35), eta elkarrekin bizi direnak kideak dira; horregatik, anaia-arreben adiskidetasunak kideenaren antza du. (1162a) Lehengusu-lehengusinen eta gainerako senideen harremanak, anaia-arreben harreman horietan oinarritzen dira, gizaki berberak

baitituzte sorburu, eta batzuk gertuago eta beste batzuk arrotzago gertatzen dira, sortailearekiko hurbiltasunaren edo urruntasunaren arabera.

Anaia-arreben gurasoekiko adiskidetasuna (5) eta gizakiena jainkoekikoa, ona eta gorena denarekikoa bezalakoak dira, haiek ongirik handienak eman baitituzte, gurasoek euren seme-alaben izatearen eta hazkuntzaren eragileak direlako, eta, jaio ondoren, hezkuntzarenak. Horrelako adiskidetasunean arrotzen artean baino neurri handiagoan aurkitzen dira plazera eta onura, gertuago bizi diren neurrian. Anaia-arreben adiskidetasunean (10) kideen adiskidetasunaren ezaugarri berberak gertatzen dira, zintzoak direnen artean gehienbat, eta, orokorrean, antzekoak direnen artean, hauek jaiotzetik elkarrengandik gertuago diren eta elkar maite duten neurrian, eta guraso berberengandik sortu, elkarrekin hazi eta berdin hezi direnek antzeko aiurriak dituzten neurrian; adiskidetasun horretan denboraren froga erabatekoa eta (15) guztiz irmoa da. Gainerako senideen arteko adiskidetasunak ere hurbiltasunaren arabera dira. Baina badirudi senarraren eta emaztearen arteko adiskidetasuna naturarekin bat datorrela, gizakiak, berez, joera handiagoa baitu bikotean bizitzeko elkarte politikoan bizitzeko baino, etxea hiria baino aurretiazkoagoa eta beharrezkoagoa den neurrian, eta ugaltzea animaliek arruntagoa duten neurrian. Hala ere, (20) gainerako animaliak ugaltzeko biltzen dira; gizakiak, oster, ugaltzeari begira ez ezik, bizitzaren edozertarako ere bizi dira elkarrekin. Izan ere, hasiera-hasieratik zereginak bananduta egon dira, eta desberdinak dira gizonaren eta emakumearen zereginak; beraz, nahikoa hornitzen diote elkarri, bakoitzak berez dagokiona baterako jarritz. Horregatik, badirudi adiskidetasun horretan onura eta plazera ere (25) gertatzen direla. Eta bertuteagatik den adiskidetasuna ere izan daiteke, zintzoak baldin badira, bakoitzari bertute bat baitagokio, eta horrelako egoeraz goza daitezke. Bestalde, badirudi seme-alabak lotura bat direla, eta horregatik banantzen dira azkarrago umerik ez dutenak; bientzat seme-alabak baterako ongi bat baitira, eta baterakoa denak loturari eusten dio.

Eta senarra emaztearekin eta, orokorrean, adiskidea adiskideekin nola bizi behar diren aztertzerakoan, agerian dago portaera zuzena zein den besterik ez dela ikertu behar, agerian

baitago portaera zuzena ez dela gauza bera adiskidearekiko, arrotzarekiko, kidearekiko eta ikaskidearekiko.

XIII

Adiskidetasunak hiru direnez –hasieran esan den bezala–, (35) eta hauetako bakoitzean adiskide batzuk berdintasunaren eta beste batzuk nagusitasun baten arabera direnez (antzeko neurrian onak direnak adiskide egiten baitira, eta nagusia dena menpekota denarekin ere bai; (1162b) berdina, plazerarengatik eta onurarengatik adiskide direnak elkarrengandik etekin berdina edo desberdina lor ditzakete). Berdina direnak, berdintasunean oinarrituta, maitatzean eta gainerako gauza guztietan berdina izan behar dira; ezberdina direnak, ostera, beren nagusitasunari eta menpekotasunari dagokienaren arabera ordaindu behar diote elkarri.

(5) Salaketak eta gaitzespenak, arrazoizkoa denez, soilik edo nagusiki onuraren arabera adiskidetasunean gertatzen dira, bertutearengatik adiskide direnak elkarri ongia egiteko irrikan baitaude (hori bertutearen eta adiskidetasunaren berezkoa baita), eta hori begira elkarrekin lehiatzen badira ere, haien artean ez dago salaketarik ezta liskarrik ere, inor ez baita haserretzen maite eta ongia egiten dionarekin; (10) aitzitik, esker onekoa bada, ongia eginez ordaintzen du. Eta ongia egitean gailentzen denak, horretarako joera izanik, ez dio hori adiskideari aurpegiaratu, bakoitzak bestearen ongia gogokoa baitu. Plazerarengatik diren adiskidetasunetan ere, jakina, ez dago salaketarik, bata eta besteak irrikatzen duten hori baitute, elkarrekiko harremanaz gozatzen badira; bestalde, plazera ez emateagatik adiskidea salatzea ere barregarria litzateke, elkarrekin denbora ez pasatzea litekeena izanik.

(15) Onurarengatik den adiskidetasunean, berriz, salaketak sortzen dira, harremanak etekinei begira direnez, beti gehiago eskatzen baitiote elkarri, eta dagokiena baino gutxiago jasotzen dutela pentsatzen dute, eta merezi badute ere, behar duten guztia lortzen ez dutela gaitzesten dute, (20) eta ongia egiten dutenek ezin dute eskuratu ongia jasotzen dutenek behar duten guztia.

Badirudi, zuzentasuna bi modukoa den bezala –hau da, bata ez idatzia, eta bestea, legezkoa–, onurarengatik den adiskidetasuna ere etikoa eta legezkoa izan daitekeela. Beraz, salaketak sortzen dira gehienbat elkarrekiko harremanak adiskidetasun-mota beraren arabera egiten (25) eta deuseztatzen ez direnean. Legezko zuzentasuna, berriz, aurretik ezarritako akordioetan datza, eta, alde batetik, erabat merkataritzakoa eta berehalakoa –eskuz eskukoa, alegia– izan daiteke, eta, beste aldetik, denborarekiko eskuzabalagoa, zerbait zerbaiten truke izan arren. Horretan, zorra agerikoa eta ez zalantzazkoa da, baina zorraren atzerapena adiskidetasuntzat hartzen da; horregatik, hain zuzen, batzuetan ez dago epaiketarik kontu horietarako, (30) pentsatzen baita konfiantzan oinarrituriko truke-tratuak egin dituztenek horiek nahikotzat hartu behar dituztela. Adiskidetasun etikoa, berriz, ez datza aurretik harturiko akordioetan; aitzitik, adiskide bati bezala, opari bat edo beste zernahi eskaintzen du, baina emaileak ordain berbera edo handiagoa jasotzea duintzat hartzen du, eman ez balu bezala, mailegatu baizik; eta sinaturiko truke-tratua eta buruturikoa berdina ez badira, salatu egingo du. Hori gertatzen da, (35) gizaki guztiek edo gehienek ederra denaren gogoia izanda ere, etekintsua dena hautatzen dutelako; eta ederra da ongia egitea (1163a) ordainik ez jasotzeko asmoz, baina ongia jasotzea etekintsua da. Beraz, ahal bada, jasotako horren balio berbera itzuli behar da, eta borondatez (bere borondatearen kontra ez baita inor adiskide egin behar; beraz, hasieran egokia ez zen gizaki batengandik ongia jasota huts egin duenak bezala –ez baitzen adiskide batengandik, ezta ekintzarengatik beragatik eginga ere (5)–, zorrak kitatu behar dira jasotako ongia aurretik akordio batean sinaturiko zerbait balitz bezala); halaber, ahal izanez gero, ongia itzultzea onartu beharko litzateke; baina itzuli ezean, emaileak ere ez luke eskatuko; beraz, ahal bada, jasotako ongia itzuli behar da. Hala ere, hasieran aztertu behar da ongia norengandik jasotzen den eta zein baldintzatan, baldintzak ikusita, ongia onartzeko ala ez.

Eztabaidagarria da (10) ongia jasotzen duenaren etekina neurtu behar den, eta horren arabera ordaina egin, edo ekintza egin zuenaren ongiaren arabera. Izan ere, horrelako ongiak jasotzen dituztenek esan ohi dute jasotako ongiak txikiak direla ongileentzat balio gutxikoak

baitira, eta ongi-jasotzailek beste batzuegandik jaso zitzaketela; horrela, jasotako ongiak txikiagotzen dituzte. Ongileek, berriz, (15) euren ongirik handienak eman dituztela uste dute, beste batzuek eman ezin zitzaketenak, eta, gainera, arriskueta edo horrelako larrialdietan. Beraz, adiskidetasuna onurarengatik bada, ongia jasotzen duenaren etekina ez al da neurria izango? Izan ere, gizaki hori da beharra duena, eta besteak eskuratzen dio ordain berdina erdietsiko duen ustean; beraz, laguntza, jasotzen duenaren etekina bezain handia da; (20) hortaz, horrek, erdietsi zuen etekin bera itzuli behar du, edo gehiago, hori ederragoa baita. Bertutearen arabera adiskidetasunetan ez dago salaketarik, baina egilearen hautapena nolabaiteko neurriaren antza du, bertutearen eta aiurriaren ezaugarriak garrantzitsuen hautapenean baitatza.

XIV

Nagusitasunaren arabera adiskidetasunetan ere badaude desberdintasunak, (25) bakoitzak gehiago merezi duela uste baitu, baina hori gertatzen den bakoitzean, adiskidetasuna deuseztatu egiten da. Izan ere, hobe denak berari gehiago dagokiola pentsatzen du, ona denari gehiago eman behar baitaio; eta berdin pentsatzen du mesedegarriago denak ere, alferre denak berdin eduki behar ez duela esaten baita; izan ere, zerbitzu publikoa, hain zuzen ere, izango da, eta inolaz ere adiskidetasuna, adiskidetasunetik erdiesten den onura (30) ekintzen merezimenduaren arabera ez bada. Izan ere, pentsatzen dute, ekonomi elkarte batean gehiago laguntzen dutenek gehiago jasotzen duten bezala, adiskidetasunean ere horrela izan behar dela. Behartsua eta okerrago denak, alderantziz, pentsatzen du adiskide onari behartsuei laguntzea dagokiola. Zertarako balio du, diote, gizaki bertutetsu edo boteretsu baten adiskidea izateak, (35) inolako onurarik lortuko ez bada? (1163b) Beraz, badirudi batak eta besteak arrazoia dutela eta biek erdietsi behar dutela gehiago adiskidetasunetik, baina ez gauza berberatik, baizik eta nagusiak, ohore handiagoa, eta behartsuak, probetxu handiagoa, bertutearen eta onegitearen saria ohorea baita, eta behartasunaren sorospena, (5) probetxua. Errepubliketan ere badirudi hori horrela dela; izan

ere, Estatuari inolako ongirik eskaintzen ez dionak ez du ohorerik jasotzen, denon ongia dena Estuari on egiten dionari ematen baitzaio, eta ohorea denona da. Izan ere, ezin daiteke aldi berean Estatuko ondasunetatik dirua atera eta ohoreak jaso, inork ez baitu onartzen denetan gutxiago edukitzea; (10) horrela, diruari dagokionez galtzen duenari ohoreak ematen dizkiote, eta ustela denari, dirua, merezimenduaren arabera onurak berdindu eta babestu egiten baitu adiskidetasuna, esana dagoenez. Beraz, ezberdinak direnen artean ere horrelakoak izan behar dira harremanak, hau da, diruari edo bertuteari dagokienez etekina ateratzen duenak ohorea eskaini behar du, itzul dezakeena ordainduz, (15) adiskidetasunak litekeena dena bilatzen baitu, eta ez merezimenduari dagokiona. Hala ere, hori ez da beti posible, jainkoekiko eta gurasoekiko ohoretan gertatu bezala, inork ez bailiezaieke inoiz merezi dutena itzuli, baina ahal duen neurrian ohoreak eskaintzen dizkiena gizaki zintzotzat hartu ohi da. Horregatik ez lekioke seme bati aita ukatzea, baina bai aita semea, (20) gurasoekin zorretan egonik, ordaindu behar baitu; baina edozer eginda ere, inoiz ez du ordainduko aita emandako adina ondasun; beraz, beti egongo da zorretan. Hala ere, hartzekodunek aska dezakete zorra; hortaz, aita ere bai. Aldi berean, dirudienek, aita bat ez litzateke inoiz seme batengandik aldenduko, horren gaiztakeria izugarria ez balitz, behintzat, berezko adiskidetasuna alde batera utzita, laguntza ez ukatzea gizatiarrena baita. (25) Hala ere, zitala bada, semeak aitaren beharrak betetzea saihestu dezake, edo behar hainbat ez arduratu; gizaki gehienek tratu ona jaso nahi dute, baina ongia egitea saihesten dute, kaltegarria delakoan. Beraz, horri guztiari buruz, gera bedi honaino esandakoa.

I

Mota desberdineko adiskidetasun guztietan proportzioak parekatzen eta babesten du adiskidetasuna, esana den bezala; adibidez, herritarren arteko adiskidetasunean, hain zuzen ere, zapatariak, oinetakoen trukez, dagokion ordaina jasotzen du (35), eta, berdin, ehuleak eta gainerako guztiek. (1164a) Hor, beraz, baterako neurritzat moneta asmatu da, eta, horrela, gauza oro horri dagokio eta horren bidez neurtzen da; amodiozko adiskidetasunean batzuetan maitaleak salatzen du gehiegi maite badu ere, ordaina jasotzen ez duela –horrela bada, agian izango da ezer maitagarririk ez duelako–; eta (5) sarritan maitatuak salatzen du maitaleak hasieran den-dena prometaturik, gero ezer betetzen ez duela. Horrelakorik gertatzen da bata maitatua plazerarengatik eta besteak maitalea onurarengatik maitatzen dutenean, baina nahi dutena, ez bata ez besteak erdiesten ez dutenean. Arrazoi horiengatik, hain zuzen ere, jazotzen da ezarritako adiskidetasunaren deuseztapena, (10) elkarren arteko adiskidetasunaren helburua gertatzen ez den bakoitzean, ez baitzuten elkar maite, elkarren ondasunak baizik, eta horiek ez dira iraunkorrak; eta horregatik adiskidetasunak ere ez. Aiurriean oinarrituriko adiskidetasunak, berriz, beragatik aukeratua izanik, iraun egiten du, esana den bezala.

Hala ere, desberdintasunak azaltzen dira lagunek, desiratzen zutenaren orde, bestelako zerbait lortzen dutenean, desiratzen dena ez lortzea ezer ez erdiestea bezalatsua baita; (15) adibidez, zitara-jotzaile bati gizaki batek prometaturikoa: zenbat eta hobeto jo, orduan eta hobeto ordainduko liokeela; baina, egunsentian zitara-jotzaileak agindutakoa eskatu zionean besteak erantzun zion plazeraren truke plazera itzulia ziola. Beraz, bata eta besteak hori bera nahi izan balute, egoera egokia zatekeen; baina bata gozamina nahi badu eta besteak ordainsaria, eta bata lortzen badu baina (20) besteak ez, tratua arabera baldintzak ez dira behar bezala beteko, gizakia beharrezkoa duen horri begira ahalegintzen baita, eta

horregatik bakarrik emango du berea. Baina, bietako zeini dagokio onuraren balioa ezartzea, ematen duenari edo jasotzen duenari? Izan ere, badirudi ematen duenak bestearen esku uzten duela. Hori da, hain zuzen ere, esaten dutenez, Protagorasek ere egiten zuena⁵⁴, (25) edozer irakasten zuenean, ikasleari eskatzen baitzion neurtzea ikasitakoaren balioa, eta ontzat hartzen zuen. Baina, horrelako gaitan, gizaki batzuek maisuaren prezio finkoa⁵⁵ atsegin dute. Baina dirua aurretiaz kobratuta gero euren promesen gehiegikeriagatik esandakotik ezer betetzen ez dutenak, jakina, salaketetan sartzen dira, (30) hartu zuten akordio guztia betetzen ez baitute. Sofistak agian egongo dira behartuta hori egitera, dakitenarengatik inork ez bailieke dirurik emango. Beraz, horiek, kobratu zuten diruaren ordaina betetzen ez dutenez, salaketak jasotzen dituzte, jakina. Zerbitzu-akordiorik ez dagoen adiskidetasunetan, esana dago (35) adiskideengatik beraiegatik ematen dutenak ezin dituztela salaketak jaso (horrelakoa baita bertutearen arabeko adiskidetasuna), (1164b) eta ordaina asmoaren arabera egin behar da (hori baita adiskideari eta bertuteari dagokiena). Badirudi filosofian parte harrarazi egin zigutenekin ere horrela jokatu behar dela. Izan ere, haren balioa ez da dirutan neurtzen eta ez legoke ohore baliokiderik, (5) baina agian izango da nahikoa, jainkoekiko edo gurasoekiko bezala, daitekeena eskaintzea. Baina, mesedea horrelakoa ez bada, helburu jakin batengatik baizik, agian egokiena izan beharko da ordaina bien ustez egokia izatea; baina hori gertatzen ez bada, beharrezkotzat ez ezik, zuzentzat ere har daiteke mesedea lehendabizi jasotzen duenak balioztatzea; (10) izan ere, horrek, etekin berdina atera badu edo lorturiko plazeraren truke ordain dezakeen bezainbeste jaso badu, bestearengandik ordain egokia jaso izango du. Izan ere, agerian dago salerosketetan ere horrela gertatzen dela, eta leku batzuetan legeek agintzen dute borondatezko merkataritza-akordioetan ez dadila auzirik izan, batek norbaitekin konfiantza-akordio bat egin badu, horren deuseztapena (15) akordioa sinatu duten moduan egin behar dutelakoan; izan ere, mesedea jaso duenak balioztatzea, eman duenak balioztatzea baino zuzenagoa dela pentsatzen da. Alabaina, gehienetan gauzak ez dituzte berdin

⁵⁴ Platon, *Protagoras* 328b1-c2.

⁵⁵ Hesiodo, *Opera et dies* 370.

balioztatzen gauza horiek dituztenek eta lortu nahi dituztenek, norberari bere gauzak eta bere mesedeak balio handikoak direla iruditzen baitzaio; hala eta guztiz ere, ordaina egiten da mesedea jaso dutenek ezarritako balioaren arabera; (20) eta agian ez da balioztatu behar behin edukita ematen diogun balioaren arabera, eduki aurretik ematen genion balioaren arabera baizik.

II

Horrelako gaitan ere sortzen dira zailtasunak: esate baterako, aitari dena eman eta denetan men egin behar zaion edo, gaisorik dagoenean, konfiantza osoa sendagilearengan izan behar den, eta gerra kontuetan, eskua altxatuta, jeneral aditua hautatu behar den; (25) berdin, gizaki bertutetsuari baino lehen ea lagunari lagundu behar zaion, eta ongia, kideari baino lehen, ongileari itzuli behar zaion, aldi berean bata eta bestea egin ezin badaitezke. Beraz, akaso ez da zaila horrelako kontu guztiok zehatz definitzea? Badituzte desberdintasun asko eta denetariakoak, mesedeen handitasunari eta txikitasunari, eta edertasunari eta beharrari dagokienez. (30) Baina argi dago gauza oro ez zaiola gizaki berberari eman behar, eta, normalean, lagunei mesedeak egin baino lehen jasotako ongintzak itzuli behar direla, lagunei eman baino lehen hartzekodunari mailegua ere itzuli behar zaion bezalaxe. Baina, agian hori ere ez da beti egin behar; adibidez, bidelapurrengandik askatu duten horrek bera askatu zuena askatu behar du, hori edonor izanda ere, (35) –edo, bahitua izan ez bada, askapenaren dirua eman, eskatzen badio– (1165a), edo bere aita askatu behar du? Badirudi, hain zuzen ere, bere aita askatu beharko lukeela lehenago. Beraz, esanda dagoen bezala, zorrak kitatu behar dira, baina mesedea nobleziari eta beharrari dagokienez nabarmentzen bada, gauza horren alde egin behar da. (5) Zenbaitetan, hain zuzen ere, ez da batere berdinkoia aurretik jasotakoa ordaintzea, mesedea gizaki bertutetsu bati eginda –eta jakinda bertutetsua zela–, eta ordaina, berriz, ustezko gizon zital bati egin behar zaionean. Beste zenbaitetan, ez zaio mailegua itzuli behar mailegua egin zionari, batak gizon zintzo bati egin baitzion –mailegua berreskuratuko zuelakoan–, baina besteak ez du gizon gaizto bati egindako mailegua

berreskuratzeko itxaropenik. (10) Hori dela eta, benetan horrela bada, balioztapena ez da berdinkoia; eta horrela ez bada, baina horrela uste badute, ez zaie irudituko ezer zentzugaberik egiten denik. Beraz, sarritan esanda dagoen bezala, pasioei eta ekintzei buruzko arrazoinamenduek hauen objektuen zehaztasun-maila berbera dute.

Beraz, agerian dago ez diegula denei gauza bera eman behar, (15) ezta dena aitari ere, Zeusi ere sakrifizio guztiak eskaintzen ez dizkiogun bezala; eta gurasoei, anaia-arrebei, lagunei eta ongileei eman behar zaizkien gauzak desberdinak direnez, bakoitzari dagokiona eta egokia dena eman behar zaio. Eta agerian omen dago, hain zuzen ere, horrela egiten dela; esate baterako, ezkontzetara senideak gonbidatzen dira, horiek baterako dutena sendia baita, eta, ondorioz, horren inguruko ekintzak; (20) eta arrazoi beragatik, hiletetara gehienbat senideak azaldu behar direla pentsatzen da. Eta badirudi janariaz gurasoak bereziki hornitu behar ditugula, zor baitiegu, eta ederragoa dela gure izatearen sortzaileak hornitzea gure burua hornitzea baino. Gurasoei, jainkoei bezala, ohorea ere zor diegu, baina ez denak, (25) aitari eta amari ez baitiegu ohore berbera eskaini behar, ez baita ohore berbera ere jakintsuari edo jeneralari eskaintzen dioguna, aitari dagokiona eta, era berean, amari dagokiona baizik. Eta agure guztiei ere ohorea eskaini behar diegu adinaren arabera, haien aurrean begirunez zutituz eta aulkia utziz, eta horrelako ekintzez. Gure lagunei eta anaia-arrebei, konfiantza eta gauza oro partekatzea zor diegu. (30) Eta senideei, tribukideei, hirikideei eta gainerako guztiei dagokienaz hornitzen ahalegindu behar dugu beti, eta bakoitzari berez dagokiona zehazten, senidetasunaren, bertutearen eta baliogarritasunaren arabera. Beraz, gure antzekoak direnak zehaztea askoz errazagoa da, baina desberdinak direnak, askoz nekeagoa. Hala ere, horregatik behintzat, ez diogu uko egin behar hori egiteari, (35) baizik eta, ahal den neurrian, horrela zehaztu.

III

Badago beste zailtasun bat: adiskideak aldatzen direnean, euren adiskidetasunak deuseztatu behar diren ala ez. (1165b) Onurarengatik edo plazerarengatik diren adiskideek

onura eta plazera jadanik lortzen ez dituztenean, ez ote da inolaz ere zentzugabea izango adiskidetasuna deuseztatzea? Izan ere, gauza horien adiskideak ziren, eta gauza horiek falta izanik, arrazoizkoa da adiskideak ez izatea. Baten batek salatu lezake bere adiskide bat, (5) horrek onurarengatik edo plazerarengatik maitatzen badu ere, aiurriarengatik maitatzen duenaren itxura egingo balu, zeren eta, hasieran esan dugun bezala, lagunen artean desberdintasun gehienak sortzen baitira uste bezalako adiskideak ez direnean. Beraz, baten batek bere burua engainatzen duenean eta bere aiurriarengatik maitatua dela pentsatzen duenenean –besteak horretarako ezer egin gabe–, bere buruari egotzi beharko dio errua; (10) baina, bestearen zurikeriak engainatzen duenean, zuzena da engainatu zuena salatzea, eta moneta faltsifikatzaileak baino gehiago oraindik, gaiztakeria askoz preziatuagoa den zerbaiti dagokion neurrian. Bestalde, gizaki bat ona delakoan onartzen bada, baina zitala bihurtzen bada eta horrelakoa badirudi, oraindik maitatu beharko ote da? Edo hori ezin daiteke, dena maitagarria ez bada, ona dena baizik? (15) Gaiztoa dena ez da maitagarria, eta ez da maitatu behar, inork ez baitu gaiztoa dena maitatu behar, ez eta ziztrina denaren antzeko bihurtu ere, eta esana dago antzekoa denak antzekoa dena maite duela. Beraz, adiskidetasun hori, berehala deuseztu beharko ote da? Edo agian ez beti, bakarrik zitalkeriari dagokionez sendaezinak direnean baizik? Izan ere, zuzentzea onartzen badute, beren ondasunetan baino beren aiurria zuzentzen lagundu behar zaie, hau (20) hobe eta adiskidetasunari dagokiona den neurrian. Baina pentsa liteke adiskidetasun hori deusezten duenak ez duela ezer zentzugaberik egiten, ez baitzen horrelako gizakiren adiskidea, eta, beraz, bere adiskidea aldatu izanagatik eta hura berreskuratu ezinik, harengandik aldentzen da. Baina batek berdin dirauen bitartean bestea hobetu egiten bada, eta bertutean neurri handian gainditzen badu bestea, hori adiskidetzat hartzen jarraitu beharko du edo ezinezkoa izango da? (25) Oso agerikoa da urruntze handia sortzen denean, haurtzaroko adiskidetasunetan bezala; izan ere, bata, pentsaerari dagokionez, ume jarraituko balu, eta bestea gizonik helduena bezalakoa balitz, nola izan litezke adiskideak gauza berberak gustatzen ez bazaizkie eta gauza berberak poztzen eta atsekabetzen ez badituzte? Izan ere, hori guztia ez dute elkarrekin partekatuko,

(30) eta hori guztia partekatu gabe ezin daitezke adiskideak izan, ez baitira elkarrekin bizitzeko gai. Baina horretaz dagoeneko mintzatu gara. Beraz, bestearekiko, adiskideak inoiz izan ez balira bezala jokatu beharko du, eta ez beste inolaz ere? Agian, iraganeko harreman estua gogoan izan beharko du, eta arrotzei baino lehenago adiskideei lagundu behar zaiela uste den bezala, (35) horrela ere adiskideak zirenei zerbait eman behar zaie iraganeko adiskidetasunarengatik, horren deuseztapena gehiegizko zitalkeriaz gertatu ezean.

IV

(1166a) Badirudi hurkoekiko adiskidetasun-harremanak eta adiskidetasunak definitzen dituzten ezaugarriak gizakiak bere buruarekiko dituen harremanetatik datozela. Izan ere, adiskidetzat hartzen dugu ongia –edo ongia iruditzen zaiona– beste baten kausaz gogoa izaten eta egiten duena, edo bere adiskidea, adiskideagatik beragatik, existitu eta bizi izatearen gogoa izaten duena; (5) hori da, hain zuzen ere, amek seme-alabekiko nabaritzen dutena, eta euren artean haserretu diren adiskideek. Beste batzuek adiskidetzat hartzen dute beste batekin bizitza igaro eta haren gauza berak aukeratzen dituen, edo adiskidearekin adiskidearen oinazeak eta pozak partekatzen dituen, eta hori ere amekin gertatzen da gehienbat. Horietako modu batez edo bestez definitzen da adiskidetasuna. (10) Hala ere, horietako ezaugarri bakoitza bere buruarekiko zintzoa den gizakiari dagokio (eta gainerakoei, euren burua zintzotzat hartzen duten neurrian; eta badirudi, esana dagoen bezala, bertutea eta gizaki bertutetsua gauza ororen neurria direla). Gizaki hori, hain zuzen ere, bere buruarekin bat dator, eta gauza berberak arima-arimatik irrikatzen ditu; (15) eta, benetan, bere buruarentzat ongia eta ona dirudiena nahi du, eta hori burutu egiten du (ona denari ongia egiteari ekitea baitagokio), eta bere buruagatik (bere adimenari esker egiten baitu, eta badirudi horixe dela gizaki bakoitzaren izana); eta bizi eta bere burua babestu nahi du, eta bereziki arimaren alde pentsakorra, bizi izatea gizaki bertutetsuarentzat ona baita, eta (20) gizaki orok nahi du bere buruarentzat ongia, eta inork ez luke beste bat bihurtzearen truke dena edukitzea aukeratuko (jainkoak ere, orain ere, ongia baitu), baizik eta gizaki berbera

izanik, eta badirudi adimena dela bakoitzaren izana, edo hori bereziki. Horrelako gizakiak ere bere buruarekin igaro nahi du denbora, hori atseginez egiten baitu; izan ere, iraganeko ekintzen oroimenak (25) pozgarriak ditu eta etorkizunaren itxaropenak ere dira onak, eta horrelakoak izanik, atseginak ere bai. Eta adimenak begiespen-objektu ugariz hornitzen du. Eta bere buruarekin bereziki, oinazeak eta gozamenak partekatzen ditu, gauza berak baititu beti atsekabetsuak eta atseginak, eta ez batzuetan batzuk eta beste batzuetan beste batzuk, zeren eta, nolabait esateko, ez baita damutzeko gai.

(30) Beraz, gizaki zintzoak horietako ezaugarri bakoitza bere buruarekiko edukitzeagatik, eta, adiskidearekiko bezalaxe, bere buruarekiko sentimendu berberak izateagatik (adiskidea beste ni bat baita), badirudi adiskidetasuna ere horrelako zerbait dela, eta adiskideak, aipatutako ezaugarriak dituztenak. Norberaren buruarekiko adiskidetasuna ote dagoen ala ez, utziko dugu oraingoz. Pentsa liteke adiskidetasunik badagoela, (35) aipatutako ezaugarri bat edo gehiago dagoen neurrian –esana dugun guztiagatik– (1166b) eta adiskidetasunik handiena, norberak bere buruarekiko duenaren antzekoa delako.

Agerian dago esandako ezaugarriak gizaki gehienen baitan ere aurkitzen direla, horiek ziztrinak izanda ere. Beraz, esango al dugu gizaki horiek ezaugarri haietan parte hartzen dutela euren burua atsegin duten eta ontzat hartzen duten neurrian? (5) Izan ere, erabat ziztrina edo oso donauslea den batek berak ere, ez ditu behintzat, ezta itxuraz ere. Eta ziztrinak direnengan ere ia ez dira aurkitzen, euren buruarekin ez baitatoz bat, eta gauza batzuk irrikatzen badituzte ere, beste batzuk nahi dituzte, meneraezinek bezala, horiek, euren ustez onak diren gauzak aukeratu beharrean, atseginak aukeratzen baitituzte, kaltegarriak izan arren; (10) beste batzuek, koldarkeriaz edo nagikeriaz, euren ustez eurentzat onena dena egiteari uko egiten diote, eta beste batzuek –gaiztakeria asko eginda euren zitalkeriagatik gainerakoek gorrotatuak diren horiek– bizi izatetik ihes eta euren buruaz beste ere egiten dute. Zitalak direnek egunak igarotzeko kideak bilatzen dituzte eta euren burutik ihes egiten dute, (15) bakarrik daudenean gauza higuigarri askoz oroitu eta horrelakoak espero baitituzte; eta beste batzuekin daudenean, oster, horiek ahaztu egiten zaizkie. Eta ezer

maitagarririk ez dutenez, ez dute inolako adiskidetasunik euren buruarekiko; beraz, horrelako gizakiak ez dira euren buruaz pozten eta oinazerik ere ez dute jasaten, euren ariman borroka baita nagusi, (20) hau da, horren alde batek, zitalkeriaren ondorioz, sufritu egiten du zenbait gauzatatik urrundua bada, baina beste aldeak gozatu egiten du, eta alde batek alde baterantz eramaten du, eta beste aldeak, beste alderantz, erdibiturik balitz bezala. Eta aldi berean atsekabetzea eta gozatzea ezinezkoa bada, denbora gutxi igaro ondoren, behintzat, atsekabetzen da gozatu zelako, eta gogoia izango luke gauza haiek atseginak ez izana, ziztrinak direnak damuz beteta baitaude. (25) Beraz, badirudi ziztrina denak ez duela adiskidetasunik ezta bere buruarekiko ere, ezer maitagarririk ez duelako. Hortaz, horrelako disposizioan izatea zorigaitz handia bada, zitalkeria saihesten eta ona izaten saiatu behar dugu, horrela gure buruarekiko adiskidetasun-disposizioa eduki ahal izango baitugu, baita beste baten adiskidea izateko ere.

V

(30) Borondate ona adiskidetasun-harremanaren antzekoa da, baina, jakina, ez da adiskidetasuna; izan ere, borondate ona ezezagunak direnekiko ere badago, eta oharkabean pasatzen da, baina adiskidetasuna ez, lehenago esan dugun bezala. Baina estimua ere ez da, ez baititu estimuari lotuta dauden bizitasuna eta guraria. Halaber, estimua harreman estuarekin batera gertatzen da, eta borondate ona, berriz, bat-batean sor daiteke, (35) lehiakideen kasuan ere gertatzen den moduan: (1167a) izan ere, gizakiek haiekiko borondate ona sortzen dute eta gauza bera nahi dute, baina ez liekete inolaz ere irabazten lagunduko, esan dugun bezala, borondate ona bat-batekoa baita, eta haiekiko sortutako maitasuna, azalekoa. Hala ere, badirudi borondate ona, ezbairik gabe, adiskidetasuraren hasiera dela, ikusmenaren bidezko atsegina izatea amodioaren hasiera den bezala, (5) inork ez baitu maite aurrez aurretik maitatuaren itxuraz gozatu ez badu; baina ikusten duen edertasunaz gozatzen duenak ez du horregatik gehiagorik maite, ez dagoena irrikaz desiratu eta haren presentzia gutiziatzen duenean baizik. Hortaz, hain zuzen, gizakiak ere ezin dira adiskideak izan aurrez borondate

ona sentitu gabe; hala ere, borondatetsu direnek ez dute horregatik gehiagorik maite, borondatetsuek euren borondatearen objektu direnentzat ez beste inorentzat ez baitute ongiaren gogoia izaten, baina haiekin ez lukete ezer egingo (10) eta haiengatik ez lukete inolako lanik hartuko. Horregatik, metafora bat eginez, borondate ona adiskidetasun motela dela esan liteke, eta denbora luzearen ondorioz eta harreman estuetara iritsita, adiskidetasun bihurtzen dela, baina ez onurarengatik, ezta plazerarengatik ere, borondate ona ere ez baitatza haietan. Izan ere, ongia jasotzen duenak jasotakoaren truke ematen du (15) bere borondate ona, horrela zuzen jokatzuz; baina gauza etekintsua lor ditzakeelako itxaropenean norbaiti ongia egin nahi dionak ez omen du harekiko borondate ona, bere buruarekiko baizik, neurri handiagoan, gauza baliogarri bati begira lausengatzen badu adiskidea ere ez den bezala. Eta, oro har, borondate ona bertutearengatik eta ontasun batengatik sortzen da, (20) norbait ederra, adoretua edo horrelako zerbait iruditzen zaigunean, lehiakideei buruz ere esan dugun bezala.

VI

Gogaidetasunak ere badirudi adiskidetasun-sentimendu bat, eta horregatik, hain zuzen, ez da soilik iritzi-adostasuna, azken hori elkar ezagutzen ez dutenen artean ere gerta baitaiteke. Eta ez da edozeri buruz esaten iritzi berbera dutenak gogaideak direnik, (25) adibidez zeruko fenomenoei buruz (gai horiei buruzko adostasuna ez baita adiskidetasuna); aitzitik, esaten da hirietan gogaidetasuna dagoela hiritarrek komeni zaien inguruan iritzi berbera dutenean eta gauza bera hautatu eta elkarrekin harturiko erabakiak betetzen dituztenean. Beraz, gogaidetasuna praktikari dagokio, eta horren barne, garrantzi handia duenari (30) eta bi aldeek edo denek eduki dezaketenari buruzkoa da; adibidez, hirietan, hiritar guztiek kargu publikoak hautagarriak izan behar direla pentsatzen dutenean, edo lazedemoniarrekin batera borrokatu behar dela, edo Pitakok gobernatu behar zuela, hark ere nahi zuenean. Baina norberak bere burua agintaritzat hartzen duenean, Feniziarrek-en⁵⁶ bezala, desakordioa

⁵⁶Euripidesen tragedia.

sortzen da, gogaidetasuna ez baita denek gauza bera pentsatzea, hau edozer izanda ere, (35) gai berean gauza bera pentsatzea baizik, bai herri xeheak bai goiko mailakoek zintzoenек gobernatu behar dutela pentsatzen dutenenean bezala; (1167b) horrela, hain zuzen ere, denek lortzen dute gogo dutena. Beraz, badirudi gogaidetasuna adiskidetasun politiko bat dela – horrela definitzen da, alegia–, gogaidetasuna komenigarria denari eta bizitzari dagozkionari buruzkoa baita. Eta horrelako gogaidetasuna zintzoak direnen artean aurkitzen da, (5) horiengan bai beren buruarekiko bai elkarren arteko adostasuna baitago, eta nolabait esateko, iritzi berbera izanik (horrelako gizakien asmoak, hain zuzen, irmo eusten dira eta ez dira aurrerantz eta atzerantz isuritzen Euripo itsasartaren urak bezala), zuzena eta komenigarria denaren gogoia izaten dute, eta horretara zuzentzen dira elkarrekin. Ziztrinak direnak, berriz, ezin daitezke adostasunera iritsi, neurri txikian ez bada, (10) adiskidetasunarekin gertatu bezala, etekinetan dagokiena baino gehiago nahi dutelako, baina lan neketsuetan eta zerbitzu publikoetan atzean geratzen dira; eta hori bakoitzak bere buruarentzat nahi duenez, ondokoa arakatu eta eragotzi egiten du; eta denen artekoa babestu ezean, deuseztu egiten da. Beraz, euren artean desadostasuna sortzen da, (15) zuzena dena egitera elkar behartzen dutelako, berez egin nahi ez badute ere.

VII

Badirudi ongileek onuradunak gehiago maite dituztela onuradunek ongia egin dietenak baino, eta hori paradoxa den aldetik eztabaidatzen da. Gehienen ustez, hain zuzen, (20) batzuek zor dute eta besteei zor zaie; beraz, maileguei dagokienez, zordunek hartzekodunak ez izatea nahi, baina mailegatu dutenek euren zordunen salbazioaz arduratzen diren bezala, horrela ere ongileek onuradunak bizi izatea nahi dute horrek jasotako mesedeak itzul ahal ditzaten, (25) baina horiek ez dira itzultzeaz arduratzen. Beraz, Epikarmok⁵⁷ segituan esango luke horrela hitz egiten dutenek ezkerreko begiz begiratzen dutela, baina badirudi hori gizatiarra dela, gizaki gehienak ahazkorrak baitira, eta ongia egin baino ongia jaso nahiago

⁵⁷ Epicarmus, frag. 156 (Kaibel)

izaten dute. Hala ere, pentsa liteke arrazoa askoz naturalagoa dela, eta mailegu-emaileei dagokienez, arrazoa antzekoa ere ez dela, (30) haien aldetik ez baitago inolako estimurik; aitzitik, besteen babesa kobratzeagatik nahi dute; ongileek, berriz, ongia egin dietenak maitatu eta maitasunez tratatzen dituzte, horiek baliagarriak ez izan arren, ezta etorkizunean ere. Eta artisauen artean ere gauza bera gertatzen da, artisau orok bere lana maite baitu (35), lanak, arimaduna izatekotan, artisaua maite izango lukeena baino gehiago. (1168a) Eta hori, agian, olerkarien artean gertatzen da bereziki, ikaragarri maite baitituzte euren olerkiak, seme-alabak bezala maite dituzte eta. Beraz, badirudi horrelakoa dela ongileen jarrera, onuraduna haien obra bezalakoa baita; beraz, ongileek onuraduna (5) gehiago maite dute, lanak bere egilea baino. Eta horren arrazoa existentzia nahigarria eta maitegarria izatea da, eta gure izatea jardueran datza (bizi izatean eta egitean baitatza); beraz, lana, nolabait, egilea egintzan da; hortaz, egileak lana maite du izatea ere maite duelako. Eta hau naturala da, potentzian dagoena lanak egintzan adierazten duelako.

(10) Aldi berean, ongilearentzat ere ederra da ekintzaren emaitza; beraz, ekintza hori jaso zuen gizakiaz gozatzen du, baina onuradunarentzat ez dago ezer ederrik ongia egin zionarengan, zerbait onuragarria baizik; baina onuragarria dena ez da horren atsegin eta maitagarria. Atsegina da orainaren jarduera, etorkizunaren itxaropena eta iraganaren oroimena; hala ere, atseginena jardueraren emaitza da, (15) eta maitagarria ere bai. Beraz, ongia egin duenaren lanak iraun egiten du (ederra dena oso iraunkorra baita), baina jaso duenaren onura, oster, igaro egiten da. Eta ederra denaren oroimena atsegina da, baina onuragarria denarena ez, edo gutxiago; hala ere, itxaronaldian kontrakoa gertatzen omen da. Gainera, maitatzeak ekintza dirudi eta maitatua izateak jarrera pasiboa, (20) eta maitatzea eta adiskidetasun-sentimenduak ekintzetan gorenak direnengan aurkitzen dira. Bestalde, denek estimatzen dute nekez lortzen dena, ondasunak bezala, horiek lortu dituztenek jarauntsi dituztenek baino gehiago estimatzen baitituzte. Bestalde, badirudi ongia jasotzea ez dela mingarria, baina ongia egitea, nekeza. (25) Arrazoi horiengatik, amek ere maite dituzte

gehiago beren seme-alabak, jaiotza neketsuagoa baita, eta hobeto dakite seme-alabak bereak direla. Eta badirudi ezaugarri hori ongileei ere egokitu lekiekeela.

VIII

Eztabaidagarria da ia nork bere burua beste edonor baino gehiago maitatu behar duen, bere burua beste inor baino gehiago maite dutenak gaitzesten baitira, (30) eta horiei berekoi esaten zaie lotsatuta uzteko; eta badirudi ziztrina denak den-dena bere buruarengatik egiten duela, eta zenbat eta zitalagoa izan, orduan eta gehiago –horrela, aurpegiratzen zaio bere buruarengatik ez den ezer egiten ez duela–; zintzoa denak, berriz, ederra denarengatik egiten du, eta zenbat eta hobeia izan, orduan eta gehiago, edo adiskidearengatik, eta (35) bere onura albo batera uzten du. Hala ere, ekintzak ez datoz bat hitz horiekin, eta ez arrazoirik gabe. (1168b) Izan ere, esaten da adiskiderik onena maitatu behar dela gehien, eta adiskiderik onena da ongia harengatik berarengatik nahi izaten dion gizaki hori, nahiz eta gero inor ez konturatu; baina hori nork bere buruarekiko jardueran aurkitzen da nagusiki eta adiskidetasuna definitzen duten gainerako guztietan, hain zuzen; izan ere, (5) esana dugu adiskidetasun-sentimendu guztiak gizakiaren beraren barnetik datozela, eta jarraian gainerakoengana zabaltzen direla. Eta esaera zahar guztiak bat datoz esandakoarekin: arima bakar bat, eta adiskideen gauzak baterakoak dira, eta adiskidantza berdintasuna da eta belauna bernatik gertuago dago, alegia. Izan ere, hori guztia norberari legokioke nagusiki, (10) nor bere buruarentzat adiskiderik onena baita; beraz, nork bere burua maitatu behar du bereziki. Hortaz, arrazoi sendoz eztabaida daiteke biotako zein iritziri jarraitu behar zaion, biak sinesgarriak baitira.

Beraz, agian bereizi beharko genituzke horrelako arrazoinamenduak eta zehaztu batzuek eta besteek zein neurritan eta nola esaten duten egia. Honela, norberarekiko maitasuna bakoitzak zein zentzutan esaten duen ulertuko bagenu, agian argituko litzateke zailtasuna. (15) Eta horrela, batzuek, gaitzespen gisa, berekoi esaten diete ondasunetan, ohoreetan eta gorputz-plazeretan euren buruari dagokiena baino gehiago ematen diotenei, horiek baitira,

hain zuzen ere, gizaki gehienek irrikatzen dituztenak, eta gauza horiek lortzeko asmoz eginahalak egiten dituzte onenak direlakoan; eta horregatik daude horiek lortzeko lehiak. Beraz, gauza horiek gutiziatzen dituztenak euren irrikak betetzen saiatzen dira, (20) eta, oro har, euren pasioak eta arimaren alde irrazionala; eta gizaki gehienak horrelakoak dira; horregatik, izenak ere hartu du esanahi txarra, gehienetan berekoikeria txarra baita; beraz, zuzena da horren berekoi direnak gaitzestea. Agerian dago euren buruari horrelako gauzak ematen dizkiotenei berekoi deitu ohi dietela gizaki gehienek; (25) izan ere, gizaki batek beste gizaki guztiek baino neurri handiagoan eginahalak egingo balitu beti zuzentasuna edo neurritasuna edo gainerako beste bertuteren bati ekitean, eta, oro har, beti ederra dena gordeko balu bere buruarentzat, gizaki horri inork ez lioke berekoi deituko ezta gaitzetsiko ere. Hala ere, pentsa liteke horrelako gizakiak bere burua gehiago maite duela, bere buruari ongirik ederrenak eta handienak ematen baitizkio, (30) eta bere alderik nagusiena asebetetzen du, eta alde horri men egiten dio gauza orotan. Eta hiria, baita sistema oro ere, bere alde nagusienean bereziki omen datzan bezala, horrelaxe gizakia ere; beraz, alde hori maite duena eta alde hori asebetetzen duena gizakirik berekoiena da. Bestalde, meneratu eta meneraezin, hurrenez hurren, haren adimenak menperatzen duen gizakiari eta menperatzen ez duenari esaten diegu, (35) nor bere adimena delakoan; (1169a) halaber, badirudi horrelako eta borondatezko ekintzak arrazoimenarekin batera gertatzen direla bereziki; eta agerian dago, beraz, gizaki oro bere adimena dela, edo adimena gehienbat, eta ona den gizakiak alde hori maite duela bereziki. Horregatik izango da bere burua modu gorenean maite duena, baina ez gaitzetsia denaren moduan, eta bi gizakiok, (5) arrazoimenaren arabera bizi izatea eta pasioaren arabera bizi izatea bezain desberdinak izango dira, edo ederra denaren desira eta onuragarria omen denarena. Beraz, ekintza ederrak egiten nabari saiatzen direnak denek onartzen eta goraiatzat dituzte; baina ederra dena lortu nahian denak lehian ariko balira eta ederrena egiten grinaz saiatuko balira, (10) beharrezko ongi komun guztiak edukiko litezke eta gizaki bakoitzak ongirik handienak, bertutea, benetan, horrelakoa bada. Horrela, bada, ona den gizakiak bere burua maitatu behar du (hark ere, eder jokatuz, bere buruari

lagunduko baitio eta gainerakoentzat onuragarria izango da), baina zitala den gizakiak ez, bere pasio doilorrek eramana izanik, bai bere burari bai ondokoei kalte egiten baitie. (15) Zitala denari dagokionez, beraz, ez datoz bat egin behar duena eta egiten duena, baina zintzoa denak, berriz, egin behar duena, hain zuzen ere, egin egiten du, adimen orok, beti, norberarentzat onena dena aukeratzen baitu, eta zintzoa denak bere adimenari men egiten dio. Egia da, bestalde, bertutetsua denak adiskideengatik eta aberriarengatik gauza asko egiten duela, hil arte beharrezkoa bada. (20) Izan ere, ondasunak, ohoreak eta, oro har, liskarren objektuak diren ongiak baztertuko ditu bere buruarentzat ederra dena bereganatzeko, denbora laburrean biziki gozatzea aukeratuko baitu denbora luzean motel gozatzea baino lehenago, eta urte batez eder bizi izatea, urte askoan edonola bizi izatea baino, eta ekintza bakar bat, ederra eta handia bada, ekintza asko eta txikiak baino. (25) Eta hori gertatzen zaie, agian, besteen alde hiltzen direnei; euren buruarentzat, benetan, oso ongi handia aukeratzen dute. Eta ondasunei uko egingo diete beren adiskideek gehiago lor dezaten, adiskideak ondasunak izango baititu, eta hark, edertasuna; beraz, bere buruari ongi handiagoa ematen dio. Eta ohoreei eta kargu publikoei dagokienez gauza bera egingo du, (30) horri guztiari uko egingo baitio bere adiskidearengatik, hori egitea harentzat ederra eta goraipagarria delako. Beraz, arrazoiz hartzen da bertutetsutzat, beste edozeren gainetik ederra dena aukeratzen baitu. Eta baliteke ekintzei ere uko egitea bere adiskideari uzteko, eta bere adiskideak egitearen kausa ederragoa izatea, hark berak ekintzak egitea baino. (35) Beraz, goraipagarria den guztiari dagokionez nabaria da gizaki bertutetsuak bere buruarentzat zati ederragoa hartzen duela; (1169b) beraz, esan bezala, geure burua horrela maitatu behar dugu, eta ez gizaki gehienek bezala.

IX

Zoriontsu denari dagokionez, eztabaidagarria da adiskiderik beharko duen ala ez. Izan ere, esaten da dohatsu eta autarkiko direnek ez dutela adiskiderik behar, haiek ongi guztiak baitituzte; beraz, (5) autarkikoak izanik, ezeren premian ez daude, baina adiskideak, beste ni

bat izanik, geuk gure kabuz lor ez dezakeguna eskuratzen digu. Hortik honako esatera: jainkoak laguntzen dionean, zein adiskideren beharra ote du?⁵⁸; baina badirudi zentzugabea dela gizaki zoriontsuak ongi guztiak dituela ustean egonik (10), hari adiskiderik ez ematea, kanpoko ongietan handiena adiskidea omen baita. Eta adiskideari neurri handiagoan badagokio ongia egitea ongia jasotzea baino, eta mesedeak egitea ongiaren eta bertutearen berezkoa bada, eta ongia adiskideei egitea arrotzei egitea baino ederragoa baldin bada, gizaki bertuetsuak ongia egiteko adiskideak behar izango ditu. Horregatik ikertzen da, bestalde, adiskideak zorionean behar diren neurri handiagoan ala zorigaitzean, (15) gizaki zoritxarrekoak ongileak behar omen baititu eta zorionsuek ongia egiteko gizakiak. Baina gizaki dohatsua bakarti bihurtzea agian izango da zentzugabea, inork ez bailuke aukeratuko ongi guztiak bere buruarentzat bakarrik edukitzea, gizakia izate politikoa baita, eta berez besteekin bizi behar du. Eta hori, beraz, gizaki zorionsua ere dagokio, (20) hark berezkoak diren ongi guztiak baititu, eta argi dago egunak adiskideekin eta gizaki zintzoekin igarotzea arrotzekin eta edonolako kideekin igarotzea baino hobea dela. Horrela, bada, gizaki zoriontsuak adiskideak behar ditu.

Beraz, zer esaten dute lehenengo iritzia defendatzen dutenek eta zein zentzutik esaten dute egia? Ez ote dute pentsatzen gizaki gehienek adiskideak baliagarriak direla? Gizaki dohatsuak, jakina, ez du horrelako adiskideen inolako beharrik izango, (25) berak bere baitan ongi guztiak ditu eta; beraz, plazerarengatik direnen beharrik ere ez, edo neurri txikian (bere bizitza atsegina izanik, ez baitu inolaz ere plazer arrotzaren beharrik); eta horrelako adiskiderik behar ez duenez, badirudi ez duela adiskiderik behar. Baina ondorio hori, ziur aski, ez da egia. Izan ere, hasieran esan dugu zoriontasuna nolabaiteko jarduera dela, eta argi dago jarduera sortu egiten dela (30) eta ez dela edukitzen den zerbait bezalakoa. Baina zorionsua izatea bizi izatean eta jokatzeko badatza, eta gizaki onaren jarduera berez bertutetsua eta atsegina bada –hasieran esan bezala–, eta gizakiari berez dagokiona ere atsegina bada, eta gure ondokoak geure burua baino hobeto behatu ahal baditzakegu eta

⁵⁸Euripides, *Orestes* 667.

haien ekintzak geureak baino, (35) eta adiskideak ere diren gizaki bertutetsuen ekintzak gizaki onentzat atseginak baldin badira (1170a) (ekintza horiek berez atseginak direnen bi ezaugarriok baitituzte); gizaki dohatsuak, orduan, horrelako adiskideak beharko ditu, egiatan ekintza zintzoak eta berezkoak behatu nahi baditu, eta horrelakoak dira ona den adiskidearen ekintzak.

Bestalde, gizaki zoriontsuak atseginez bizi behar duela pentsatzen da; (5) beraz, gizaki bakartiaren bizitza nekeza da, bere buruarekin jardutea etengabe ez baita erraza; besteekin batera, aldiz, eta besteekiko askoz ere errazagoa izango da. Beraz, haren jarduera, berez atsegina izanik, askoz jarraiagoa izango da, eta gizaki dohatsuari dagokionez horrela izan behar da, gizaki bertutetsuak, bertutetsua den neurrian, bertutearen arabera ekintzak atsegin baititu; gaiztakeriatik datozenekin, oster, atsekabetzen da, (10) musikaria melodia ederrez gozatu eta txarrak direnez gogaitzen den bezala. Bestalde, gizaki onekin bizi izateak nolabaiteko prestakuntza ekar dezake bertutean, Teognisek ere esaten duenez⁵⁹. Bestalde, modu naturalago batez zorrotzago aztertzen badugu, badirudi adiskide bertutetsua gizaki bertutetsuarentzat berez nahigarria dela, (15) esan baitugu berez ona den gizakia, gizaki bertutetsuarentzat ona eta atsegina dela harengatik berarengatik. Bestalde, animaliei dagokienez, zentzumenek definitzen dute bizitza, baina gizakiei dagokienez, zentzumenek eta adimenak; ahalmena bere jarduera egokiara zuzentzen da eta nagusia dena jardueran datza; hortaz, bizitza sentitzean eta pentsatzean omen datza, nagusiki. (20) Baina bizitza ona eta atsegina berez diren horietako bat da, zerbait zehatza baita, eta zehatza izatea ona denaren naturari dagokio; eta berez ona da, baita gizaki zintzoarentzat ere; horregatik, hain zuzen, iruditzen zaie atsegina gizaki guztiei; baina bizitza zitala eta usteldua ez da horrela hartu behar, ezta atsekabez beterik dagoena ere, horrelako bizitza zehaztugabea baita, hartan dagoen guztia bezala. (25) Hurrengo ataletan, atsekabeari buruz mintzatzen garenean, argiago geratuko da hori. Eta bizitza berez ona eta atsegina bada (eta badirudi horrela dela, gizaki guztiek irrikatzen baitute, zintzoak eta dohatsuak direnek gehienbat, horientzat beren

⁵⁹Teognis 35.

bizimodua nahigarriena baita, eta haien bizitza, dohatsuena); eta ikusten duenak ikusten duela hautematen badu, eta entzuten duenak, entzuten duela, (30) eta ibiltzen denak, ibiltzen dela, eta berdin, gainerako kasuetan ere jarduten dugula hautematen den zerbait badago, beraz, hautematen dugunean, hautematen ari garela hautematen dugu eta pentsatzen dugunean, pentsatzen ari garela, eta hautematen ari garela eta pentsatzen ari garela hautematea, bagarela hautematea da (existitzea hautematea eta pentsatzea baitzen), (1170b) eta bizi garela hautemate berez atsegina bada (bizitza berez ona baita, eta gure baitan ongi bat dagoela hautematea atsegina da), eta bizitza nahigarria bada, eta gehienbat onak direnentzat –haientzat izatea ona eta atsegina baita– (5) (ona berez denaz kontzienteak direnak gozatzen baitira); eta gizaki bertutetsuak bere buruarekiko duen egoera adiskidearekiko ere badu (adiskidea beste ni bat baita), orduan izatea bera bakoitzarentzat nahigarria den modu berean, horrelakoa izango da adiskidearena ere, edo antzekoa. Eta izatea nahigarria da nork bere buruarentzat ongi bat hautemateagatik, eta honelako sententzia atsegina da berez. (10) Orduan, adiskidea ere badelako kontzientzia izan behar da, eta hori elkarbizitzan eta hitzen eta pentsamenduen trukean sor daiteke, gizakiei dagokienez elkarbizitza horrela adieraz bailiteke, eta ez, abereekin bezala, leku berean larratzeagatik.

Beraz, gizaki dohatsuarentzat izatea berez nahigarria bada, berez ona eta atsegina baita,(15) eta adiskidearena ere oso antzekoa bada, adiskidea ere nahigarriak diren horietako bat izango da. Eta gizaki dohatsuak bere buruarentzat nahigarria duena eduki behar du, edo horren falta izango du. Beraz, gizaki zoriontsuak adiskide bertutetsuen beharra izango du.

X

(20) Beraz, ahalik eta adiskide gehien egin behar ote da edo abegiari dagokionez zuzen esaten omen den bezala –ez oso abegitsua, ezta ez–abegitsua ere–⁶⁰, adiskidetasunari dagokionez ere egokia izango da adiskideen falta ez izatea, ezta adiskide gehiegi izatea ere? Hortaz, baliteke esandako hau egokia izatea onurari begira jokatzeko dutenentzat, gizaki askori

⁶⁰Hesiodo, *Opera et dies* 715.

mesedeak ordaintzea nekeza baita, (25) eta bizialdia ez da nahikoa hori egiteko. Hortaz, norberaren bizitzarako beharrezkoak ez diren horiek, ongi bizi izateko soberakoak eta eragozgarriak dira, eta, beraz, ez dago haien beharrik. Halaber, plazerarako ere adiskide gutxi dira beharrezkoak, janarian ongailua bezala. Baina adiskide bertutetsuei dagokienez, ahalik eta gehien izan behar da, ala ba al dago neurri bat adiskide kopuruan ere, (30) hirian gertatu bezala? Izan ere, hamar gizakik ez lukete hiri bat sortuko, baina ehun milatik gora gizakirekin jadanik ez legoke hiririk. Hala ere, kopurua agian ez da izango unitate jakin bat, muga batzuen arteko edozein kopuru baizik. (1171a) Beraz, adiskide kopurua ere bada mugatua; eta handiena da, agian, elkarrekin bizi litekeena (hau adiskidetasunaren ezaugarririk berezkoena omen baita); eta argi dago ezin dela inor gizaki askorekin bizi eta haiekin benetan egon. Gainera, haiek ere elkarren adiskideak izan behar dira, (5) haiek guztiek elkarrekin igaro behar badute bizitza, eta hori, askoren artean, nekeza da lortzen. Bestalde, askoren artean benetan besteekin batera poztea eta nahigabetzea ere zaila da, gerta baitaiteke aldi berean batekin gozatzea eta beste batekin atsekabetzea. Beraz, agian izango da egokia adiskide askorena izatea ez bilatzea, elkarrekin bizi izateko nahikoak diren hainbat adiskide edukitzea baizik. (10) Izan ere, ez dirudi gizaki askoren oso adiskide mina izan daitekeenik, eta horregatik ere ezin daiteke gizaki batzuk maite, maiteak adiskidetasunaren nolabaiteko gehigikeria izan nahi baitu, eta hori gizaki bakar batekiko lor daiteke. Beraz, adiskidetasun handia ere gizaki gutxiekiko eduki daiteke, eta badirudi horrela gertatzen dela, lagunen arteko harremanetan ez baitira adiskide asko sortzen, eta (15) olerkietan goraipaturiko adiskidetasunak bi gizakiren artekoak dira beti. Eta badirudi adiskide asko dutenak eta denak konfiantza osoz tratatzen dituztenak inoren adiskideak ez direla, hiritar-begirunez ez bada, eta horiei adeitsuak esaten zaie. Egia esan, hiritar-begirunez gizaki askoren adiskidea izan daiteke adeitsua izan gabe, benetan zintzoa izanik baizik; baina adiskideen bertutearengatik eta haiengatik beraingatik, ezin daiteke askoren adiskidea izan; (20) eta horrelakorik aurkitzea, gutxi izanda ere, estimagarria da.

Zorionean behar ditugu neurri handiagoan adiskideak, edo zoritxarreen? Izan ere, bi egoeratan bilatzen dira, zoritxarreen daudenak sorospenaren beharrea baitaude, eta zorionean daudenak haiekin bizi izateko eta haiei ongia egin ahal izateko, ongia egin nahi baitute. Hortaz, adiskidetasuna askoz beharrezkoagoa da zoritxarreen, eta egoera horietan (25) horregatik behar dira adiskide baliagarriak; baina zorionean askoz nobleagoa da, eta horregatik bilatzen dira gizaki zintzoak ere, haiei mesedeak egitea eta bizialdia haiekin igarotzea nahigarriagoa baita. Izan ere, adiskideen presentzia bera ere bada atsegina, bai zorionean bai zoritxarreen, atsekabeturik daudenek penak arintzen baitituzte adiskideek haiekin batera jasaten dituztenean. (30) Horregatik, galdetu liteke ea adiskideek atsekabea jasango balute bezala gertatzen ote den, ala ez den hori; izan ere, haien presentziak, hau atsegina dugularik, eta zama gurekin jasaten dutela jakiteak atsekabea arintzen dute. Dena den, utz dezagun arintzea arrazoi horiengatik zein beste edozer arrazoiengatik ote den; izan ere, agerian dago esandakoa gertatzen dela. (35) Hala ere, badirudi adiskideen presentzia nolabaiteko nahasketa dela, adiskideak ikustea bera atsegina baita, (1171b) zoritxarreen dagoenarentzat gehienbat, eta atsekabea arintzeko nolabaiteko sorospena da (adiskidea gozagarria baita bere presentziarekin, baita bere hitzarekin ere, trebetasuna erakusten badu, bere adiskidearen aiurria ezagutzen baitu, eta hura atsegin eta atsekabetzen duen guztia); (5) baina bestalde, atsekabetsua da adiskidea gure zoritxarrengatik atsekabetzen dela hautematea, gizaki orok ekiditen baitu adiskideentzat atsekabearen eragilea izatea. Horregatik, hain zuzen ere, gizaki kementsuak arduratzen dira euren atsekabeetan adiskideek parte har ez dezaten, eta atsekabearentzat guztiz soraioa ez den gizakiak ezin du jasan bere adiskideei sorturiko atsekabea, eta, oro har, ez du deitore-kiderik onartzen, hura bera minduria ez delako; (10) emakumeak eta haien antzeko gizonak, berriz, haiekin adiakatzen duenik izateaz gozatzen dira, adiskideak eta deitore-kideak bezala maite dituzte. Baina argi dago beti hobe dena imitatu behar dugula.

Zorionean adiskideen presentziak badu denbora atsegin handiz igarotzea eta haiek gure ongiekin gozatzen direla nabaritzea (15). Horregatik, badirudi gure zorionetara gonbidatu beharko genituzkeela gustura (ongia egitea ederra baita), eta saihestu zoritxarretara gonbidatzea, gaitzak ahalik eta gutxien partekatu behar baitira, eta hortik nahikoa ni zoritxarrekoa⁶¹ esaera. Adiskideei laguntza eskatu behar diegu, bereziki, eragozpen txikia jasanda onura handia egin diezaguketenean. (20) Eta alderantziz, agian izango da egokia zoritxarrean dauden adiskideengana hurbiltzea, haiek deitu gabe eta atsegin handiz (adiskideari ongia egitea baitagokio, beharrean egonik eskatu ez dutenei gehienbat, bientzat askoz ederragoa eta atseginagoa baita); eta zorionean atsegin handiz lan egin elkarrekin (haietan ere baitago adiskideen beharra); baina mesedeak jasotzerakoan astiro ibili behar da, (25) onura lortzea gutiziatzea ez baita noblea. Halaz ere, mesedeak errefusatzegatik zakar irudia ere ekidin behar da, batzuetan hori gertatzen baita. Hortaz, agerian dago adiskideen presentzia nahigarria dela egoera guztietan.

XII

Beraz, maitaleek ikusmena zentzumenik maitagarriena eta gainerakoak baino nahigarriago duten bezala, (30) –amodioa zentzumen horren bidez bereziki izaten eta sortzen baita–, adiskideentzat ere izango ote da elkarrekin bizi izatea nahigarriena? Izan ere, adiskidetasuna elkarte bat da, eta nork bere buruarekiko duen egoera adiskidearekiko ere badu. Norberari dagokionez, izatearen sentsazioa nahigarria da, eta adiskideari dagokionez ere bai, beraz; (35) baina sentsazio horren jardura elkarbizitzan sortzen da, eta (1172a) horren ondorioz adiskideek horretarako joera dute, espero izatekoa denez. Eta gizaki bakoitzarentzat izatearen gakoa edo bizi izatea nahigarria egiten duen arrazoia edozein izanda ere, horretan igaro nahi izaten da denbora adiskideekin; eta horregatik, hain zuzen ere, batzuek edan egiten dute elkarrekin; beste batzuek, dadotara jokatzin dute; beste batzuek, euren aldetik, ariketa fisikoak, ehizean ibili edo filosofatu egiten dute elkarrekin, (5) eta gizakiok, oro har, bizitzan

⁶¹Egile ezezaguneko esana, frag. 76 (Nauck)

gehien maite duten horretan, hain zuzen ere, igarotzen dute denbora elkarrekin: izan ere, adiskideekin elkarrekin bizi nahi izanik, jarduera horiek egiten dituzte eta elkarrekin parte hartzen dute, haien bidez elkarbizitza sortzen dela pentsatzen baitute. Beraz, gizaki doilorren artean sortzen den adiskidetasuna zitala da (sendoak ez izanik, jarduera doilorretan parte hartzen baitute elkarrekin, (10) eta zitalak bilakatzen dira elkarren antzekoak egiten diren neurrian); gizaki zintzoen adiskidetasuna, oster, ona da, eta tratuarekin areagotu egiten da; eta badirudi hobeak ere bihurtzen direla elkarrekin jardutean eta elkar zuzentzean, atsegin dutena eredutzat hartzen baitute elkarrengandik, eta hortik gizaki onengandik gauza onak esaera⁶². Adiskidetasunari dagokionez, beraz, nahikotzat hartuko dugu honaino esandakoa; (15) jarraian plazerari buruz ariko gara.

⁶²Teognis 35.

I

Horren ondoren, agian aritu beharko dugu jarraian plazerari buruz, (20) gure izaerari erabat lotuta omen baitago; horregatik, gazteak hezitzean, plazeraz eta atsekabeaz gobernatzen dute hezitzaileek; eta badirudi bertute etikoari begira ere baliabide handia dela gozatu behar den horretaz gozatzea eta gorrotatu behar den hori gorrotatzea; izan ere, horrek bizialdi osoan zehar irauten du, eta eragina eta indarra ditu bertuterako, baita bizitza zoriontsurako ere, (25) gizakiek plazera hautatu eta atsekabea, berriz, saihestu egiten baitute. Eta badirudi horrelako gaiak ez liratekeela inolaz ere alde batera utzi beharko, kontuan hartuta haiei buruz eztabaida handia dagoela. Izan ere, batzuek ongia plazera dela esaten dute, eta beste batzuek, alderantziz, erabat doilorra dela; haiek, agian, horrelakoa dela sinetsita egonik, eta (30) horiek, berriz, gure bizitzarako plazera gauza ziztrina dela aldarrikatzea hobe delako ustean egonik –plazera ziztrina ez izan arren–, gizaki gehienek plazerera jo eta plazeraren esklaboak direla uste dute, eta horregatik, aurkako norabidera gidatu behar direla, horrela erdiko terminora iritsiko omen baitira. Baina uste dut ez dela inolaz ere zuzen esaten, pasioei eta ekintzei dagokienez arrazoinamenduak ez baitira ekintzak bezain sinesgarriak (35) eta, horren ondorioz, arrazoinamenduak eta zentzumenen datuak bat ez datozenean, erdeinatu egiten dira haiek eta, gainera, egia belzten dute; (1172b) izan ere, plazera gaitzetsi eta gero noizean behin irrikatzen duenak horretarako joera izaten omen duela pentsarazten du –plazera beti desiragarria balitz bezala–, gizaki gehienek ez baitute bereizten. Beraz, badirudi egiazko arrazoinamenduak ezagutzarako ez ezik (5) bizitzarako ere badirela oso baliagarriak, ekintzekin bat datozenez sinesgarriak direlako, eta, horren ondorioz, horiek ulertu dituzten gizakiak horien arabera bizi izatera bultzatzen dituzte. Baina horri guztiari buruz esandakoa nahikoa da; orain, hel diezaiozun plazerari buruz esandakoari.

II

Horrela, bada, Eudoxok plazera ongia dela uste zuen, (10) izaki guztiek, bai arrazoidunek bai adimengabeek, plazererako joera dutela ikusten zuelako, eta kasu guztietan nahi izaten dena ona dena eta diferentzia handiz gorena dena dela; hortaz, izate guztiak gauza berberara eramanez izateak adierazten zuen plazera guztientzat ongirik onena dela (izaki bakoitzak bere buruarentzat ona dena aurkitzen baitu, bere elikagaia bezala), eta izaki guztientzako ongia eta denek gutiziatzen duten hori ongia hutsa da. (15) Baina arrazoinamenduok, haiengatik beraiengatik baino, Eudoxoren aiurri bertutetsuagatik sinetsi ziren, antza denez oso gizon neurritzkoa baitzen; hortaz, bazirudien ez zuela hori guztia esaten plazeraren adiskidea zen aldetik, esaten zuena egiatan horrelakoa zelako baizik. Eta uste zuen kontrako ikuspuntutik ere horren nabariak zirela arrazoinamenduak, atsekabea berez higuingarria baita izaki guztientzat, (20) eta, berdin, aurkakoa, beraz, nahigarria. Bestalde, nahigarriena da ez beste zerbaitengatik eta ez beste zerbaiti begira aukeratzen duguna, eta guztien adostasunez plazera da horrelakoa; izan ere, inork ez du galdetzen zergatik gozatzen den, plazera berez nahigarria delakoan. Gainera, plazera edozein ongiri erantzen bazaio, ongia nahigarriagoa bihurtzen da (25) –zuzen edo neurritsu jokatzeari, alegia– eta ongia ongiaz handitzen da. Hortaz, arrazoinamendu honek plazera ongietako bat dela erakusten omen du, baina ez beste edozein baino hobea, ongi oro beste ongi bati lotuta isolaturikoa baino aukeragarriagoa baita. Izan ere, horrelako arrazoinamendu batez gezurtatzen du Platonek⁶³ ongia plazera dela, bizitza atsegina zuzentziaz zuzentziarik gabe baino nahigarriagoa baita; (30) eta nahastua dena hobea bada, plazera ez da ongia, ongia ez baita desiragarriagoa bihurtzen zerbait erantseagatik. Eta argi dago berezko ongi batekin joateagatik desiragarriagoa egiten dena inolaz ere ezin litekeela ongia izan. Beraz, zer ote da hori, zeinetan geuk ere parte hartzen dugun? (35) Horrelako zerbait bilatzen dugu, bilatu ere.

Bestalde, izate guztiek irrikatzen dutena ongia dela ezeztatzen dutenek ez dute ezer esaten. (1173a) Izan ere, esaten dugu denek sinesten duten hori badela, eta sinesten hori

⁶³Platon, *Philebus*, 20e-22e, 60a-61b.

ukatzen duenak ez du inolaz ere ezer sinesgarriagorik esango. Izan ere, izaki burugabeek beste inork ez balu plazera irrikatuko, esandakoak nolabaiteko zentzua lezake, baina izate burutsuek ere irrikatzen badute, nola izan lezake? Eta izaki ziztrinengan ere, agian izango da haiek beraiek baino indartsuagoa den berezko ongi bat, (5) haien ongira jotzen duena, alegia. Bestalde, ez dirudi plazeraren kontrakoari buruzko arrazoinamendua ere zuzena izango denik; izan ere esaten da atsekabea gaitz bat bada ere, ezin daitekeela ondorioztatu plazera ongi bat denik, gaitz bati beste gaitz bat kontrajar baitakioke, eta biak ez bata ez bestea ez den beste gaitz bati kontrajarri. Azken hau ez dago gaizki esanda, baina ez da zuzena, behintzat (10) aipatzen ari garen gaiari dagokionez, biak gaitzak balira, biak ere ekidin beharko bailirateke, eta ez gaitzak ez ongiak ez balira, ez litzateke ekidin behar ez bata ez bestea, edo modu berean; baina orain argi dago bata gaitza den aldetik ekidin eta bestea ongia den aldetik aukeratzen direla; horrela, bada, kontrakoak dira.

III

Hala ere, plazera nolakotasun bat ez izateagatik ez da ondorioztatu behar ongi bat ere ez denik, bertutearen jarduerak ere ez baitira nolakotasunak, (15) ezta zoriontasuna ere. Bestalde, esaten dute ongia zehazgarria dela, eta plazera, berriz, zehaztugabea, honek handiagoa eta txikiagoa dena onartzen baititu. Hala ere, plazera sentitzetik hori ondorioztatzen badute, zuzentasunari eta gainerako bertuteei dagokienez gauza bera gertatuko da, horietaz nabari esaten baitute gizakiek neurri handiagoan eta txikiagoan horrelako edo halako aiurriak dituztela eta bertuteen arabera jokatzen dutela: (20) izan ere, badaude gizaki zuzenagoak eta kementsuagoak, eta zuzen eta neurritsu jokatu, neurri handiagoan eta neurri txikiagoan egin daiteke. Bestalde, plazeraren ezagutzaz baliaturik hitz egiten badute, azkenean ez omen dute inondik inora kausa esaten, batzuk garbiak eta besteak nahastuak badira. Eta zerk eragozten du plazerarekin gertatzea osasunarekin gertatzen dena, hau da, zehaztua izanda ere, gehiago eta gutxiago dena onartzea? (25) Izan ere, gauza orotan ez dago proportzio bera, ezta proportzio bakar bat beti gauza berean ere; aitzitik, moteltzen bada ere, neurri bateraino

irauten du, eta gehiagotan eta gutxiagotan bereizten da. Eta plazerari dagokionez ere horrela gerta daiteke. Bestalde, ongia betea eta mugimenduak eta sortzeak beteak direla suposatuta, (30) plazera mugimendu bat eta sortze bat dela erakusten saiatzen dira. Hala ere, badirudi ez dutela zuzen esaten, ezta mugimendu bat dela esaten dutenean ere; izan ere, badirudi mugimendu orori abiadura eta moteltasuna dagozkiola, berez ez bada –unibertsoaren mugimenduari bezala–, beste zerbaiti dagokionez; baina plazerean ez dago ez bata ez bestea. Izan ere, plazeraren eragina azkar antzeman daiteke, haserrearena bezala, (1173b) baina ezin daiteke azkar gozatu, ezta beste bati dagokionez ere; ibiltzea, ostera, azkar egin daiteke, eta hazitzea, eta horrelako guztiak. Beraz, plazerean azkar edo geldiro sar daiteke, baina plazerean ezin daiteke azkar jardun, hau da, gozatu. Eta nola izan liteke plazera sortze bat?

(5) Izan ere, badirudi gauza jakin bat ez dela edozein gauzatatik sortzen, sortzen den gauza horretan barreiatzen dela baizik; eta atsekabea dela plazeraren sortzea den horren usteldura. Halaber, esaten dute atsekabea naturaren araberakoa denaren gabezia dela, eta plazera, asetzea. Baina pasio horiek gorputzarenak dira. Hortaz, plazera naturaren araberakoa denaren asetzea bada, (10) asetzea gauzatzen den horretaz gozatuko da, eta hori, beraz, gorputza da. Baina ez dirudi hori izango denik; beraz, asetzea ere ez da plazera izango, asetzean baten batek plazera senti balezake ere, ebakuntza batean atsekabea senti lezakeen bezala. Badirudi iritzi hau elikaduraren inguruko atsekabe eta plazeretatik sortu dela, elikaduraren beharraren eraginez (15) atsekabeturik daudenek plazera sentitzen baitute asetzen direnean. Hala ere, hori ez da plazer orotan gertatzen, ezagutzaren inguruko plazerak, zentzumenetan usaimenarenak, soinuek eta ikuskizun askok, eta oroitzapen batzuek eta itsaropenek ez baitakarte atsekaberik. Beraz, zeren sortzeak izango ote dira plazer horiek?

(20) Izan ere, ez da egon horiek ase lezaketen ezeren beharrik. Baina plazer gaitzesgarriak aurkezten dituztenen aurka esan liteke horiek ez direla plazerak (izan ere, disposizio biziotsua dutenentzat atseginak badira, ez da pentsatu behar horiek benetan atseginak direnik, haientzat izan ezik, gaixorik daudenei osasungarriak, gozoak edo mikatzak iruditzen zaizkien gauzak besteei ere berdin iruditzen zaienik pentsatu behar ez den bezala, (25) ezta zuriak direnik

ikusmen gaixoa dutenei zuriak iruditzen zaizkienak ere). Edo esan liteke plazerak nahigarriak direla, baina inolaz ere gaitzesgarriak diren ekintza horien bidez lortzen direnak, behintzat: adididez, aberastea nahigarria da, baina ez saldurkeriaz, eta osasuna izatea, baina inolaz ere edozer janez; edo esan liteke espezieari dagokionez plazerak desberdinak direla, ekintza ederretatik datozenak eta ekintza lotsagarrietatik datozenak desberdinak baitira, eta ezin daitekeela gizaki zuzenaren plazeraz goza, zuzena izan gabe, (30) ezta musikariarenaz ere, musikaria izan gabe, eta berdin gainerakoetan ere. Adiskidea eta lausengaria desberdinak izateak agerian jartzen omen du plazera ez dela ongi bat, edo plazer desberdinak daudela espezieari dagokionez; izan ere, batak ongiari begira omen ditu harremanak, eta besteak plazerari begira, eta hori gaitzesten den bitartean, hura, berriz, laudatu egiten da, harremanak beste xede bati begira ezartzen dituelakoan. (1174a) Eta inork ez luke aukeratuko bizialdi osoan ume baten adimenarekin bizi izatea, umeak gozatzeko gai diren plazerik handienez gozatuko balitz ere, ezta zerbait lotsagarria egiteaz atsegina hartzea ere, inoiz atsekabetuko ez balitz ere. Eta gauza askori dagokionez, ahalegin handiak egingo genituzke, (5) inolako plazerik ekarriko ez baligukete ere, ikustea, oroitzea, jakitea edo bertuteak edukitzea, besteak beste. Eta ekintza horiei nahitaez plazera jarraitzeak ez du batere axola, horiek aukeratuko baikenituzke haietatik plazerik sortuko ez balitz ere. Beraz, argi omen dago plazera ez dela ongia, ezta plazer oro nahigarria ere, (10) eta batzuk berez nahigarriak direla, hauek eta besteak espezieari dagokionez edo sorburuetan bereizten direlarik. Horrela, bada, izan bedi nahikoa plazerari eta atsekabeari buruz esandakoa.

IV

Plazera zer den eta nolakoa den askoz argiago geldituko da, berriro hasieratik ekiten badiogu ikerketari. Izan ere, badirudi ikustea une orotan betea dela, (15) ez baitago ondoren gertaturiko haren espeziea hobetuko lukeen ezeren beharrean. Badirudi plazera ere horren antzekoa dela, nolabaiteko osotasuna baita, eta inoiz ezin liteke ulertu plazer bat, zeinaren espeziea hobetuko litzateke denboran luzatu ondoren. Horregatik ez da mugimendu bat,

mugimendu oro denboran eta helburu bati begira gertatzen baita, (20) eraikuntza bezala, eta betea da jotzen zuen helburura iristen denean, denbora osoan zehar edo une jakin horretan. Baina mugimenduak bete gabeak dira beren zatietan eta denboran zehar, eta alde bateko mugimenduak desberdinak dira elkarren artean eta mugimendu osoaren espezieari dagokionez. Izan ere, harrien jartzea eta zutabe baten ildokatzea ekintza desberdinak dira, eta horiek eta tenpluaren eraikuntza ere bai; (25) eta tenpluaren eraikuntza betea da (ez baitago aurrez ezarritako xedeari begira ezerren beharrean), baina zimentarrien eta triglifoen eraikitzea bete gabea da, bata eta bestea zatikakoak baitira. Beraz, espezieari dagokionez desberdinak dira, eta ezin daiteke edozein unetan espezieari dagokion mugimendu bete bat aurkitu, eta aurkitzekotan, denboraldiaren osotasunean; eta berdin ibiltzean eta gainerako mugimenduetan. (30) Izan ere, traslazioa leku batetik beste leku baterako mugimendu bat bada, traslazio desberdinak ere badaude espeziearen arabera, hegan egitea, ibiltzea, jauzi egitea eta horrelakoak, alegia. Eta traslazioan ez ezik, ibiltzean beran ere badaude, abiapuntua eta helmuga ez baitira berdinak estadio osoan eta estadioaren zati batean, ezta zati batean eta beste batean ere, ezta marra hau edo hura gurutzatzea ere, (1174b) marra bat ez ezik, leku jakin batean dagoen marra bat ere zeharkatzen baita, eta marra hori eta marra hura leku desberdinetan daude. Baina mugimenduari buruz beste tratatu batzuetan mintzatu da zehaztasunez, eta badirudi edozein denbora-tartetan mugimendu ezin beterik ez dagoela, kasu gehienetan bete gabeak eta espezieari dagokionez desberdinak direla baizik, (5) espeziea abiapuntuak eta helmugak zehazturik baldin badago, behintzat. Plazeraren espeziea, bere aldetik, betea da edozein unetan. Argi dago, beraz, plazera eta mugimendua elkarren artean desberdinak izango direla, eta plazera gauza osoak direnen eta beteen artean dagoela. Bestalde, argudia liteke denboran zehar ez bada, mugitzerik ez dagoela, baina bai gozatzea, orain aldian gauzatzen den hori osotasun bat baita. Esandako horretatik argi dago, bestalde, (10) plazera mugimendu bat edo sortze bat dela esaten dutenak oker daudela, mugimendua eta sortzea ez baitira gauza guztiez esaten, zatigarriak eta osotu gabeak direnez baizik; izan ere, ez dago ikusmenaren sotzerik, ezta puntuarenik, ezta unitatearenik ere, eta ez dago gauza

horien guztien mugimendurik, ezta sortzerik ere; hortaz, ezta plazerarenik ere, osotasun bat baita.

Zentzumen orok hautemangarria denarekiko jarduten du, (15) eta modu bete batean jarduten du zentzumenez objektu hautemangarririk ederrenarekiko disposizio ona duenak (badirudi, hain zuzen ere, jarduera betea horrelako zerbait dela nagusiki, eta zentzumenak edo horrek hartzen duen organoak jarduten duela esatea ez da ezertan bereizten); hortaz, zentzumen bakoitzean jarduera onena izango da zentzumenak zentzumenez objektu hautemangarririk gorenarekiko disposizio bikainena duen organoarena; eta jarduera hori beteena eta atseginena izango da; (20) izan ere, zentzumen orotan plazera dago, eta, berdin, pentsamendu eta begiespen orotan; baina atseginena beteena da, eta beteena da zentzumenak zentzumenez objektu hautemangarririk onenarekiko disposizio ona duen organoarena, eta plazerak jarduera betea bilakatzen du. Hala ere, plazerak ez du betea bilakatzen jarduera zentzumenak eta horietaz hauteman daitekeena –bata eta bestea onak izanda ere– egiten duten moduan, (25) osasuna eta sendagilea ere osasuntsu egotearen kausa modu berean ez diren bezala. Zentzumen bakoitzean plazera sortzen dela agerikoa da (esaten baitugu ikuskinak eta soinuak atseginak direla); eta agerikoa da, bestalde, plazerik handiena sortzen dela zentzumenik bikainenak honelako objektu bati begira jarduten duenean; (30) sentitzen duena eta sentiturikoa horrelakoak izanik, beti egongo da plazera, hautematearen eragilea eta jasotzailea egotekotan, behintzat. Plazerak jarduera hobetzen du, ez horren baitakoa den aztura den aldetik, hark dakarren ondorengo helburu bat den aldetik baizik, gaztaroak bizitzaren lorea bezala. Beraz, adimenaz hautematen dena edo zentzumenez hautematen dena, eta bereizten duena edo aztertzen duena behar bezalakoa den neurrian (1175a) jardueran egongo da plazera; izan ere, jasotzailea eta eragilea antzekoak izanik eta elkarrekiko egoera berean izanik, emaitza berbera berez sortuko da. Gauzak horrela, nola ez da inor etengabe gozatzen ari? Agian nekatzen garelako? Izan ere, giza ahalmen guztiak ezgai dira etengabeko jardunean izateko; (5) beraz, plazera ere ez da sortzen, plazerak jarduerari jarraitzen baitio. Eta gauza batzuk, berriak direnez, atseginak ditugu, baina ondoren, ez modu berean, honako

arrazoi honengatik: hasieran adimena akuilaturik dago eta ahaleginez jarduten du gauza horiekiko, ikusmenari dagokionez tinko begiratzen dutenek bezala, baina ondoren, jardurera ez da horrelakoa, axolagabea baizik, (10) eta horregatik, plazera ere ahultzen da.

Gizaki guztiek plazererako guraria dutela pentsa liteke, denek bizi izatea irrikatu ere egiten dutelako; bestalde, bizitza nolabaiteko jarduera da, eta norberak gehien maite dituen gauza horiekin eta horietan jarduten du; adibidez, musikariak doinuak entzuten, ikastunak begispen-ikerbizunetan, (15) eta, berdin, gainerako jardueretan. Bestalde, plazerak jarduerak hobetzen ditu; beraz, bizitza –denek gutiziatzen duten hori, alegia– ere bai, Hortaz, arrazoizkoa da plazererako joera ere edukitzea, norberari bizitza –nahigarria dena– hobetzen baitio. Baina utz dezagun oraingoan bizitza plazeragatik ala plazera bizitzagatik irrikatzen dugun; izan ere, badirudi bata eta bestea elkarri uztarturik daudela eta bereizterik onartzen ez dutela, (20) jarduerarik gabe ez baita plazerik sortzen, eta plazerak jarduera oro hobetzen du.

V

Hori dela eta, badirudi espezieari dagokionez ere desberdinak direla plazerak, uste baitugu espezieari dagokionez desberdinak diren gauzak gauza desberdinek bilakatzen dituztela beteak (badirudi, hain zuzen ere, horrela dela, bai gauza naturalei bai arteak sorturikoei dagokienez; adibidez, animaliak eta zuhaitzak, eta pinturak, estatuak, etxeak eta altzariak); (25) eta modu berean, espezieari dagokionez desberdinak diren jarduerak espezieari dagokionez desberdinak diren jarduerak hobetuak izango dira. Hortaz, adimenarenak eta zentzumenenak jarduera desberdinak dira, eta horiek, espeziearen arabera, elkarren artean desberdinak; hortaz, horiek hobetzen dituzten plazerak ere bai. Eta hori bera ondorioztatu liteke plazer bakoitza hark hobetzen duen jarduerari elkarlotuta izatetik. (30) Izan ere, plazer egokiak areagotzen du jarduera, edozein gaitan atseginez jarduten dutenek hobe bereizten eta zehazten baitute; adibidez, geometria ikasteaz gozatzen direnak geometrialariak izatera iristen dira eta dena ulertzen dute hobeto, eta berdin artezaleek, eraikuntzazaleek eta gainerako guztiek ere (35) beraiei dagokien lanari ekiten diote gogoz,

lanaz gozatzen baitira. Beraz, plazerek jarduerak areagotzen dituzte, eta jarduerak areagotzen dituzten plazerak berez dagozkie; eta espeziari dagozkionez desberdinak diren gauzei espeziari dagozkionez desberdinak diren gauzak dagozkie. (1175b) Bestalde, hori argiago ere geldituko da jarduera batek sorturiko plazera beste jarduera baterako eragozpena dela kontuan hartzen bada. Izan ere, xirulazaleek ezinezkoa dute solasean arreta jartzea xirulajotzaile bati arretaz entzuten ari bazaizkio, xirularen arteaz momentuko jardueraz baino gehiago gozatzen baitira; (5) beraz, xirularen bitartez sortutako plazerak solasaren inguruko jarduera hondatzen du. Eta gauza bera gertatzen da gainerako kasuetan ere aldi berean bi jardueratan aritzen garenean, jarduera atseginagoak bestea baztertzen baitu, eta askoz gehiago plazerari dagokionez oso desberdinak badira, bestean, beraz, ezin baitugu inolaz ere jardun. (10) Horregatik, edozertaz izugarri gozatzen garenean, ez dugu inondik inora besterik egiten, eta zerbait egiten dugu beste zerbaitek gozamen arina ematen digunean; adibidez, antzokietan gozokiak jaten dituztenek bereziki egiten dute hori saria lortzeko lehian ari diren aktoreak kaskarrak direnean. Eta plazer egokiak jarduerak zehaztu eta iraunkorragoak eta hobeak egiten dituzenez, (15) eta besteren plazerek, berriz, horiek hondatzen dituztenez, argi dago plazerok elkarrengandik oso urrun daudela. Izan ere, plazer arrotzen eragina ia da norberaren atsekabeena bezalakoa, atsekabeok jarduerak hondatzen baitituzte; adibidez, norbaitek desatsegina eta atsekabegarria badu idaztea edo kalkulatzeko, ez du idazten edo ez du kalkulatzeko, jarduera neketsua baitu. (20) Hortaz, jarduerari dagokienez, berez dagozkien plazeren eta atsekabeen ondorioak kontrakoak direla gertatzen da, eta jarduera baten berezkoak jarduerak berez sorturikoak dira; eta plazer arrotzei dagokienez, esana dugu atsekabearen eraginaren antzeko zerbait dakartela, hondatu egiten baitituzte jarduerak, modu berean ez bada ere.

Jarduerak euren zinzotasunaz eta ziztrinkeriaz bereizten direnez, (25) eta batzuk nahigarriak izaten direnez, beste batzuk saihesgarriak, eta beste batzuk ez bata ez bestea, plazerari dagokienez ere gauza bera gertatuko da, jarduera bakoitzari berezko plazer bat baitagokio. Beraz, jarduera bertutetsuaren berezko plazera zintzoa izango da, eta jarduera

ziztrinena, zitala; izan ere, gauza ederren desira ere goraipagarria, da eta itsusienena, berriz, gaitzesgarria; (30) halaz ere, jardueretan beraietan, plazerak gogoak baino berezkoagoak dira; alabaina, gogoak eta jarduerak bai denborez bai izatez banandurik daude; plazerak, osteraz, oso gertu daude, eta hain dira bereiztezinak, ezen zalantza dagoen jarduera eta plazera gauza bera izango ote diren. Hala ere, badirudi, behintzat, plazera ez dela adimena, ezta sentsazioa ere (zentzugabea baita), (35) baina batzuei iruditzen zaie gauza bera direla, bereizi ezin daitezkeelako. Beraz, jarduerak desberdinak diren modu berean, plazerak ere bai; ikusmena bere garbitasunaz bereizten da ukimenetik, (1176a) eta, berdin, entzumena eta usaimena, dastamenetik; beraz, berdin bereizten dira plazerak, eta horien artean, adimenarenak, eta denak, elkarren artean.

Badirudi, bestalde, animalia bakoitzari berez dagokion plazer bat dagoela, berezko eginkizun bat bezala, jardueraren arabera plazerak, hain zuzen ere. (5) Eta hori argi geratuko da animaliak banan-banan aztertzen baditugu, zaldi baten plazerak, txakur batena eta gizaki batena plazer desberdinak baitira; Heraklitok dioen bezala, astoek lastoa nahiago dute urrea baino⁶⁴, astoentzat bazka urrea baino atseginagoa baita. Beraz, espezieari dagokionez desberdinak diren animalien plazerak desberdinak dira espezieari dagokionez, eta zentzuzkoa denez, espezie berekoenak ez dira desberdinak. (10) Baina gizakien artean, behintzat, plazerak ez dira gutxi aldatzen, gauza bera batzuek atsegina baitute eta beste batzuek, berriz, atsekabea; eta batzuentzat, atsekabea eta higuigarria da gauza bera ere, eta beste batzuentzat, berriz, atsegina eta maitagarria. Eta hori gauza gozoen artean ere gertatzen da, ez baitzaio gauza bera iruditzen sukarra duenari eta osasuna duenari; ezta beroa dena ere, gaixorik dagoenari eta osasuntsu dagoenari. (15) Eta berdin gertatzen da beste kasuetan ere. Baina horrelako kasu guztietan, ontzat hartzen da gizaki bertutetsuari iruditzen zaiona, eta, dirudienez, hori zuzena bada, eta bertutea eta gizaki ona, ona den aldetik, gauza bakoitzaren neurria baldin badira, gizaki bertutetsuari plazerak iruditzen zaizkionak izango dira benetako plazerak, eta atsegina duen hori izango da atsegina. Baina hari desatseginak iruditzen zaizkion

⁶⁴ Heraklito, frag. 9 (Diels-Krantz).

gauzak norbaiti atseginak iruditzen bazaizkio (20) ez da batere harrigarria, gizakien artean suntsipen eta lohikeria asko sortzen baitira; eta gauza haiek gizaki haientzat eta haien disposizio dutenentzat dira atseginak, eta ez beste inorentzat. Beraz, gizaki guztiek lotsagarritzat harturiko plazerez argi dago ez dela esan behar plazerak direnik, gizaki ustelduentzat izan ezik; baina ontzat harturikoen artean, nolakoa edo zein da gizakiaren berezkoa? (25) Ez ote dago argi jarduerari erreparatuz? Izan ere, plazerak jarduerari jarraitzen diete. Beraz, gizaki bete eta dohatsuaren jarduerak bat nahiz bat baino gahiago izanda ere, horiek hobetzen dituzten plazerak gizakiaren benetako plazerak direla esango dugu, eta gainerakoak, bigarren zentzu batean eta urrunetik, jarduerak bezala.

VI

(30) Bertuteei, adiskidetasunei eta plazerei buruz mintzatu ondoren, zoriontasuna labur aztertzea geratzen zaigu, hura ezartzen dugulako giza aferen helburua. Hortaz, aurrez esandakoa laburbiltzen badugu, eztabaida laburragoa izango da.

Horrela, bada, zoriontasuna aztura bat ez dela esan genuen; izan ere, honela izatekotan bizialdia lo igarotzen duenak ere izan lezake, landare bat bezala bizi denak, alegia, (35) baita malurarik handienak jasaten dituenak ere. Hortaz, hori egokitzen hartzen ez badugu (1176b) – zoriontasuna, neurri handiagoan, nolabaiteko jardueratzat hartu behar baita, aurreko ataletan esan zenez–, eta jardueren artean batzuk beharrezkoak eta beste zerbaitengatik nahigarriak baldin badira, eta beste batzuk, haietaz beraietaz, argi dago zoriontasuna nahigarriak berez eta ez beste zerbaitengatik direnentzat izan behar dela, (5) zoriontasuna ez baitago ezeren beharrean; aitzitik, zoriontasuna autarkikoa da. Bestalde, beraiez nahigarriak diren jarduerak dira jardueragatik beragatik eta ez beste edozergatik bilatzen direnak. Eta badirudi horrelakoak direla bertutearen arabeko ekintzak, gauza ederrak eta bertutetsuak egitea nahigarriak haiengatik beraiegiatik direnen arteko ekintza bat baita; eta, berdin, oliguren artean ere, atseginak ere bai, ez baitira beste zerbaitengatik nahigarriak; (10) izan ere, oliguretatik onura baino kaltea jasotzen dute gizakiek, gorputzaz eta ondasunez arduratzen ez

baitira. Hala ere, zoriontzat harturiko gehienek horrelako olgetetara jotzen dute, eta tiranoen laguntzaileek horregatik hartzen dituzte aintzat horrelako olgetetan gatzdunak direnak, tiranoek irrikatzen duten horretan (15) plazera ematen baitiete, eta haien beharra dute. Badirudi, beraz, olgura horiek zoriontasunari dagozkiola, boterean daudenak jarduera horietan olgatzen direlako; hala ere, horrelako olgurek agian ez dute ezer adierazten, boterean ez baitautza ez bertutea ezta adimena ere; hau da, jarduera bertutetsuen iturria direnak, alegia, eta plazer garbi eta librerik dastatu ez izanik (20) gorputz-plazeretara jotzen badute, ez da horregatik pentsatu behar plazer horiek nahigarriagoak direnik, umeek ere pentsatzen baitute haiek estimatzen dutena onena dela. Hortaz, zentzuzkoa da, umeentzat eta gizonentzat preziatuak diren gauzak desberdinak diren bezala, gizaki ziztrinentzat eta zintzoentzat ere desberdinak azal daitezela. Beraz, askotan esan bezala, (25) preziatuak eta atseginak izango dira gizaki bertutetsuen ustez horrelakoak direnak; gizaki bakoitzarentzat desiragarriena berez dagokion azturaren arabera jarduera izango da, eta gizaki bertutetsuarentzat, hortaz, bertutearen arabera. Zoriontasuna, beraz, ez dago olguran, zentzugabea bailitzateke helburua olgura izatea, eta bizialdi osoan saiatzea eta pairatzea olgatzeagatik. (30) Izan ere, gauza guztiak, nolabait esateko, beste zerbaitengatik aukeratzen ditugu, zoriontasuna izan ezik, hori bera baita helburua. Ahalegin handiak eta lan nekeza olgurarengatik egitea ergela eta oso haurrena azaltzen da; baina jolasean ibiltzea ondoren ahaleginak egiteko, badirudi zuzena dela, Anakarsisen⁶⁵ ustez, olgura atsedenaldiaren antzekoa baita, eta (35) gizakiak etengabe nekez lan egiteko gai ez direnez, atsedenaldiaren beharra dute. Hortaz, atsedentaldia ez da helburu bat, (1177a) jarduerarengatik gertatzen baita. Bizitza zoriontsua bertutearen arabera omen da, eta hori ahaleginei lotuta dago, eta ez olgurari. Eta esaten dugu gauza bertutetsuak barregarriak eta olgurari lotuak direnak baino hobeak direla, eta gizakiaren alde hobearen eta gizaki hobearen jarduera ere, beti, (5) bertutetsuagoa dela; eta gizaki hobearena, hobe eta zoriontsuagoa, jakina. Bestalde, edonor goza liteke gorputz-plazerez, eta esklabo bat gizaki onena baino ez gutxiago; baina giza bizitza ere ezarri ezean, inork ez

⁶⁵ Zazpi Jakintsuetako bat, nahiz eta eszitarra izan.

lio ke esklaboari zorientasuna emango, zorientasuna ez baitatza horrelako olguretan, (10) bertutearen araberako jardueretan baizik, lehenago ere esan bezala.

VII

Zorientasuna bertutearen araberako jarduera bada, zentzuzkoa da bertute gorenaren araberakoa izatea, eta jarduera hori gizakiaren alde onenarena izango da. Hortaz, alde hori adimena nahiz beste edozer izanik, berez agintzen, gidatzen (15) eta gauza ederrei eta jainkozkoei buruzko ezaguera izaten omen duena, nahiz hori bera ere berez jainkozkoei edo gure baitan dagoen alderik jainkozkoena izan, alde horren jarduera berez dagokion bertutearen araberakoa izango da zorientasun betea. Eta esana dago hau begiespen-jarduera dela.

Bestalde, badirudi hori bat letorkeela aurrez esandakoekin eta egiarekin, jarduera hori gorena baita (20) (adimena ere gure baitan dagoen alderik onena baita, eta gauza ezagungarrien artean adimenari dagozkionak); gainera, jarraiena ere bada, etengabe behatu egin baitezakegu, beste edozer baino neurri handiagoan. Eta pentsatzen dugu plazera zorientasunaz nahasturik egon behar dela, eta bertutearen araberako jardueretan atseginena jakituriaren araberakoa dela, denon ustez; (25) badirudi, behintzat, filosofiak plazer miresgarriak dituela bere araztasuna eta bere sendotasuna direla medio; eta zentzuzkoa da dakiten gizakiek modu atseginago batez denbora igarotzea bilatzen dutenek baino. Bestalde, aipaturiko autarkia begiespen-jarduerari buruzkoa izango da gehienbat, gizaki jakintsuak eta gizaki zuzenak, baita gainerakoek ere, bizi izateko gauza beharrezkoak behar baitituzte; (30) baina behin horrelakoez egoki hornituta gero, gizaki zuzenak gizakiak behar ditu haiekiko eta haiekin zuzen jokatzeko, eta berdin ere neurrizko gizakiak eta gizaki adoretuak, baita gainerako guztiek ere; gizaki jakintsuak, bere aldetik, bere buruarekin bakarrik egonik ere, begiespenarako gai da, eta zenbat eta jakintsuagoa izan, orduan eta gehiago; eta agian jardungo du hobeki laguntzaileekin batera, baina, hala eta guztiz ere, autarkikoarena da. (1177b) Iruditu liteke, halaber, begiespen-jarduera harengatik berarengatik maitatzen den

bakarra dela, begiespenaz gain ez baita handik ezer lortzen, eta jarduera praktikoetatik, berriz, gehiago edo gutxiago eskuratzen dugu ekintzaz gain. Badirudi, halaber, zoriontasuna aisian datzala, lan egiten baitugu aisia edukitzeko, (5) eta gerra egiten dugu bakea edukitzeko. Beraz, bertute praktikoaren jarduera politikako edo gerrako ekintzetan gauzatzen da, eta horien inguruko ekintzak, gure ustez, atsenaldi-gabeak dira, eta gerrakoak, erabat (inork ez baitu gerra aukeratzen gerragatik beragatik, eta inork ez du gerra prestatzen; (10) erabat hilzailea azalduko bailitzateke adiskideak etsaiak bilakatuko balitu batailak eta sarraskiak gerta daitezen); baina politikoaren jarduera ere bada atsenaldi-gabea eta, politikaz gain, botereak eta ohoreak eskaintzen ditu edo, behintzat, zoriontasuna bere buruarentzat eta hiritarrentzat, hori eta politika desberdinak izanik eta (15) desberdina bezala nabari bilatzen dugularik. Hortaz, bertutearen arabera ekintzen artean ekintza politikoak eta gerraren ingurukoak edertasunean eta handitasunean nabarmentzen badira –eta horiek atsenaldi-gabeak dira, helburu baterako joera dute eta ez dira haiengatik beraiegatik nahigarriak; adimenaren jarduera, oster, begislea izanik, badirudi seriotasunean nabarmentzen dela, (20) eta hartaz gain inolako helbururako joerarik ez duela, eta berez dagokion plazera ere baduela (horrek, gainera, jarduera areagotuko du), eta hortaz, gizakiaren baitan gerta daitezkeen autarkia eta aisia eta nekerik eza, eta gizaki dohatsuari ezartzen zaizkion gauza horiek guztiak, begiespen-jardueraren arabera dira nabari. Beraz, hori izango da gizakiaren zoriontasun betea, (25) bizialdi osoa betetzen badu, zoriontasunaren edukietan ez baitago ezer bete gabe. Baina, horrelako bizitza gizakiari dagokiona baino hobea izango litzateke, ez baita horrela bizi izango gizakia den aldetik, bere baitan jainkozkoa den zerbait dagoen aldetik baizik; eta hori eta giza konposatua desberdinak diren neurrian, bere jarduera eta beste bertute baten arabera ere desberdinak izango dira. (30) Hortaz, adimena, jainkozkoa baldin bada, gizakiari dagokiolarik, adimenaren arabera bizitza ere jainkozkoa izango da giza bizitzari dagokiolarik. Baina gizakiak izan arren ez ditugu giza pentsamenduak bakarrik eduki behar – batzuek aholkatzen duten bezala–, ezta hilkorrak izanik pentsamendu hilkorrak bakarrik eduki ere; aitzitik, ahal den neurrian hilezkortu eta gure baitan dagoen alderik gorenaren

arabera bizi izateko gauza guztiak egin, bolumenari dagokionez txikia bada ere, (1178a) gauza guztien artean nabarmentzen baita bere ahalmenean eta bere duintasunean. Iruditu liteke, halaber, gizaki bakoitza alde hori dela, alde hori norberaren alde nagusia eta onena bada, behintzat. Beraz, zentzugabea izango litzateke baten batek bere bizitza aukeratuko ez balu, beste batena baizik. Eta lehen esandakoa orain ere bada egokia, (5) gizaki bakoitzarentzat izatez dagokiona onena eta atsegina baita bakoitzarentzat; hortaz, gizakiarentzat ere izango da adimenaren arabera bizitza, gizakia, gehienbat, hori bada, behintzat. Bizitza hori izango da, orduan, zoriontsuena ere.

VIII

Bigarren zentzu batean, beste bertuteen arabera bizitza izango da zoriontsua, bertute horien arabera jarduerak gizatiarrak baitira. (10) Izan ere, zuzentasuna, adorea eta gainerako bertuteak elkarrekiko praktikatzan ditugu itunetan, tratuetan eta askotariko ekintzetan, baita pasioetan ere, kasu bakoitzean komenigarria dena behatzen dugularik; eta nabaria da gauza horiek guztiak gizatiarrak direla. Bestalde, badirudi batzuk gorputzetik datozela, (15) eta bertute etikoa, sarritan, pasioei estu lotuta dagoela. Zuhurtzia ere badago bertute etikoari uztartuta, eta hori zuhurtziari, zuhurtziaren prinsipioak bertute etikoaren arabera baitira, eta bertute etikoen zuzentasuna, zuhurtziaren arabera. Bertute horiek pasioei elkarturik daudenez, (20) giza konposatuari buruzkoak izango dira, eta giza konposatuaren bertuteak gizatiarrak dira; beraz, baita bertute horien arabera bizitza eta zoriontasuna ere. Adimenaren bertutea, berriz, bananduta dago; baina horri buruz esandakoa nahikoa da, gai hori zehatzago aztertzea ez baita aurretik ezarritako gure helburua. Irudi lezake, bestalde, adimenaren bertuteak kanpoko baliabideen behar txikia duela, edo bertute etikoak baino neurri txikiagoan. (25) Izan ere, demagun bi bertuteek modu berean behar dituztela gauza beharrezkoak, nahiz eta politikariak, neurri handiagoan, gorputzari buruzko gauzetan lan egiten duen gogor –desberdintasuna txikia bailitzateke–; jardueri dagokienez, oster, desberdintasuna handia litzateke. Izan ere, gizaki oparoak ondasunen beharra izango

du bere oparotasuna gauzatzeko, eta gizaki zuzenak, beraz, (30) mesedeak itzultzeko (asmoak ikustezinak baitira, eta zuzenak ez direnek ere zuzen jokatuarena egin nahi dute), eta gizaki adoretuak kemenaren beharra du bere bertutearen arabera ekintza bat gauzatzeko badu, eta gizaki neurritxoak, askatasunaren beharra; nola argituko ote da, bestela, neurritxo hori edo beste edozer dela? Eztabaidatzen da, bestalde, (35) zer ote den nagusiagoa, bertutearen hautapena edo bertutearen ekintzak, bertutea bietan datzala kontuan hartuta. (1178b) Agerikoa da bertutearen betea bietan izango dela, eta ekintzarako gauza asko behar direla, eta ekintza zenbat eta handiagoa eta ederragoa den, orduan gauza gehiago behar. Hala ere, begiesten duen gizakiak ez du horrelako beharrik bere jarduerarako, gauza horiek, nolabait esateko, eragozpenak ere baitira begiespenerako, (5) gizakia den eta beste gizaki askorekin bizi den neurrian bertutearen arabera portaera jardutea aukeratzen du, eta, beraz, baliabide haien beharra izango du gizakiak bezala bizi izateko. Zoriontasun ezin hobea begiespen-jardura bat dela ondoko honetatik ere argitu liteke: suposatzen dugu jainkoak dohatsuak eta zoriontsuak direla gehienbat; (10) baina zer nolako ekintzak izan behar dira eureak, gure ustez? Ekintza zuzenak, agian? Ez litzateke barregarria izango jainkoak itunak egiten, gordailuak itzultzen eta horrelako gauza guztiak egiten azalduko balira? Edo ekintza adoretuak, arriskuei irrimo aurre egiten hori ederra delako? Edo ekintza oparoak, agian? Baina nori emango ote diote? Zentzugabea litzateke haiek ere dirua edo halako zerbait balute. (15) Eta nolakoak lirateke euren ekintza neurritxoak? Laudorioa ez ote litzateke truskila izango, jainkoek desira ziztrinik ez dutelako? Sakon miatuko bagenu ere, ekintzen inguruko zirkunstantzia guztiak jainkoentzat txikiak eta duinezak azalduko litzazkiguke. Hala eta guztiz ere, denok uste dugu haiek bizirik daudela, jakina, eta, orduan, jardunean daudela eta ez lo, beraz, Endimion bezala. (20) Hortaz, bizidunari ekintza eta, are gehiago, sormena kentzen badizkiogu, zer geratzen zaio, begiespena ez bada? Beraz, jainkoaren jardura, bere dohatasunean berezia, begiespen-jardura izango da; hortaz, jardura gizatiarretan, horren antzekoena zoriontsuena izango da. Eta horren adierazle dugu gainerako izaki bizidunek zoriontasunean parte ez hartzea ere, (25) horrelako jardueraz guztiz gabeturik daude eta. Izan

ere, jainkoentzat bizitza osoa dohatsua da; gizakientzat, berriz, jainkoen jardueraren nolabaiteko antzekotasuna duen neurrian; eta gainerako izaki bizidunen artean, inor ere ez da zoriontsua, begiespenean parte hartzen ez dutelako, inolaz ere. Hortaz, begiespena zabaltzen den neurrian, horrela ere zoriontasuna, eta begiespenerako trebeagoak direnak, (30) zoriontsuagoak izateko ere bai, ez akzidentalki, begiespenaren arabera baizik, hori berez baita preziatua. Beraz, zoriontasuna nolabaiteko begiespena izango da. Hala ere, begiesten duen gizakiak kanpoko ongizatearen beharra ere izango du, giza izaera ez baita begiespenerako autarkikoa; aitzitik, gorputzaren osasuna, (35) elikadura eta gainerako zainketak ere behar ditu. (1179a) Baina ez da pentsatu behar, jakina, zoriontsua izan nahi duen gizakiak, kanpoko ongirik gabe zoriontsua ezin izanik, ongi askoren eta handien beharra izango duenik, autarkia ez baitatza ugaritasunean, eta ekintza ere ez, eta lurra eta itsasoa menperatu gabe ere ekintza ederrak egin daitezke, (5) ongi gutxiz baliatuz ere bertutearen arabera joka baitaiteke (eta hori argiro ikus daiteke, hiritar arruntek ekintza zintzoak egiten baitituzte, eta ez boteretsuek baino gutxiago, gehiago baizik); nahikoa izango da ongi gutxi edukitzea, bizitza zoriontsua bertutearen arabera jarduten duenarena izango baita. Eta Solonek⁶⁶ ere (10) agian adierazten zuen zuzen, haren ustez, gizaki zoriontsua zela, nahiz eta ongi gutxiz baliatuz, ekintzarik ederrenak egin eta neurritsu bizi izana zena; izan ere, ongi gutxi edukita ere bete behar den guztia egin daiteke. Eta dirudienez, Anaxagorasek⁶⁷ ere uste zuen gizaki zoriontsua ez zela gizaki aberatsa, ezta boteretsua ere, esaten baitzuen (15) ez litzatekeela harrituko gizaki gehienei gizaki zoriontsua bitxia irudituko balitzaie, gehienek kanpoko ongien arabera ebazten baitute, ongi horiek bakarrik hautematen dituzte eta. Hortaz, badirudi jakintsuen iritziak gure arrazoimenduekin bat datoze; beraz, horrelako iritziek ere badute nolabaiteko sinesgarritasuna; hala ere, gauza praktikoetan egia ekintzetatik eta bizitzatik abiatuta ebazten da, haietan egia nagusia baita. (20) Hortaz, honaino esandako guztia ekintzekin eta bizitzarekin erlazionatuz azertu behar da, eta ekintzei egokitzen bazaie,

⁶⁶ ik. Herodoto, *Historiae* I, 30-32.

⁶⁷Anaxagoras 46 A 30 (Kranz-Diels).

onartu, baina ados ez badago, arrazoibide gisa soilik hartu. Bestalde, adimenaren arabera jarduten eta adimena zaintzen duenak dirudi onena eta jainkoek maitatuena. Izan ere, jainkoek gizakieen gauzekiko nolabaiteko ardura badute, (25) dirudien bezala, zentzuzkoa izango da, bestalde, jainkoak onena eta haien antzekoena den horretaz gozatzea (eta hori adimena izango da), eta adimena gehien maitatzen eta ohoratzen dutenak saritzea, jainkoek maite dutenaz arduratu eta zuzen eta ederki jokatzeko dutelakoan. Eta agerikoa da hori guztia (30) jakintsuaren baitan bereziki gertatzen dela. Beraz, hori jainkoek maitatuena izango da, eta, seguruenik, zoriontsuena ere bai. Eta horregatik, orduan, jakintsua izango da zoriontsuena.

IX

Beraz, gauza horiei eta bertutei buruz, eta, halaber, adiskidetasunari eta plazerari buruz, orokorrean, nahikoa hitz egin badugu, pentsatu behar ote da hasieran geure helburua zen ikerketa amaituta dagoela? (35) Edo, esaten den bezala, gauza praktikoetan helburua ez da gai bakoitza begiestea eta ezagutzea, (1179b) gauza horiek egitea baizik? Hortaz, bertuteari dagokionez ere, ez ote da nahikoa ezagutzea, edo, aitzitik, bertutea edukitzen eta erabiltzen saiatu behar dugu, edo, beste edozein biderik balego, zintzoak bilakatzen? Izan ere, gizakiak zintzoak bilakatzeko arrazoinamenduak nahikoa balira, (5) haiek zuzen ekarriko lizkigukete onura asko eta handiak, Teognisek⁶⁸ dioenez, eta horiek eskuratu beharko genituzke. Hala ere, gazte oparoak bultzatzeko eta adoretzeko, eta aiurri onekoa eta benetan edertasunaren maitale amorratua den gaztearen baitan bertutea finkatzeko indarra badutela agerikoa bada ere, (10) ezin dituzte gizaki gehienak zintzotasunera eta noblezira bultzatu, berez ez baitute lotsaz men egiten, beldurrez baizik, eta jokaera arbuiagarriari ez dio uko egiten ahalkearengatik, zigorrerengatik baizik. Izan ere, pasioaren menpe bizi direnek berez dagozkien plazerak eta horiek ekarriko dituzten baliabideak bilatzen dituzte, eta ekiditen dituzte plazeren aurkako atsekabeak; (15) baina ez dakite inondik inora ederra eta benetan atsegina dena zer

⁶⁸ Teognis, 432-434.

den, inoiz dastatu ez dute eta. Hortaz, zein arrazoinamenduk zintzotu litzake horrelako gizakiak? Egia esan, ezin daiteke –edo ez da erraza– aspaldidanik aiurrian ondo ezarrita dagoena arrazoiaren bidez eraldatu. Eta, dudarik gabe, geure burua zorionekotzat hartu beharko genuke, zintzoak izateko beharrezkoak ditugun baliabide guztiak edukita, bertutearen parte hartu ahal izango bagenu. (20) Batzuek pentsatzen dute gizakiak berez bihurtzen direla onak, beste batzuek, usadioz, eta beste batzuek, heziketaz. Horrela, bada, agerikoa da naturaren aldea ez dagoela gure menpe, eta nolabaiteko jainkozko kausarengatik gizaki guztiz zorionekoen baitan dagoela. Bestalde, arrazoinamenduak eta heziketak agian ez dute eraginik izango kasu guztietan; aitzitik, aurrez dizipuluaren arima (25) landua izan behar dute usadioek –hazia elikatzen duen lurrak bezala–, edertasunez gozatzeko eta gorrotatzeko, pasioaren arabera bizi denak ez baitu entzungo bere pasiotik aldenduko lukeen arrazoinamendua, eta ez du ulertuko; nola aldatu liteke horrelako disposizioa duena? Oro har, ez dirudi pasioak amore ematen duenik arrazoinamenduez, indarrez baizik. Beraz, aldeztu aurretik aiurria, nolabait, berez egokitua izan behar da bertuterako, (30) ederra dena maitatuz eta lotsagarria dena higuinduz. Baina, zaila da gaztetatik bertuterako heziera zuzena aurkitzea, horrelako legeen menpe hezita ez badago, bizimodu neurritsu eta irmoa ez baita atsegina gehienentzat, eta gutxiago ere gazteentzat. Horregatik, hezkuntza eta portaera legeek araututa izan behar dira, (35) ohizkoak bihurtuta ez baitira atsekabetuak izango. (1180a) Baina agian ez da nahikoa izango, gaztetan heziketa eta ardura egokiak jaso izana; aitzitik, heldutasunean ere ikaste horietan jardun eta horietara ohitu behar dutenez, horretarako ere izango dugu legeen beharra, eta oro har, beraz, bizialdi osorako, gizaki gehienek beharrari egiten baitiote men arrazoiari baino neurri handiagoan, (5) eta zigorrei, ontasunari baino. Horregatik, hain zuzen ere, batzuek pentsatzen dute legegileek bertuterantz bultzatu eta akuilatu behar dutela ontasunarengatik, aurrez ohitura onetan hezita daudenek arretaz entzungo dituztelakoan; eta men egiten ez dutenei eta berez moldakaitzak direnei zigorrak eta zentzagarriak ezarri; eta erabat sendaezinak direnak, erbesteratu; (10) izan ere, ederra denari begira bizi den gizaki zintzoak arrazoiari egingo dio men, eta plazera irrikatzen duen gizaki ziztrina, aldiz, atsekabez

zigortu behar da, uztarri-aberea bezala. Horregatik diote, halaber, atsekabeak oso gogorrak izan behar direla, gehien maitatzen dituzten plazerei ahalik eta aurre handien egin diezaieten. Beraz, esana den bezala, ona izan behar den gizakia (15) ederki hezia eta ohituta izan behar bada, eta horrela bizi usadio zintzoetan, eta ziztrina dena ez egin, ez nahi gabe ez nahita, hori guztia lortuko dute adimen jakin baten eta indarra duen ordena zuzenaren arabera bizi direnek; hala ere, aitaren aginpideak ez du indarririk, ezta beharrik ere, (20) ezta, oro har, inolako gizon soilarenak ere, erregea edo horrelako bat ez bada; legeak, ostera, ahalmen behartzailea du, eta nolabaiteko zuhurtziaz eta adimenatik sorturiko adierazpena da. Bestalde, gizaki batzuek euren barne-bulkadei aurre egiten dietenak arbuiatzen dituzte, horiek zuzen egin arren; legea, ostera, ez da higuigarria ongia agintzen duenean. Lazedemoniarren hirian bakarrik, (25) edo hiri gutxitan, arduratu omen da legegilea hiritarren hazieraz eta eginbeharrez; hiri gehienetan, ostera, horrelako gaiez ez dira arduratu, eta hiritar bakoitza nahi duen moduan bizi da, emaztea eta umeak Ziklopeen moduan gobernatuz⁶⁹. Beraz, onena izango da denentzat eta zuzen arduratzea; (30) baina denentzako ardurarik ez badago, badirudi norberari egokituko zaiola bere umeak eta adiskideak bertute aldera bideratzea, edo, behintzat, helburu hori edukitzea. Esandakotik, badirudi hobeto egingo duela legegilea bada, agerikoa baita elkartearikiko zainketak legeen bidez egiten direla, (35) eta zainketa onak lege onen bidez. (1180b) Eta badirudi ez litzatekeela ezertan bereiziko legeak idatziak ala ez idatziak balira, ezta gizaki bakar bat ala gizaki asko hezteko balira ere, musikari, gimnastikari edo gainerako jardueri gertatu bezala. Izan ere, hirietan legeek eta ohiturek indarra duten bezala, horrela ere etxeetan (5) aitaren esanak eta usadioek, eta are gehiago kasu horretan, ahaidetasunagatik eta onurengatik, umeak aita maitatzeko eta men egiteko aurrez jarrita baitaude berez. Halaber, banan-banako heziketa eta heziketa publikoa desberdinak dira, medikuntza bezala: orokorrean, sukarra duenari atsedena eta baraua komeni zaizkio, baina norbaiti agian ez; (10) eta boxeo-maisuak ere agian ez die boxeolari guztiei borroka-mota bera irakasten. Badirudi, beraz, banan-banakako heziketa zehatzagoa

⁶⁹ Homero, *Odyssea* IX 112-115.

izango dela, zaintzea norberarena izanik bakoitzak hobeto aurkituko baitu onuragarria duena. Hala ere, banako bakoitzaz hobeto arduratu ahal izango du unibertsala ezagutzen duen sendagileak, gimnastikaren maisuak edo beste edozeinek, hau da, guztientzat edo horrelakoak direnentzat onuragarria zer den dakienak (esaten baita zientziak orokorra denarenak direla, eta horrelakoak dira); (15) hala ere, ezjakina izanda ere, agian ez du ezerk eragozten norbaitek pertsona jakin bat ondo zaintzea, esperientziaren bitartez pertsona bakoitzaren baldintzak zehatz-mehatz miatu baditu, beste edonor sorosteko gai ez izanik ere euren buruaren sendagilerik onenak diruditen gizaki batzuk bezala. (20) Hala eta guztiz ere, aditua eta begieslea izan nahi duenak, behintzat, unibertsalerantz bideratu behar izango du eta ahal den neurrian ezagutu, esana denez zientziak unibertsalari buruzkoak baitira. Eta beharbada, arduraren bidez gizakiak, neurri handiagoan edo txikiagoan, hobeak egin nahi dituen ere legegilea izaten saiatu beharko da, (25) baldin eta legeen bidez onak egiten bagara, behintzat; izan ere, ez dagokio edozeini, jakina, bere aurrean agertzen den edozeini jarrera ona ematea, baizik eta, hori norbaiti badagokio, dakienari egokituko zaio, medikuntzan eta beraiekin nolabaiteko ardura eta zuhurtzia ekartzen dituzten gainerako arteetan bezala.

Eta horren ondoren, aztertu beharko dugu, beraz, nondik edo nola bihur daitekeen gizaki bat legegile? Edo, gainerako kasuetan bezala, (30) politikarien alboan ikasi beharko du? Izan ere, badirudi legegintza politikaren adar bat dela. Edo ez ote dirudite antzeko azaltzen politikagintzan eta gainerako zientzietan eta ahalmenetan? Izan ere, gainerakoetan gizaki berberak omen dira ahalmenak erakusten dituztenak eta horietan jarduten dutenak, sendagileak eta margolariak bezala; (35) baina politikagintza, oster, sofistek agintzen dute irakastea, baina haien artean inork ez du jarduten, (1181a) hiriko agintariek baizik; eta horiek badirudi nolabaiteko ahalmenari eta esperientziari esker egiten dutela, adimenari esker baino; izan ere, agerian dago horrelako gaiei buruz ez dutela idazten eta hitz egiten (nolabait ere, hori, agian, ederragoa litzateke, auzitegiko eta legebiltzarreko diskurtsoak egitea baino), eta, (5) bestalde, ez dituztela beren semeak edo beren adiskideren batzuk politikariak egin. Hala

ere, zentzuzkoa litzateke hori egitea, benetan egin ahal izango balute, behintzat, ez bailieke ezer hoberik utzi izango beren hiriei; halaber, ez lukete euren buruarentzat eta, beraz, euren adiskide maiteentzat ere ez horrelako ahalmena baino gauza hoberik edukitzea hautatuko. Hala ere, badirudi, jakina, esperientziak ez duela neurri txikian laguntzen; (10) horrela ez balitz, gizakiak ez bailirateke praktika politikoaren bidez politikariak bilakatuko; horregatik, politikaz jakiteko asmoa dutenek esperientziaren beharra omen dute aurretik. Bestalde, agerikoa da politikan jarduten duten sofistak ahalmen politikoa irakastetik urrun daudela, orokorrean ez baitakite nolakoa eta zeri buruzkoa den; izan ere, jakingo balute, ez lukete esango politika eta erretorika gauza bera direnik, ezta politika erretorika baino gutxiago denik ere, (15) eta ez lukete pentsatuko legeak egitea erraza denik bikaintzat harturiko legeak bilduz. Izan ere, lege onenak aukera daitezkeela uste dute, aukeraketa ezagumenaren kontua ez balitz bezala, eta zuzen bereiztea zereginik handiena ez balitz bezala, musikari dagokion bezala. Izan ere, gai bakoitzean esperientzia dutenek lanak zuzen ebatzi, (20) eta zeren bidez eta nola burutzen diren eta zer zeri egokitzen zaion ulertzen dute; esperientziarik ez dutenek, ostera, nahikotzat hartu behar dute lana ongi ala gaizki egina dagoen bereiztean ez huts egitea, margolaritzan bezala. Eta legeak, politikaren lanak omen dira. (1181b) Beraz, gizaki bat nola bihur liteke legegile legeen ezagutzatik abiatuz, edo ebatz lezake onenak zeintzuk diren? Izan ere, agerikoa da sendagileak ere ez direla egiten idazlanetatik abiatuz. Hala ere, badira sendagileak sendabideak esaten ez ezik, gaixo bakoitza nola sendatu eta nola zaindu litekeen ere esaten saiatzen direnak, (5) bakoitzaren aztura bereiziz; halaz ere, badirudi hori guztia baliagarria dela esperientzia dutenentzat, baina baliogabea, esperientziarik ez dutenentzat. Era berean, beraz, legeen eta konstituzio politikoen bildumak oso baliagarriak izango dira egokia dena eta horren kontrakoa zer den eta zer zeri dagokion aztertu eta bereiz dezaketenentzat; baina horrelako bildumak azturarik gabe miatzen dituztenek, ostera, (10) ezin izango dute egoki ebatzi, berez ez badakite egiten, behintzat; dena dela, gai horiei buruz agian lor lezakete ezagumen handiagoa.

Beraz, gure aitzinakoez legegintzari dagokiona aztertu gabe utzi zutenaz, agian izango da egokiagoa geuk ikertzea, baita, ondorioz, orokorrean, konstituzio politikoari dagokiona ere, (5) ahal den neurrian giza kontuei buruzko filosofia bete dadin. Lehenik eta behin, beraz, saia gaitzen berrikusten gure aurrekoek nolabait zuzen esandakoa; gero, bildutako konstituzio politikoetatik abiatuta, saia gaitzen ikusten zer-nolako gauzek babesten edo hondatzen dituzten hiriak, eta zer-nolako gauzek babesten edo hondatzen duten gobernu-modu bakoitza, eta zein arrazoiengatik gobernatzen diren hiri batzuk ongi, eta beste batzuk, kontrakoa. (20) Izan ere, hori guztia aztertu ondoren, agian ikusi ahal izango dugu batera gobernu-modurik onena zein den, eta gobernu-modu bakoitza nola ordenatu behar den, eta zein legez eta ohituraz baliatu behar den. Beraz, has gaitzen horretaz mintzatzen.